

JOSU AMEZAGA ALBIZU

SATELITE BIDEZKO NORTASUNAK
Latinoamerikan Canal Vasco ikusten



JOSU AMEZAGA ALBIZU

SATELITE BIDEZKO NORTASUNAK

Latinoamerikan Canal Vasco ikusten

Utriusque Vasconiae

© Josu Amezaga Albizu

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2004ko maiatza

ISBN: 84-933270-3-4

Lege-gordailua: BU 209-2004

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	5
ESKER ONAK	9
SARRERA	11

LEHEN ZATIA

1. SATELITE BIDEZKO TELEBISTAK: ZERUTIK DATORREN	
ERREALITATEA	19
Satelite bidezko telebistak munduan	20
Sateliteak eta komunikazio eremuak	21
Satelite bidezko telebistak hizkuntzen arabera	28
Hizkuntza gutxituak eta satelite bidezko telebistak	
Europako Batasunean	32
2. EUSKAL TELEBISTAREN LATINOAMERIKARAKO JARDUERA ...	39
Canal Vascoren historia	39
Hedadura	41
Helburuak	46
Programazioa	49
Programazioaren mugak	49
Programen azterketa	52

BIGARREN ZATIA

3. DIASPORAKO EUSKALDUNAK	59
Nortzuk dira diasporako euskaldunak?	60

Euskal diasporaren testuinguru soziohistorikoa	62
Argentinako euskaldunen historia luzea	63
Venezuelako euskaldunen historia laburra	80
Gure informatzaileen soslai	89
Jarrera ezberdinak euskaltasunaren aurrean: jagon <i>versus</i> eraiki	97
Canal Vascoren kontsumoa	101
Kontsumoaren trinkotasuna	101
Saio lehenetsi eta errefusatuak	104
Canal Vascoren buruzko balorazioa	108
4. CANAL VASCOREN ERABILERA EUSKAL NORTASUNAREN	
PROZESUETAN	115
Nortasun etnikoen garrantzia gaur egungo munduan . . .	116
Euskaltasunaren bizipena diasporaren baitan	122
Nortasunaren erabilera pragmatikoak: itzulerako emigrazioa	128
Euskaltasunaren eraikuntza	130
Euskaltasuna beste nortasun etnikoekin lehian	130
Besteen berrezagutzea	133
Euskal nortasunaren bilakaera	138
Harreman zuzenetan oinarritutako komunitatea <i>versus</i> irudimenezkoa	145
Harreman zuzenen eraikuntza Canal Vascoren eskutik: esperientzia digitala	150
Irudimenezko komunitatearen eraikuntza: ikurrekiko identifikazioa eta eremu publikoan parte hartzea . . .	157
Euskaltasunaren jagotea	171
Estereotipoak eta besteen aurreko agerpena	176
5. ONDORIOAK	191
ITURRIAK	199
ERANSKINAK	
Elkarrizketatuen soslai	207
Canal Vascoren programazio parrilla	210

“Cuando yo vi el Canal Vasco, que yo siempre tenía esa inquietud, ¿viste?, pero no tenía relación ni con otros vascos, ni tenía nada. Entonces, claro, cuando vi el Canal Vasco... y entonces ahora vélo, ¿viste? Incluso yo no sabía que era tan hermoso, la zona no sabía que era tan hermosa. Porque yo, cuando hablaban de Bilbao, yo pensaba, ‘bueno, Bilbao, qué sé yo, los lugares así’, yo pensaba ‘sí, una ciudad industrial, muchas chimeneas’, no sé, qué sé yo qué me imaginaba. Y no creía que estaba todo enmarcado, todo en montañas. Toda esa zona, yo no lo sabía. Y lo supe por el Canal Vasco, ¿viste? Cosas así como esas. Entonces a mí me maravilla, ¿viste? Yo veo todo eso y cada vez me pongo peor, porque, ¿viste? me maravilla, me encanta, este... bueno, qué sé yo. Siempre esa ilusión, ¿viste? Y hubiera querido, por ejemplo, conocer primero a mi tío, poderlo conocer. Y, este.. fijáte vos, sabés qué cosa, ver la tumba donde está mi abuelo, porque mi papá me cuenta que mi abuelo murió cuando mi papá tenía 8 años en un accidente en la mina. Y, este, y mi papá, fijáte que era más así, como más duro, más de cerrado... pero cuando él hablaba del papá, este, él me decía... porque mi papá era un hombre tan bueno, tan bueno y se le llenaban los ojos de lágrimas. Y a mí siempre me quedó, ¿viste? Fijáte que yo tengo mi abuela enterrada acá, que no la conocí, y no me... no tengo esa sensación como yo tenía con mi abuelo allá por lo que... siempre mi papá, porque era tan bueno, tan bueno, y del modo en que murió. Y siempre digo ‘cómo quisiera ver donde está!’ Esas cosas, ¿viste? que uno las tiene acá, y ¡bueno! Ver cada cosa, o cada lugar... A veces pasan, por eso te digo, cuando a veces pasan este, con la cámara que pasan la música, y no saber el lugar uno, ‘mirá si es el lugar donde nació mi papá’, o qué sé yo, ¿viste? Y quisiera saberlo, que lo quisiera, ¿viste?, esas cosas que son muy.. más, que a lo mejor no tienen nada que ver con la gente que ve Canal Vasco acá” (María Jesús)

ESKER ONAK

Umea nintzelarik, banderatxo bi egoten ziren gure egongelako horman zintzilik, parez pare biak. Venezuelako bandera bata, ikurrina bestea. Horrela hazi gintuzten gurasoek, bi nazio nortasunekin batera. Biak osagarri, kontraesanik gabe bizi ziren gure baitan. Gure jaioterria eta gure arbasoen jaioterria. Bikoiztasun horrek lagundu dit, txikitatik, nazio nortasuna erlatibizatzen, gora behera politikoen ondorioz nazio nortasuna eksklusibotasunaz definitzen den Euskal Herriko testuinguruan. Aldi berean, diasporako biztanleen nortasunekiko interesa piztu izan dit, gogoeta soziologikora hurbildu naizenean. Horregatik, eta ordena kronologikoa errespetatuz, lan honetako lehenengo esker onak gurasoei zor dizkiet. Beraiek irakatsi baitzidaten aldi berean herrialde bi maitatzen, eta bi lekutakoa sentitzen.

Ordena berari so eginez, lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak finantzatutako ikerketa proiektu batean oinarrituta dagoela esan behar dut¹. Nori berea da gizalegea, eta kasu honetan erakunde horri dago-kio esker onak jasotzea. Harekin batera EITBren laguntza ere eskertu behar dut, bereziki Andoni Ortuzar Zuzendari Nagusiak, Jose Felix Azurmendi Nazioarteko Zuzendariak, eta honen Idazkari Josune Bañalesek emandako laguntzagatik.

Aipatu ikerketa, bestalde, 2002an zehar burutu genuen, lantalde batean. Ni neu zuzendaria izanik, Maider Osa Etxeberria eta Joseba

¹ 1/UPV 00016.323-H-14276/200 erreferentzia zenbakia.

Otondo Bikondoa izan ziren gainerako lantalde kideak. Beraz, liburu hau ez zen argitara emango haien ezinbesteko partaidetzarik gabe. Haien ekarpenetatik hoberena jasotzen saiatu naiz, baina neurea da egon daitezkeen oker guztien erantzukizun osoa.

Aipamen berezia merezi dute, hemen, gure elkarrizketetan parte hartu zuten 66 lagunek. Gurekin konpartitu zituzten informazio, iritzi eta bizipenengatik bezainbeste, gu tratatzean erabilitako maitasunagatik eta beren sentipenen adierazkortasunagatik. Emozioz betetako deskribapenekin batera, behin baino gehiagotan grabatu genituen zenbaiten negar malkoak, hemendik milaka kilometrotara eta gizaldi batzuetara egonda ere herri honekin duten identifikazio afektiboaren seinale. Horrek guztiak biziki berrindartu zuen lehendik geneukan ideia: alegia, diasporako euskaldunek oso modu trinkoan bizi dezaketela euskal nortasuna. Elkarrizketa haietatik ikasi ditugunak islatzen saiatu gara liburu honetan; baina gure idazteko eta kontatzeko gaitasunak eman dezakeena baino haratago doa benetan ikasi dugunak. Horregatik, agindutako anonimatua gordetzearen haien izenak aipatuko ez badi-tugu ere, mila esker guztioi.

Lana argitaratzeko egindako eskaintzagatik eta emandako laguntzagatik ere badut zorrik: Paulo Iztuetaekin hain zuzen. Honakoa beste ekarpen txo bat du, euskal pentsamendua eta ikerkuntza argitara emateko aspalditik daraman ekinbidean. Horrekin batera, testua irakurtzean jarritako arreta eta egindako iradokizunak eskertzeko modukoak izan dira.

Azkenik, bada laguntza bat ordena kronologikoan koka ezin daitekeena, lanaren prozesu osoan agertu baita. Hasieratik amaieraraino, ondoan izan dudana Idoia lagunarena da. Laguntza hau oso modu ezberdinetan eskuratu ahal izan dut: lanerako sostenguan, beretzat behar zuen denboran, informazioan, lanaren nondik norakoan eztabaidan, ideien kontrastean, edota testuaren zuzenketan. Horregatik, berari, eta bion seme Iñaut, Jon eta Enekeri, eskaintzen diet liburu hau.

Algortan, 2004ko Urtarrilean

SARRERA

Kitzikagarria iruditu zait aspalditxotik kanpotarrak etxera sartu eta beren herriko telebista ikusten hasten direla irudikatzea. Kanpotarra, herrialde ezberdin batetik, kultura eta hizkuntza ezberdin batetik, erlijio ezberdin batetik datorren kanpotarra, alegia, nolabait beste-erenduta bizi da. Bere bizitzaren zati bat herri hartzailean du, baina bere baitako beste zati bat kanpoan. Batzuek ia dena dute jatorritik: hizkuntza, kultura, nortasuna, oroitzapena, interesa edota are ametsa ere. Beste batzuk, ibilbide ezberdinetan, jatorria galduz joan dira, eta gutxiago geratu zaie zaintzeko: sarritan, arbasoek utzitako sentimendu batzuk baino ez, edo familiaren historiari buruzko kontakizunen zatiak. Kanpotarrak etxetik irten eta herrialde hartzailearekin egiten du topo, eskaieran bertan ez bada auzunean, lantokian edo merkatuan. Askok eta askok jatorria birsortzeko guneak bilatzen dituzte arrotza zaien eremuaren erdian: lagun artean, propio sortutako zentroetan, eta abarretan. Horixe erakusten digu, esaterako, euskaldunen diasporaren historiak. Gero, etxera itzultzean, beren espazio goxoaz jabetzen dira, eta hor aukera izango dute berriro ere beren jatorria birsortzeko, ama hizkuntza berreskuratuz, erlijio propioa praktikatuz, edo etxetik ikasitako jakiak sukaldatuz. Baina eremu goxo horretan ere, herrialde hartzailean sartuko zaie etxera, egongelaraino normalean, telebistaren bitartez.

Izan ere telebista, esan beharrik ez, sozializazio agente izugarri handia dugu. Eta besteak beste, kanpotarrak etxeko atearen beste aldean utzitako gizartearen luzapena da. Telebista "nazionala" estatu-nazioaren birsortzaile handia izan baita. Estatu-nazioak beharrezkoa izan duen bateratasuna (lurraldea, kultura, hizkuntza, oroitzapen kolektiboa, merkatua eta kidesasuna) ezin hobeto hedatu du komunikabide

honek joan den mendearen bigarren erdian zehar. Ikuspuntu geografikotik begiratuta, estatuaren bazter guztietaraino hedatu du naziotasuna. Ikuspuntu sozialetik ikusita berriz, gizartearen maila eta sektore guztietara eraman du nazioaren ideia. Arrakasta handiz gainera, kontuan hartuta egunero pantailari begira ematen dugun ordu kopuru handia.

Horregatik ematen du zer pentsatua arestiko galderak. Nola bizi du kanpotarrak etxeko egongelatik bere herri urruneko telebista ikusi ahal izateak? Laguntzen ote dio horrek bere jatorriarekiko loturak sendotzen eta trinkotzen, edota aparteko eraginik gabe pasatzen den gertaera da? Azken honi erantzuteko, nahikoa du irakurleak bere inguruan bizi den auzokide atzerritarren bat bilatu, eta haren teilatu edo balkoiari begirada ematea: kasu askotan, antena parabolikoa aurkituko du, norberaren herriko telebista ikusi ahal izateak hartu duen garrantziaren seinale.

Fenomeno hau ez da mugatzen satelite bidezko telebistara, eta komunikazioaren teknologia berriek zabalduko beste eremu batzuetako praktikan ere antzeman daiteke. Interneten erabilera horren erakusle nabarmena da. Era berean, gertaera hau gizartearen prozesu zabalago eta sakonagoen testuinguruan kokatu behar dugu. Hauen artean, talde nortasunen garapenarekin zerikusia duten batzuk aipa ditzakegu: estatu-nazioen izaeran aldaketa nabarmenak ari dira gertatzen, bereziki Mendebaldeko Europan; gizarte zibil nazionalak desartikulatzen ari dira, globalizazio prozesuen ondorioz (jadanik ez dute gure bizitzaren zentzua aurkitzeko balio, Manuel Castellsek azaltzen duen legez); barne zein kanpo migrazio mugimenduak eta herrialde batetik besterako kontaktuak gero eta handiagoak dira, pertsonen eta informazioen garrarioaren hazkundera esker; hiri handietako harreman sareak modu berrietan berrantolatzen ari dira, lehen mailako harreman afektiboak ahulduz, bigarren, hirugarren eta lauugarren mailakoak zabalduz, eta anonimotasuna haziz; orain arte kultura, jatorria, hiritartasuna, edo gizarte maila bezalako kanpoko faktore objektiboek emanak zetozen talde nortasun garrantzitsuak, gaur egun norberak egindako hautuan oinarritzen dira gero eta gehiago, horretarako eskura ditugun ikurren ugartasuna nabarmena delarik. Eta abar.

Satelite bidezko telekomunikazioak, beste medio batzuekin konbinatuta zabaldu duen telebistaren eskaintza berria mehatxutzat hartzen dute askok. Zabaltasun horrek kolokan jar baititzake estatu-nazioaren eredu europarrean nagusi izan den ideia: alegia, lurralde jakin bati

(zehazkiago, lurralde jakin bateko biztanle guztiei) hizkuntza, kultura eta nazio nortasun bat dagozkiola. Telebista nazionala izanik ideal hori lortzeko bide eraginkorrenetakoa, bestelako erreferente eta kultur ereduak hedatzen dituzten telebista kanalak mehatxutzat ikusten dira. Eskaintza berria mundu mailan hegemonikoak diren kulturetatik badator, gainera (eta halaxe gertatzen da eredu anglosaxoiekin), kultur inperialismoaz mintza gaitezke.

Ikuspuntu hori defendatzeko motiboak aurkituko ditu gure ingurari so egiten dionak. Euskal Herriko edozein txokotatik, antena paraboliko merke bat jarriarik, ehunka telebista kanal har ditzakegu, berrogei hizkuntza baino gehiagotan. Hori, muturrera eramanda, honela irudika daiteke: gaur egungo Euskal Herrian telebista kanal bakarra har dezakegu euskaraz, tamileraz edo urdueraz beste, alegia. Eta turkieraz baino dezente gutxiago.

Baina globalizazioari lotutako beste zenbait gertaeretan bezala, hemen ere joera kontrajarriak garatzen ari dira aldi berean. Izan ere, Euskal Herrian bizi diren kanpotarrek beren jatorrizko nortasuna sendotzeko erabil dezaketean medio berbera erabil dezakete Euskal Herriatik kanpo diren euskaldunek bereari eusteko². Haientzat ere askatu baita komunikabideen jarduera lurralde fisikoaren mendetasunetik. Horrela, Latinoamerikara joandako euskaldunek, eta haien ondorengoek, aukera dute orain beren etxera sartu eta Euskal Herriarekin konektatzeko. Minutu edo ordu batzuetan zehar, hamaika mila kilometrotara dagoenari Euskal Herria bizitzeko bidea ematen dio satelite bidezko telebistak. Bizipen birtuala da, nolabait esateko, kristalezko pantailak ematen diona; baina neurri batean, ez da Euskal Herrian ordu berean saio berbera ikusten ari denaren bizipena baino birtualagoa. Azken finean, hemengoak ere Euskal Herriaren bizipenaren zati garrantzitsu bat hedabideen bitartez burutzen baitu. Zati hori da, gaur egungo komunikabide berriei esker, urrunean dagoenak bizi dezakeena.

Lan hau, beraz, satelite bidezko telebistak zabaltzen dituen mehatxu eta aukeren artean, azkenak arakatzeko pentsatuta dago. Alegia, zer eman diezaiokeen satelite bidezko telebistak euskal nortasunaren garrantzian, zehazkiago diasporan diren euskaldunen nortasunaren erai-

² "Euskalduna" diogunean ez dugu euskaraduna esan nahi, euskal nortasuna duena baizik. Besterik azaldu ezean, bigarren esangura honetan erabiliko dugu terminoa lan osoan zehar.

kuntzari. Euskal Herrian migrazioarako tradizio handia egon da mendeetan zehar, industrializazioaren garaietara arte herri txiroa izan baikara. Gerora ere jarraitu du kanporako migrazioak –barrurako migrazioarekin batera–, egoera ekonomiko ezberdinek eraginda bezalatsu gatazka politikoez ere bultzatuta. Kanpora joandako euskaldunek, leku eta garai ezberdinetan, ahalegin handiak egin dituzte beren taldeetan nari eusteko, eta euskal nortasuna birsortzeko, dauden tokian daudelarik. Adibide ugari ezagutzen ditu gure arteko edonork. Horregatik, XXI. mende honetan diasporako euskaldunek satelite bidezko telebista beren nortasuna birsortzeko erabiltzen dutela diogunean, ez dugu esan nahi orain arte euskaltasuna birsortzen ez zutenik. Zentzu horretan ez gara gertaera berri batez ari. Aitzitik, egungo diasporako euskaldunek Canal Vasco erabiltzen duten modua bera, euskal nortasuna ulertzeko era eta berreraikitze jarduera ugarien barruan ulertu beharra dugu. Satelite bidezko euskal telebistaren erabilera, jarduera horien arteko bat baino ez da. Baina jarduera berria, eta orain arte pentsaezina ziren aukerak eskaintzen dituena. Hortxe ikusten dugu ikergai honen interesa. Gertaera berri honek mendeak dituen prozesu bati –diasporako euskaltasunaren birsorkuntzari– zer dakarkion aztertzea da, beraz, gure interesgune nagusia.

Lan hau Latinoamerikako euskaldunek Euskal Herritik igorritako telebista nola ikusten duten ikertzeko saioa da, hartara. Kontsumoaren deskripzio hutsean geratu barik, Canal Vasco euskaltasuna eraiki eta birsortzeko nola erabiltzen duten aztertu nahi dugu. Zein ezagutza, zein iritzi, zein jarrera edo zein jarduera garatzen dituzten Canal Vascoren erabilerari loturik. Eta nola txertatzen den euskal telebista ikustearen praktika beren euskaltasuna eraiki eta birsortzeko bestelako praktiken barnean.

Baina aldi berean, Euskal Herrian bertan gero eta ugariagoak ditugun beste diasporak ulertzeko saioa da honako hau. Zeharka bada ere, kanpoan diren euskaldunekin gertatzen diren prozesuen ispiluan begiratu nahiko genuke, gure artera etorri berriekin zer gerta litekeen hausnartzen hasteko. Magrebetik, Saharaz harantzagoko Afrikatik, Andeetatik edota Europako herrialde ezberdinetatik etorritako “besteek” hemen nondik nora jo dezaketen hausnartzen hasteko garaia delakoan, baliagarria izan daiteke euskal diasporak zer egiten duen jakitea. Horregatik, Latinoamerikako euskaldunen kasu konkretuaren inguruan egin dugun azterketatik ateratako ondorioek beste gogoeta ildo batzuetarako bidea eman beharko ligukete. Eta ezinbestekotzat dugu

hori, kontuan hartuta munduko leku ezberdinetatik etorritako jendearen zein informazioen jariora ugalduz joango dela hurrengo hamarkadetan zehar. Izan ere, urruneko euskaldunek nortasunari nola eusten dioten jakitea, garrantzitsua da herri gisa dugun nortasunak etorkizunean izango dituen erronkez pentsatzeko. Baina helburu horretan ez du garrantzi txikiagoa urrunetik etorritakoek beren nortasunekin nola jokatuko duten hausnartzeak.

Lanaren egitura

Lana bi zatitan banatuta dago. Lehen zatiko lehenengo atalean, satelite bidezko telebistaren errealitateari erreparatzen diogu, mundu mailako ikuspegi bat emanez. Horretarako arlo honen dimentsioak aztertu ditugu, bereziki hizkuntza ezberdinen presentzia neurtuz. Era berean, Europako Batasuneko hizkuntza gutxituetako komunitateek medio honekiko duten egoera aztertu dugu, eta beren ahaleginetan planteatzen zaizkien zenbait arazo azaldu ere. Honen guztiaren helburua, satelite bidezko euskal telebistaren errealitatea testuinguru zabalago batean kokatzea da. Bigarren atalean, bestalde, Canal Vascoaren beraren deskribapena egiten da: bere historia, hedadura, helburuak eta programazioa aztertu ditugu, Latinoamerikako euskaldunek jasotzen duten seinalearen berri zehatza emanez.

Liburuaren bigarren zatian euskaldun horiek Canal Vasco nola ikusten duten eta beren euskal nortasuna birsortzeko nola baliatzen duten planteatzen da. Horretarako, aztertu ditugun euskal komunitateen testuinguru soziohistorikoan sakontzen dugu lehenik, hirugarren atalean, Canal Vasco nola erabiltzen duten hausnartzeko euskaltasunaren aurrean dituzten jarrerak eta burutzen dituzten bestelako praktikak ulertu behar ditugulakoan. Atal berean, Canal Vascoaren kontsumoaren deskribapena egiten da.

Laugarren atalean, euskal telebistaren erabileraren analisisian eta interpretazioan murgiltzen gara. Diasporako euskaldunek euskaltasuna birsortzeko burutzen dituzten jardueren barnean kokaturik, Canal Vascoaren erabilerak beren euskal nortasuna garatzen nola laguntzen dien aztertu dugu. Kasu batzuetan, lehenago ondo finkatutako euskal nortasuna sendotzeko materialak eta aukerak aurkitzen dituzte diasporako euskaldunek Canal Vascon. Beste kasu batzuetan, ernetzeko zain dagoen hazia bezalakoa da beren euskaltasuna, eta Canal Vascon horretarako baldintza egokiak eskaintzen dizkie horrelako egoeran

daudenei. Era berean, Canal Vascoaren bitartez batzuk zein besteak euskal komunitatearen partaide nola sentitzen diren erakusten da, bai eta nola komunitate horrekiko interesa, konpromisoa eta harrotasuna sendotzeko osagaiak jasotzen dituzten euskal telebistatik. Azkenik, bosgarren atalean ondorio orokorrak biltzeko ahalegina egin dugu.

LEHEN ZATIA

1. SATELITE BIDEZKO TELEBISTAK: ZERUTIK DATORREN ERREALitatea

Komunikaziorako teknologia berri bakoitzaren hedapena gizarteko testuinguru historikoei loturik agertzen da, garapen teknologikoaren eta gizartearen bilakaeraren arteko harreman dialektikoan. Adibidez, esan dezagun Gutenbergek duela bost mende eta erdi asmatutako inprimaketa tipologikoak bidea ireki ziola idatzizko testuen zabalpen masiboari, ordura arte oso eremu urrietara hedatzen ziren ideia eta eza-gutzak espazio berrietara hedatuz. Era berean, irratiak lehenik eta lur azaleko telebistak geroago, etxeetako goxotasuneraino eraman zituzten gune batetik hedatutako hitz eta irudiak, hauek lurralde jakin bateko biztanle ia guztien esku jarritz. Horrela, inprimaketarako prentsak nazio nortasunean eta nazionalismoan izan zuen garrantzia ukatzerik ez dagoen bezalaxe, irratiak eta telebistak estatu-nazioetako homogeneizatzatze kulturalen izan dutena ere nabarmena da. Prozesu hauetan, bestalde, komunitate batzuek beren hizkuntza medio berrietara sartzea lortu dute, eta horren ondorioz garapen bide berriak iritsi dituzte. Aitzitik, beste komunitate batzuk albo batera utziak izan dira, lehene-kiko desabantaila nabarmenean geratuta (hauxe litzateke, esaterako, ahozko kulturen kasua).

Gaur egun, sateliteen teknologiak bide berriak ireki dizkio telebistagintzari, irudi eta hitzen hedapena lurralde jarraituen eremutik planetako leku ezberdinetara pasatzea ahalbidentuz. Horren ondorioz, komunikazio eremu berriak osatzeko aukera zabaltzen ari da. Hemen ere, bestalde, munduko kultura eta komunitate guztietatik batzuk dira

euskarri berrietara iritsi direnak, eta beste asko kanpoan geratzen ari dira, berriro ere desabantaila nabarmenean.

Atal honetan, beraz, satellite bidezko telebista gaur egun zertan den ikusiko dugu, mundu mailako ikuspegi orokorretik abiatuta gure ingurune hurbilagoa den Europako Batasuneko egoerara jeisteko, eta beti ere hizkuntza ezberdinak lortzen ari diren kokapenari arreta berezia jarritz.

Satellite bidezko telebistak munduan

Gaur egun 160 satellite ari dira munduari jiraka, telebista emanaldiak igortzen³, Soviet Batasuna zenak eman zion hasiera sateliteen historiari, 1957an hondartzako baloiaren tamainako Sputnik satelitea aireratu zuenean, zerutik lurrera irrati seinalak igor zitzan. Orduetik hona milaka tramankulu jaurti dira espaziora oso helburu ezberdinekin. Hauetako askok telekomunikazioekin dute zerikusia: alegia, lur azalaren puntu batetik igorritako seinala zeruan errebotatu eta beste puntu bat edo batzuetara hedatu. Jakina, seinala bera zerutik lur azalaren eremu handietara zabaltzeko aukera honek bide berriak ireki dizkie telebista emanaldiez arduratzen direnei, berrogei urtez seinala garraiatzeko erabilitako baliabideei (lur azaleko uhinak eta kable bidezko garraioak, nagusiki) ate berriak irekiz⁴. Telebista eta irrati seinalak eskala handian hedatzeko aukera berri honek, hartara, eraldaketa ga-

³ Iturria: Satco Satellite Control Center (2002). Bestelakorik adierazten ez dugun bitartean, munduko satelitei buruzko informazioak iturri honetan eta datuen lan-keta propioan oinarritzen dira.

160ko kopurua sateliteen kokapen geoestazionarioen kopuruari dagokio, alegia, kokapen berean satellite bat baino gehiago dagoenean (hala nola Astrak Ekialdeko 19,2º kokapenean dituen 7 satellite kopsizionatuen kasuan) unitate bakar gisa zenbatu ditugu. Kopsizionatutako satellite guztiak banan bana zenbatuz gero, telebista seinalak igortzen dituzten sateliteak 277 izango lirateke (Satco 2002).

Bestalde, telebista seinalak igortzen dituzten sateliteak bakarrik hartu dira kontuan. Bestelako zereginak burutzen dituzten sateliteak (bestelako teekomunikazioak, meteorologia, zientzia, arlo militarreko eginkizunak eta abar) milaka batzuk dira.

⁴ Komunikazio konpainiek satelitearekin duten interes handiaren adibidea espazioan jadanik sumatzen den saturazioa dugu. Izan ere, telebistako seinalak igortzeko biderik egokienetakoa ekuadorraren parean orbita geoestazionarioa duen satelitea da (alegia, lurraren azalaren perpendikularrean eta harekin batera jiratzen duena), 36.000

rrantzitsuak eragin ditzake medio horietan, eta horregatik komenigarria da hizkuntzen eta kulturen garapenari planteatzen dizkion erronkak eta aukerak aztertzea. Izan ere, Canal Vasco bera aukera horietako baten gauzatzea baino ez da.

Aipatu ditugun 160 satellite horiek 6.000 telebista kanal eta 3.000 irrati kanal inguru igortzen ari direla estima dezakegu. Kopuru horretan, satellite bat baino gehiagotan igortzen diren kanalak sartuta daude. Horietatik guztietatik kanal *ezberdinak* zenbat diren kalkulatu nahi dugunean, aldiz, oztopo handiak aurkitzen ditugu. Izan ere, kasu batzuetan kanal bera (hots eduki bera) izen ezberdinekin ager daiteke satellite ezberdinei buruz aurkitu ditugun erroldetan. Beste kasu batzuetan, eduki bera hizkuntza ezberdinetan igorria da, eta zehaztu behar harko genuke orduan kanal ezberdintzat ala berdintzat hartzen ditugun. Eduki berberak ordutegi ezberdinetan edota bestelako ordenean ematen dira ere, eta berriro irizpide finkorik ez dugu aurkitzen ezberdintasuna definitzeko. Horiengatik eta telebista eskaintza egunero aldatzen ari izateagatik, gaur egun munduan satellite bidez hedatzen diren kanal ezberdinak zenbat diren modu zehatzean kalkulatzeko oso konplexua da. Gure estimazioen arabera, kopuru hau 3.000 eta 4.000 artean egon liteke. Era berean, esan ahal dugu kanal hauetatik erdia baino apur bat gehiago (% 58) kodetutako eran igortzen direla, alegia, seinala deskodetu ahal izateko aldizkako ordaineko deskodetzaila eskatzen dutenak. Gainerakoak (% 42) irekiak edo *Free To Air* erakoak dira, eta hauek ikusteko eta entzuteko nahikoa da dagokion satelliteari begira dagoen antena parabolikoa eta hargailua izatea.

Satelliteak eta komunikazio eremuak

Jadanik esan dugunez, igorpen gune bakar batetik lur azalaren eremu handietara iristea ahalbidetzen du satellite bidezko igorpenak,

kilometroko altueran. Elkar ez oztopatzeko, satellitei 2 gradu (hots, 1.600 kilometroko) alde ematen zaie beren artean. Horregatik, 180 dira orbita horretan erabil daitezkeen kokapen geoestazionarioak. Oso populazio txikia biltzeagatik interes gutxi duten eremuak estal ditzaketen kokapenak alde batera uzten baditugu (Itsaso Barearen gaineko batzuk esaterako), erreza da ulertzea arestian aipatu ditugun 160 satelliteek, egitez, saturatu egin dutela jadanik orbita hori. Hori dela-eta, bestelako orbita eta satelliteen konbinaketak erabiltzen hasiak dira, saturazio horri aurre egiteko.

zeruan milaka kilometrotara kokatutako sateliteko errebotearen bitartez. Horrela, orain arte telebista kanalen hedapen eremua hesitzen zuten muga geografiko, politiko eta are ekonomiko asko, lausotu edo desagertarazi egiten ditu seinala zerutik lurrera hedatzeko ahalmenak. Horixe da, adibidez, lurralde zabala duten herrialdeen kasua: lur azaleko uhinen bidezko hedapena bermatzeko osatu beharreko sarea ekonomikoki bideraezina den bitartean, satelite bidezko hedapena askoz ere eskuragarriagoa da. Muga politikoez, bestalde, indarra galtzen dute, beste herrialde batetik zerura eta handik lurrera jaistea ekiditerik ez baitute estatuek. Satelite bidezko telebistak, halaber, seinala bera aldi berean munduko txoko ezberdin askotara hedatzeko aukera irekitzen du, kanal bat lurralde jakin eta jarraitu bati ezinbestean loturik dagoelako ideiarekin hautsiz.

Honengatik hain zuzen esan dezakegu satelite bidezko telebistak modu nabarmenean ukitzen dituela estatu-nazioaren inguruan antolatutako komunikazio eremuak. Eremu hauek lehen mailako eremuak izan dira XX. mende osoan zehar, eta estatu-nazioak lurraldea, legedia, merkaturia eta kultura (bereziki hizkuntza) bateratzearen ondorioz eraiki dira, aldi berean bateratze horri lagundu dioten bitartean. Horrela eraiki dira komunikazio eremu handi hauek, legedi, enpresa egitura eta hizkuntza hegemoniko komunek ezarritako mugek definituta. Satelite bidezko telebistak ordea eremu hauek gainditzeko bidea ematen du, eremu ezberdinak sortzeko euskarriak emanez.

Batere azterketa zorrotzegirik egin gabe, baina gaur egun gertatzen ari diren eraldaketen sakontasuna erakusteko, ikus ditzagun satelite bidezko telebista azken hamarkada hauetan nola erabili izan den komunikazio eremu ezberdinak eraikitzeko. Horretarako honako ereduak fokatuko ditugu, bakoitzetik adibideren bat edo beste jarritz: eremu nazionala bera; eremu pan-nazionala; eremu geostrategikoa; hizkuntza eremua; eremu diasporikoa; eta, azkenik, eremu globala.

Eremu nazionala

Esana dugu lurralde zabala edo geografikoki konplexua duten estatu-nazioek aukera dutela, satelite bidezko igorpenak emana, telebista nazionalen seinala beren mendeko txoko guztietara iristarazteko, beste sistema batzuekin baino modu merkeago eta egokiagoan. Har dezagun Indonesiaren adibidea. Indonesiak 200 milioi biztanle ditu, 6.000 ugartetan banatuta. Herbehereetatiko independentzia 1949an lortu

ostean, beste estatu poskonolonial askok bezala, nazioa eraikitze lanari ekin zion. Horretarako ideologia hegemonikoa, buruzagia (Sukarno), estatu sistema eta hizkuntza ofiziala (indonesiera) ezarri ziren, hirurehun talde etniko eta hizkuntza ezberdin dituen artxipielago batean. Baldintza hauetan, komunikabide nazionalak, irratiak eta telebistak bereziki, egiteko garrantzitsua zuten, estatu-nazioaren eraikuntzan aurrera egiteko. Asmo honekin, satelite bidezko telebista eta irrati geografía zail hartan eremu nazionala eraikitze bide bakarra ziren, eta ondo asko jabetu zen honetaz Indonesiako estatua, bere lehenengo satelitea (Palapa A1) 1976an zeruratu zuenean (Labrador eta Galace).



Eremu nazionala: Cakrawarta (Indonesia).

Satelite bidezko telebista komunikazio eremu nazionala eraikitze-ko erabili den beste adibide bat Kanada dugu. 10 milioi kilometro karratuko lurraldea izan arren, Kanadako populazioaren % 90 Amerikako Estatu Batuekiko mugaren alboan biltzen da, hegoaldean beraz, herri indiarrek Iparraldeko probintzietan sakabanatzen diren bitartean. Baldintza hauetan ezinezkoa zuen Kanadako estatuak, lur azaleko edo kable bidezko telebistaren bidez, lurralde osoa eta populazio guztia barne hartuko zuen komunikazio eremua eraikitzea, alde batetik hegoaldeko auzokidearen presio kulturalari aurre egiteko eta bestetik populazio indiarrek ere nazioan integratzeko. Satelite bidezko irrati eta telebista, berriro ere, aukera paregabea izan zuen Kanadako estatuak nazio eremua osatzeko, bera izanik munduko laugarren herrialdea teknologia hau erabiltzen, lehenengo Sputnik aireratu eta bost urtera. 1972erako bazuten beren satelite propioa, Anik 1.

Nazio eremua birsortzen duten beste telebista adibide batzuk zenbait kanal komertzial ditugu. Hauxe izango litzateke plataforma digitalen kasua (*Sky Digital, Canal Satellite France, Sky Mexico, Direct Tv, Via Digital* eta abar luzea). Plataforma hauek, bakoitzak bere eremuan, beste herrialdeetako kanalak hedatzen dituzten arren, merkatu nazional bati zuzentzen zaizkio, eta eremu horretako kanalez eta herrialde horretako hizkuntza ofizialean zabaltzen dituzte beren seinale gehientzuek. Horregatik, nazio eremua berrindartzen dutela esan dezakegu. Bestalde, era honetan hedatutako kanalen seinalak sarritan fisikoki estatu-nazioen mugak gainditzen badituzte ere, beren ikusgarritasuna



*Eremu nazionala: Anik
(Kanada).*

mugatu egiten da arrazoi ekonomiko edo politikoengatik. Honen adibide bat Suitzako SRG kanalarena dugu. Kanal honen seinala, satelitetik, Mendebaldeko Euro-para hedatzen da, eta posiblea da bertako edozein txokotatik jasotzea. Baina modu kodetuan igortzen denez, beharrezkoa da deskodetzeko txartel elektronikoa. Txartela, ordea, Suitzako biztanleei edota atzerriar bizi diren suitzarrei baino ez zaie saltzen. Hartara, kasu honetan telebista eremu nazionalak lurraldearen mugak gaingitzen ditu, baina ez nazio-tasun administratiboarenak. Honek argiro erakusten du, batetik, merkatuak eremu nazionala birsortzean duen garrantzia; eta bestetik, arrazoi ekonomikoak ahalmen teknikoek nola gailentzen zaizkien.

Eremu nazionala ez da beti birsortzen estatuaren eskutik edo haren laguntzarekin. Askoy eta Robinsek esaterako Turkiako telebista komertzialaren joerak aztertu dituzte. Haien esanetan, telebista komertzial turkiar batzuk satelitea baliatzen dira, seinala atzeritik igorriarik, Turkiako estatua presionatzeko, hain zuzen ere, komunikazioaren arloan duen politika murriztailea ireki dezan (Askoy eta Robins 2000). Antzeko jorkaera izan zuen Espainian, telebista pribatuen legea indarrean jarri baino lehenago, 1988an Londresetik hedatzen zen Canal 10 kanalak.

Eremu pan-nazionala

Nazio eremua eraikitze bezala, eremu pan-nazionala eraikitzeo euskarri estimagaitza eman dezake satelite bidezko telebistak. Horren adibidea Arabsat satelite konpainia dugu. Konpainia hau Arabiar Estatuaren Ligaren eskutik sortu zen, panarabismoa gori-gorian zegoen hamarkada batean, 1967an. Bere helburuen artean, Liga osatzen zuten herrialdeetako jarduera sozial eta kulturalak batera jartzea zegoen, nahiz eta ez zuten beren satelite propioa 1985era arte aireratu. Euskarri honetaz baliatuta, Arabsatek herrialde arabiarren arteko elkarkidetzak bultzatu nahi du, estatu-nazioez haratago doan mugimendu batean. Egitasmo honen errealitateetako bat, kontraesanek jositako hala ere (nazio arabiarren batasunaren proiektuak tokian tokiko oligarkien boterea kolokan jartzen baitu), *Al Jazeera* telebista entzutetsua dugu. Telebista honek, jakina denez, herrialde arabiarretako populazioaren


atxikimendu handia lortu du, estatu-na-
zioen mugak errez gainditzen duen iritzi
publiko baten eraikuntzari laguntza
ukaezina emanez.

Hain emaitza onik eman ez duen
beste adibide batzuk Mendebaldeko
Europar eginiko saioak ditugu. Europa-
ko ikus-entzunezko eremua eraikitze-
ko ahaleginak duela hamarkada batzuetatik
ari dira gauzatzen⁵: horren erakusgarri
dira *Mugarik Gabeko Telebistarako Liburu*

Berdea txostena (eta haren ondotik eratorritakoak), edota *Eurosport* eta
Euronews kanalak. Saio hauek, Enrique Bustamantek dioenez, azken
finean satellite bidezko komunikazioak irekitzen zituen aukerekiko
konfidantzaren gainean burutu ziren (Bustamante 2003).

Eremu geostrategikoa

Arabsat-en sorreraren atzean, herrialde batzuen arteko lankidetzaz
bultzatzeko asmoa agertu zen. Beste kasu batzuetan ordea, herrialde
bat da (zehazkiago, herrialde bateko estatua) beste herrialde batzuk
fokatzen dituena, herrialde haietan bere eragina eta presentzia areago-
tzeko asmoz. Hauxe da Turkiaren kasua. Otomandar Inperioaren
oinordeko gisa, Soviet Batasunaren erorketaren ostean zabaldu zitzaiz-
kion aukerez baliatu nahi izan da Turkia. Izan ere, Europako estatu
sozialistak desagertzean, berkokapen geostrategikorako atea zabaldu
zaio estatu turkiarrari. Alde batetik, duela mende bat eskasera arte
inperio bereko kide izan diren herrialde europarrak ditugu (Balka-
netako errepublikak, Bulgaria eta abar). Bestetik, Soviet Batasunatik
independentsia lortu ostean sortu diren Asia Erdialdeko errepublikak
(Kazakhstan, Turkmenistan, Uzbekistan, Tajikistan edo Kirgizistan),
zeintzuk jatorri turkiarreko hizkuntzaz mintzatzen diren herriek popu-
latuta baitaude. Honek, Europako hegoekialdetik Txinaren muga-
raino zabaltzen den eremu kultural baterako oinarriak eman litzake,
eta horretaz nahi luke, hain zuzen, Turkiako estatuak baliatu bere indar



*Eremu pan-nazionala:
Arabsat.*

⁵ Europako konbergentzia prozesuen barnean hedabideei eman zaien garrantziaren
zein emaitzen analisi kritiko baterako, ikus oro har P. Schlesingerren lana (1991).



Hizkuntza eremua: Hispasat (Espainia).

geostrategikoa areagotzeko (Askoy eta Robins 2000). Horregatik, munduaren berrantolaketa testuinguru honetan, 1990etik aurrera satelite bidezko telebista erabiltzeari ekin zion Turkiak, eragin hori areagotzeko tresna garrantzitsutzat harturik. 1992an TRT telebista jarri zuen airean, eta 1994an bere lehenengo satelitea (Turksat) jaurti zuen espaziora, aipatu dugun eremua fokatuz.

Hizkuntza eremua

Eremu geostrategikoa bezala, hizkuntza eremua ere satelite telebista askoren helburua da. Hurbiltasunagatik Hispasat satelitea aipa dezakegu. Espainia eta Latinoamerika batuko zituen zubi gisa diseinatu zen 1989an, eta lehen satelitea 1992an aireratu zen. Aireratze urtea, jakina, ez da deskuiduan gertatu, eta Amerikaren “aurkikuntzaren” mendeurrenen testuinguruan kokatu behar da: Sevillako Erakusketa Unibertsala, Bartzelonako Joko Olinpikoak, eta abar. Mendeurren haren ingurukoak bultzatu ziren helburu berarekin, beraz, bultzatu zen Hispasat ere: espainoltasunaren zabalkundea Latinoamerikan, hizkuntza bera konpartitzen duten herrialdeetara zuzenduz. Horrela, ikusiko dugunez, Hispasaten itzalak Amerikako Hegoaldean, Erdialdean eta Iparraldean gaztelera nagusi den lurralde guztiak estaltzen ditu (Kalifornia izan ezik)⁶.

Eremu diasporikoa

Satelite bidezko telebistaren beste erabilera bat, beren jaioterritik kanpo dauden diasporeri zuzendutakoa da. Diasporak, batzuetan, leku bakar batean biltzen dira, eta beste batzuetan munduan zehar sakabanututa daude. Batzuei zein bestetzuei zuzentzeko asmoa gobernuetatik, enpresa komertzialetatik zein bestelako erakundeetatik etor daiteke, eta arrazoi ezberdinak ager daitezke asmo horren azpian. Txinako

⁶ Hizkuntzen hedapenean oinarritutako komunikazio eremuei buruzko beste kasu batzuk ikusteko, John Sinclairren lanetara jo (Sinclair, 1996).

kasuan, adibidez, arrazoi ekonomikoek pisu handia dute. Karim H. Karimen arabera, munduan zehar sakabanatuta dauden txinarrek ekarpen ekonomiko oso garrantzitsua egin diezaiekete Txinari: diaspora osatzen duten 55 milioi txinarren urteroko irabaziak Txinan bizi direnen 1.200 milioiren barne produktu gordinaren parekoak dira jadanik (Karim 1998). Errealitate honen aurrean, bai Txinako estatuak bai Hong Kong-en finkatutako konpainia pribatuek interes berezia dute populazio honekiko loturak mantendu eta areagotzeko, eta satellite bidezko telebista bide eraginkorra izan daiteke horretarako, hala zeharka (jaioterriarekiko lotura sendotuz) nola zuzenean (merkataritzarako produktuen publizitatearen bidez). Antzeko zioak aurki genitzake, adibidez, Latinoamerikako zenbait telebista katek AEBetan dauden diaspora latinoei zuzendutako telebista kanalen atzean.

Eremu diasporikoa satellite bidezko telebista erabiliz birsortzen duen bestelako kasu bat *Med-Tv* telebista kurdua dugu. Kurduak estatirik gabeko herririk handiena osatzen dute munduan (35 milioi pertsona), eta diasporari zuzendutako telebista propioa zuten, sateliteari esker. Telebista honek Londresetik igoarazten zuen seinala zerura eta handik, Hotbird 4 satelitean errebotea eginda, Europako mendebalde osoa hartzen zuen, Ekialde Hurbila eta Afrikako iparraldearekin batera. Aipagarria da seinala nekez iristen zela Krudistanera bertara: horretarako 1,80 metroko diametrodun antena erabili beharko litzateke. Baina 80 zentimetroko antena nahikoa zuten Europa eta Mediterraneokoan bizi ziren kurduak beren telebista ikusi ahal izateko. Telebista hau itxi egin zuen gobernu britainiarrak, Turkiako estatuaren aurkako indarkeria bultzatzearen akusaziopean, 1999an. Gaur egun ordea kurduak bi kanal dituzte berriro abian, satellite bidez: *Kurdsat*, Irakeko kurduak sortua eta eguneko 6 orduko emanaldiak dituena⁷; eta *Medya*



Eremu diasporikoa: Med Tv (Kurduak).

⁷ Datu hau Amerikako Estatu Batuetako zein Erresuma Batuko armadak 2003ko udaberrian Irak inbaditu aurrekoak dira. Inbasioaren ostean gertatutako aldaketek, informazio zehatzik ez dugu lerro hauek idazten ari garen bitartean.

Tv, Turkiako kurduak egina, eguneko 13 orduko emanaldia dituena. Biak iristen dira lehenago aipatu dugun eremura (hots, diaspora kurdua sakabanatuta dagoen eremu europarrera) baina ez Kurdistanera, eta lehena AEB eta Kanadara ere iristen da.

Eremu globala

Beste eredu bat, zalantzarik gabe, eremu globalari zuzentzen zaizkion telebistena dugu; edo, nahiago bada, mundu osoari zuzendutakoak. Adibide ezagunena *BBC World* telebistarena da. Kanal hau 28 satelite ezberdinek igortzen dute munduko txoko guztietara, batzuetan modu irekian eta beste batzuetan kodetuta. Kategoria honetan sartuko lirakeke, era berean, bestelako telebista publiko zein pribatuak, hala nola *CNN*, edota jatorrizko matrize bati lotuta baina tokian tokiko edizioak erabiliz mundu osora iristen direnak (*MTV*).

Kategoria honetan ere, baina helburu politiko eta komertzialetatik at, sartuko litzateke *MTA International (Muslim Ahmadiyya Television)*. Ahmadiyya, mundu osoko 174 herrialdetan hedatuta dagoen talde islamiarra da, eta beren aldarrikapenen arabera 170 milioi jarraitzaile ditu⁸. Herrialde islamiar batzuetan debekatuta dago, eta bere telebistak Londresetik igortzen du seinala, 8 satelite ezberdinen bitartez munduko ia leku guztietara iritsiz. Zortzi hizkuntzatan hedatzen dute programazioa, telebistaren bidez eremu erlijioso eta globala osatuz.

Satelite bidezko telebistak hizkuntzen arabera

Akatsen bat edo beste izateko arriskua gure eginez, mundu osoan hedatzen diren satelite bidezko telebistetan erabiltzen diren hizkuntza nagusiak zein diren aztertzen saia gaitzke. Horretarako Satco zentruaren datuak erabili ditugu oinarritzat, geroago datuak garbituz eta zenbait kasutan banan bana egiaztatuz. Gure kalkuletarako, satelite bat baino gehiagotan errepikatutako kanalak ere zenbatu ditugu, lehenago aipatu ditugun zailtasunak direla medio. Era berean, ondoren aipatuko ditugun hizkuntzak kanal bakoitzean erabiltzen diren hiz-

⁸ Iturria: <http://www.alislam.org>

kuntza nagusiak dira; hots, kanpoan geratzen dira hizkuntza nagusia izan gabe kanal bakoitzean erabiltzen diren bestelakoak (esaterako, euskara bera Canal Vascoren kasuan). Aipatu beharreko beste kontu bat honakoa da: Satco zentruak bere datu basea osatzeko erabiltzen dituen iturrien ugaritasuna dela-eta, batzuetan kanal bati atxikitzen zaion hizkuntza herrialdearen arabera definitzen da, ez hizkuntzaren beraren arabera. Adibide bat txinera litzateke: txinera, Txinan nagusi den mandarineraz izendatzeko erabiltzen den izena da batzuetan; baina Txinako hizkuntza guztiak ez dira mandarineraz. Jakin badakigu zenbait telebista kanal kantoneraz igortzen direla. Iturriak kontrolatu ezinik, beraz, kasu honetan Txinako hizkuntza guztiak sartu ditugu “txinera” kategoriaren azpian, beren arteko bereizketarik egin gabe.

Arreta puntu hauek argituta, eta joera nagusiak deskribatzeko baliagarria delakoan, 1. taulan ikus daiteke hizkuntzen araberrako kanalen banaketa.

1. taula: Satelite bidezko telebista kanalak hizkuntza nagusien arabera⁹

<i>Hizkuntza</i>	<i>Kanalak</i>	<i>Hiztunak (milaka)</i>	<i>Hizkuntza</i>	<i>Kanalak</i>	<i>Hiztunak (milaka)</i>
Ingelesa	1.563	800.000	Georgiera	6	4.000
Gaztelera	552	352.000	Kannadera	6	42.000
Frantsesa	403	122.000	Teluguera	6	69.000
Arabiera	375	185.000	Albaniera	5	5.000
“Txinerak”	341	1.042.000	Gujaratera	5	39.000
Italiera	280	63.000	Mazedoniera	5	2.000
Alemanera	247	118.000	Marathiera	5	65.000
Portugesera	200	175.000	Katalana	4	11.053
Japoniera	196	126.000	Mongolera	4	1.885
Errusiera	150	294.000	Punjabiera	4	20.000
Turkiera	146	56.000	Turkmeniera	4	6.500
Poloniera	129	43.000	Armeniera	3	5.500
Korçera	118	72.000	Azerbaijanera	3	4.000

⁹ Iturriak: egileak landuak, honako datu gordinetan oinarrituta: kanaletarako, Satco (Satco 2002); hiztun kopuruetarako, Ethnologue (Grimes, 1992).

<i>Hizkuntza</i>	<i>Kanalak</i>	<i>Hiztunak (milaka)</i>	<i>Hizkuntza</i>	<i>Kanalak</i>	<i>Hiztunak (milaka)</i>
Hindiera	79	367.000	Birmaniera	3	22.000
Greziera	73	12.000	Oriya	3	30.000
Hungariera	44	14.500	Assamesera	2	10.000
Hebraiera	42	4.000	Khemerera	2	7.000
Flandesera	40	20.000	Divehi-a	2	220
Indonesiera	34	125.000	Galiziera	2	3.173
Daniera	32	5.280	Kiswahiliera	2	30.000
Farsiera	31	30.000	Luxenburgera	2	335
Serbokroaziera	30	20.000	Esloveniera	2	2.218
Tagalaoa	29	57.000	Afrikaans-a	1	6.300
Norvegiera	28	4.400	Amharera	1	23.000
Suediera	28	9.000	Asiriera	1	200
Errumaniera	26	25.000	Bantuera	1	3.000
Thaiera	26	21.000	Biharia	1	10.000
Bulgariera	23	9.000	Malaysiera	1	18.000
Txekiera	19	12.000	Gurjariera	1	840
Tamilera	18	66.000	Laosera	1	4.000
Bengaliera	16	187.000	Libanera	1	15.000
Suomiera	14	6.000	Lituaniera	1	4.000
Malaialamera	14	34.000	Marwariera	1	12.000
Urduera	14	50.000	Eslovakiera	1	5.600
Ukraniera	13	46.000	Taiwanera	1	15.000
Kurduera	11	15.000	Tajikera	1	4.000
Vietnamera	9	59.000	Galesa	2	600

Orotara (74 hizkuntza): 5.488

Iturria: egileak egina

Hainbat iruzkin egin ahal dugu 1. taula ikusita. Batetik ingelesaren nagusitasuna nabarmentzen da: munduan satelitez hedatzen diren telebista kanalen % 28 ingelesezkoa da. Kopuru absolutuetan duen nagusitasunari, bestalde, erlatiboki duena ere gehitu behar zaio: izan ere

kanal kopurua eta hiztun kopurua erkatuz, oso kokapen ona lortzen du ingelesak, gutxi gorabehera kanal bat izanik milioi erdi bat hiztuneko. Ratio honek argiro diskriminatzen ditu bete hizkuntza batzuk, bereziki Asia eta Afrikakoak, hauek hiztun asko baina kanal gutxi baitituzte.

Bigarren datu azpimarragarria honakoa da: munduan diren mila-ka hizkuntzetatik (3.000 eta 5.000 artean, definizioen arabera), 74 baino ez dira satellite bidezko telebistara iritsi direnak, hizkuntza nagusi gisa bederen. Honek hizkuntza komunitate ezberdinen garapen desorekatua erakusten digu, munduan batzuek ahalmen handiak dituzten bitartean beste batzuek oso baliabide gutxi dituztelarik. Hau are nabarmenagoa da, kontuan hartzen badugu satelitera iritsi ez diren hizkuntzak ez direla, halaber, komunitate txikiak hizkuntzak. Pribilegiatuen artean hiztun gutxiko hizkuntzak dauden bezalaxe, hiztun asko duten beste batzuek ez dute zerura igotzerik lortu. Hamar milioi hiztunetik gora dituzten hizkuntzetara mugatzen bagara¹⁰, Afrikan 17 hizkuntza ditugu satellite bidezko telebistarik gabekoen talde honetan, batzuk oso komunitate handikoak izan arren: hausera, 40 milioi hiztun; edo zuluera-xhosa, 30 milioi hiztun, adibidez. Asian berriz, dozena bat: besteak beste javanera, 80 milioi hiztunekin; biharia, 60 milioi; uzbekera-uirurrera, 25 milioi; kazakhera-kirgizera, 20 milioi; eta abar. Amerikan, azkenik, honelako bi hizkuntza daude: Karibeko galo-kreolera, 11 milioi; eta ketxua, 10 milioi hiztunekin.

Hizkuntza handi hauen presentzia ezaren alboan, are nabarmenago bihurtzen da hiztun komunitate txikia duten beste batzuen presentzia. Hemen leudeke, besteak beste, asiriera, divehi-a, luxenburgera, gurjariera edo galesa, denak milioi bat hiztun baino gutxiagokoak, baina gutxienez satellite bidezko telebista kanal bat dutenak.

Datu hauek mundu osoko emanaldiei dagozkie. Honek esan nahi du hizkuntza horietatik batzuk planetako leku batean har daitezkeela, beste batzuk beste leku batean, eta abar. Nekez hartuko ditugu 74 hizkuntza ezberdinetako telebista kanalak leku bakar batean. Hala eta guztiz ere, tokian tokian har daitekeen kanalen hizkuntza eskaintza handia izatera iritsi daiteke, kokapenaren arabera. Honen adibidea, etxetik mugitu gabe, Euskal Herria dugu. Bertan, metro bateko diámetrodu antena parabolikoa jarriarik, 38 hizkuntza ezberdinetako kanalak har genitzake, 2. taulan erakusten den legez.

¹⁰ Munduko hizkuntzetako hiztun kopuruak ikusteko, ikus *Linguasphere* (1999).

2. taula: Euskal Herritik teorikoki har daitezkeen satellite bidezko kanalak, hizkuntza nagusien arabera¹¹

100 kanaletik gora Ingelesa (148), Gaztelera (110), Alemanera (104)
50 eta 99 kanal artean Arabiera (88), Italicra (74), Frantsesa (60)
10 eta 49 kanal artean Turkiera (45), Serbokroaziera(14), Flandesera (13), Poloniera (13), Portugesera (11), Farsiera (10)
3 eta 9 kanal artean Greziera (7), Errumaniera (5), Hindiera (4), Kurduera (4), Katalera (3), Mandarinera (3), Hungariera (3), Suediera (3)
Kanal 1 edo 2 Armeniera (2), Galiziera (2), Georgiera (2), Japoniera (2), Libanera (2), Luxenburgera (2), Albaniera (1), Asiriera (1), Bulgariera (1), Txekiera (1), Koreera (1), Mazedoniera (1), Norvegiera (1), Errusiera (1), Esloveniera (1), TAMILERA (1), Thailer (1), Urduera (1)

Iturria: *egileak egina*

Kanal hauetatik gehienak (% 87) kodetu gabeak dira, eta gainerakoak kodetuta datoz. Hemendik erator daitekeena, beraz, zera da: gure inguruan bederen satellite bidezko telebista, mundu osoko kultura eta hizkuntzen berri izateko aukera gisa ulerturik, oso aukera erreal eta eskuragarria dela. Honek, ezinbestean, gaur egun eraikitzen ari diren komunikazio eremu berriekiko interesa areagotu baino ez du egiten.

Hizkuntza gutxituak eta satellite bidezko telebistak Europako Batasunean

Mundu osoko datuak aztertu ostean, gatozen orain gure ingurune hurbilean eta Euskal Herriaren antzeko egoeretan gertatzen ari

¹¹ Iturria: egileak landua, Satcoko datuetan oinarrituta. Datuak 2000ko Urrikoak dira. Gaur egun eskaintza handiagoa izan liteke. Bestalde, kanal bakoitzeko hizkuntza nagusia soilik zenbatzen da.

diren errealitate batzuk ikustera. Zehazki, Europako Batasunean diren hizkuntza gutxituek satellite bidezko telebistaren aurrean duten egoera aztertuko dugu hemen. Horretarako, orain arte ez bezala, ez ditugu kontuan hartuko kanal bakoitzeko hizkuntza nagusiak soilik, eta hizkuntza gutxituen presentziari ere begiratuko diogu, hainbat kasutan oso txikia izan arren.

Laburki esanda, gaur egungo Europako Batasunean dauden hizkuntza gutxituen artean, hiru egoera ezberdin aurki daitezke¹². Lehenik, satellite bidezko telebista emanaldirik ez duten hizkuntza komunitateak ditugu. Bigarrenik, telebista propiorik ez duten baina hizkuntza bera duten beste estatu batetik igorritako telebista eskura dezaketen komunitateak. Azkenik, satellite bidezko telebista propioa duten komunitateak.

Satellite bidezko telebistarik gabeko komunitateak

Osatutako erroldako 41 hizkuntzetatik hamasei daude egoera honetan. Hizkuntza hauek, aipatu ditugun datu baseetan gutxitutzat hartzen dira, baina ez dute, gaur gaurkoz, satellitez hedatzen den telebistarik (ez eta bestelako telebistarik ere, kasu gehienetan).

Talde honetan honako hizkuntza komunitateak daude: aragoiera, asturiera eta berberea Spainian; kornikera Britainia Handian; korsikera Frantzian; franko-proventzala, friuliera, ladinoa eta sardiniera Italian; frisiera Alemania eta Herbeheretan; astur-leonesa Portugalen; okzitaniera Frantzia, Italia eta Spainian; romaniera Austrian; samia Finlandian eta Suedian; sorbiera Alemanian; eta arumaniera (valakiera) Grezian.

Ladinoa eta friulierak, berezko telebistarik ez badute ere, erreto-romanieraren azpifamiliakoak direla esan dezagun, eta talde honetako beste hizkuntza batek badu satellite bidezko telebistarik: Suitzako erromantxeak hain zuzen. Hizkuntza hauen estandarizazio maila txikia dela medio, zaila da esaten Suitzako erromantxezko emanaldiak noraino liratekeen ulergarriak beste bi hizkuntzetatik. Dakiguna ordea honakoa da: erromantxezko emanaldiak eskaintzen dituen telebista

¹² Europako hizkuntza gutxituen errolda egiteko, honako iturriak erabili ditugu: *European Bureau for Lesser Used Languages* (EBLUL), *UNESCO Red Book on Endangered Languages*, *Eurolang*, *Eurominority*, *Mercator* eta *Euromosaic*. Geure errolderako, azken bien zerrenda hartu dugu haintzat. Era berean, zenbait informazio aztertutako telebista etxeetatik bertatik eskuratu dugu.

(*TvR*) lehenago aipatu dugun *SRG* telebista suitzarraren multzoan dagoela. Eta, jadanik esan dugunez, azken honen emanaldiak kode-tuak izaki, deskodetzeko txartela behar du hartzaileak, txartel hori Suitzan erroldatuta daudenek edota atzerrian bizi diren suitzarrek soilik eros dezaketelarik. Horren ondorioz, Italiako Alpeetako hizkuntza komunitate hauek auzokoen telebistaz baliatu ezinik geratzen dira.

Beste komunitate batzuen telebista eskura dezaketen hizkuntza taldeak

Dauden herrialdean hizkuntza komunitate gutxitua izanik, beren hizkuntza beste herrialde batean ofiziala edo nagusia den kasuetako taldeak lirateke hauek, gehienbat. Hemen daude, beraz, albaniera, Grezian eta Italian; kroaziera, Italia eta Austrian; txekiera, Austrian; daniera, Alemanian; flandesera, Frantzian; suomiera, Suedian; frantse-sa Italian, alemanera Belgikan, Danimarkan, Frantzian eta Italian; greziera Italian; hungariera Austrian; mazedoniera Grezian; portugoesera Espainian; eslovakiera Austrian; esloveniera Austrian eta Italian; suediera Finlandian, eta turkiera Grezian.

Jadanik ikusi dugunez, nahiz eta komunitate hauek, teknikari erreparatuz, beste herrialde batetik baina beren hizkuntzaz datorren telebista seinalak hartzeko gaitasuna duten, estatuak eta merkatuek ezarritako mugekin egiten dute topo zenbait kasutan, muga horiek deskodetzaileen kontrolaren bitartez altxatzen eta zaintzen direlarik. Muga hauen ondorioz, zaila da zehaztea ea aipatu ditugun komunitate hauek guztiek, praktikan, beren hizkuntzetako telebista kanalak ikus ditzaketen, satellite bidez. Badakigu jakin zenbait kasutan aukera hori benetakoa dela: horra hor Europako herrialde ezberdinetan frantsesez edo alemanez mintzatzen diren komunitateen kasua, hizkuntza hauen telebista askok igortzen baitu beren seinala era irekian. Beste hizkuntza batzuetako kanalen kasuan, ordea, zalantzarriagoa da auzia: txekieraz, adibidez, 18 kanal kodetu daude, eta bakarra irekia; danieraz, 30 kodetu eta bi ireki; suomieraz, 13 kodetu eta bakarra irekia; edo eslovenieraz, 2 kodetu eta batere ez irekirik. Kasu hauetan, beraz, friulieraz eta ladinoz mintzatzen direnek pairatu behar duten ezintasun bera paira dezakete hizkuntza komunitate gutxituek.

Honek, zalantzarik gabe, arazo handi bat suposatzen du hizkuntza gutxituetako komunitateentzat: alegia, teknikak eskaintzen dituen aukerak merkatuaren legeen bitartez kamusteak, antzutu egiten dituela komunitate txiki hauen garapen saioak. Izan ere, aipatu berri ditugun

komunitate hauek aukera eduki lezakete, satellite bidezko telebistaren bidez beren hizkuntza propioan telebista erabili ahal izateko, telebista propioen bidetik –beren tamaina eta ahalmen ekonomiko eta politikoak kontuan harturik– ezinezkoa gertatuko litzaiekeen bitartean.

Satellite bidezko telebista propioa duten komunitateak

Europako Batasuneko hizkuntza gutxituen artean gutxienak dira egoera honetan dauden taldeak: zortzi baino ez, berrogeita batetik. Hauexek dira beren hizkuntzak: euskara, bretoiara, katalera, Eskoziako gaelikoa, galesera, galiziera, irlandera, eta luxenburgera. 3. taulan ikus dezakegunez, egoera ezberdinetan agertzen dira hizkuntza hauek satellite bidezko telebistan: begiratu arin batean antzeman daitekeenez, katalera, galiziera, luxenburgera eta galesa soilik dira kanal propio osoa duten bakarrak. Gainerako lauek, beste hizkuntza batekin partitzen dute kanala, bigarren postuan geratuta.

Nabarmentzekoa da, era berean, hainbat emanaldi Amerikara, bere osotasunean edo zati batean harturik, zuzenduak direla. Honetan Canal Vasco ez da bakarra. Honek, aztertuko dugun kasuan ikusiko dugun legez, Amerikako diasporarekiko kontaktua gorde eta areagotzeko interesa erakusten du. Beste telebista batzuek hizkuntza komunitatearen gehiengoa dagoen lur eremura mugatzen dute beren emanaldia, igorpen kodetuen bitartez. Horren adibideak irlandera eta galesa ditugu. Irlanderazko emanaldiak eskaintzen dituen telebista (*TGA*) britainiar irla guztietara hedatzen den pakete batean dago sartuta (*Sky Digital*), baina bere deskodeketa Irlandako Errepublikara dago mugatuta; kanpoan uzten dira, beraz, Amerikako komunitate irlandarra ez eze, Britainia Handiko diaspora eta are Iparraldeko Sei Konterrietako populazio irlandarra ere. Galeserazko telebistaren seinala bestalde (*S4C*), Europa osora iristen da, baina Erresuma Batuan soilik deskodetu daiteke.

Hauxe da, beraz, munduko eta Europako Batsuneko panorama, satellite bidezko telebistari dagokionez. Arestian esan dugun moduan, globalizazio prozesuek eta teknologiaren aurrerapenek eraldaketa sakinak eragin ditzakete komunikazio eremu nazionaletan. Hauek oraindik ere nagusi izanik, eremu berriak sortzen ari direlako eta zenbait arlotan eraginkor suertatzen ari direlako susmoa zabaldua dago. Besteak beste, diasporan denarentzat etxeko goxotasunetik bere jaioterriko (edo bere arbasoen jaioterriko) telebista jaso ahal izateak zer pen-

tsatua ematen du. Aukera honekin, etxera sartu eta telebista piztea, ateaz bestalde utzi den mundu ezberdin batera sartzearen pareko izan daiteke. Hau aukera soila edo errealitatea oten den argitzen saiatuko gara hurrengo ataletan, Latinoamerikako euskaldunek Canal Vasco kanalaz egiten duten erabilera aztertzean.

3. Taula: satelite bidezko telebista propioa duten hizkuntza gutxituak, Europako Batasunean

<i>Hizkuntza</i>	<i>Kanala</i>	<i>Emanaldi mota</i>	<i>Paketea</i>	<i>Satelitearen itzala</i>	<i>Hizkuntza horretan emandako asteko orduak</i>	<i>Emanaldi guztien portzentajea</i>
Euskara	<i>Canal Vasco</i>	Kodetua	<i>Via Digital</i>	Iberiar Penintsula	17 ¹³	10
	<i>Canal Vasco</i>	Irekia	-	Latinoamerika	17 ¹⁴	10
	<i>ETBSat</i>	Irekia	-	Europa	67	40
Bretoiera	<i>TvBreizh</i>	Kodetua	<i>Canal Satellite France</i>	Europa	18,5 ¹⁵	16
	<i>TvBreizh</i>	Kodetua	<i>TPS</i>	Europa	18,5	16
	<i>TvBreizh</i>	Kodetua	<i>Canal Satellite Caraïbes</i>	Karibea	18,5	16
Katalera	<i>TVC Internacional</i>	Irekia	-	Europa	168	100
	<i>TVC Internacional</i>	Kodetua	-	Latinoamerika	168	100
	<i>TVC Sat</i>	Kodetua	<i>Via Digital</i>	Iberiar Penintsula	168	100
	<i>Canal Barça</i>	Kodetua	<i>Via Digital</i>	Iberiar Penintsula	84 ¹⁶	100
Gaelikoa	<i>Scottish TV</i>	Kodetua	<i>Sky Digital</i>	Britiniar Irlak	< 5	< 3
	<i>Grampian TV</i>	Kodetua	<i>Sky Digital</i>	Britiniar Irlak	< 5	< 3
	<i>BBC Two Scotland</i>	Kodetua	<i>Sky Digital</i>	Britiniar Irlak	< 5	< 3
Galiziera	<i>TVG Dixital</i>	Kodetua	<i>Via Digital</i>	Iberiar Penintsula	168	100
	<i>TVG Europa</i>	Irekia	-	Europa	165	98
	<i>TVG America</i>	Irekia	-	Latinoamerika	165	98
Irlandera	<i>TG4</i>	Kodetua	<i>Sky Digital</i>	Britiniar Irlak	35	26

<i>Hizkuntza</i>	<i>Kanala</i>	<i>Emanaldi mota</i>	<i>Paketea</i>	<i>Satelitearen itzala</i>	<i>Hizkuntza horretan emandako asteko orduak</i>	<i>Emanaldi guztien portzentajea</i>
Luxenburgera	<i>Tango Tv</i>	Irekia	-	Europa	56	100
	<i>RTL Tele Letzebuerg</i>	Irekia	-	Europa	102 ¹⁷	61
Galesa	<i>S4C</i>	Kodetua	<i>Sky Digital</i>	Europa	32 ¹⁸	21
	<i>S4C Digidol</i>	Kodetua	<i>Sky Digital</i>	Europa	80 ¹⁹	100

Iturria: egileak egina

¹³ Saio gehienak gazteleraz azpigituluak.

¹⁴ Ibid.

¹⁵ Frantsesezko azpigituluak saio batzuetan.

¹⁶ Gaztelerazko bertsioa eskura.

¹⁷ 2003/2004 urteko datuak.

¹⁸ Ingelesezko azpigituluak eskura, saio batzuetan.

¹⁹ Ibid.

2. EUSKAL TELEBISTAREN LATINOAMERIKARAKO JARDUERA

Aurreko atalean ikusi dugun errealitate konplexuaren baitan ari da Canal Vasco bere lana burutzen, beste telebista ugari bezalaxe. Atal honetan, kanalaren historia eta ezaugarriei erreparatuko diegu, geroago Latinoamerikako euskal diasporak nola erabiltzen duen hobeto uler dezagun.

Canal Vascoen historia

1996ko Abenduaren 31n ekin zion EiTbK telebista eta irrati seinalaren nazioarteko hedapenari. Lehen urrats haiek Galiziako TVG eta Kataluniako TV kateekin egin zituen, hiruen artean *Galeusca* kanala sortuta. Galeusca satelite bidez hedatzen zen Amerikara. Honekin bide ematen zitzairen 1994an Eusko Legebiltzarrak euskal diasporarekiko harremanak arautzeko legea onartzean adierazitako asmo bati; bai eta 1995an egindako Euskal Diasporaren I. Biltzarrean agertutako ametsi zein diasporatik bertatik planteatutako eskakizun bati: Euskal Herriaz kanpo bizi diren euskaldun/euskal herritarrei zuzenduriko telebista eta irrati seinalak hedatzea, alegia.

Hiru telebisten arteko formula hura ez zen oso arrakastatsua gertatu, eta 1997an zehar gorabehera handiak izan ziren. Martxoan TVGk proiektua utzi ostean, Valentzia, Andaluzia eta Madrilgo telebistak sartu ziren *Galeuscan*. Amerikara begirako proiektu hark ordea etorkizun laburra izan zuen, eta 1998ko Irailean desagertu egin zen. Ordurako EiTb beste urrats batzuk ematen ari zen Euskal Herritik kanporako hedapena lortzeko: horrela, 1997ko udan *Scola* konpainiarekin hitzar-

mena lortu zen ETBko zenbait saio Amerikako Estatu Batuetan ikusiak izan zitezten. Era berean, hilabete batzuk beranduago eguneko hamazortzi orduko programazioa igortzen hasi zen ETB Espainia osora, *Via Digital* plataformaren bitartez.

Galeusca desagertuta, EiTbK bere kabuz aritzea erabaki zuen, eta horrela 1998ko Abenduaren 31n martxan jarri zuen ETBSat, nazioarteko kanal propioa. Kanal honek 24 orduko programazioa ematen zuen, ia dena ETB1 eta ETB2n emandako saioez osatua, eta euskararen presentzia oso urria izanik. Hispasat 330° satelitearen bidez hedatuta, seinala Latinoamerika osora eta Amerikako Estatu Batuetako ekialdeko kostara heltzen zen.

2000ko maiatzean bitan banatu zen kanporako ETBren kanala. Batetik, Amerikara eta bereziki Latinoamerikara begirako kanala, ikusleria gaztelaradunaren artean errazago zabaltzeko asmoz Canal Vasco izena hartu zuena. Bestetik, Europara hedatua izateko, ETBSat izenarekin jarraitu zuena. Europarako kanal hau, hasieran, *Via Digital*en paketearen hedatzen zen. Beraz, hura hartzeko plataforma horretako harpidedun izan beharra zegoen. 2001eko Apiriletik aurrera ordea, SES-Astra konpainiarekin lortutako hitzarmenari esker, ETBSaten seinala Astra 19,2° satelitetik igortzen da modu librean. Beraz, Europako 22 herrialdetara zabaltzen da, eta laurogei milioi pertsonak dute hori ikusteko aukera. Izan ere horiek baitira satelite horren seinalak ikusteko behar den tresneria (satelite horretara zuzenduriko antena parabolikoa eta deskodetzailea, edota satelite horren seinala hedatzen duen kable konexioa) eta zerbitzua dituzten etxeen kopurua.

Esan beharra dago, halaber, Canal Vascoren seinalarekin zein ETBSaten seinalarekin batera Euskadi Irratia eta Radio Euskadiren seinalak ere hedatzen direla.

Azkenik, telebista seinala beste modu batera hedaturik, esan dezagun 2000an berritutako eitb.com webgunean posiblea dela ETBSat kanala ikustea, Interneten bidez. Hemen ordea sarearen abiadura izaten da arazoa, eta zabalera handiko azpiegiturak erabilia ere, oraindik asko falta da Internetez jaso daitekeen telebista seinala gutxieneko kalitateaz ikusi ahal izateko. Ez da hala gertatzen ordea irratiarekin, eta gaur egun oso erreza da Euskadi Irratia edo Radio Euskadi munduko edozein txokotatik entzutea, ordenagailua eta sarerako konexioa izanez gero.

Esan dezagun, halaber, lan hau burutzen ari ginen bitartean beste saio bat jarri zuela abian EiTbK Canal Vascoren seinala Internetez hedatu ahal izateko, JumpTV konpainiaren bitartez (www.jumptv.com).

Horren ondorioz, 2002ko udazkenetik aurrera, dohan hasieran eta hileroko 10 dolarreko ordainaren truke geroago, Canal Vasco kalitate on samarraz ikus daiteke aipatu webgunean, banda zabala duen munduko dozein txokotatik ikusi ahal izateak ematen dituen abantailez baliatuta.

Hedadura

Canal Vascoren seinala Hispasat satelitearen bitartez egiten da, 330° kokapenean. Programazioa Iurretako egoitzan egiten da, eta handik Madrilerira igortzen, FORTAra zehazki. FORTAtik Retevisionera pasatzen da, eta handik Hispasat satelitera igoarazten da seinala²⁰. Satelitearen erabileragatik milioi bat euro inguru ordaintzen du EiTbK urtero²¹.

Behin seinala airean, Hispasat sateliteak hedatzen du, modu digitalan, 12.015 frekuentzian eta enkriptatu gabe, hots, FTA (*Free to Air*) eran. Canal Vascoren seinal hau ez da bakarrik igortzen, eta bera-rekin batera beste telebista kanal asko ere igortzen ditu modu irekian Hispasat sateliteak: besteak beste Estatu Espainoleko TVG, Televisión de Canarias, TVC Internacional, Antena 3 eta Tele 5.

Hispasat satelitearen hedapen urratsak Latinoamerika ia osoa hartzen du, irudian ikus daitekeen legez²²:



²⁰ Canal Vascoren seinala Madriletik pasatu behar honek eraginik izan lezake seinalaren hedapenean. Izan ere, hainbat ikusleren susmoa da zenbait gertaera politikoren ostean seinala "desagertu" egiten dela, eta desagertzen hau zenbait informazio ezkutatzeke Madrildik letozkeen presio politikoei egozten diete.

²¹ Zapirain, Eriz. "ETB Ameriketara hedatuz." *Argia On Line*, 1999-1-10 1999.

²² Iturria: www.satcodx.com.

Zerutik lurrera seinala enkriptatu gabe igorria izateak zabaldu egi-
ten ditu Canal Vasco ikusteko izan daitezkeen bideak. Honela, hona-
ko bideak erabiltzen dira gaur egun kanal hau ikusteko:

- a) **Satelitetik zuzenean:** satelitearen hedapen urratsaren barruko edozein tokitan antena parabolikoa eta deskodetzaile egokia jarrita, Canal Vasco (bai eta Euskadi Irratia zein Radio Euskadi) doan ikusi ahal dira. Kostua handiegia ez izan arren (batez beste 800 euro inguru), sistema hau ez dago oso garatuta Latinoamerikan, kable bidezko sistemak aurrea hartua baitio hango herrialde gehienetan. Beraz, datu zehatzik ez dagoen arren, bide hau erabiliena ez dela esan dezakegu.
- b) **Kableoperatzaileen bitartekoa:** kable bidezko telebista gartuagoa da Latinoamerikan satelite bidezkoa baino. Horrela, kableoperatzaile bakoitzak zenbait telebista kanal sorta batean jarri eta etxetara hedatzen ditu. Kableoperatzaile hauek, sarritan, zuzenean hartzen dute satelitetik doan datorren seinala, eta beren eskaintzan sartzen, oinarritzkoan zein ordainekoan. Kableoperatzaile hauek ez dute ezer ordaintzen Canal Vascoren seinala emategatik, eta hedadura oso aldakorra da, batzuk oso barruti txikietara zabaltzen diren bitartean (hiri bat edota auzune bat), beste batzuk lur eremu handiagoak zerbitzatzen dituztelarik. Esan beharra dago, bestalde, kableoperatzaile batzuek Canal Vascoren eguneko 24 orduko programazioa sartzten dutela, baina beste batzuek beste eduki batzuekin partekatzen dutela kanal bera egunean zehar. Eta are beste batzuek Canal Vascoren programazioa grabatu eta, eduki batzuk aukeraturaz eta beste batzuk baztertuz, pakete berria berrantolatzen dute, beste kanal zenbaitetako saioekin batera. Osorik edo partzialki Canal Vascoren seinala zenbat kableoperatzailek hedatzen duten zehaztasunez jakiterik ez dago (askok ez baitiote horren berririk ematen EiTBr), baina 2001eko udaberrian egindako zozketa-inkesta baten bitartez jakin ahal izan zenez, ehun baino gehiago lirateke Latinoamerika osoan. Era berean, zenbait estimazioren arabera Canal Vascoren seinala, bide honetatik, bi milioi etxetara iritsiko litzateke²³. Hauxe omen da, beraz, Canal Vascoren hedapen bide garrantzitsuena.

²³ Azurmendi, Jose Felix (Canal Vascoren Zuzendaria). *Canal Vascoren aurkezpena*. Bilbo: EiTBr, 2001.

c) **Satelite plataformen bidezkoa:** Kableoperatzaileen antzera, Satelite bidezko plataformaz ere hedatzen da Canal Vasco. Guk dakigularik Mexikon bakarrik dago aukera hau, *Sky* satelite konpainiaren bitartez. Konpainia honek ordaineko sorta baten barruan kokatua du Canal Vasco, beste batzuekin batera, eta sorta horretara harpidetutako bazkideak 150.000 lirateke.

2001eko udaberrian inkesta bat burutu zuen ETBk Canal Vascoren ikusleen artean, helburu nagusi bi izanik. Lehena, Canal Vascoren seinala nora eta batez ere zein bidetatik (zein konpainiatik, alegia) heltzen zen jakitea. Kontuan hartuta kanal honen hedapen modua, hauxe zen bide hoberena seinala garraiatzen duten kableoperatzaileen errolda bat egiteko. Bigarren helburua, ikusleriaren lehentasun eta gustuei buruzko oinarrizko hurbilpena egitea zen²⁴. 4. taulan ikus daitezke jasotako erantzunak, Canal Vascoren seinala jasotzeko bidea eta herrialdearen arabera.

4. Taula: *Ikusleak eta seinala jasotzeko bidea, herrialdearen arabera*

<i>Herrialdea</i>	<i>CV hartzeko bidea</i>				<i>Orotara</i>	
	<i>Kable konpainia</i>	<i>Antena propioa</i>	<i>Satelite konpainia</i>	<i>Internet</i>	<i>%</i>	<i>N</i>
Kolonia	64,4	34,5	1,1		100,0	187
Argentina	94,7		1,2	4,1	100,0	177
Peru	97,8	2,2			100,0	47
Mexiko	2,4		97,6		100,0	45
Venezuela	79,4	17,6	2,9		100,0	36
Uruguay	90,3	9,7			100,0	34
AEB-ekialdea		66,7	27,8	5,6	100,0	24
Guatemala	100,0				100,0	15

²⁴ Inkesta burutzeko, Euskal Herrirako bidai bat zozkatu zen hiru galdera hauei erantzuten zieten artean: nondik ikusten zuten Canal Vasco, zein bide eta konpainiaren bitartez, eta zein saio zuten gustuko. Galdera hauei 600 lagun inguruk erantzun zieten, gehienek posta elektronikoa erabiliz. Geroztik inkesta urtero burutzen hasi da ETB.

<i>Herrialdea</i>	<i>CV hartzeko bidea</i>				<i>Orotara</i>	
	<i>Kable konpainia</i>	<i>Antena propioa</i>	<i>Satelite konpainia</i>	<i>Internet</i>	<i>%</i>	<i>N</i>
Txile	100,0				100,0	8
Ekuador	75,0	25,0			100,0	5
Puerto Rico		100,0			100,0	5
AEB-mendebaldea		25,0		75,0	100,0	4
Honduras	100,0				100,0	3
Nikaragua	100,0				100,0	3
Bolivia	100,0				100,0	2
Panama	50,0	50,0			100,0	2
Paraguay	100,0				100,0	1
Dominikar Errepublikak		100,0			100,0	1
Costa Rica	100,0				100,0	1
Orotara	72,8	16,3	9,0	1,9	100,0	600

Iturria: egileak egina, EiTBk burututako inkestan oinarrituta

Taulan ikus daitekeenez, erantzun gehienak Kolonbiatik eta Argentinatik datoz, Canal Vascoen ikusle gehienak han daudela iradokiz. Jarraian, baina alde handia dutelarik, bigarren multzo bat dator, Peru, Mexiko, Venezuela eta Uruguayk osatua. Atzetik AEBetako ekialdea eta Guatemala. Eta gutxi batzuk datoz gainerako herrialdeetatik.

Era berean, bigarren datu bat eskaintzen digu taula honek: Canal Vascoen seinala etxeetara nola heltzen den, alegia. Orotara, erantzun dutenen % 72,8k kableoperatzaile baten bitartez jasotzen du Canal Vascoa, eta % 9k satelite operatzaile baten bitartez. Beren kabuz jasotzen dutenak –antena paraboliko propioa edo komunitarioa erabiliz- % 16,3 dira. Eta oso gutxi (%1,9) Interneten bidez jasotzen dutela diotenak.

Herrialdeka alde handiak daude seinala jasotzeko bideari dagokionez. Horrela, satellite konpainiaren bitartez gehienbat Mexikon eta neurri apalagoan Amerikako Estatu Batuetako ekialdean jasotzen da Canal Vasco²⁵. Mexikon, gainera, bide hau da ia bakarra Canal Vasco jasotzeko. Bestalde, antena paraboliko propioa erabiltzen dutenak heren bi dira AEBetako ekialdean eta heren bat Kolonbian; datu gutxi dagoen arren, sistema honek garrantzitsua dirudi, halaber, Puerto Ricon eta Panaman. Gainerakoetan, kable sistemak dira nagusi.

5. Taula: Erantzuleen soslaia

	%	N
<i>Sexua</i>		
Gizonezkoa	57,0	342
Emakumezkoa	41,7	250
Ez dakigu	1,3	8
<i>Orotara</i>	<i>100,0</i>	<i>600</i>
<i>Jatorria</i>		
Lehenengo gizaldia	6,3	12
Bigarren gizaldia	8,4	1
Euskal jatorri zaharra	64,2	122
Euskal jatorririk ez	21,1	40
<i>Orotara</i>	<i>100,0</i>	<i>190</i>

Inkestari erantzun diotenen soslaiari begiratuta, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago direla ikus dezakegu 5. taulan.

Erantzun dutenen jatorriari buruzko daturik ere atera dugu, nahiz eta hemen gogoratu beharra dagoen galdera hau ez zela inkestan sartzen. Hala ere, 600 inkestetatik 190en jatorria deduzi daiteke, bidalitako mezuan ematen dituzten argibideetan oinarrituta. Honela, lehenengo, bigarren eta bestelako gizaldi bateko euskal herritarrak bereiztu

²⁵ Beste herrialde batzuetan ere agertzen dira bat edo beste, baina datu hori errealitateari baino gehiago erantzunen zehaztasun gabeziari zor zaiola susmatzen dugu.

ditugu, alde batetik, eta euskal jatorririk ez dutenak, bestetik²⁶. Lagin murriztu eta fidagarritasun handirik gabeko honen arabera, Canal Vascoaren ikusle gehientsuak hirugarren gizalditik aurrerako euskal herritarrak lirateke, gutxi izanik lehenengo eta bigarren gizaldikoak²⁷. Bestalde, euskal jatorririk ez duen ikusle multzo txiki bat ere badago.

Helburuak

Canal Vasco zer den ondo ulertzeko, oro har bera sortu duen administrazioaren helburuak ulertu behar dira. Esana dugu jadanik EiTbK Eusko Legebiltzarrak 1994ko Maiatzean “Euskal Autonomi Elkartez kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako 8/1994 Legea” onartu ostean eta honen ondorioz eginiko Euskal Diasporaren I. Biltzarraren ostean ekin ziola nazioarterako hedapenari. Jadanik aipatu legearen onarpenean azaldu ziren Canal Vascoaren norabidea gidatuko duten bi helburu nagusiak. Izan ere, honela dio 8/1994ko Legearen Zioen Adierazpenak:

“Elkarte horiek [euskal etxeek] hor daudenez eta behin eta berriz eskatu dutenez, bide berriak urratu beharra dago; araudi egokiaren bidez, erakunde horiekiko elkarlana eta beren parte hartzea bultzatu behar dira. Bestalde, euskalduntasuna bultzatu, garatu eta zabaltzeko gaur egun Euskal Herriko hainbat eragilek bultzatutako jardueretan Euskal Herriaz kanpoko elkarte horiek esku hartzea sustatu beharko litzateke. Izan ere, gaur egun, gizarte modernoa gero eta zabalagoa eta nazioartekoagoa denez, euskal gizataldeek, inolako zalantzarik gabe, gizarte,

²⁶ Argi dezagun apur bat gehiago banaketa hau. “Euskal jatorri zaharrekotzat” jo ditugu hirugarren, laugarren edo zehaztu gabeko gizaldietako pertsonak (10, 3 eta 109 hurrenez-hurren). Euskal jatorririk ez dutenen artean ere egoera ezberdinak agertzen dira. Batzuek jatorri espainiarra dutela aitortzen dute (4), horren baitan euskal jatorria ere kokatzen duten ala ez zehazteke.. Beste batzuek argi uzten dute ez dutela euskal jatorririk (29). Eta beste batzuek ezkontzaren bidezko lotura dute euskaldunekin (7).

²⁷ Hemen ezin alde batera utzi honako gogoeta: pentsatzekoa da Canal Vascoaren ikusle kopuru garrantzitsu bat azken hiru hamarkadetako errefuxiatu politikoei osatzen dutela, eta horiek ez dutela –begi-bistako arrazoiengatik– lehiaketan eta inkestan parte hartu. Beraz, berriro ere planteatzen zaigu hemen datuen adierazgarritasunaren auzia. Hala ere, kategorien artean aldeak oso handiak direlarik, joerak erakusten direlakoan gaude.

kultura, ekonomia eta politika mailako harremanak mugiarazteko egitekoa har dezakete”.

Testu honen lehen paragrafoan euskalduntasunaren bultzada da azpimarratzen dena, diasporarekiko harremanak sendotzeko legearen helburu gisa. Bigarrenean ordea, helburu kulturalaz gain, bestelako bat agertzen da: hain zuzen ere, diasporako euskal herritarrek euskal ekonomia nazioarteratzen izan dezaketen egitekoa. Egiteko hau argiago utzi zuen, legearen eztabaidan, Jon Azua lehendakariordeak: “Gero eta nazioartekoagoa den mundu honetan kanpora zabaldu eta begiratu behar du gure herriak, eta euskal komunitateek eginkizun interesgarria burutu dezakete, eta burutzen ari dira jadanik, Euskal Herriaren berri nazioartean hedatzen; hots, sartu nahiko genukeen merkatuetan ‘lobby’ profesional baten antzera jokatzan” (Totoricagüena, 2000).

Azuaren hitzen arabera, euskal diasporak, beste helburu kulturalaz gain, helburu ekonomiko argia bete dezake. Zenbait tokitan euskaldunen ondorengoek duten kokapen ekonomiko estrategikoa kontuan harturik, euskal ekonomiaren hedapenerako tresna bihur daiteke. Eta Eusko Jaurlaritzak ez du alde batera utzi nahi aukera hori (Totoricagüena 2000).

Euskal diasporarekiko harremanetan Eusko Jaurlaritzak erakusten dituen bi helburu horiek ere agertzen zaizkigu Canal Vascoren xedetan bertan. Horrela, 2001eko udaberrian Bilbon egin zen Canal Vascoren aurkezpenean, ikuspuntu biak azaldu ziren berriro, Eusko Jaurlaritzako Mari Karmen Garmendia Kultura Sailburuaren eskutik bata, eta Josu Jon Imaz Industria Sailburuaren eskutik bestea. Lehenarentzat, Euskal Herriak mundura zabaltzen duen leihoa izan beharko luke Canal Vascoren. Bigarrenarentzat, Latinoamerika “euskaldunak joan ziren tokia baino gehiago da gaur egun: Euskal Herriarentzako bigarren merkatu bilakatu da, Europako Batasunaren ondoren”. Eta merkatu horri begira, han diren euskal herritarrek “paradiplomazia” egin beharra dute. Hortxe kokatu zuen Imazek Canal Vascoren garrantzia.

Beraz, Canal Vascoren atzean helburu kulturalak (euskal diaspora euskaltasunaren alde egiten duen lana sustatu; bere euskal nortasuna indartu; eta Euskal Herriaren berri munduari eman) eta ekonomikoak (merkatuak ireki) biltzen dira. Guk aztertu dugun dokumentazioan, bestelako helbururik ez da agertzen. Horrela, munduan sateelite bidez hedatzen diren beste kanal batzuek dituzten helburu politikoak, esaterako, ez dira hemen ikusten. Hau bat letorke Gloria Totori-

cagtiinak (2000), euskal diasporaren orainaz egin duen ikerketan, oro har Eusko Jaurlaritzaz eta euskal alderdi politikoei diasporaz duten politikaz egiten duen analisiarekin: ez dutela ikusten helburu politikoa gisa, ez bertako hauteskundeetan izan lezaketean eraginagatik (txiki-gia); ez eta Euskal Herriko gatazka politikoan beste herrialdeetako administrazioen inplikazioa areagotzen eman lezaketean laguntzagatik.

Helburu kulturalak eta ekonomikoak batera agertzearen ondorioz, batzuetan ez da oso argi antzematen zein den Canal Vascoren jomuga. Horrela, zenbaitetan argi eta garbi adierazten da Canal Vascoren *target* edo publikoa Amerikan (bereziki Latinoamerikan) bizi diren euskal diasporako kideak direla. Baina beste zenbaitetan, jomuga hori Latinoamerikako populazio osora zabaltzen da. Kasu honetan Canal Vasco ez da aurkezten “euskaldunentzako” edo “euskal herritarrentzako” kanal gisa; ez eta Euskal Herriaren berri izan nahi duten edozein Latinoamerikarrentzako kanal gisa; aitzitik, “Europako programazioa gazteleraz ikusi nahi duen” Latinoamerikarrentzako telebista gisa baizik. Horrela irakur daiteke, esaterako, eitb.com webgunean, Canal Vascoren aurkezpena eginez:

“Canal Vasco está pensado en América y los americanos. El español es su lengua franca. Las intervenciones en lengua vasca (euskera) aparecen explicadas o subtítuladas. La programación, generalista, está dirigida a un público más amplio que el que se conoce como de origen o simpatía vasca. Se ofrece a cuantos estén interesados por esta manera de conocer, entender y explicar la vida, a cuantos elijan esta vía para aproximarse a Europa”.

Ildo honetan, eta kontuan hartuta Canal Vasco, kableoperatzaileen bitartez, Euskal Herriarekin zerikusirik ez duten Latinoamerikar askoren etxeetara iristen dela, EiTbko arduradunek aukera ikusi dute kanal honetan, “hirugarren publiko” batengana iristeko (ez Euskal Herrikoa ez diasporakoa dena). Horretarako dituen tresnak “Europar erako kalitatezko programazioa”²⁸ edota Espainiako futbol ligako partidak dira, ia dena Latinoamerikar gehienek hizkuntzan: gazteleraz.

Ezin Canal Vascoren helburuei buruzko iruzkin hauek amaitu, kanal honek eta, oro har, kanporako telebista emanaldiek EiTbren eskema orokorrean duten lekua aipatu gabe. Izan ere, orain arteko jar-

²⁸ Ortuzar, Andoni (EiTbko Zuzendari Orokorra). *Canal Vascoren aurkezpena*, EiTb, Bilbo, 2001.

duerari begiratuta bederen, EiT Bren xedea teknologiak ahalbidetzen duen bide berri honetan presentzia bat ziurtatzera eta lehen urratsak ematera mugatzen dela ematen baitu. Hots, etorkizunean kanporako emanaldiek garrantzia izan dezaketelakoan, eta bitartean zer egin sobe-
ra jakin gabe, lehen helburua, oraingoan, seinala airean egotea eta aha-
lik leku gehienetara iristea dela sumatzen dugu. Ikusi besterik ez dago
EiT Bren egituraren barruan Nazioarteko Zuzendaritzari ematen zaiz-
kion baliabide urriak, edota ertaineko epera ezartzen diren helburue-
tan nazioarterako telebista emanaldiei jarritako arreta txikia.

Honek guztionek zera pentsatzera garamatza: oraindik ez dagoela
EiT Bn kanporako telebista emanaldiei buruzko plangintza zehatzik,
ez helburuei dagokienez, ez jomugari edo *target*-publikoari dagokio-
nez, ez eta programazio ereduari dagokionez ere. Eta, ondorioz, bali-
abide askorik ez da jartzen, Amerikarako seinala hedatzeko dirutza alde
batera utzita²⁹.

Programazioa

Programazioaren mugak

Canal Vascoren programazioa zenbait eragilek mugatzen dute:
besteak beste, seinalaren hedapen eremua, hedapenerako erabilitako
bidea, baliabide propioen eskasia, ustezko ikusleriaren soslai, eta ka-
nalaren helburuen lausotzea aipa ditzakegu.

Alde batetik Canal Vascoren *hedapen eremua* dugu. EiT Bk bere
ohiko kanaletan (ETB1 eta ETB2) erosten dituen emisio eskubideek
ez diote ahalbidetzen dagozkien saioak hortik kanpora igortzea. Beraz,
normalean barne produkziokoa (EiT Bk berak egina edo enkargatua,
alegia) ez den guztia emititzerik ez dago. Hauxe da film gehienen, kan-
poko ekoiztetxei erositako produktuen, edo kirolaren zati baten kasua,

²⁹ Esana dugu horren truke EiT Bk milioi bat euro inguru ordaintzen dituela. Euro-
parako hedapena ordea ez da zuzenean ordaintzen (2001ean bederen). Aitzitik,
EiT Bk eta Sogecablek dituzten hitzarmenen barruan, bien arteko merkataritza-
harremanak orekatzeko (gehienbat futbol-partiden emisio-eskubideei dagozkie-
nak), enpresa espainolak SES-Astrarekin duen harremanaz baliatu da EiT Bren sei-
nala Astra satelitean sartua izan dadin.

besteak beste (datu bat ematearren, esan dezagun kanpoko produkzioa ia erdia dela ETBko Euskal Herrirako kanaletan, biak batera hartuta).

Hedapen bideari dagokionez, esan dezagun seinala etxetara sartzeko kableoperatzaileen beharra dagoen neurrian, ETBk behartuta ikusten duela bere burua kableoperatzaileentzat erakargarria izango den programazioa egiteko. Beraz, hementxe agertzen da muga handi bat: kableoperatzaileek ez dute begiratzen diasporan dagoen euskal herritar baten premia, gustu edo interesetatik, beren enpresa interesetatik baizik. Haiek in egiten diren hitzarmenak (egiten diren kasuetan) musu-truk egiten direnez gero, kableoperatzailearen esku geratzen da beti seinala jarri eta kentzea. Sistema honek, bistan da, doako hedapena ahalbidetzen dio Canal Vascorei, baina neurri berean operatzaileen menpe jartzen du.

Hirugarrenik *baliabide propioen eskasia* aipa daiteke: esan dugun legez Canal Vascoren oso baliabide gutxi du bere programazio propioa egiteko. Horren ondorioz, gaur gaurkoz programa bi baino ez dira ekoizten Canal Vascoren propio (*Lazos* eta *Noticias para América*), hauek asteko programazio denboraren % 6 hartzen dutelarik. Gainerako guztia ETBren biltegitik bertatik hartutako eta emisio eskubide murriztuak ez dituzten saioez betetzen da.

Ustezko ikusleriaren soslaia: soslaia ezberdineko euskal herritarrak bizi dira Latinoamerikan: Euskal Herritik joandakoak, bigarren, hirugarren eta are bost eta seigarren gizaldiko etorkinak, e.a. Era berean, hizkuntzarekiko egoera oso ezberdinetan daude: batzuk euskal hiztunak izanik, gehienak ez dira gai euskara mintzatua ulertzeko. Euskal Herriaren errealitateaz duten ezagutza ere oso heterogeneoa da. Honek guztiak baldintzatu egiten du Canal Vascoren programazioa, gehienbat saioetan erabilitako hizkuntzari dagokionez eta zenbait edukiri dagokienez ere.

Canal Vascoren ikusleria nolakoa den jakitea zaila da oso. Alde batetik, satellite bidezko telebista librean ikusleria ezagutzeak oinarrizko arazoak planteatzen ditu: ezagutzerik ez baitago nork hartzen duen delako seinala bere etxean. Seinala kable bidez heltzen denean ere, kable sistemen harpidedunen zerrendak seinala nork hartzen duen erakutsi lezake; ez ordea jasotzen den eskaintza anitzaren artean zein kanal ikusten den, zein ordutan, nork, eta abar. Honi, gainera, Canal Vascoren hedapen modu bitxiak dakartzan arazoak gehitu behar zaizkio: kableoperatzaileen eskuartze libre eta kontrol eskasekoa, datuak emateko edota are Canal Vasco hedatzen dutela onartzeko dituzten erreparatuak, e.a. Beraz, ia ezinezkoa da ikusleriaren ezagutza zehatza eskuratzea.

Target-publikoari dagokionez, eta alde batera utzirik arestian aipatu dugun definizio eza, zaila da hura ere mugatzea: izan ere, nola neurtu eta zehaztu diasporako euskal herritarrak?

Canal Vascoren ikusleriaren ezagutza zehatzik, beraz, ez dago gaur gaurkoz³⁰. Baina honek ez du esan nahi kanalaren arduradunek ikusleriaren irudi baten arabera jokatzeko ez dutenik. Zalantzarik da ordea, irudi hori noraino doitzen zaion ikusleria potentzialaren edota *target*-publikoaren benetako soslaiari. Besteak beste, kontuan hartu beharra dago “diaspora” deitzen dugun horretan oso soslai ezberdineko euskal herritarrak daudela. Adibide bat jartzearatik, eta hizkuntzari dagokionez, hona Toticagüenak aztertutako laginaren euskararekiko egoera³¹:

6. Taula: Euskararen ezagutza maila euskal diasporan³²

<i>Herrialdea</i>	<i>Erraztasunez edota nolabaiteko zailtasunez euskaraz mintzatzen direnak</i>
Australia	% 56
AEB	% 46
Belgika	% 42
Peru	% 23
Argentina	% 16
Uruguay	% 2

EiTBko zuzendariek, ordea, Latinoamerikako euskal herritarren artean euskararen presentzia sinbolikoa dela diote, nahiz eta, lagina honetan ikus daitekeenez, alde handiak egon Perutik Uruguayra.

³⁰ Guk ezagutzen dugun zehatzenak lehenago aipatutako inkestak ditugu: 2001eko udaberritik aurrera ETBk berak egiten dituen inkesta-zozketak.

³¹ Toticagüenak bere lana burutzeko lagina bi erabili zituen. Lehena, 348 pertsonakoa, elkarrizketa sakonak egiteko. Bigarrena, 832 pertsonakoa, galdetegi bat bete zezeko. 18 urtetik gorako, euskal jatorriko, eta gaur egun Euskal Etxeren bateko kide diren pertsonen artean hartutako laginak dira, aipatutako herrialdeetan. Zehatzen ez duena ordea zera da: nola banatzen diren laginak herrialdearen arabera. Euskararen ezagutzari buruzko datuak lagina handitik (832) hartuta daude.

³² Toticagüena, aipatu lanean.

Edozein modutan, gogora ekar dezagun ez EiTbko zuzendarien usteek, ez Totoricagüenaren lanek, ez dutela ematen diasporako euskal herritarrei buruzko datu estatistiko zehatzik -bigarrenak kanpoko euskaldunei buruzko informazio erabilgarri ugari ematen duen arren-. Zailtasunak zailtasun, beraz, azpimarratu behar dena ez da Canal Vascoren arduradunen pertzepzioaren doitasuna (edo doitasun eza), pertzepzio horrek programazioaren diseinuan duen pisua baizik.

Azkenik, *helburuen eta kanalaren jomugaren nolabaiteko nahasmene* ez du programazio ildo koherente eta osagarria osatzen laguntzen. Horrela, euskal kultura tradizionalenari buruzko saioekin batera, Espainiako txutxu-mutxuak tartekatzen dira, euskal herritarrez harantzago dagoen publiko bat erakarri nahi izango balitz bezala³³.

Programen azterketa

Jadanik esana dugu Canal Vascoren programazioa, gehienbat, ETBrako ekoiztako programez hornitzen dela. Saio bi soilik dira Canal Vascorako propio ekoiztiak: *Lazos* magazina eta *Noticias para América* albistegia. Bestalde, programazioa, izan, 12 ordu ingurukoa da, baina errepikapenez 24 orduz igortzen da (ikus programazio parrilla eranskinetan).

Lehenago aipatu ditugun baldintzen arabera, hona asteko programazioaren hizkuntzaren arabera banaketa³⁴:

7. Taula: Canal Vascoko saioen hizkuntza

<i>Hizkuntza</i>	<i>Asteko minutuak</i>	<i>%</i>
Euskara hutsez	150	2
Euskaraz, gaztelera azpitoluluekin	882	9
Gaztelera hutsez	8.323	86
Mutua, musika, e.a.	291	3


³³ Canal Vascoren arduradunen defentsan esan dezagun hori ez dela arazo eksklusiboa. ETB2k berak erakusten du, sarritan, bere publikoa zehazki definitzeko zailtasun berbera.

³⁴ Azterketa honetarako 2002ko Martxoaren 18tik 24ra bitarteko parrilla hartu dugu kontuan.

Canal Vascoren programazioa ia gaztelera hutsezkoa dela esan dezakegu. Izan ere, hizkuntza horretan soilik ematen diren saioei (% 86), euskarazkoak izan arren gaztelera azpigitulatu ematen direnak gehitu behar dizkiegu (% 9), gainerakoa musika saioetarako eta euskara hutsezko saio bakarrerako geratzen delarik: *Betimu* karaokea, haur eta gazteentzako saio bakarra, bestalde.

ETB1etik hartutako saioak, batzuetan, gaztelera azpigitulatu egi-ten dira (*Sorginen Laratza, Bertatik Bertara, Goenkale* eta *Jaun eta Jabe*). Beste kasu batzuetan gaztelera bertsoan ematen dira (*Oinak Izarretan, 64* eta kirol saioak). Eta kasu batean euskaraz ematen da, baina gaztelera azalpenek lagunduta (*Meza Santua*).

Generoari dagokionez, hona banaketa:



Ikusten dugunez, albistegiek eta magazinek osatzen dute Canal Vascoren programazioaren zati garrantzitsu bat: bion artean, emanaldien % 59. Honi kirolak gehituz gero, % 71ra igotzen gara.

Bestalde, oso urria da haur eta gazteentzako programazioa: % 2 baino ez. Hemen, seguru asko, lehenago aipatutako zenbait arrazoi batzen dira: ETBn genero hau gehienbat euskaraz ekoitzia izatea, marrazki bizidunen igorpen eskubideen arazoa, eta *target*-publikoarekiko definizio eza. Azken honi dagokionez, euskaltasunaren sendotze eta zabaltzeari begira, estrategikotzat jo bailitzateke kanpoko euskal herriarren haur eta gazteak ere erakartzea.

Ikus ditzagun orain generoak banan banan, eta bakoitzaren barruko saioak.

Albistegiak

Hurrengo taulan ikus daiteke nola banatzen diren Canal Vascoren albiste saioak, bakoitzaren presentziaren arabera:

8. Taula: Canal Vascoko albiste saioak

Saioa	Asteko minutuak
TELEBERRI	970
NOTICIAS PARA AMERICA	485
FORUM	450
EUSKADI DIRECTO	300
EL PUNTO...	150
POLITICAMENTE INCORRECTO	142
EUROPA EUROPA	127
PALABRA DE LEY	120
SUSTRAIA	120
NAVARRA DIRECTO	110

Teleberri da presentzia handiena duena, Canal Vascorako propio eguniko eguneroko albistegiak (*Noticias para América*) jarraituta. Hauez gain, elkarrizketa saioak eta albistegi berezituak ere agertzen dira. Aipagarria da, bestalde, *Euskadi en directo* eta *Navarra en directo* albistegiak ematen badira ere, *Iparraldearen Orena* ez dela emititzen, honela Ipar Euskal Herriatik joandakoak eta beren ondorengoak informazio eskaintzatik alde batera utzita.

Magazinak

9. taula: Magazinak Canal Vascon

Saioa	Asteko minutuak
LO QUE FALTABA	1.093
ESTA ES MI GENTE	602
BERTATIK BERTARA	300
LA COCINA DE P. SUBIJANA	235
SORGINEN LARATZA	157
DESDE EL GALLINERO	120
LAZOS	90
LA BOTICA DE LA ABUELA	44

Taulan ikusten den legez, *Lo que faltaba* da Canal Vascoren saio garrantzitsuen, emandako denborari erreparatuz gero (Teleberrik baino denbora handiagoa hartzen baitu). Jarraian *Esta es mi gente* dator, eta oso atzean *Bertatik bertara* eta *Sorginen laratza* euskarazko saioak.

Kirolak

2002ko udaberrian Canal Vascon ikus zitezkeen kirol emanaldi gehienak pilotaren ingurukoak ziren: esku pilota (astean 523 minutu), "herramienta" (283 minutu), herri kirolak (208 minutu) eta futbola (*El Derby* saioa, asteko 172 minutu). Futbol emanaldirik ez zegoen garai honetan, nahiz eta aurreko urtean Espainiako Ligako partidak eman, astean egun batean edo bitan.

Fikzioa

Programazioaren baldintzatzaileak aipatzean esan dugun legez, kanpoan ekointzako fikziozko saioek (bereziki filmek) ez dute Canal Vascon emateko modurik. Horregatik fikzio bakarra honakoa da: ETBrentzat sorturikoa (*Goenkale*, astean 275 minutu, *Jaun ta Jabe*, 64, *Dos y Uno* eta *Maiete*, astean ordu erdi inguru bakoitza); ETB ko-ekoizle

duena (film bat astean), edota FORTAren barruan eginikoa da (*Colegio Mayor* telesailaren kasua, asteko hiru ordu laurdeneko emaldia).

Lehiaketak eta Umorea

Canal Vascon ikus daitekeen lehiaketa bakarra *Date el bote* saioa da (515 minutu).

Umora saioek ere oso gutxi betetzen zuten, garai honetan, Canal Vascoren parrilla: orotara lau ordu t'erdi inguru astean (*El Show de...*, *Zoombados* eta *Qué pasa pues*).

Euskal kultura tradizionala

Kategoria honen barruan euskal kultura tradizionalaren alderdi ezberdinak erakusten dituzten saio batzuk sartu ditugu, beren edukiaren arabera sailkatuz, formatu ezberdinak izan arren. Era honetako saioek Canal Vascon duten presentzia, hainbat aurreiritziren arabera bestelakorik pentsa baliteke ere, oso urria da. Aztertzen ari garen astean, zehazki, honako saioak sar zitezkeen kategoria honetan: *Música Popular Vasca* (astean 90 minutu), *La Pesca* (60 minutu), *Zintzarria 2001* (60 minutu), *Girasol* (30 minutu) eta *Musika eta Irudiak* (14 minutu astean zehar).

Musika, Haur eta gazteak, eta Erlijiozkoak

Generoen araberako iruzkina amaitzeko, esan dezagun hiru haue-tako bakoitzean barruan saio bana agertzen dela Musikan, *Divertimento*, astean 187 minutu; Haur eta gazteak sailean *Betimu*, astean 150 minutu; eta Erlijiozkoan *Meza Santua*, 120 minuturekin.

BIGARREN ZATIA

3. DIASPORAKO EUSKALDUNAK

Okertu egingo ginateke, Canal Vascoaren erabilera aztertzean, “diasporako euskaldunak” telebista kanal honen aurrean modu homogeneoan aritzen direla pentsatuko bagenu. Ikusiko dugunez, urrutitik datorkien telebista oso interes ezberdinez eta ikuspuntu anitzetatik jasotzen dute. Era berean, guztiz desegokia litzateke erabilera hori, munduan zehar barreiatuta dauden euskaldunek burutzen dituzten beste praktika eta jardueren testuingurutik aterako bagenu. Izan ere satellite bidezko telebista ez baita nortasun diasporakoari eusteko bide bakarra; aitzitik, mendez mende atzerrira jo duten komunitateek beren nortasuna nola edo hala birsortzeko garatu eta gauzatu dituzten praktiketan bat baino ez da, berantiarrena izanagatik. Eta praktika hori modu batekoa edo bestekoa izatea, ezinbestean loturik dago bera gauzatzen duten gizaki eta taldeek dauzkaten ikuspegiari eta burutzen dituzten jarduerari. Gure abiapuntua, beraz, honakoa da: gaur egungo komunikaziorako teknologia berriek eta, bereziki, satellite bidezko telebistak, diasporako euskaldunek Euskal Herriarekin duten loturan aldatuta handiak eragin baditzaie ere, Canal Vascoaren erabilera testuinguru zabalago baten barruan kokatu beharra dago. Oro har, diasporan euskaltasuna bizi eta birsortzeko historian zehar burutu diren eta oraindik orain burutzen diren jarduerak eta praktiken testuinguruan, alegia.

Hortik datorkigu, beraz, Canal Vascoaren erabileraren testuinguruarekiko interesa. Horretara iritsi aurretik ordea, bada zerbait argitu beharra “diasporako euskaldunak” kontzeptuaren inguruan. Zehaz-

kiago, zer diren euskaldunak, eta zer den diaspora. Ikus ditzagun kontzeptu biak banan bana.

Nortzuk dira diasporako euskaldunak?

Gure lanari ekiteko lehenengo zailtasuna, euskaltasunaren definitioa bera da. Gaur egungo Euskal Herrian bertan, ez gara beti bat etortzen nortasun hau definitzean. Honela, batzuetan hizkuntza eta kultura hartzen dira irizpide nagusitzat euskalduna/erdalduna bereizketa egiteko: euskalduna euskal hiztuna da, besteak erdaldunak. Beste batzuetan jatorri genetikoari (senideari, nahiago bada) begiratzen zaio: euskalduna euskal jatorria duena da, abizenean edota denborak ematen duen integrazio mailan islatuta, hizkuntza bigarren mailan utzirik. Bizilekua eta auzotasun administratiboa ere lehen mailako definitzaileak dira, eta euskalduna euskal lurraldeetan errolatuta dagoena litzateke, honen arabera. Eta abar luzea. Irizpide ezberdintasun honi, bestalde, eremu definitzailearekiko desadostasunak gehitu behar zaizkio: nafarra edota zuberotarra euskaldunak ote diren, zalantzan jartzen du askok, bai eta nafar zein zuberotarren artean ere. Anabasa hau gutxi balitz, nortasun honen nolakotasuna ere ezbaian dago, batzuen iritziz euskaltasuna eta espainol-frantsestasuna elkarri kontrajarriak dauden bitartean, beste batzuen aburuz erabat osagarriak baitira. Bistan da Euskal Herriak eztabaida hauek guztiak zirt-zart ebakiko zituen estatu propioa eduki ez izanak garrantzi handia izan duela oraingo egoera txit eskizofreniko honetan.

Zailtasun hauek euskal lurraldeetatik kanpora eramaten ditugunean, arazoak bere horretan dihardu, areagotzen ez denean. Izan ere, hemendik milaka kilometrotara eta hainbat gizalditara dagoen euskaldunari, gainera, bestelako hizkuntza, auzotasun administratibo, jatorri familiar, talde harreman eta leialtasunak pilatzen zaizkio. Gauzak honela, ez da harrizkeoa euskal diasporaz idatzi diren liburu esanguratsuenetako baten lehenengo atala honela hastea: “Zer da euskalduna?” William Douglasssek eta Jon Bilbaok (1986), beren liburu mardulean, zailtasun horrekin egiten dute topo lehen unetik.

Euskal Herrian bizi dugun nortasun gatazkatik zein emigrazioaren ondorioz sortzen diren egoera berrietatik datozen zailtasunez gain, talde nortasunaren konplexutasuna ere ezin aipatu gabe utzi. Talde nortasuna ez da behin betirako emanda datorren zerbait, eta etenga-

beko prozesu gisa ulertu behar dugu. Prozesu horretan, jakina, iraunkortasunak zeresan handia du (nortasunaren osagai nagusietakoa baita denboran zeharreko iraunkortasuna). Baina iraunkortasunak ez du aldeazintasuna esan nahi. Horregatik, behin eta berriz ari gara talde nortasuna birsortzen, horretarako bideak ere gizarte testuinguruekin batera eraldatzen direlarik. Prozesu hauek, gainera, gero eta azkarragoak dira informazioaren gizarte konplexuetan, Alberto Melucci (2001) soziologoak dioenez.

Zailtasunak zailtasun, estatu, pasaporte, hizkuntza bakar, ezaugarri fisiologiko bereizgarri eta horiek guztiak gabe ere, euskaldunak izan badirela egiaztatzen duen egitaterik badago: beste ezeren gainetik, talde bat dagoela, munduan, hala historian zehar nola gaur egun ere bere burua hala aldarrikatzen duena. Horrek –baina ez horrek bakarrik– egiten gaitu euskaldun. Eta horrek berdin balio du Euskal Herrian diren euskaldunentzat zein munduan zehar direnentzat ere. Hortik aurrera alde handiak daude: adibidez, noraino dira konparagarriak euskal jatorritik sortu, euskara ama hizkuntza eduki eta Euskal Herrian bizi denaren, eta bere herenamona euskalduna zuen eta Euskal Herriarekin bestelako harremanik ez duen laugarren gizaldiko euskal argentinar baten euskaltasunak? Argi dago objektiboki zaila dela biak parekatzea. Baina biek batera dute beren burua “euskalduntzat” jotzea, nahiz eta, seguruenik, izaera hori modu ezberdinetan ulertuko eta gauzatuko duten. Beraz, badugu geure ikerketan xedetzat jende bat hautatua: Euskal Herritik kanpo –zehazki Latinoamerikan– beren burua euskalduntzat dutenen multzoa, hain zuzen. Baina argi utzirik multzo hori, ikusiko dugunez, oso heterogeneoa dela, eta horren ondorioz Canal Vasco oso modu eta interes ezberdinez erabiltzen dutela.

“Diasporaz” mintzatzen garenean ere, argi eduki behar dugu aurrean ditugun pertsonak (gure kasuan Latinoamerikako euskaldunak) *taldea* ala *kategoria* osatzen ote duten. Kontzeptu bi hauek ondo bereizita daude soziologian, eta komeni da gure ikerketan ere bereizita erabiltzea. *Taldea* diogunean, beren artean harremanak dituzten pertsona multzoak ditugu gogoan, harreman horiek oso tankera ezberdinak har ditzaketelarik, eta praktika anitzetan gauzatu. Gure kasuari dagokionez, esan dezakegu euskaldunek, mendeetan zehar, sarritan izan dituztela beren arteko loturak kanpora joan direnean. Lotura horiek gertaera ezberdinetan gauzatu dira: harreman sare ez formalak, instituzionalizatutako praktikak (topaketak, jaiak e.a.), erakundeak (babes elkarteak, euskal etxeak...), eta beste asko. Era berean, egitura

horiek tokian tokiko mailatik hasi eta eremu handiagoak hartuz joan dira (esaterako herrialde oso bateko euskal etxeen elkarteak, hala nola FEVA Argentinan edo NABO AEBetan), azkenik diasporari mundu mailako tankera instituzionalizatua emanik (kasu ikusgarriena lau urtean behin antolatzen den Mundu Batzarra litzateke)³⁵. Zentzu honetan, “euskal diasporaz” ari garenean, egitura formal zein ez formal batzuen inguruan bildutako euskaldunek osatzen duten taldeaz (edo taldeez) ari gara.

Horiekin batera baina, badira taldeen egituretan sartzen ez diren euskaldunak. Beren euskaltasuna etxeko goxotasun eta bakardadean bizi dutenak, kasu batzuetan bestelako euskaldunekin inongo hartue-manik gabe. Euskaltasuna arbasoengandik jaso eta beste ezein iturritatik edo bestelako espazioetan garatu ez dutenak, baina nola edo hala beren burua euskalduntzat dutenak. Pertsona hauek, beste euskaldunekiko harremanean ez dauden neurrian, ez dira diasporako *taldekide*; baina beren burua euskalduntzat duten eta nortasun hori garatzen duten heinean, diasporaren *kategorian* sartzen dira³⁶. Aurrerago ikusiko dugu taldeen eta kategorien artean, talde nortasunaren izaerari dagokionez, dauden aldeak. Oraingoaz, esan dezagun bietan gara daitezkeela nortasun sentimenduak, nahiz eta garatzeko bideak eta, seguruenik, emariak oso ezberdinak izango diren.

Beraz, lan honetan ari garenean, diasporaren alderdi biak hartuko ditugu kontuan: egituratuta dagoen multzoa batetik, eta egituratu gabea bestetik (talde gisa eta kategoria gisa, alegia), batean eta bestean Canal Vascoren bizipen ezberdinak agertuko diren arren.

Euskal diasporaren testuinguru soziohistorikoa

Euskal diasporaz mintzatzean, beraz, oso egoera ezberdinak aipatzen ditugu aldi berean, bai euskaltasunaren definizioari dagokionez nola komunitatearen partaide izateko moduei dagokienez. Beraz, Canal

³⁵ Diasporaren Mundu Batzarraz eta, oro har, Euskal Herritik kanpoko euskaldunen erakundeei buruzko informazioa, Eusko Jaurlaritzaren webgunean aurki daiteke (Kanpo Ekintzarako Idazkaritza) .

³⁶ Hain zuzen ere, ikusiko dugunez, bere ezaugarriengatik, telebistak ahalmen handia du mota honetako jendearengana iristeko, eta hauek berebiziko bidea aurki dezakete telebistan beren nortasuna garatzeko eta isolamendua gaingitzeko.

Vascoren erabilerak ikus-entzuleek beren euskaltasuna bizitzeko duten moduari lotuta badaude, bizipen hori ezagutu beharra dugu. Geure ikerketarako hartu ditugun herrialdeak aipatuz, esan dezagun euskaltasuna ez dela berdin bizitzen Venezuelan eta Argentinan, eta horrek zerikusi zuzena du batera zein bestera joandako euskaldunen esperientziekin zein testuinguruarekin. Horregatik ezinbestekotzat jotzen dugu bateko zein besteko euskaldunen jatorri eta garapenari erreparatzea, aurrera egin baino lehen.

Argentinako euskaldunen historia luzea

Kolonizazio garaiak

Ternuako kostaldera joaten ziren arrantzaleak alde batera utzirik, lehen euskaldunak kolonizazio garaian iritsi ziren Amerikara. Euskaldun hauek, lehenak, Gaztelako Koroaren zerbitzura zetozen, eta Douglassek dioen legez, gehienbat “mertzenarioak, misiolariak, marinela eta merkatariak” ziren. XVI. mendeaz geroztik Amerikara joandako euskaldun askok botere postu garrantzitsuak eskuratu zituzten okupatutako lurralde berrian, hala egitura politikoetan nola ekonomiko eta erlijiosoetan ere³⁷.

Badirudi euskaldun hauen artean nolabaiteko taldetasun bereizgarririk bazegoela, penintsulako beste herrietako jendearekin batera eta Gaztelako Koroako zerbitzura joan arren. Taldetasun hau noraino hedatzen zen eta zertan oinarritzen zen eztabaidatzea ez dagokigu guri, baina zenbait gertaerak erakusten du euskaldunen arteko hurbiltasunen bat gertatzen zela. Kasu batzuetan, hurbiltasun hau beste talde batzuekiko lehian islatzen zen: hala gertatu omen zen Kolonek sortu zuen lehenengo kolonian, 1493an indiarrek oraingo Kuban suntsitutako *La Navidad* kanpalekuan hain zuzen; itxura denez, euskaldun eta gaztelauen arteko tirabirek ahalbidetu zuten tainen garaipena. Antzeko istiluak sonatuak egin ziren Potosin, Perun, XVI eta XVII. mendeen artean. Beste batzuetan, euskaldunen arteko taldetasuna konpainia eta elkarteen sorreran islatu zen: adibiderik aipatuenak, Venezuelan sortutako *Real Compañía Guipuzcoana de Caracas* (1728) eta Mexikoko

³⁷ Douglass eta Bilbaok (1986) oso dokumentaturik dute kolonizazioaren garaia.

Colegio de San Ignacio edo, popularrago egin zen izenean, *Colegio de las Vizcatnas* (1734an eraikitzen hasia)³⁸.

Argentinako jendeztatze garaia

Estatu modernoan sorreraren inguruko bibliografian sarritan aipatu izan da egitura politiko honek nazioaren beharra zuela bere zilegitasuna eraiki eta elikatzeko. Era berean, historiak argiro utzi du ohikoagoa izan dela estatuak berak nazioa egituratu izana, nazioak estatua sortu izana baino. Argentina ere ez da salbuespena izan, eta XIX. mendean hasieran independentzia eskuratu zuenetik, nazioa eraikitzea berebiziko helburu bihurtu zen. Prozesua ordea ez zen gertatu mendebaldeko Europako estatu gehientsuenetan bezala. Hauetan, lurralde mugatu batean bizi ziren herri eta kultura ezberdinak azpiratu eta denak bakar baten mende jarri osatuz joan da estatuari kohesio handiagoa edo txikiagoa eman dion nazioa (estatu frantses eta espainolak ditugu horien adibideak, hurrenez hurren). Argentinan bestelako egoera aurkitzen dugu 1816an, independentzia aldarrikatu zenean hain zuzen: oraindik lurraldea ez zegoen definituta, kolonizazioa ez baitzen erabat burutua, eta indiarrekiko borrokak aurrera jarraitzen baitzuen. 1880ra arte ez zen Panparen konkista amaitu, eta horrek zera esan nahi du: indiarrei gudaz guda irabazitako eremuak estatu berriaren lurraldea osatzera pasatzen zirela, baina estatuak eremu berri haiek jendeztatu beharra zuela baldin eta haiei eutsi nahi bazien. Estatua eta nazioa osatu ahal izateko berebiziko baldintza suertatzen zen, hartara, jendeztatzea. Horregatik Argentina, nazio gisa, ez zen sortu lurralde batean bizi diren herri eta komunitate etniko ezberdinak bateratetik (Europako kasua litzateke hori), indiarrei ostutako lur eremu berriak jendeztatetik baizik.

Eginkizun honetan, inmigrazio politika kontziente bat jarriko da martxan XIX. mendean erdialdetik aurrera. Politika honen bultzatzaileetako bat Juan Bautista Alberdi politikari eta diplomatikoa izango da, eta 1852ko bere *Bases y puntos de partida para la organización nacional* izeneko programa entzutetsuan, gerora oso zabaldua izango den leloa plazaratuko du: gobernatzea jendeztatzea da ("*gobernar es poblar*").

³⁸ Garai honetako Amerikako euskaldunen arteko ekimen kolektiboez, hala besteekiko lehian nola beren arteko sorkuntzez, ikus Douglass eta Bilbao, 1986 eta Muru, 1999.

Naziogintzaren eskema honetan, irizpide bi nagusituko dira. Alde batetik naziogintza hau esklusioan oinarritzen da, indiarrek kanpoan uzten dituelako. Nazioa, Espainiako Koroaren aurkako borrokan osatzen da noski, baina baita ere indiarren aurkako borrokan, hauei irabazitako lurraldeetan finkatzen baita. Bestetik, naziogintzak inklusioan ere oinarritu beharko du, etorkinak eraikitzen ari den nazioan integratu nahi direlako. Lehenengo irizpideak indar handiagoa izan zuen XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen lehen hamarkadetara bitarte, bigarrena ordutik aurrera nagusitu zelarik. Bi ereduak ezberdinak dira, eta garai ezberdinetan nagusitzen dira. Baina biek dute amankomuneko puntu bat: aukeraketa etnikoaren ezinbestekotasuna nazioaren diseinuan. Beste hitz batzuekin esanda, nazioa batasun etnikoaren gainean osatzeko asmoa da planteatzen dena, batean zein bestean.

Horrela, indiarren esklusioaren garaian, aukeraketa etnikoaren arazoia arraza hobetzea izan zen: Argentina jende langile, prestatu eta kultuaz osatu beharra aldarrikatzen zen, bertako arraza (indiarrena) albo batera utzirik eta bigarren mailakotzat jotzen ziren beste arraza batzuekako pertsoneri (juduak, eslaviarrak, afrikarrak, asiarrak...) bidea itxiz. Helburua, nazio argentinarraren arraza "zuritzea" zen. Horregatik atea zabaldu zitzaion europarrei, bereziki Europa atlantikokoei³⁹. Bigarren fasean, hots, jendeztatzea aurrera zihoan neurrian eta Argentinako gizartea etorkinez osatzen zen neurrian, gero eta handiago bihurtu zen nazioak beharrezkoa zuen *batasun izpiritualarekiko* kezka. Nazioa ez baita arraza soilez osatzen, kultura eta nortasun sentimendu komunaren beharra ere badago. Kezka honetatik, bigarren irizpidea indarra hartuz joango da, inklusioarena, alegia. Eta etorkinak gizarte argentinarran integratzea nahi bada, beharrezkoa izango da etorkin horiek horretarako erraztasuna edukitzea. Zenbat eta hurbiltasun handiagoa eduki jadanik argentinarra den populazioaren kultura eta ohiturekin, orduan eta errazago integratuko dira eta orduan eta zailagoa izango da etorkinek beren komunitate esklusiboak eta autokanporatuak osatzea. Ikuspegi honetatik, "espainolak" eta "italiarrak" izango dira gero eta gehiago

³⁹ Arrazaren zurizatze eta Europa atlantikoko etorkinen erakarpenaren pentsamolde honetan, eragin handia izango zuen Amerikako Estatu Batuetako inmigrazioaren esperientziak (Quijada, 1992). Izan ere, beste kolonia batzuetan gertatu ez bezala, AEBetan izandako inmigrazioa (gehienez herrialde anglosaxoietatik etorria) oso baietsia izan zen Argentinako politikariren artean.

aukeratuko diren etorkinak. Etorkin hauek bateragarriagoztat jotzen ziren beste batzuk baino, Argentinako baloreekin: orduko argentinar gehienen erlijioa konpartitzen zuten, katolizismoa, Europako beste herri batzuek (protestanteek, juduek, e.a.) ez bezala. Honez gain, gaztelera izanik hizkuntza nagusia, espainolek errazagoa zuten integrazioa. Eta italiarren kasuan, kontuan harturik jadanik etorritako italiarren presentzia handia, gizarte argentinarrak hauen kulturako osagai ugari hartua zuen. Honengatik guztiagatik, bi kolektibo hauek atearak propio zabalik izango dituzte Argentinan XIX. eta XX. mendean ere.

Une batean zein bestean, beraz, inmigrazio politika naziogintza-aren ardatz nagusietako bat izan zen Argentinan estatu-nazioaren sorreratik aurrera. Beraz, esan dezakegu Argentinan inmigrazioa ez zela naziotasunaren aurkako mehatxutzat hartzen, ez baitzen gertatzen nazioa osatuta egon eta gero. Aitzitik, nazioa bera etorkinez osatua da, indiar-arrak alboratu ondoren, eta horregatik esan dezakegu naziotasunaren eraikuntzaren osagai ezinbestekoa izan dela lehen unetik.

Horrela, XIX. mendean zehar Argentina jendeztatuz joan zen. Lehenengo errola burutu zenean, 1869an, lurralde osoko populazioa ez zen bi milioitara iristen. Handik hogeita bost urtera bikoiztu baino gehiago egin zen kopuru hura. Eta oraindik ere hamarkada batzuetan zehar populazioaren hazkunde tasa oso altuarekin jarraitu zuen, hurrengo taulan ikus daitekeenez:

10. Taula: Argentinako populazioaren bilakaera⁴⁰

<i>Errolda</i>	<i>Populazioa</i>
1869	1.830.214
1895	4.044.911
1914	7.903.662
1947	15.893.827
1960	20.013.793
1970	23.364.431
1980	27.949.480
1991	32.615.528
2001	36.223.947

⁴⁰ Instituto Nacional de Estadísticas y Censos de Argentina.

Hazkunde honen arrazoi handienetako bat itsasoaz beste aldeko inmigrazioa izan zen: 1857tik 1890ra bitarte, esaterako, milioi bat eta laurden baino gehiago izan ziren Argentinara itsasontziz iritsitako etorkinak. Horrela, Argentinako biztanleen laurden bat atzerrian jaioa zen 1895ko erroldaren arabera, eta kopuru hau % 30era iritsi zen 1914koan⁴¹.

Etorkin hauen jatorriari dagokionez, garai guztietan talderik handiena italiarrek osatu dutela esan dezakegu. XIX. mendearen bigarren erdian etorrien artean (1857-1890 tartean zehazki) adibidez, nazionalitate italiarrekoak % 60 ziren, nazionalitate espainolekoak % 18 zirelarik. XX. mendean ere joera hau mantendu zen oro har, eta 1991ko erroldan etorkinen % 20 italiarrak ziren, paraguaitarrak (% 16), txiletarrak (% 15) eta espainiarrak (% 14) atzetik zetozelarik.

Testuinguru honetan heldu ziren euskaldunak Argentinara, 1840ko hamarkadatik aurrera kopuru handietan. Euskaldunak europarrak izanik, atek zabalik izan zituzten lehenengo unetik. Euskaldunak, neurri batean, espainol edota frantses gisa heldu ziren Argentinara. Baina beste neurri batean nortasun propioa aitortzen zitzaien, eta ezaugarri positiboak ezagutu. Horren zergatia ulertzeko, beste kontsiderazio batzuen artean, XIX. mendeko oligarkian eta *intelligentsian* euskal jatorriko jendea bazela hartu behar dugu kontuan. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, euskaldunak oro har bereziak eta ondo ikusiak ziren zenbait girotan⁴².

Euskaldunen integrazioa eta komunitatearen egituraketa

Aipatua dugun testuingurua kontuan hartzea ezinbestekoa da Argentinako euskaldunen gaurko izaera ulertu ahal izateko. *FEVA (Federación de Entidades Vascas de Argentina)* elkartearen helburua, esaterako, honela definitzen da: “euskal kultura bizi eta transmititu, herri argentinarraren berezko parte izanik” (Muguerza, 1999). Euskal nortasuna

⁴¹ Hurrengo erroldetan jeitsi egin zen kopuru hau, 1947koan % 15 eta 1970koan % 13 izanik.

⁴² Bartolomé Mitre lehendakari ohiak (1862-1868), Argentinako kolonizazioa idealizatuz, zera zioen: Argentinara euskaldunak eta andaluziarrak etorriak zirela, Amerikako beste leku batzuetara extremadurar eta gaztelauak joanak zirelarik (Devoto, 1996).

badago, beraz, baina horrekin batera argentinartasun trinkoa ere. Eta bitasun horrek zerikusi zuzena du euskaldunek, Argentinara iritsitako unetik, bizi izan zuten integrazio prozesuekin. Izan ere, nazio argentinarraren eraikuntzan parte hartu zutenen artean izan baitziren euskaldunak.

Marcelino Irianik (2000), ondo dokumentatutako doktorego tesian, 1840tik 1920ra arte Panpa hezera iritsitako euskaldunen integrazio prozesuak aztertu ditu. Olavarria eta Tandileko Unibertsitateko irakasle honen kalkuluen arabera, epealdi horretan 200.000 euskaldunek utzi zuten Euskal Herria. Kontuan hartuta horietatik geroago itzuli zirenak (erdia edo gutxiago) eta migratzaile haien lehentasunak, laurogei urteotan Argentinako lurraldeetan 60.000 euskaldun baino gehiago errotu zirela estimatzen du. Lehenengo euskaldunak goiztiarrak izan ziren Argentinara heltzen, eta frantses, irlandar eta daniar batzuekin batera iritsi ziren. Pirinioen arro bietatik heldu ziren hiriburura zein Panpara. 1830 inguruan hasi ziren heltzen batzuk zein besteak, eta XIX. mendearen bukaeran jaitsi egin zen Euskal Herri kontinentaletik zetozenen kopurua, alderdi penintsularretik zetozenek 1920ko hamarkadara arte heltzen jarraitu zuten bitartean. Beste uholde bat izan zen 1936ko gudaren ostean, gehienbat erbesteratu politikoei osatua.

Etorrin hauek, neurri handi batean, katean etortzen ziren, munduan izan diren migrazio askotako gertaera hemen ere aurkitzen dugularik. Hots, lehenik etortzen direnek beste batzuk erakartzen dituzte, edo haien erreferente bihurtzen dira beste batzuk etor daitezten. Horrela, sarritan gertatzen zen Argentinara etorri berriak bazituela senideak edota ezagunak bizileku berrian, eta haiek lagundu egiten ziotela hasiera batean.

XIX. mendean etorritako lehen euskaldun haiek, Irianiren arabera, arin integratu ziren gizarte hartzailean. Lehenago esana dugun legez, etorkin goiztiar haiek aurkitu zutena ez zen jadanik osatutako gizarte bat, bere ohitura, kultura, egitura eta nortasunarekin (ez eta lurralde egonkorrekin ere). Aitzitik, gizartea bera osatzen ari zen haien etorrerarekin batera. Beraz, euskaldunak komunitate argentinarrean integratu zirela esatea baino egokiagoa litzateke euskaldunek ere komunitate argentinarraren integrazioan parte hartu zutela esatea. Irianiren hitzetan:

“La construcción de un ámbito sociocultural y una identidad de los vascos no es posterior a la conformación de un proyecto de identidad cultural y folclórica de los argentinos (principalmente entre los rioplatenses), sino paralela y en algunos casos precedente. Por ello tomará la

fuerza y la perdurabilidad que lo caracterizará; en parte porque venía a colaborar en la configuración de un proyecto nacional de identidad” (Iriani, 1999, 50).

Horrela, Argentinako euskal komunitatea argentinartasuna erakitzen ari den aldi berean osatuz joango da, naziogintza prozesu horretan izaera eta jite propioa hartuz eta, zenbait kasutan, bere emariak ere argentinartasunari emanaz. Halaxe gertatu zen, besteak beste, Argentinako eta Panpako kultura eta folkloreko osagai bihurtu ziren zenbait euskal kulturako jarduera eta objektuekin: janzkera, euskal kirolak, ohiturak, eta abar (Iriani, 1999, 45).

Hau bereziki egia da hiriburuz haratago joan ziren euskaldunen eta, oro har, etorkinen kasuan. Euskaldunak lurralde haietako lehenengo bizilagunen artean zeuden, eta horrek denen arteko elkartasuna eskatzen zuen. Izan ere, sortzen ari ziren herri eta poblamenduetan lan komunitario edo auzolanaren behar handia zegoen, eta horretan denek parte hartu behar zuten, etnia bateko zein bestekoak izan. Horrela, beharrak berak bultzatu zituen lehenengo migratzaile haiek komunitateak osatzera, eta honek integrazioa bultzatzen zuen.

Baina integrazio honek ez zituen ezabatu euskaldunen taldekidetasuna, ez eta nortasunaren autopertzepzioa. Irianiren esanetan, beren nortasuna eta komunitate zentzua gordetzeko instituzio propiorik gabe ere, lehenengo euskal argentinarrak haiek talde nortasuna garatu zuten, eta zenbait praktika eta jardueratan gauzatu: ohiturak mantenduz (janzkera, pilota jokoa, azturak eta abar), edota euskaldun batzuek komunitatean lortutako erreferentzialtasunaren bitartez. Euskaltasuna gordetze honetan garrantzi handikoak izan ziren, halaber, euskaldunek sortutako ostatu eta hotelak. Gune hauek, beren ezaugarriengatik, bi alderdi zituzten: barrura begira, euskaldunen topaguneak ziren, eta bertan tokian tokiko eta bidean zihoazen euskaldunek elkar topatzeaz gain, Euskal Herritik etorri berriak izanik oraindik errotu gabe zeuden euskaldunekiko kontaktua mantentzea ahalbidetzen zieten jadanik bertan bizi ziren euskaldunei. Kanpora begira, berriz, euskaldunen eta gainerako bizilagunen arteko topagunea ziren ostatu eta hotelak. Leku publikoak izanik, era guztietako bisitari eta bezeroentzako zabalik zeuden, kultura eta herri ezberdinetako pertsonen arteko topaketari espazio fisikoa emanaz. Baina espazio hau izendatuta edo markatuta zegoen, hots, “euskal marka” zeramaten. Kasu batzuetan izenean bertan: normalean euskal izena izaten baitzuten (*Hotel Euskalduna, Fonda Lecuona,*

"What was not Spanish was Italian, and (...) it was hard to detect the fine line of demarcation between Spain and Italy in the life of Buenos Aires. It might almost have been said that there were several kinds of Spaniards in Buenos Aires: the Gallego, the Basque and the Italian –the first contributing color and tradition, the second enterprise, and the third solidity." Sax Bradford, *The Battle for Buenos Aires*.

Hotel Pirineos, Hotel Kaiku, Fonda Maritorea, e.a.). Horrekin batera, bertan burutzen ziren zenbait jardueratan (hizkuntzan, janari motan, eta abar). Horrela, gune hauek, kanpora begira, euskal komunitatearen presentzia erakusten zuten jendaurrean, euskaldunak talde berezitu gisa agertuz.

Nola agertzen ziren euskaldun haiek naziotasunari dagokionez? Naziotasun administratiboaz ari bagara, bistan da espainol edo frantsesizat hartuak zirela. Baina beren buruen aurrean eta besteen aurrean, noraino ziren espainol edo fran-

tsesak, eta noraino euskaldunak? Irianiren arabera, berak aztertzen duen garaiko lehen hamarkadetan euskaldun haiek parte hartzen zuten instituzio espainol zein frantsesetan. Hala gertatzen zen, esaterako, erromerriekin. Erromeria espainolek, adibidez, jende asko biltzen zuten, eta haietatik hainbat partaide euskaldunak ziren. Bestelako erakunde batzuetan ere (esaterako *Club Español* delakoan) parte hartzen zuten Hegoaldeko euskaldunek. Iparraldeko euskaldunek ere beren espazio propioak zituzten, sarritan erakunde frantsesen inguruan, hala nola ospitale frantsesa (Douglass eta Bilbao, 1986). Bestalde, nahiz eta instituzio espainol edo frantsesetan parte hartu, eta naziotasun administratiboz halakoxeak izan, euskaldunak talde gisa ikusiak ziren. Beren ezaugarriengatik, izaeragatik (emandako hitzaren garrantzia, esaterako), garatu zituzten lanbideengandik eta beste arrazoi batzuegatik, euskaldunek talde bat osatzen zuten besteen aurrean. Horrela, ohikoa izaten zen, adibidez, Espainiatik etorritako guztiei *gallego* deitzea; euskaldunak ordea izenburu honetatik kanpo geratzen ziren, eta *vascos* bezala ezagutuak ziren⁴³.

Euskaldunak, beraz, talde gisa ikusiak ziren besteen aurrean, nahiz eta, hasieran bereziki, neurri batean komunitate espainol edo frantsesari loturik agertu. Baina lotura horretan aldaketa garrantzitsuak

⁴³ XX. mendean ere oso indarrean egon da bereizketa hau. Sax Bradford iparramerikarrak, Munduko Bigarren Guduan Argentinara egindako gerra bidaiaren ostean, Buenos Aireseko aniztasun etniko eta kulturalaz egiten duen deskribapenak argi uzten duen moduan (Quijada, 1992, 883).

gertatu ziren une batetik aurrera. Euskaldunen komunitatearen egituraketan espazio berriak sortu ziren, espazio propioak, espainol eta frantsesetatik berezituak. Honetaz horrela dio Iriani:

“Si en la primera época los vascos “pudieron” –pese a participar indistintamente de instituciones españolas y francesas- presentar ciertos elementos que les otorgaban identidad propia, luego de 1880 se fortalecerán ciertos espacios de sociabilidad claramente identificados con este grupo que, –pese a que no obstaculizaban la integración- les terminó de consolidar como colectividad” (Iriani, 2000, 328).

Aldaketa hauek zerk eragin zituen eta nola gertatu ziren sakonki aztertzea gure lanetik kanpo dagoen zerbait da. Baina gutxieneko ulerpen batek argitu egingo digu gaur egun Argentinako euskaltasunaren zenbait ezaugarri, bereziki euskaltasunaren aurrean izan daitezke sentipen eta jarrera ezberdinen existentzia.

Abiapuntu gisa, eta sinplifikatuz, esan dezagun Argentinara joandako euskaldunek espazio ezberdinetan birsortu eta transmititu dutela euskal nortasuna. Horietatik hiru maila bereiz ditzakegu argiro: familia, tokian tokiko euskaldunen komunitateko harreman ez formalak, eta euskal instituzioak. Familia, bistan da, talde nortasunaren bideratzaile nagusietako bat da. Zenbait kasutan familia bidezko nortasunaren transmisioa etenda geratzen den arren, beste askotan euskaltasuna gizaldi batetik bestera igorri dela badakigu jakin. Igorpen hau, bestalde, berrindartuta gera daiteke, transmisio hutsari bestelako familia harremanak eta praktikak gehitzen bazaizkio, hala nola kulturaren transmisioa (esaterako hizkuntza edota ohiturak), Euskal Herrian dauden senideekiko lotura, eta abar.

Tokian tokiko euskaldunen harreman ez formalei buruz ari garenean, etorkinen harreman pertsonalen mailan kokatzen gara. Esana dugu etorkinak, sarri askotan, migrazio kateetan etortzen zirela. Horrela, herrialde berrira heltzen ziren unetik beste euskaldun batzuekiko kontaktuan zeuden. Kontaktua hauek familiaz haratagokoak ziren, eta bertan ere zabaldu egiten ziren. Gorago aipatu ditugun ostatu eta hotelek, hain zuzen, komunitate hau harremanetan jartzeko espazio gisa jokatzeko zuten. Halaber, beste praktika askotan gauzatzen ziren euskaldunen arteko topaketa eta harreman sareak⁴⁴.

⁴⁴ Irianiaren lanean (2000), esaterako, argiro azaltzen dira euskaldunek euren artean ziztuzten harremanak, nola komertzialak eta profesionalak hala sozialak eta familiarak.

Beste maila batean kokatzen dira euskal instituzioak eta, zehazki, "euskal etxeak". Hauek, definizioz, euskaltasuna mantendu eta birsortzeko propio sortutako erakundeak dira. Hauetan, nola edo hala definitu egiten da euskaltasuna; hots, modu kontzientean zehazten da euskaltasuna zer den eta zer ez den, nortasun propioaren eraikuntzan urrats bat emanez. Horrela, esan dezakegu familian transmititzen den euskaltasunak ez duela zertan diskurtso borobil eta mugatzailerik eduki. Euskaltasunak alderdi ezberdin ugari izan ditzake familia bate-tik bestera, hizkuntza, jatorria, kultura, diskurtso eta beste zenbait fak-toreren arabera. Gainera, familian bertan euskaldunak ez diren pertso-nak egon daitezke (euskaldunak beste herrietako ezkontideekin guru-tzatzearen ondorioz), euskaltasunak, horrela, beste dimentsio bat har-tuz. Era berean, tokian tokiko harremanen kasuan, jadanik aipatua dugu euskaldunak, bereziki etorritako lehenak, oso arin integratu zire-la komunitate handiagoetan. Horrela, nahiz eta taldetasunari eutsi, talde bizitza hau beste komunitate batzuek zeharkatuta zegoen. Euskal etxeak, ordea, helburu argizatatu euskaltasuna eta taldea mantendu eta birsortzea. Talde nortasuna, beraz, ez da nahi eta nahi ez birsortzen den zerbait, ohartuki burututako langintza bat baizik.

Euskal komunitatearen egituraketan gertatutako aldaketak uler-tzeko baliagarria izan liteke, gure aburuz, F. Letamendiak nortasun etnikoak aztertzean darabilen bereizketa: *izaera etnikoa eta nortasun etnikoa* (Letamendia, 1997). Izaera etnikoa, dio Letamendiak, historia komuna duen taldeak epe luzean garatzen dituen osagai bereizgarriek osatzen dute. Osagai horiek (hizkuntza, kultura e.a.) bereiztu egiten dute talde bat beste taldeengandik, bai eta bereizgarri bihurtzen. Horrela, ezberdintasunarekiko pertzepzioa ere bada izan, osagai ezber-dinak agerikoak baitira. Nortasun etnikoa, aldiz, talde etnikoek beren historiako uneren batean garatzen duten zerbait da. Oro har, izaera etnikoa duen talde batek, uneren batean bere burua, talde gisa, mehat-xatuta ikusten badu, orduan erreakzionatu egiten du, nortasun etni-koaren birsorkuntzaren bitartez. Hala gertatzen da, esaterako, estatu-nazioaren eraikuntza prozesuetan non estatuek, nazioa osatu nahirik, lurralde bateko talde etniko ezberdinak bateratzeko saioari ekiten bai-tiote. Honen aurrean, talde etnikoarentzat helburu gisa planteatuko da bere buruaren defentsa eta, ondorioz, izaera etnikoaren defentsa. Honi nortasun etnikoa deritzo Letamendiak. Nortasun etniko hori garatze-ko, eginbehar zehatzak eta horiek bideratzeko egiturak sortuko ditu

talde etnikoak, eta, zenbait kasutan, bide politikora ere joko du, nazionalismoaren oinarriak jarritz.

Argentinako euskal etxeen sorrerak eta historiak, antzeko aldaketa bat erakusten digute. Lehenago sortuak ziren bestelako elkarteak, helburu nagusitzat euskal komunitateari asistentziatzko zerbitzua eta bestelako laguntzak ematea zutenak (jadanik aipatua dugun Mexikoko *Colegio de las Vizcatnas* bezalakoak). Baina euskal etxeen sorrerak berrikuntza bat ekarri zuen euskal komunitateen egituraketan, herri kontzientzia politiko bati atxikirik sortu baitziren.

Lehenengo euskal etxea 1877an sortu zen Buenos Airesen: *Laurak Bat* elkarte. Aurreko urtean sortua zen Montevideoko *Laurak Bat* elkarte, munduko lehen “euskal etxea”. Sorrera urteak ez dira kasualitateak, eta Euskal Herriko historiari ezinbestean loturik daude: 1876an, bigarren guda karlistaren ostean, foruak galdu zituzten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak. Hain zuzen ere, foruen galera honi erantzuteko sortu ziren zentro biak. Gertaera haren lekuko, Buenos Airesko elkarteke lehendakariordeak zentroaren fundazio egunean azalduakoa:

“Ante la crítica situación que atravesaba el País Vasco y en el inminente peligro en que se hallaban las instituciones que desde tiempo inmemorial venían haciendo la felicidad de los eúskaros, debíamos, olvidando antiguas rencillas de partidos, unirnos estrechamente todos los vascos que, desde estas lejanas playas, mirábamos con toda ansiedad e interés los sucesos que se van desarrollando en nuestro idolatrado país” (Cfr. Ezkerro, 2000)⁴⁵.

Xede horrekin, asistentziatzko eginkizunez gain, bestelako eginkizunak burutuko dira euskal etxe sortu berrian: hala nola Euskal Herria ezagutzeko eta ezagutarazteko liburutegia sortu, Euskal Herriko talde eta erakundeekiko harremanak garatu, aldizkariak argitaratu, eta abar.

Izaera honetako euskal etxeen sorrerak urrats bat suposatu zuen euskal komunitatearen egituraketan. Izan ere, instituzio hauek euskal nortasuna birsortzeko propio jaiotako erakundeak ziren neurrian, euskal komunitatea definitzeko eta mugatzeko zutabea jarri zen. Aipatu ditugun beste espazioetan ez bezala (familia eta harreman pertsonalen

⁴⁵ Lehenengo euskal etxeak foruen abolizioari emandako erreakzio gisa sortu zirelako ideia, halaber, aztertu dugun beste autore batzuek azpimarratzen dute: Iriani, 2000; Irigoyen, 1999; Azcona, 1999; Muguerza, 1999; Muru, 1999; Alday, 1999; Douglass eta Bilbao, 1986.

sarean eraikitakoa hain zuzen), euskal etxeek euskaltasuna defendatzeko beharra aldarrikatzen zuten eta horretarako bideak garatu zituzten, Letamendiak aipatzen duen izaera etnikotik nortasun etnikorako urratsa ahalbidetuz hain zuzen.

Laurak Bat elkartearen sorrerak, bestalde, zera erakusten digu: alde batetik, euskaltasunaren defentsa zerbaiten aurkako erreakzio gisa planteatzen da: Euskal Herriaren existentzia mehatxatzen duen abolizioaren aurkako erreakzio gisa hain zuzen. Hortik euskaltasuna modu kontzientean birsortu beharra. Baina aldi berean, gure egunetik begiratuta bederen paradoxikoa den zerbait eragin zuen mugimendu honek: euskaldunen arteko banaketa hain zuzen. Izan ere, abolizioak ez zeukan esangura berbera euskaldun guztientzat. Iparraldeko instituzio eta erregimena ia ehun urte lehenago ezabatuak izan ziren, Frantziako Iraultzarekin batera; beraz, foruen auzia eta karlistadak Hegoaldeari zegozkion. Bestalde, 1876ko abolizioak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruak ezabatu zituen, ez ordea Nafarroako Lege Paktatua. Azkenik, guda karlistetan Euskal Herriko biztanleak beraiek banatuta egon ziren, karlista foruzaleen eta liberal aboliziozaleen artean. Honen ondorioz, abolizioaren aurkakotasunez sortutako euskal etxearen inguruan euskaldunen arteko banaketa gertatu zen. Horrela, Buenos Airesen bertan, *Centro Navarro* eta *Centro Vasco-Francés* elkarteak sortu ziren, biak 1895an. Lehena, zenbait nafar bat ez zetozelako lehenengo elkartearen foruzaletasunarekin (Alday, 1999). Bigarrena, *Laurak Bat*-en estatutuek Hegoaldeko euskaldunei mugatzen zietelako sarrera, Euskal Herri kontinentalekoak kanpoan utzita. Iparraldekoek, orduan, ez zuten lekurik aurkitzen beren buruentzat, elkartearen sortzaileetako batetik dioen legez:

“El Laurak Bat no nos admitía en su centro debido a sus estatutos, las sociedades francesas florecientes como La Gauloise, Les Enfants de Beranger y otras no eran ambiente propicio para nuestra manera de ser. Esas fueron las razones que nos indujeron a formar una agrupación”⁴⁶.

Baina lehenengo euskal etxe hauek erreakzio politiko bati loturik agertzen direla esanda ere, ez genituzke egokiro kokatuko Argentinako euskal komunitatearen barnean gertatzen ari ziren aldaketa hauek eus-

⁴⁶ Juan Etchelecu, cfr. Ezkerro, 2000.

kaltasuna espainol edo frantsestasunari aurrez aurre jarritako sentimendu gisa osatzen ari zela esango bagenu. Gogora dezagun lehenengo euskal etxeak euskal nazionalismoa baino lehenago sortuak izan zirela. Garai hartan, euskal komunitatea egituratzen ari zen komunitate gisa, jarduera eta espazio ezberdinen bitartez. Mugimendu hori, ordea, orduko ikuspegi eta parametroetan burutzen ari zen. Hori hobeto ikustarazteko, gogora ekar dezagun Panpako erromeriei buruz, esaterako, Irianik (2000, 238) azaltzen diguna:

“En algunas ocasiones las romerías (oraindik Romería Española izenpean burutuak) se forjaban como otro forjador de la imagen de la colectividad vasca; imagen que se estaba forjando con predominio de elementos “culturales”. Pero hablar de que los españoles o los vascos capitalizaran la organización de las romerías a favor de su patrimonio cultural, es trasladar una problemática actual –al menos posterior a Sabino Arana- hacia una etapa donde seguramente ser español y vasco o francés y vasco no fuesen posiciones antitéticas (...) El concepto de patria englobante parece definir bien lo que debió de acontecer con una mayoría euskalduna hasta casi finales del período que analizamos [1840-1920]”

Nazionalismoa, eta horrekin batera euskaltasunaren eta espainol zein frantsestasunaren bateraezintasuna, XX. mendearen hasieran hasi zen zabaltzen Argentinako euskaldunen artean. Horren adibideak dira Laurak Bat-en gertatutako tirabirak. Berezko izena Sociedad Vasco-Española Laurak Bat zuen elkarteak, joera nazionalista eta joera espainolistaren arteko talka suertatu zen, eta 1918an lehenengo nagusitu zen zuzendaritzan. Hortik aurrera hasi zen ikurrina jartzen, eta ordura arte indarrean egon zen ohitura hautsiz, Espainiako enbaxadorea elkarteko ohorezko bazkide izendatzeari utzi egin zitzaion. Joera hau indartu egin zen hurrengo urteetan, eta 36ko gudako erbesteratuen etorreraren ostean Laurak Bat eta bere inguruko elkarte eta taldeek atzerriko euskal nazionalismoaren gotorleku bihurtu ziren (Auza, 2002).

Era berean, hiriburu eta Panparen arteko ezberdintasunak hartu behar ditugu kontuan. Irianik dioen legez, Panpan euskaldunen komunitatea beste modu batean antolatzen zen, herrietako egituretan txertaturik. Euskaltasuna ez zen gune itxi batera mugatzen zen zerbait, herri bizitza osora zabaldutako zerbait baizik. Horren adibide grafikoa lehenago aipatu ditugun ostatu eta hotelak lirateke: euskaldunen topagune eta adierazgarri, baina aldi berean herri osoari irekiak eta beste etnietako jendearekin topo egiteko lekuak. Irianiren aburuz, herrietan

integrazio maila handiagoa zegoen, auzokideek komunitateko bizitzaren arlo ezberdinetan parte hartu behar izaten baitzuten. Hirietan ordea, bizitza atomizatuago egoten da eta ez hain integratua, eta honek bultzatzen zituen euskaldunak beren arteko sarea trinkotzera:

“En las grandes ciudades, la debilidad del rol del vecino y las escasas posibilidades de participación en casi todos los ámbitos debe haber presionado a una búsqueda más intensiva de mecanismos de acercamiento con connacionales (...) no es casualidad, por otro lado, que en las grandes ciudades hayan nacido las pocas instituciones euskaldunas del período” (Iriani, 2000, 251).

Laburtuz, beraz, esan dezakegu XIX. mendearen amaieran Panpan euskal komunitatea integratuago zegoela herrietako bizitzan, eta euskaltasunak ez zuela hain egituraketa trinkoa, irekiagoa baizik. Hiriburuetan ordea, instituzio propioak zituzten euskaldunek, beren nortasuna mantendu eta birsortzeko xedez sortuak, eta aldi berean euskaltasunak izaera politikoagoa zuela.

Argentinako euskal komunitatearen egituraketan izandako bilakaera laburbiltzeko, jo dezagun berriro ere Irianirengana (1999). Haren aburuz fase ezberdinetan osatu zen egitura hori. Azaldua dugun lehenengo fasean (1840-1890) oinarriak jarri ziren, lehenik euskaldunen etorrera masiboarekin eta hirietan zein Panpan hedatzearekin, eta gero lehenengo euskal etxeen sorrerarekin. Bigarren fase batean ere (1890-1925) euskaldun ugari etorri zen. Hauek ekarri zituzten Euskal Herrian ordurako hedatzen hasita zeuden ideia berriak, Sabino Aranaren nazionalismoa besteak beste. Fase honetan sortu ziren beste zenbait euskal etxe eta elkarte: Bahía Blancako *Laurak Bat* (1899), Buenos Aireseko *Asociación Cultural y de Beneficiencia Euskal Etchea* (1904), *Acción Vasca* (1923) eta *Gure Etchea* (1929), Rosarioko *Euzko Batzokija Zazpirak Bat* (1912) eta *Centro Navarro* (1913). Horietako batzuetan nazionalismo politikoaren presentzia nabarmena zen, jadanik aipatua dugun *Acción Vasca* elkartearen kasuan bezalaxe.

Hirugarren fasea 1936ko gudaren osteko erbesteratuen etorrerarekin zabaldu zen. Uholde honen ekarpena, seguruenik, ez datza hainbeste ekarritako jende kopuruan; izan ere, ordurako euskaldunen inmigrazioa txikiagoa zen Argentinan. Baina talde honek zenbait ezberdintasun zituen aurreko gizaldietako etorkinekin. Batetik kontzientzia politiko altuko taldea zen, gudako erbesteratuak izanik. Bestetik, aurrekoen aldean (bereziki lehenengo gizaldietakoan aldean), ez zetozen

baserri girotik, giro guztietatik baizik, beren artean formazio altuko eta euskal intelligentsiako kideak ere bazirelarik. Honek indar berria eman zion Argentinako euskal komunitateari. Izan ere, beraien ekarpenez sortu ziren gaur egun bizirik dauden euskal etxe gehienak. Era berean, beren ekarpena funtsezkoa izan zen euskal kultura idatziak eta euskal nazionalismoak gerra ostean izan zuten segida ulertzeko, garai hartako liburu eta aldizkarien ekoizpenak erakusten duen legez (Ugalde, 1985).

Laugarren fasea Espainiako diktaduraren amaieraren ostean zabaltzen da. Franco hilda eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkorako Autonomia Estatutua indarrean jarririk, euskaltasunak beste mota bateko loraldia izan zuen Argentinan. Garai horretan, dio Irianik, euskal etxeak jendez gainezka egon ziren, eta euskaltasunaren aldarrikapena zein arbasoen bilaketa biziki hedatu ziren. Garai hartako loraldi ilusionagarriari Eusko Jaurlaritzaren politika gehitu behar diogu, zeinak euskal etxeentzako laguntzak emanaz, diasporarekiko harremanak sendotuz eta munduko euskaldunen arteko topaketa bultzatuz, indar handia eman baitzien Argentinako euskal etxeei ere⁴⁷.

Gaur egun, Argentinan 85 euskal etxe daude, 15.000 bazkide dituztela. Horietatik ia erdia 1985tik aurrera jaiok dira (batzuk birsortuak) (Totoricagüena 2000 eta Ezkerro, 2000). Kopuru honekin, herrialde horretakoak dira Euskal Herritik kanpo mundu osoan zabalik dauden euskal etxeen % 40, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzarako Idazkaritzan erregistroaren arabera⁴⁸. Era berean, esan dezagun euskal etxeen inguruan biltzen den euskal komunitatearen barruan herrialde hartzailean integrazio estruktural handiena Argentinan eta Uruguayn dagoela: izan ere, herrialde hauetako euskal etxeetako bazkideen artean oso gutxi dira lehen gizaldiko euskaldunak, eta hamairetik bederatzi herrialde hartzailean jaiok dira⁴⁹.

⁴⁷ Irianik (1999) bostgarren fase bat ere aipatzen du, 1980ko hamarkadaren amaieratik aurrerakoa. Gehiegi definituta uzten ez duen arren, "kantitateak kalitatea ordezkatu duela" dio, hots, gaur egun euskaltasuna oso hedatuta dagoela, baina nonbait "azalekoagotzat" du oraingo hedapen hori. Hala ere, zoritxarrez, bere lanean ez du ideia hau gehiegi garatzen.

⁴⁸ Kontuan hartu behar da munduan diren euskal etxe guztiak ez direla erregistro horretan sartu, arrazoi ezberdinengatik. Hala ere, joera nagusien isla delakoan erabili dugu (Martinez de Luna, 1999).

⁴⁹ Ibidem.

Hau guztia, euskal jatorriko bi edo hiru milioi argentinar biltzen dituen herrialde batean gertatzen da⁵⁰.

Euskara Argentinan

Informazio mugatua dugu Argentinara joandako euskaldunen hizkuntza transmisioaz⁵¹. Zalantzarik ez dago XIX. mendean iritsitakoen artean euskal hiztunen portzentajeek oso altuak izan behar zutela, zein eskualdetatik eta zein girotik zetozen kontuan hartuta. Era berean, bada-kigu, testigantza ezberdinei esker, mende hartan Buenos Airesen euskaraz ere egiten zela, euskalki guztien presentziarekin. Esaten denez, Luis Luziano Bonaparteren koadernoetako batean Argentinako euskal esamoldeak jasotzen ziren. Era berean, bertsolarien emanaldiak egiten ziren euskal etxean, eta *Centro Vasco Francés*-eko estatutuak frantsesez eta euskaraz erredaktatu ziren. Bestalde, 1860an *Gramática vasca para aprender castellano* izeneko liburua argitaratu zen Buenos Airesen, garai hartako euskaldun askok gaztelerarekin zituzten arazoan erakusgarri. Honi zenbait komunikabidetako euskararen erabilera gehitu behar diogu. Beraz, XIX. mendean euskara biziaren presentziari ukazina dela deritzogu.

Hortik aurrera aurkitzen duguna zera da: euskararen aldeko ekimen ugari. Euskal etxean lan ildoetan, jadanik esana dugu euskararen zabalkundea lehenengo postuetan zegoela. Era berean, euskararen irakaskuntza formalari ekin zitzaion XX. mendearen hasieratik aurrera, hala nagusiei (Pedro Mari Otaño adibidez ibili zen lan honetan) nola umeei ere (*Euskal Etchea* ikastetxean). Aurrerago, eta modu nabarmenean gudako erbesteratuen etorrerarekin, euskarazko liburugintza ugaldtu egin zen, eta adibide gisa *Martin Fierro* Argentinako epopeia-ko poema nazionalaren itzulpena dugu, Aita Jaka Kortejarenak burutu eta Ekinek argitaratua.

Euskararen aldeko esfortzu instituzionalizatu honek gauza bi iradokitzen dizkigu. Lehena, euskal nortasunaren kontzientziaren sendotzea, lehenago aipatua dugun moduan. Bigarrena, euskara ez zela familia barruan transmititzen ari, eta bere iraupena ziurtatzeko bestelako mekanismoen beharra zuela. Beste alde batetik, gure lanean jasotako

⁵⁰ Horiek dira iturri ezberdinetan ematen diren kopuruak. Zehazteke geratzen da ordea zer den "euskal jatorria". Ez dugu ezagutzen, bestalde, hauetatik zenbatek jotzen duen bere burua euskalduntzat, nola edo hala.

⁵¹ Ikus, besteak beste, Auza, 2003 eta Aramburu eta Ezkerro, 2003.

testigantzek ere erakusten digute euskararen transmisioa eten egiten zela behin Argentinara iritsita, eta bertan jaiotako lehenengo gizaldiak, oro har, jadanik ez zuela eskuratzen, gutxienez XX. mendean etorritakoen artean. Euskaradunak, beraz, gehienbat Euskal Herritik etorritakoak ziren, migrazio uholde ezberdinetan.

Honetaz, Totoricagüenak egindako lanak datu interesgarri bat ematen digu: berak jasotako inkesten arabera, Argentinako laginaren % 16k euskaraz erraztasunez, zailtasun txikiak mintzatzeko gai dela dio. Gogora dezagun, baina, lan hau gehienbat euskal etxeen inguruan biltzen den komunitatearen baitan egin dagoela, eta Argentinan bederen euskal komunitatea hori baino zabalagoa dela.

Azken urteetan duela mende bat baino gehiagotik euskara berreskuratzeko egindako esfortzuek sostengu handia izan dute, plan ezberdinei esker. Horrela, gaur egun *FEVA* eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaz saio ezberdinak egin dira euskara irakasteko, Euskal Herritik Argentinara irakasleak bidaliz, handik hona ikasleak ekarriz, eta azken gaur egun Hezinet programaren eskutik, ordenagailuak ere gehituz aurrez aurreko irakaskuntzari. Honi guztiari esker, hogeitatu bat euskal etxetan ematen dira euskarazko eskolak, eta Hezinet programan 500 ikasle zeuden matrikulatuta 2002an. (Auza, 2003)

Bukatzeko, eta laburbilduz, zera esan dezakegu: Euskal Herritik Argentinara joandako migratzaileak eta haien ondorengoak, oro har, oso integratuta daude gizarte argentinarrean. Gizaldietan aurrera joan arren, euskaltasunari eutsi egin diote ondorengo haletako askok. Honek, eta besteek aintzat hartua izanak, taldetasun sentimendua iraunarazi du. Eta talde edo komunitate hori, XIX. eta XX. mendeetan zehar, bere egitura propioa sortuz joan da, euskal nortasunari eutsi ahal izateko. Honek ez du adierazten, ordea, euskal argentinarrak guztiak egitura horien inguruan biltzen direnik. Gaur egun, gure ikerketan ikusi ahal izan dugun bezalaxe, euskaltasunak alderdi ugari ditu, eta euskal etxeen gune gogorrean euskaraz lanean ari direnengandik Euskal Herritik abizena eta ia ezer gehiago ez duten pertsonengana doan espektro zabalean kokatzen dira euskal argentinarrak.

Venezuelako euskaldunen historia laburra

Kolonizazio garaiak

Latinoamerikako txoko askotara bezala, Venezuelara ere euskal konkistatzaile eta kolonizatzaileak lehenengo uneetatik etorriak ziren,

eta horietako batzuek itzal luzea utzi zuten herrialde hartako historian, hala nola Lope Agirrekoak. Izan ere, oinatiarrak, Perun hasitako ibilbidearen segidan, Venezuelako Margarita irlan bukatu zuen bere abentura, Espainiako Koroari aurre eginez eta irla honen independentzia aldarrikatuz, 1561 inguruan. Baina are itzal luzeagoa utzi zuen 1728an sortu eta mende erdi batez Venezuela ia euskal probintzia bihurtu zuen *Real Compañía Gipuzcoana de Caracas* elkarteak (Douglas eta Bilbao, 1986, 118-127). Konkista garaitik aurrera, Venezuelako kolonia ez zen oso errentagarri suertatzen Espainiako Koroarentzat. Besteak beste, hango kakao ekoizleek (huraxe baitzen gehien atzerriratzen zen produktua eta diru iturri nagusia) nahiago zutelako Kariben zebiltzan merkatariekin, gehienbat holandarrekin, tratuan aritu Koroarekin berarekin baino. Honen aurrean, euskal enpresari batzuek, Gipuzkoako gobernuarekin bat, zera proposatu zioten Espainiako Erregeari: konpainia bat sortzea, Venezuela kolonizatu eta hango merkataritza kontrolatu ahal izateko. Erregeak ontzat hartu zuen plana, eta konpainia sortu zuen aipatu datan. Horrela, konpainia honen bitartez, lehenagotik Venezuelako ekoizpenaren gainean aginte handiagoa zuten kanariarrak desplazatu zituzten euskaldunek. Oso denbora laburrean, euskaldunek errentagarri bihurtu zuten, Espainiako Koroarentzat, konkistatik ordura arte diru galera izan zen Venezuelako kolonia, eta horrekin batera beren presentzia areagotu zuten herrialdeko egituretan. Euskaldunen "ondo egindako lanaren" adibidetzat, esan dezagun 1748rako Espainiako Koroak eten egin zuen kanariarren sarrera Venezuelan.

Konpainiaren arrakastak mende erdi bat iraun zuen, 1780rako zikloa agortu zelarik, eta horrekin batera euskaldunen hegemonia Venezuelan.

Jendeztatze garaiak

Argentinan baino ehun urte beranduago hasi ziren heltzen Venezuelara kolonizazioaz osteko euskal migratzaileak. Izan ere, Venezuelan inmigrazio handia, zilarren herrian ez bezala, XX. mendearen bigarren erdialdekoa da. Bertako populazioaren bilakaerari erreparatzeak erakusten digunez, Venezuelako populazioaren hazkundera ez zen azkartu Bigarren Mundu Gerraren amaierara arte:

11. Taula: Venezuelako populazioaren bilakaera⁵²

<i>Errolda</i>	<i>Populazioa</i>
1850	1.490.000
1900	2.334.000
1930	2.950.000
1940	3.710.000
1950	5.145.000
1960	7.635.000
1970	10.520.000
1979	13.520.000

Bestalde, inmigrazioaz eskura ditugun datuak begiratuta, esan ahal dugu etorkinen ekarpena oso txikia izan zela hazkunde horretan, XX. mendeko bigarren erdira arte. Horrela, Uslar Pietri idazle eta politikari venezuelarrak honako datuak ematen dizkigu: 1852-1888 epean, 26.000 etorkin etorri ziren Venezuelara. Eta 1904-1935 bitartean, 29.000 (Davila, 2002). Beraz, kopuruak nahiko txikiak ziren, populazio osoaren aldean.

Venezuelako lehenengo konkistatzaileek jadanik ikusia zuten Maracaiboko lakuan ur azalera lurra isurtzen zuen jario beltza, eta ontziak istinkatzeko erabiltzen zuten. Baina petrolioaren ustiaketa komertziala XIX. mendean hasi zen. Handik aurrera, bereziki munduan autoen industriak aurrera egin ahala, diru iturri handi bihurtuz joan zen. XX. mendaren lehenengo herena joan zenerako esportazioek garrantzi handia zuten, eta orduantxe oso nabarmen geratu zen herrialdeak eskaintzen zituen aberastasun aukeren eta populazio txikiaren arteko aldea. Izan ere, hain lurralde aberatsean 3 milioi biztanle soilik izatea garapen ekonomikorako oztupo bihurtzen zen. Kezka horrek bultzatuta, inmigrazio politika egoki baten beharra ikusi zuen Venezuelako estatuak. 1938an hiru urterako plan bat onartu zen, bertan zera esaten zelarik:

⁵² *Nueva Enciclopedia Larousse.*

“Nuestra demografía es estacionaria y por consiguiente necesita aportes de sangre nueva que promuevan su favorable crecimiento. Venezuela no será jamás un gran país sin un paralelismo armonioso entre su potencialidad económica y el factor humano” (San Sebastian eta Ajuria, 1992, 39).

Testuinguru honetan, euskal erroak zituen Simón Gonzalo Salasek gerora Salas txostena izenez ezagutu den lana idatzi zuen⁵³: Txosten horretan jadanik aipatu dugun Juan Bautista Alberdi argentinarraren tesia hartzen da abiapuntutzat: gobernar es poblar. Baina Argentinan burututako politikaren alderdi negatiboak ikusirik, beste honela formulatu zuen Salasek inmigrazio politikaren helburua: gobernar es nacionalizar. Hots, kontua ez da jendeztatzea soilik, etortzen den jendea gizarte nazionalean integratzea baizik. Honekin, jadanik inmigrazio politika argentinarraren barruan ikusi ditugun bi muturretatik (jendeztatzea bata, nazio kontzientzia sortzea bestea) bigarrenari ematen zion lehentasuna Salasek.

Helburua, beraz, inmigrazioa handitzea zen, baina etorkinak integratzeko xedearekin eta herrialdea aberasteko bide gisa harturik. Horretarako etorkinen aukeraketa zorrotza egitea planteatu zuen Salasek. Aukeraketa hori irizpide ezberdinen arabera egin behar zen: arrazialak (zuriak izan behar zuten), erlijiosoak (katolikoak), politikoak (komunistak zein faxistak errefusatuta), moralak eta abar. Horrela, beste herrialde batzuetako esperientziak aztertu ostean, listoia oso altu jaritzen zuen Salasek bere txostenean. Eskakizunekin batera, alabaina, irtenbidea era ematen zuen Salasek. Venezuelak behar zituen etorkin aukeratu horiek baziren nonbait eskuragarri:

“Dónde están estos inmigrantes? Estos inmigrantes son por ahora 80.000. Son vascos y están en la actualidad en Francia, deseosos de venir. Podría decirse que hoy están huérfanos de su gran Patria, y se acogerían a la nuestra con el músculo y con el corazón. Están exentos de tutelaje extranjero y, por lo tanto, con ellos está salvado el más grave inconveniente que se presenta cuando se plantea el problema de la inmigración” ((San Sebastian eta Ajuria, 1992, 170).

Hortik aurrera, Salasen txostenak euskaldunen egokitasuna argudiatzen du. Batetik, Amerikako historian izan duten izen ona, *Com-*

⁵³ Txostena Koldo San Sebastianen liburuan irakur daiteke (San Sebastian eta Ajuria, 1992).

pañía Guipuzcoana ondo egindako lanaren adibidetzat harturik eta Venezuelako historian izan diren izen handietatik euskaldunak berreskuratuz, tartean, jakina, Simon Bolibar. Bestetik, euskaldunen izaera ezin egokiagoa azpimarratzen du, beren historia mitikoa, independentziazaletasuna, ideologia "osasuntsua" (faxismoaren kontrakoa bezain antikomunista), erlijio katolikoa, beren lanerako prestutasuna eta abar. Txostenaren ondorioa, beraz, argia da:

"Con el presente estudio creo haber puntualizado, en detalle, el asunto que supongo más trascendental para la vitalización efectiva del organismo nacional: el incremento de una fuerte corriente de inmigración vasca" (San Sebastian eta Ajuria, 1992, 180)

Hiru urteko plan horren barruan, bestalde, *Instituto Técnico de Inmigración y Colonización* delakoa sortu zen. 1939an Uslar Pietri izendatu zuten bertako zuzendari, eta Salas bera zuzendariorde. Zuzendariak berehala egin zuen bat bere ordezkorearen tesiekin, eta lanean jarri ziren Venezuelak behar zituen etorkin egokien bila.

Salas ez zen euskaldunen etorrera aldarrikatzen zuen bakarra. Koldo San Sebastianek kontatzen duenez⁵⁴, jadanik 1874an kezu agertzen zen Arístides Rojas historiagilea, Amerikako beste herrialde batzuetara ez bezala Venezuelara euskaldun gutxi etorri zirelako. Ordurako euskaldunek izen ona hartua zuten, Gipuzkoako Konpainiaren bitartez merkataritza arrazionalizatu egin zutelako, eta XIX. mendeko askapen mugimendua ahalbidetu zuten ideia ilustratu eta liberalak ekarri zituztelako. Beste alde batetik intelektual batzuen artean nolabaiteko euskal jatorriaren kontzientzia zegoen, tartean Salas bera zelarik. Honi guztiari, 36ko gudaren ondorioz Euskal Herritik kanporatutako umeak (40.000 inguru) nonbait hartzeko gestioen barruan Venezuela ere sartzen zen. Horregatik, ez da hain harrigarria Ramón Sotak Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutun batean, Venezuelara joateari buruz informatzaile batek ohartarazitakoak aipatuz, honelakoak esatea: "las tres últimas inmigraciones, la de los alemanes, los canarios y los suecos han sido completos fracasos y los periódicos claman ahora por la inmigración vasca" (San Sebastian eta Ajuria, 1992, 41).

⁵⁴ Azpiatal honetan, besterik adierazten ez dugun bitartean, Koldo San Sebastianek emandako datuez baliatzen gara.

Erbesteratuen etorrera eta komunitatearen egituraketa

Gauzak horrela, berehala jarri ziren kontaktuan Venezuelako in-migrazio arduradunak eta erbesteko Eusko Jaurlaritzakoak, eta horren ondorioz lehenengo itsasontzia iritsi zen La Guaira itsasportura, 1939ko Uztailaren 9an. *Cuba* izeneko ontzian 82 euskaldun zihoazen, umeak, emakumezkoak eta gizonezkoak. Haren ostean beste ontzi batzuk etorri ziren. Horrela, 1939tik 1945ra bitartean 1.500 euskal errefuxiatu heldu ziren. Geroago, beste une batzuetan eta beste bide batzuetatik euskaldun gehiago iritsi ziren Venezuelara, haietatik hainbat aurretik joandakoen emazte, senar eta seme alabak, senideak eta abar. Honekin guztiarekin migrazio katearen lehen begiak osatu ziren, eta geroztik euskaldun ugari abiatu zen Venezuelarantz ez arrazoi politikoengatik soilik, baita arrazoi ekonomikoengatik ere. Horrela, Fernando Karrantzakoak aipatzen dituen datuen arabera, 1940an Venezuelan bizi ziren euskaldunak bostehun inguru ziren. 1956rako, kopuru hau 8.000-10.000 mailara igo zen (San Sebastian eta Ajuria, 1992, 80).

1960tik aurrera, bestalde, “bigarren erbestealdiko”⁵⁵ erbesteratuak ere hasi ziren iristen Venezuelara, ETArek sorreraren ostean.

Lehenengo zein bigarren erbestealdietako errefuxiatuek, jakina, euskal nazio kontzientzia handia zuten, eta horrek jite propioa eman zion Venezuelako euskal komunitateari, Argentinakoaren aldean. Lehenengo kasuan, bestalde, esan beharra dago euskaldunak Venezuelara joateko lehenengo gestioak Eusko Jaurlaritzako ordezkariak egin bazituzten (Jesus Maria Leizaola lehendakariordea eta Julio Jauregi in-migrazio zuzendaria), azkenean PNVk hartu zuen gaia bere eskura, eta erbesteratuak eramateko akordioa Venezuelako gobernuaren eta PNVren artean sinatu zen. Honek, jakina, tirabirak sortu zituen beste euskal alderdiekin, bereziki alderdi sozialista eta komunistarekin, azken hauek kritikatu egin baitzuten PNVren eskusibismoa erbesteratuak eramateko unean (kontuan har dezagun, bestalde, Venezuelak eskatzen zituen etorkinak ideologiaz ere “onargarriak” izan behar zutela; kanpoan geratzen ziren, beraz, sozialistak, komunistak, eta anarkistak).

Cuba itsasontzia etorri eta hilabete eskasera multzo hartako erbesteratu batzuk eta lehenagotik banaka etorriak ziren beste batzuk elkartu

⁵⁵ Kontzeptu honetan bat egiten dugu Paulo Iztuetak planteatzen duen bikoiztasunarekin (Iztueta, 2001).

ziren, eta Venezuelako lehen euskal erakundea sortu zuten: *Asociación Vasca de Socorros Mutuos*. Izenak dioen legez, laguntzarako elkartearen hura. Gerora, beste erakunde eta elkarte batzuek ikusi zuten argia: 1941an Caracaseko *Centro Vasco* sortzeko lehen batzordea osatu zen, eta leku ezberdinetan ibili ostean 1950ean *El Paratso* parajearen elkar-gune berria inauguratu zen, denboran zehar instalakuntza ugari dituen benetako *klub* bihurtuz.

Centro Vascoren inguruan bestelako ekimen batzuk ere burutu ziren. Esaterako, bertatik sustatu zen *Acción Femenina* sortzea, 1942ean, Euskal Herriko *Emakume Abertzale Batza* erakunde garrantzitsuari Venezuelan segida emanez. Amerikako beste euskal etxeetan bezala, dantza, musika, euskara eskolak eta beste jarduerak ugari antolatzen hasi ziren *Centro Vascon*.

Era berean, eta Euskal Herriko herri askotan baino lehenago, ikastola sortu zen, *EUZKADI* izenekoa, 1965ean. Hogei urtetan zehar hainbat ume pasatu ziren, eta bere gailurrean 119 ume eskolatuta zituen Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako sei urteetan. 1985ean, arrazoi ezberdinengatik, ikastola desagertu egin zen (Fernandez et al., 1999).

Caracasen geratu ez eta beste hirietara zein barrualdera jo zuten euskaldunak, hasieran, etxe partikularretan edo tabernetan biltzen ziren, taldetasunari eutsiz. 1950etik aurrera, euskaldun gehiagoren etorrerak emandako indarrak, euskal etxeak zabaltzen hasi ziren Venezuelan: 1957an El Tigren, 1960an Barcelona-Puerto La Cruzen, 1961 Aragua-La Victorian, 1968an Cumanan⁵⁶, 1970ean Maracaibon eta 1974an Valencia-Carabobon. Horietatik, gaur egun hiru daude zabalik: Caracas, Barcelona-Puerto La Cruz, eta Valenciakoa.

Euskal etxeez gain, Venezuelara joandako euskaldunek beste zenbait erakunde sortu zituzten, haietatik asko izaera politikodunak. Lehen erbesterratuak etorri eta berehala zabaldu zen erbesteko Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza (1940). PNVk bere lehenengo ordezkaria bidalia zuen *Cuba*-ko bidaiarien artean, eta 1942an atzerriko lehenengo

⁵⁶ Cumanari buruz, esan beharra dago euskal komnitare baten presentzia aspaldikoa dela. XVI. mendean, euskaldunak arrantzan ibiltzen ziren kostaldeko inguru horretan, eta beren urratsa utzi zuten. Geroago, herriko burgesia Gipuzkoako Konpainiaren eskutik etorritako euskaldunen ondorengoek osatu zuten. San Sebastianek dioenez, burgesia honen eta XX. mendean etorritako euskaldunen artean lotura osatu zen.

buru batzarra sortu zuen. Ikusi dugu, halaber, urte berean Euskal Etxeak berak bultzatuta sortu zela *Acción Femenina*, zeinak 1960an *Emakume Abertzale Batza* izena berreskuratu baitzuen. Era berean, urte horietan sortu ziren ANV (1942), ELA-STV (1944), *Jagi-Jagi*, eta *Euzko Gaztedi* (1948), besteak beste.

Erakunde sozial zein politiko hauen inguruan, bestalde, zenbait hedabide ere jarri ziren martxan. Batzuk Venezuelako euskaldunei zuzenduak, eta beste batzuk kanpora eta, bereziki, Euskal Herrira begira eginikoak. Orotara, 1942 eta 1989 artean Venezuelan gutxienez euskal 30 aldizkari argitaratu ziren. Gehienak lehenengo erbestealdia-
ren ostean sortutakoak, eta batzuk (*Zutik bezala*) bigarren erbesteal-
diari lotuak. Era berean, aipatzekoak dira irratigintzan eginiko esfor-
tzuak (*Radio Euzkadi*, bereziki), haietatik batzuk oraindik orain inda-
rrean daudelarik.

Bistan denez, euskal komunitatearen egituraketan indar nagusia izan zuten euskal nazionalistek. Nahiz eta Venezuelara iritsitako eus-
kaldun guztiak nazionalista izan ez, haiek izan ziren lehenak, modu
antolatuan etorri ziren, eta gehiengoa osatzen zuten. Osagai horiek
indarra eman zieten, noski, beren ekimenak aurrera ateratzeko garaian,
eta honek zeharo markatu du Venezuelen ezarri den euskal komu-
nitatearen izaera. Egia da 36ko gudaren ostean ezkerreko euskal erbes-
teratu gehienak Latinoamerikako beste herrialde batzuetara joanak
zirela (Mexiko, Txile, Argentina), baina batzuk Venezuelara iritsi ziren.
Hegemonia nazionalista zela medio, ordea, alderdi nazionalistetakoak
ez ziren erbesterratu haiek ez zuten aurkitu, denboran zehar, leku ero-
soegirik euskal komunitateko egituretan. Adibide baterako, Caracasko
Centro Vascon bazkide izateko Euskal Herriaren autodeterminazio
eskubidea onartu beharra zegoen. Horrela, euskal erbesterratu ez aber-
tzale gehienek utzi egin zuten euskal etxea, eta *Casa de España*n sartu.

Orain arte Venezuelako euskal komunitateaz ikusitakoak labur-
bilduz, beraz, zera esan dezakegu: Venezuelako euskal komunitatea
berria da, duela hirurogeita bost urtetik hona osatzen hasia. Lehenago
bazen, Venezuelen, euskaldunen berri eta izen ona, baina ez komuni-
tate egiturarik, alde batera uzten baditugu aipa daitezkeen salbuespen
soilak (Cumanakoa kasu). Beraz, oraingo euskaldunen komunitatea
Euskal Herrian jaiotako euskaldunek eta haien seme alabek zein ilobek
osatuta dago. Euskal Herrikoa, beraz, bizipen hurbila da Venezuelako
euskaldun askorentzat. Bestalde, lehenak talde antolatuetan etorri
ziren, Gobernuarekin sinatutako hitzarmen baten barruan, eta seguru

asko beraien arteko lotura emozionala behin betirako grabatu behar izan zuen esperientzia traumatiko bat igaro ostean (gerra eta erbestea). Kontzientzia politiko altukoak, azken finean horrek bihurtu baitzituen migratzaile, eta diskurtso nazionalista bertsuaren jabe, aranismoaren ildo nagusietan oinarritua. Homogenotasun hau, bestalde, berrindartu egin behar izan zuen erbesteratuak Hegoaldekoak izateak, eta ez Pirinioetako alde bietakoak.

Talde antolatuetan etorri eta berehala ekin zioten komunitatearen egituraketa instituzionalari, elkarteak eta abarrak sortuz. Hasieran, gainera, Venezuelen egonaldi labur bat izan ostean Euskal Herrira itzuliko zirelako esperoan. Honek izugarri bereizten ditu, adibidez, XIX. mendean Amerikako toki askotara emigratzen zuten euskaldunengandik; haiek, kasu batzuetan, urte batzuen buruan aberastu eta itzultzea pentsa zezaketen. Baina beti ere jakinda urte haiek luze jo zezaketela, eta lehenago joandakoen esperientzia gogoan zutelarik: izan ere gehienek ez zuten amets hori betetzen⁵⁷. Venezuelara joandakoek, ordea, Francoren errejimena erori eta itzultzeko esperantza handia izan zuten hasieran. Denbora aurrera egin ahala ordea, itxaropenari lekua irabazten hasi zitzaion itzulerarekiko ziurgabetasuna.

Itzultzeko esperantza honek eraman zituen, seguruenik, Euskal Herriko egitura berberak Venezuelen birsortzera. Horixe ikusten da sortutako erakunde politikoetan, esaterako. Panpara joandakoentzat bertako bizitzan integratzea, lehen unetik, saihestu ezineko eskakizuna izan zelarik (bertako herrigintzan aritu behar izan baitzuten beraiek ere iraun ahal izateko), Venezuelara joandakoek talde bezala mantendu behar zuten, baldintzak aldatu bezain azkar dena batu eta etxera itzuli ahal izateko. Honek ere trinkotu behar izan zuen lehen komunitate hura.

Lehenengo haiek ezarritako egiturak aurkitu zituzten, gerora, hurrengo urteetan eta bestelako motibazioengatik etorritako euskaldunek, baita bigarren erbestealdikoek ere. Jende etorri berriaren freskotasunak indarra ematen zuen komunitatea egituratzeko, baina langintza hau ez zen zerotik abiatzen, eta jadanik ildo batzuk ezarriak ziren.

Gizarte mailari dagokionez, Venezuelako euskaldunak ez ziren artzain edo urre bilatzaile joan; izan ere ez ziren XIX. mendean baserria

⁵⁷ Migratzaileen itzulera ametsen eta haien gauzatzeko zailtasunen arteko talkak sortzen dituen urraketak modu ederrean kontatzen ditu Robert Laxaltek bere aitaren eta haren lagunen bizimodua nobela gisa ematen digunean (Laxalt, 2002).

"Allí estaba Gilian, que había tenido un caserío y una chica esperándole hacia mucho tiempo. Era un pastor con demasiado orgullo, que cuando bajaba al pueblo en sus dos semanas de vacaciones, intentaba actuar como si en realidad fuera un propietario importante, y gastaba todo su salario convidando a beber a todo el mundo y siempre volvía a las montañas sin un dólar en su bolsillo (...).

Allí estaba Tristant, que había trabajado para el mismo hombre durante veinticinco años después de llegar a este país, y que nunca había cogido sus quince días de vacaciones sino que se quedaba siempre con las ovejas porque no quería arriesgarse a gastar sus ahorros. Y como no comprendía muy bien cómo funcionaban los bancos, le había pedido a su patrón que le guardara los jornales y le pagara solamente cuando estuviera preparado para volver a su país. Al cabo de veinte años, hubiera tenido una buena suma, pero el patrón se arruinó y sólo pudo pagarle cien dólares. Después de eso, Tristant renunció a sus sueños y nunca llegó a ahorrar otros cien, sino que comenzó a bajar al pueblo todos los años, durante sus dos semanas de vacaciones, y bebía guardando un hosco y melancólico silencio hasta que se le acababa el dinero.

utzi eta industriara ez sartzearren lur berrietara joandako nekazarien talde homogeneoa, ezta urrutitik ere. Beren artean profesionalak eta formazio handiko jendea zegoen. Bestalde aurrean zutena ez zen kolonizatu beharreko lur eremu hutza, jadanik eraikitzen hasita zegoen egitura ekonomiko industrial handi bat. Beraz, baldintza horietan jokatu zen beren kokapen soziala.

Aurkitutako gizartea, bestalde, ez zen, Argentinakoa bezala, oraindik osatzen ari zen nazioa; aitzitik, Venezuela, nazio gisa, osaturik zegoen mende bat lehenagotik. Zilarraren herrialdera joandako lehen euskaldunek, ikusi dugunez, beste toki askotatik etorritakoekin batera naziogintzan hartu zuten parte, ezinbestean. Venezuelara etorriek, ordea, nazio bat aurkitu zuten. Jendeztatzen eta industrializatzen zegoen herrialdea zen, bai, baina nazioa izateko nahikoa ibilbide estatala zuena.

Azkenik, bada beste faktore bat Argentinako euskal komunitatearen integrazioaren eta Venezuelakoaren arteko ezberdintasunak ulertzeko kontuan hartu beharrekoa: herrialde bakoitzeko osaketa etnikoa. Argentinan, populazioaren % 85 "zuria" da, hots, europarren ondorengoa, eta % 15 mestizoak eta indiarak. Venezuelan, ordea, osaketa oso ezberdina da: mestizoak % 67 dira, afroamerikarrak % 10, indiarak % 2, eta zuriak % 21. Honek, seguruenik, motelago bihurtzen du euskal etorkinen integrazio estrukturala.

Beraz, esan dezagun Argentinan euskaldunen komunitatea heterogeneoagoa dela Venezuelakoa baino. Aipatu ditugun

arrazoiengatik (noiztik ezarri den komunitatea, nola etorri diren, zer aurkitu duten etortzean, nola erantzun duten eta abar) Argentinan euskaldunak modu estrukturalan integratuago daude bertako bizitzan Venezuelan baino. Honen ondorioz, euskaldun izateko moduak ere antzagoak dira Argentinan (abizenaren jatorriarekiko pertzepzio hutsetik lan militanteraino doan espektroan zabaltzen da), eta ez da mugatzen, inondik inora, euskal komunitatearen egitura instituzionalizatuaren ingurura. Venezuelan, integrazio estrukturala askoz txikiagoa da, eta komunitatean pisu gehiago dute egitura instituzionalizatuak. Bestalde, Venezuelan euskaltasunaz egiten den definizioan pisu nabarmena du nazionalismoaren ikuspuntu politikoak; Argentinan, euskaltasunak berak alderdi gehiago dituenez, pisu politiko hori ez da kasu guztietan agertzen. Horren ondorioz, eta joera nagusi gisa azalduz, Venezuelan euskaltasunaren definizioa zorrotzagoa eta trinkoagoa da, nazionalagoa azken batean, Argentinan, etnikoagoa litzatekeen bitartean.

Ezberdintasun hauetatik, gure hipotesiaren arabera, Canal Vasco erabiltzeko oso era ezberdinak sortuko dira batean eta bestean. Bestalde, bi herrialdeetako euskaldunen arteko aldeak nabarmenak dira gure laginean bertan, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

Gure informatzaileen soslaia

Ikerketa hau burutzeko Latinoamerikako zenbait euskaldunengana jo genuen, Canal Vasco nola erabiltzen duten eta oro har dauden tokitik euskaltasuna nola bizi duten jakin asmotan. Lagina aukeratzeko, EiTbK 2001ean eginiko inkestaz baliatu ginen. Orduko hari emandako erantzunak oinarritzat harturik, interesgarritzat jo genituen herrialde bi: Argentina eta Venezuela. Ikusi dugunez, bietan aurki ditzakegun euskaldunak ezberdinak dira, eta hain zuzen horrexek eraman gintuen

Allí estaba Joanes *Ergela*, Juan el Loco, que perdió la cordura por la soledad en las montañas sin siquiera darse cuenta a tiempo para pegarse un tiro, como habían hecho otros como él (...).

Más tarde, en un rancho cerca del pueblo, allí estaba el viejo Joanes (...) Joanes había ahorrado dinero en dos ocasiones. La primera vez lo puso en el banco, pero sobrevino el descalabro económico y los bancos cerraron. La segunda vez, lo guardó en una maleta. Pero cuando finalmente dejó el trabajo y se fue a San Francisco para hacer los trámites del viaje, un latino de Los Ángeles lo emborrachó y le robó la maleta. Después de eso, también Joanes renunció a sus sueños." (R. Laxalt, op. cit., 94-95).

"G: ¿Sueles venir muy a menudo al Centro Vasco?

E: Sí, sí, sí... mis hijos, mis nietos... todo el mundo aquí se ha ramificado dentro de este Centro Vasco... yo conocí aquí a mi señora, también aquí en el Centro Vasco y... es que llegó un momento que nosotros éramos como de gente joven... te estoy hablando de los años alrededor de los... entre los 17-20 años un grupo de alrededor de 100 personas. 100 jóvenes. De eso hay como 40 matrimonios entre nosotros. O sea que definitivamente estamos muy unidos en realidad." (Fernando, 68 urtekoa).

bi herrialde haietako euskaldunak aukuratzera⁵⁸. Eranskinean elkarrizketatuen soslaia ikus daiteke.

Orotara 66 pertsona elkarrizketatu genituen, 36 elkarrizketatan. Pertsona horietatik 47 Argentinakoak dira (20 elkarrizketa), eta 19 Venezuelakoak (16 elkarrizketa). Argentinako elkarrizketatuen artean emakumezkoak nagusi dira (32 emakumezko eta 15 gizonezko), eta Venezuelako artean gizonezkoak nagusitzen dira (16 gizonezko eta 3 emakumezko). Adinari dagokionez, elkarrizketatu gehienak helduak dira, eta ez dago alde handiegirik herrialde batetik bestera ezaugarri honetan: Argentinako batez besteko adina 51 urte, Venezuelakoena 56. Batez besteko adin hauek ez dira urruntzen

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzarako Idazkaritzaren erregistroan agertzen diren euskal etxetako bazkideen batez besteko adinetik⁵⁹.

Jatorria

Herrialde bateko zein besteko laginaren jatorriari erreparatzen badiogu, ezberdintasunak nabarmenak dira. Jadanik deskribatuak ditugu Argentina eta Venezuelako euskaldunen migrazioak, eta une his-

⁵⁸ Laginaren aukeraketarako, EiTB bera jarri zen kontaktuan aipatu inkestari herrialde haietatik erantzun ziotenekin, gure proiektuaren berri emanez. Elkarrizketarako prest agertu zirenen artean bigarren aukeraketa bat egin genuen, eta horrela osatu zen gure laginaren muina (beste batzuk elkarrizketatuek beraiek egindako gestioei esker lortu genituen).

Elkarrizketak 2002ko udaberrian egin ziren, Venezuelako zein Argentinako toki ezberdinetan. Venezuelaren kasuan bi hiri handi eta kostaldeko herri txiki batean egin ziren. Argentinan, hiru hiri handi eta Panpako herri txiki batean. Erdi egituratuak izan ziren, batzuk banakakoak, beste batzuk binakakoak, eta bi taldekoak. Elkarrizketa gehien iraupena ordu erditik ordu betera bitartekoa izan zen, eta magnetofoiari zein bideoan grabatu ziren. Behin transkripzioak eginda, analisi koalatiboari ekin genion, horretarako QSR-NUD*IST software informatikoa erabiliz.

⁵⁹ Martinez de Luna, 1999.

toriko zein baldintza ezberdinetan burutu zirela azaldu dugu. Horren ondorioz, bi herrialdeetako euskal diasporak ezaugarri ezberdinak dituzte, eta horixe islatzen da gure laginetan. Horrela, elkarrizketatuen jatorriari dagokionez, zera ikusi ahal dugu: Venezuelakoak lehenengo eta bigarren gizaldikoak dira denak, hots, Euskal Herrian jaiotako edota Euskal Herriatik etorritako gurasoengandik jaiotakoak. Kasu batean zein bestean, Venezuelara iritsitako euskaldunak (elkarrizketatuak beraiek izan zein bere gurasoak izan) 1936ko gudaz geroztik iritsiak dira Amerikara. Lehenengoak 1940ko hamarkadan, eta talderik handiena 1950ko hamarkadaren inguruan. Badira beste batzuk 60 eta 70eko hamarkadetan joanak, eta 2000aren inguruan ailegatutako pertsona bat ere badago taldean.

Argentinakoek ordea historia luzeagoa dute, oro har, Amerikan, eta hau islatu egiten da gure laginaren heterogenotasunean. Izan ere 6 baino ez dira lehen gizaldikoak (Euskal Herrian jaiotakoak beraz); 13 bigarren gizaldikoak dira, 11 hirugarrenekoak, 9 laugarrenekoak, eta bat bosgarrenekoa. Datu hauek elkarrizketatuen adinarekin, beraiek beren familiaren historiak emandako datuekin, eta gizaldi batetik bestera estima daitekeen batez besteko jautsiarekin (30 urte) gurutzatzen badi-tugu, esan dezakegu gure elkarrizketatuen arbasoen artean etorkin goiztiarrenak 1860 eta 1870eko hamarkadetan iritsi zirela Argentinara. Handik aurrera iritsi ziren gainerako arbasoak, XX. mende-ko lehen bi hamarkadetan multzo handi bat iritsi zelarik. Beste mul-tzo handi bat 1930eko hamarkadan etorritakoa izan zen, beste batzuk (jadanik gure elkarrizketatuen bat barne umetan ekarria) 36ko guda-ren ostean erbesteratu gisa, eta azkenak 1950eko hamarkadan.

Duela ehun edo ehun eta berrogei urte Argentinara joandako euskaldunen ondorengoek Canal Vascorekiko interesa izateari, berez, adie-razgarria deritzogu, eta gizaldiz gizaldi euskaltasuna mantendu egin dela erakusten digu. Bestalde, hamarkada hauetan zehar, Irianiren la-nean ikusi dugunez, Argentinako euskaldunak integratu egin dira ber-tako gizartearen, eta integrazio hori familiara ere iritsi da, bikoteak egi-tean euskaldunak beren naziokideen taldera mugatu ez direlarik. Ve-nezuelako euskaldunak ez bezala (hango lagineko kide guztiak Euskal Herriko gurasoak baitituzte), Argentinako elkarrizketatuek jatorri etni-ko bat baino gehiago aurki dezakete beren familietan. Berriro ere elka-rrizketatuek emandako datuak berrosatuz, beren aitonen jato-rruari begiraturaz gero zera aurkitzen dugu: % 60 euskal jatorrikoak dire-la, eta % 40 beste jatorri batekoak. Badira aitona edo amona soilik eus-

"G: Bien, tienes relación hoy en día con Euskal Herria? Has hablado de tus primos.

E: Sí, sí, sí. Yo los contacté vía Internet, así es como busqué más o menos por mi apellido, por un amigo en común... resulta ser muy chico Euskal Herria. Nos dimos cuenta de que éramos muchos más los Bessonart que había acá que los que estaban allá, así que sí, y bueno, les escribí una carta, toda en euskera, me arriesgué a que sepan en euskera porque en Iparralde no todo el mundo lo habla, y me contestaron, bueno yo les mandé mi e-mail, me mandaron un e-mail, me mandaron fotos que mi bisabuelo les había mandado (...) Siempre estábamos... siempre mi papá decía que teníamos que tratar de contactar a la familia y todo eso....

G: Pero ellos no tenían contacto.

E: No, no, no, se había perdido todo el contacto (...)

G: Entonces tú recuperas el contacto a través de Internet (...) Picas Bessonart, ¿y a ver quién sale?

E: Claro, primero en la guía de teléfonos, en el Directorio Telefónico de Francia, y salen nada más que 7 con mi apellido, y todos ubicados en la misma zona. Entonces, bueno, era cuestión de arriesgarse, y por un amigo que los padres habían venido a la Semana Vasca, también de Iparralde, resultó que el padre de este chico había nacido en Hazparne, entonces conocía al

kalduna zutenak, gainerakoak beste non-baitekoak izaki (hauen artean aniztasun handia dagoelarik: gaztelauak, italiarrak, galiziarak, andaluziarrak, argentinarrak, katalanak, asturiarrak, errusiarrak, portugaldarrak eta abar). Jatorri aniztasun honetan gure elkarrizketatuek nola jokatzten duten eta nortasun etniko ezberdinen artean egiten dituzten hautuak nola egiten dituzten geroago ikusiko dugu.

Euskal Herriarekiko eta euskaldunekiko harremanak

Jatorriarekin bezalatsu, Venezuelako eta Argentinako elkarrizketatuek harreman ezberdinak dituzte Euskal Herriarekin. Oro har Venezuelako euskaldunak familia harremanak dituzte Euskal Herriarekin. Argentinako euskaldunen artean ordea, egoera ezberdinak daude. Hirutik bik badituzte harremanak Euskal Herrian bizi diren senideekin (kasu batzuetan senide urrunak), baina heren batek ez du honelako harremanik. Harremanak dituztenen artean, hainbatek guraso eta arbasoengandik jasotako harremani eutsi diete; beste kasu batzuetan ordea, Euskal Herrian geratu zen familiarekiko harremanak etenda geratu ziren, eta gerora berreskuratu dituzte, sarritan harremana galdu eta gizaldi bat edo batzuk geroago.

Behin etendako harremanak nola berreskuratu diren eta lorpen horrek emandako poztasuna maiz agertzen dira gure elkarrizketatuen pasadizoetan. Konstante bat da, familia hauetan, hemengo senideekiko lotura berrezartzearen premia. Batzuek lortu egin dute, bide ezberdinetatik,

eta harrez geroztik harreman finko eta iraunkorra landu dute, gaur egungo komunikazioaren teknologia berriek ematen dituzten erraztasunez baliatuz. Beste batzuek ez dute lortu, eta horretan ari dira oraindik ere. Oso ohikoa da, bestalde, familiaren jatorri eta historiarekiko jakinmina, eta hortik ikerketa genealogikoaren hedakuntza. Era berean, etengabeak dira familiaren oinetxeari egindako erreferentziak (izena, kokapena, eta abar), eta Euskal Herrira bidaiatzen direnak emozioz saiatzten dira oinetxea bisitatzen; horretarako zoria izan dutenek, harro erakutsiko dizute oinetxearen argazkia⁶⁰.

Azpimarragarria deritzogu Euskal Herriko familiarekiko harremana landu edo berreskuratu asmo horretan egungo komunikazio teknologia berriez egiten den erabilerari. Telefonoaz gain, posta elektronikoa eta Internetek aukera handiak eman dituzte urruneko harremanetarako, eta euskal migratzaileak zein haien ondorengoak haietaz baliatzen dira. Ez da harritzekoa, beraz, elkarriketatu batek baino gehiagok egin digun aitortza: Interneteko arakatzzaileak erabiltzen hasi zirenean (*google*, *yahoo* eta antzekoak), bilatu zuten lehenengo hitzen artean beren abizena egon zen. Horrela, Interneteko telefono eta bestelako gidak erabiliz, eta familiarik ezagutzen zituzten datuekin gurutzatuz, batzuek lortu egin dute beren senideak aurkitu eta harremana berrezartzea. Hortik aurrera, harreman horiek jorratzeko aukera ere eman die posta elektronikoa. Euskal Herriko senideekiko harremanaz gain, bestelako harreman batzuk ere dituzte Latinoamerikako euskaldunek Euskal Herriarekin. Batzuetan lan harremanak, beste batzuetan instituzio harremanak (esaterako euskal etxeetako zuzendaritza batzordeetan dabilzanak), edo lagunartekoak.

apellido, conocía a la familia, y él fue quien llamó por teléfono, les dijo que yo estaba interesada en escribirles, y ellos le dijeron que sí, que es escriba, que no había ningún problema, y bueno, y ahí fue.

G: Y les escribes esa carta....

E: Ahí les mandé una carta con todo armado, desde que... todo lo que nosotros sabíamos, desde que mi bisabuelo llega, todos los hijos que tuvo, esos hijos que otros hijos tuvieron, bueno, todo bien armado, la partida de nacimiento de mi bisabuelo (...) y bueno, y así fue. Y ellos enseguida me contestaron, y me mandaron fotos, ¡así que nos fue bárbaro!" (Isabel).

⁶⁰ Familiaren historia eta genealogiarekiko interesa, euskal jatorriko migratzaileen artean oso hedatuta badago ere, ez da euskaldunen eskusiba, eta munduan zeharreko komunitate migratzaile askotan agertzen da, Karimek (2002) dioskunez.

Lotura hauez gain, kontuan hartzekoa da ere gure elkarrizketatuek tokian tokiko euskal komunitatearekin harremanik ba ote duten ala ez. Hemen, berriro ere, oso lagina ezberdinak ditugu Venezuelan eta Argentinan. Lehenengoan, ia guztiek edo guztiek dute harremana tokian tokiko euskaldunekin, gehienbat euskal etxeen inguruan antolatutako euskaldunekin. Datu hau egokiro irakurtzeko, kontuan hartu behar dugu herrialde honetan lagina aukeratzean alde aurretiko kontaktatu gutxirekin abiatu ginela. Neurri handi batean, beraz, lagina euskal etxeetatik abiatuta osatu da. Baina horrekin batera gogoratu beharra dago Venezuelako euskaldunen zati handi batek nolabaiteko lotura duela euskal etxeekin, ikusi dugun historia dela medio. Horrela, euskal etxea (bereziki Caracaskoa) bilgune garrantzitsua da. Bertan egin daitezkeen jardueren eskaintzak (igeritokia, taberna, liburutegia, frontoia eta abar) astean zehar arratsaldez eta asteburuetan jende asko biltzea errazten du. Horrek, zalantzarik gabe, trinkotu egiten du bertako euskal komunitatea.

Argentinako euskaldunen artean ordea, berriro ere aniztasuna nagusi dugu. Batzuek harremanak dituzte tokian tokiko euskal komunitatearen egiturekin eta euskal etxeekin, baina hauek ez dira heren bat baino gehiago. Euskal etxeetan egiten dituzten jarduerak Venezuelako antzekoak dira: tabernetan elkartu, solastatu, kartetan ibili, ikastaroak (euskara, dantza, e.a.), pilota partidak, hitzaldiak eta abar. Baina, esan bezala, jarduera hauetara euskal argentinarren zati bat soilik iristen da, gure lagineko hirutik bat. Gehienek harreman askoz lausotuagoak dituzte Argentinako beste euskaldunekin, eta egoeren espektroa oso zabala da. Gainerako euskaldunekiko lotura, batzuen kasuan, herriko edo inguruko beste euskaldun batzuek ezagutu eta tratatzean gauzatzen da, baina inolako harreman instituzionalizatuen bitartekotzarik gabe. Jakin badakite besteak euskal jatorrikoak direla, baina ez ditu horrek bereziki lotzen jarduera baten inguruan edota espazio propio batean; kasurik hoberenean, interes komun batzuek konpartitzen dituzte (abizenen jatorriarekiko kezka, Canal Vascon ikusitako albisteen inguruko solasaldia, eta abar). Beste batzuek ordea, inguruan dituzten euskaldun bakarrak beren Argentinako senideak baino ez dira, familia hori handiagoa edo txikiagoa izan daitekeelarik. Murturreko kasuetan, beste euskaldunekin harremanik apenas duen pertsonak ere aurkitu ditugu, familiarekin harremanik ere ez duten pertsonak, alegia. Hauentzat, esan dezakegu Canal Vasco dela euskaltasunarekin duten lotura ia bakarra.

Euskal Herriarekiko loturaren beste erakusle bat egindako bisitaldi eta egonaldiak dira. Jadanik esana dugu elkarrizketatu batzuk Euskal Herrian bertan jaioko direla (25). Horietariko hainbat haurtzaroan eraman zituzten gurasoek Latinoamerikara, eta beste batzuk beren kabuz joan ziren, lan edo babes bila. Bestalde, 41 elkarrizketatu Euskal Herritik kanpo sortuak dira, eta hauetatik batzuk ez dira inoiz Euskal Herrian izan; beste batzuk behin edo bitan egonak dira, eta besteak hiru aldiz edo gehiagotan. Esan beharra dago Argentinako elkarrizketatuen artean denetariko egoerak badaude ere, Venezuelako ia elkarrizketatu guztiak hiru aldiz edo gehiagotan egon direla Euskal Herrian.

Laginaren deskribapena laburbilduz, oro har atal honen hasieran Argentinako zein Venezuelako euskal diasporari buruz azaldu ditugunak errepikatzen zaizkigula uste dugu. Bi herrialde hauetan egoera ezberdinak izanik, euskal nortasunarekiko pertzepzio, jarrera zein jarduera ezberdinak eratortzen dira eta, geroago ikusiko dugunez, baita Canal Vascoren erabilera ezberdinak ere.

Euskal nortasunaren pertzepzioa

Ikusi ditugun bezalako historia eta egoera ezberdinak kontuan harturik, ba ote dago jende hau guztia barne hartzen duen nortasun komunik? Hasieratik bertatik planteatu dugun galdera da hau, eta elkarrizketen analisiak argiren bat eman dezake erantzuna bilatu aldera. Formulazio orokor gisa, elkarrizketatu guztiak “euskalduntzat” dute beren burua, egoerak egoera eta jatorriak jatorri. Pertzepzio hori nabarmena da. Era berean, esan dezakegu nortasun horretatik abiatuta jarduera bat bederen batera burutzen dutela: Canal Vasco ikustea, alegia.

Euskaltasuna ordea modu ezberdinetan bizi daiteke, alderdi ugari baititu. Halaber, beste nortasun batzuekiko harremanean egon daiteke. Horrela, gure elkarrizketatuen artean, eta beti ere nazio edo kultur nortasunari dagokionez, hiru nortasun mota aurkitu ditugula esan dezakegu:


- *Euskaldunak*: elkarrizketatu batzuk “euskaldun” sentitzen dira, besterik gabe. “Atzerrian” bizi edo jaio diren euskalduntzat dute beren burua. Erreferentzia talde nagusia Euskal Herria da, herri gisa.
- *Diasporako euskaldunak*: kasu honetan erreferentzia taldea ez da euskaldunena, orokorrean, tokian tokiko euskal komunitatearena

baizik. Kontuan hartu behar da dauden tokian, euskaldunek, sarritan, komunitate bat osatzen dutela, lehenago ikusi dugun bezalaxe. Horrela, “Argentinako euskaldunak” edo “Venezuelako euskaldunak” bezalako erreferentzia taldeak osatzen dira.

- *Tokian tokikoak*: hemen, euskalduna ez den beste nazio nortasun bat agertzen da: jendearen jatorri edo bizilekuko herrialdeari dagokiona hain zuzen. Elkarrizketatu askok, euskaldun sentitzearekin batera, jaio diren edo bizi diren herrialdeartzat (argentinarrak edo venezuelartzat, alegia) ere hartzen dute beren burua, aurrekoarekin kontraesanik gabe.

Hiru nortasun ezberdin hauen erreferentzia euskal diasporari buruz egin diren beste lan batzuetan ere agertzen zaizkigu, geroago ikusiko dugunez (besteak beste, Totoricagüenaren eta Perez-Agoteren lanetan). Gure kasuan, ordea, honako fiabardura honekin egin dugu topo: Venezuelan eta Argentinan modu ezberdinetan egituratzen dira hiruak. Horrela, beren solasaldietan “gu”, “gara” edo “gurea” bezalako kontzeptuak aipatzen dituztenean, Argentinako elkarrizketatuek bi erreferente dituzte nagusiki: diasporako kide sentitzen dira (“Argentinako euskaldunak”), eta tokian tokikoak sentitzen dira (“argentinarrak”); oso kasu gutxitan agertzen dira “gutasuna” euskaltasun orokor batekin parekatzen dutenak. Edo, zehatzagoak izateko, bereizketa argia egiten dute Argentinako euskaldunen eta Euskal Herriko euskaldunen artean. Venezuelan, ordea, pertzepzioa oso bestelakoa da: erreferente nagusi gisa, diaspora (“Venezuelako euskaldunak”) eta euskaltasun orokorra agertzen dira, oso gutxi izanik beren burua venezuelartzat dutenak. Ez dituzte bereizten, oro har, Venezuelako euskaldunak eta Euskal Herrikoak; bai ordea beren burua eta venezuelarrak. Hurrengo diagraman ikus daitezke hiru nortasunen arteko dialektiken joera nagusiak:

Erreferentzia taldeak Venezuelan eta Argentinako euskaldunen artean



Nortasun erreferente ezberdin hauek erabatekoak ez badira ere (badira Argentinako elkarrizketatuen artean Euskal Herria erreferentzetat hartzen dutenak, bai eta Venezuelako artean venezuelarrak sentitzen direnak), joera nagusiak hauexek direla esan dezakegu. Modu ezberdinetan agertu zaizkigu elkarrizketetan, beti diskurtsoaren jarioan (ez erantzun zuzenen bidez). Esaterako, elkarrizketatu batzuek zera aitortzen dute: Canal Vasco ikusten ari direlarik, “etxean bezala” sentitzen direla. Dauden tokian barik, Euskal Herrian daudelako pertzepzioa nagusitzen zaie. Honela dio Agustinek, esate baterako:

G: ¿Y cuando veías el Canal Vasco, qué sentías en esos momentos?

E: Que estaba en casa, más nada... una droga.

Canal Vasco ikustean “etxean bezala” sentitzearen pertzepzioa Venezuelako elkarrizketatuen artean soilik aurkitu dugu; ez ordea Argentinako artean. Areago: honelako sentipenik adierazi duten ia guztiak (zortzitik zazpi) Euskal Herrian jaioko dira. Hemendik atera dezakegun hipotesia, beraz, zera da: Euskal Herria “etxe” gisa gehienbat bertan jaioen pertzepzioa dela. Bertan jaioko ez direnentzat, Euskal Herria erreferente garrantzitsua da, baina ez etxea. Hemen ere salbuespenak badira izan, eta laugarren gizaldikoen artean Euskal Herrira bisitan etorri eta “etxean bezala” sentitu denik ere aurkitu dugu.

Seguruenik, Venezuela eta Argentinako euskaldunen arteko ezberdintasun hauek zerikusia dute ez bakarrik herrialde bakoitzean euskaldunen integrazioa gertatu den moduarekin (lehenago ikusi dugun legez), baizik eta herrialde batean eta bestean “nazionala” izateak izan ditzakeen ezberdintasunekin. Horrela, hainbat autorek dioten legez eta gure elkarrizketatu batzuek baieztatu digutenez, argentinar izatea eta beste nazio nortasunik izatea oso ohikoa da herrialde hartan. Areago, Perez Agotek nortasunen bitasuna argentinartasunaren beraren osagaia delako ideia mahaigaineratzen du (Perez Agote, Azcona eta Gurrutxaga, 1997). Hipotesi hau bat letorke Argentinaren osaketa etniantzarekin eta ikusi dugun naziogintza prozesuarekin ere.

Jarrera ezberdinak euskaltasunaren aurrean: jagon versus eraiki

Atal honen hasieran aurreratu dugunez, “euskal diaspora” ez da talde homoginoa, eta bere baitan oso egoera ezberdinak hartzen dituen kategoriatzat hartu beharko genuke nagusiki. Latinoamerikan

"G: Bueno, tú tienes un sentimiento acerca del País Vasco y de tu modo de sentir lo vasco, y en eso ¿ha influenciado el Canal Vasco?

Iñaki: No, yo pienso que no, yo creo que nosotros somos producto de una generación que hemos sido vascos desde muy niños, nos hemos sentido vascos, y continuamos sintiéndonos vascos.... Reforzar, aumentar el conocimiento por supuesto que sí, ahora, ha-certe cambiar no, porque yo no voy a cambiar mi... o sea, he sido siempre el mismo y el Canal Vasco no me ha hecho cambiar, me ha dado información de lo que yo quiero oír, desde luego. Pero creo que yo no he cambiado, porque nuestros padres bien se cuidaron de hacernos como somos".

diren euskaldunek Canal Vasco nola eta zertarako erabiltzen duten aztertzean, beraz, oso kontuan hartu behar dugu hau. Orain arte ikusitakoari erreparatuz, eta laburpena eginez, zera esan ahal dugu: bai herrialde bakoitzeko euskal komunitateen historiaren arabera, bai gure lanerako aukeratu dugun laginaren ezaugarrien arabera, multzo ezberdin bi bereiz daitezkeela "diasporako euskaldunak" deitzen ditugun horien artean. Lehenengo multzoa euskal nortasuna finko eta definitua duten pertsonak osatzen dute. Hauek beren burua euskalduntzat dute, neurri handi batean "atzerrian" bizi diren euskalduntzat, eta nortasun nazionalaren erreferente nagusi Euskal Herria dute. Horrekin batera, dauden tokiko euskaldunen komunitateko kide ikusten dute beren burua ("Venezuelako euskaldunak", esaterako), euskaldunen komunitate handiaren azpitalde bateko kide gisa, alegia.

Guk aztertu ditugun taldeetatik, multzo hau gehienbat Venezuelan nagusitzen da. Lehenengo edo bigarren gizaldiko euskaldunak dira, eta euskal nortasun oso finkoa dute: oso definitua dute zer den euskalduna izatea, zein diren euskaltasunaren ezaugarriak, ikurrak, mugak eta abar. Kulturean, geografian, politikan eta beste arlo batzuetan "euskal" izenlaguna zeri jarri behar zaion eta zeri ez, argi azaltzen da beren diskurtsoan. Euskaltasunaren diskurtso definitzaile honek, seguruenik, nazionalismo politikoak egiten duen definizio bereizgarriaren eragina jaso du. Izan ere, nazionalismoak herri baten defentsa egitean barrurako homogeneizatze eta kanporako heterogeneizatzea bultzatzen ditu, komunitate nazionala batzen duten osagaiak eta gainerako komunitateetatik bereizten dutenak azpimarratuz. Lehenago ikusi dugunez, Venezuelako euskal komunitatearen eraikuntzan eragina izan zuen, lehenengo unetik, nazionalismo politikoak, eta honek Euskal Herriaren bere irudia utziko zuen. Axola gutxi du hemen diskurtso honek euskal gizartearen errealitatea zorroz-

tasunez islatzen duen ala errealtate horretatik aldentzen den. Izan ere, askotan aipatzen baita Venezuelako diasporak, esaterako, Euskal Herriaren irudi idealizatu eta estatikoari eusten diola. Baina ez da gure zeregina inongo diskurtsoaren doitasuna baloratzea, diskurtsoek jendearen praktikak norantz bideratzen dituzten aztertzea baizik. Ari garen taldeari dagokionez, beraz, honakoa ikusten dugu: euskaltasunaren definizio finko eta zehatz batetik abiatu, multzo honek, bere urruntasunean, euskaltasunaren aurrean duen jarrera *zaintza* edo *jagotearena* da. Alegia, euskaldun izateari eustea beren praktika askoren azpian dago. Euskaldun izaten jarraitu nahi dute, eta horren bila joko dute, besteak beste, Canal Vasco erabiltzean. Kanal honek Euskal Herriaz duten irudia birsortzeko balio die, eta horixe eskatuko diote, geroago ikusiko dugunez, Euskal Telebistari: beren euskaltasuna zaintzea.

Euskaltasuna zaintzearen jarreraren aldean, bestelako jarrera bat ere agertzen da diasporako euskaldunen artean: euskaltasuna *eraikitzea*. Ikusi dugunez, bada multzo bat Euskal Herriarekin zuzeneko lotura txikiagoa duena, gehienbat Argentinako taldea. Hemen bizipen oso ezberdinak aurkitzen baditugu ere, oro har zilarraren herrialdeko euskaldunek lotura txikiagoa dute Euskal Herriarekin, Venezuelakoek baino. Batzuek diasporako egituretan parte hartzen dute, baina beste hainbatek ez. Kasu batzuetan euskal nortasuna etxetik jaso dute, intentsitate handiagoa edo txikiagoarekin, baina ez dute bera lantzeko eta finkatzeko aukera askorik eduki. Beste batzuetan, hori ere ez dute jaso etxetik, eta oso nortasun lausoa izan da euskal nortasuna haien tzentz, urruneko erreferente bat. Oro har, Euskal Herriaz duten ezagutza askoz ere txikiagoa da, eta euskaltasunaz egiten duten definizioa ez da Venezuelakoek egiten duten bezain homogenea, ez eta hain gardena. Nabarmenki agertzen da hori Euskal Herria/Espainia edo Euskal Herria/Frantzia kontzeptuak erabiltzean (Venezuelakoek kontrajarritzat dituzte, Argentinako askok ez ordea). Halaber, lausotasun bera agertzen dute geografiaren ezezagutza azaltzean, beren arbasoen jatorri etnikoa definitzean, eta abar.

Egoera hauetatik abiatuta, ugariak dira Euskal Herriarekiko lotura eta euskaltasuna eskuratzeko burutzen diren jarduerak: familiarekin galdutako harremana berreskuratzeko saioak, leinuaren oinetxearen bilaketa, azterketa genealogikoa, beste euskaldun batzuekiko harremana eraikitzea (diasporan zein Euskal Herrian), arbasoen herrirako bidaiak, eta abar luzea. Praktika horien barnean ere kokatzen dira euskal

etxeetan buru daitezkeenak (dantza, jokoak, sukaldaritza...), bai eta euskara ikastea⁶¹.

Ingurumari honetatik, beraz, euskaltasuna gehiago da eraiki egin nahi den zer bait, iraunarazi nahi den zer bait baino. Eta Canal Vasco eraikuntza horretarako tresna garrantzitsutzat izango dute euskaldun hauek. Haientzat, euskaltasuna ez dago hain definituta, lausoagoa da, sarritan oso osagai gutxi erabiliz eraikitzen ari den zer bait. Zentzu honetan, Euskal Herriaren beste bizipen bat izateko aukera dute Canal Vascoren bitartez: ezagutza eskuratzeko, euskara entzuteko, paraje eta jendearen irudiak jasotzeko, eguneroko informazioa izateko, eta beste zenbait helburuetarako.

Diasporako euskaldunek, beraz, Canal Vasco bi helburu ezberdinekin erabiltzen dituztela esan dezakegu: euskaltasuna oso definitua duten euskaldunen kasuan (hala nola Venezuelako kasuan), euskal nortasuna *zaintzeko*. Aitzitik, euskaltasuna lausotuagoa eta ez hain definitua duten kasuetan (Argentinakoan bezala), bera *eraikitzeko*. Bi jarrera ezberdin hauetatik Canal Vascoren erabilera konkretu ezberdinak eratoritzen dira, aurrerago ikusiko dugunez. Baina badira zenbait erabilera jarrera baterako (hots, euskaltasunari eusteko) zein besterako (euskaltasuna eraikitzeko) balio dutenak. Horrela, batean zein bestean erabiltzen da Canal Vasco “hirugarrenen” aurreko agerpena indartzeko: bereziki, euskaldunen inguruan Latinoamerikan hedatuta dauden estereotipo positiboak berrindartzeko, eta estereotipo negatiboak uxatzeko. Era berean, satellite bidezko euskal telebistak eskaintzen dien informazioa beren integrazio eta partehartze politikorako baliatzen dute batzuek zein besteek. Bestalde, programazio gehiena gazteleraz bada ere, Canal Vasco euskara ikasteko edota mantentzeko ere erabiltzen da zenbait kasutan, elkarrizketetan ikusi dugun bezalaxe.

⁶¹ Euskara ikasteari dagokionez, ez da hutsala Argentinan egotea HABEren programen barnean euskara ikasten ari den jende kopururik handiena. Erakunde honen “Euskara-eskolak Munduan” programaren barnean, 1.200 ikasle ari dira, munduan zehar, modu arautuan euskara ikasten, horretarako jartzen zaizkien baliabideak erabiliz: *Habenet*, *Hezinet*, irakasleak bidaltzea, ikasleak ekartzea, eta abar. Kopuru horretatik herena inguru Argentinan ari dira, herrialde hau izanik, Uruguayrekin batera, egitasmo hauetan aintzindaria. Venezuelan ordea gutxi dira plangintza honen barruan euskara ikasteari ekin dioten euskaldunak (30 ikasle inguru). Alde batera utzirik bateko eta besteko euskal komunitatearen tamaina, Argentinan euskaltasuna eskuratzeko dagoen interesaren adierazgarria iruditzen zaigu euskararekiko jarrera hau. Ikus Azkue, 1999 eta Eusko Jaurlaritza, 2002.

Geroago egingo dugu Canal Vasco-ren erabilera ezberdin hauen analisi zehatza. Aurretik ordea, elkarrizketatuek kanal hau nola kontsumitzen duten aztertuko dugu hurrengo azpiatalean.

Canal Vascoaren kontsumoa

Azpiatal honetan gure elkarrizketatuek Canal Vasco nola kontsumitzen duten aztertzen saiatuko gara, hurrengorako utziz kontsumo horretatik eratortzen diren erabilerak eta hauek euskal nortasunaren bizipen eta garapenean nola txertatzen diren.

Kontsumoaren trinkotasuna

Ezer baino lehenago, eta Canal Vascoaren hedapena aztertzean ikusitakoa berretsiz, esan dezagun kanal hau nagusiki bi bidetatik jasotzen dutela elkarrizketatuek: kable bidez eta satelite bidez. Lehenengo bidea nagusi da Argentinan, eta bigarrena Venezuelan. Honen arrazoia herrialde bakoitzeko telebista sistemaren egituraketan bilatu behar dugu. Argentinan kable bidezko telebista oso hedatuta dago eta kobrezko haria 5 milioi etxetara heltzen da, % 52ra hain zuzen, herrialde hau izanik, Kanada (% 72) eta AEB (% 64) ostean munduko hirugarren herrialdea azpiegitura honen hedapenari dagokionez (Lopez Alonso eta Rey Lennon, 2001). Honekin batera kableoperatzaile ugari dago, 1.300 inguru herrialde osoan (Schmucler eta Terrero, 1996). Hauek eskaintza anitzeko telebista

"G: Tú, Jorge, cuando piensas en tu abuelo o hablas de tu abuelo, ¿lo relacionas con el País Vasco, o lo relacionas con Navarra?"

JORGE: Para mí siempre fue Navarra.

G: Para ti siempre fue Navarra.

JORGE: Sí, y sabía que era vasco-francés, siempre tuve la creencia de que era vasco-francés (...). Es más, hasta no mucho tiempo yo siempre pensé que mi abuelo era nacido en Navarra, que para mí Navarra era una ciudad, y no. Hasta que me enteré bien que mi abuelo era nacido en Caparroso, que está dentro de Navarra.

G: Para ti, digamos, la referencia principal era Navarra.

JORGE: La referencia principal era Navarra, pero que sé que es vasco.

G: ¿Más que España?

JORGE: Sí, sí, o sea, no, en realidad es que está en España, que mi abuelo era español, pero que había nacido en Navarra, es decir.

G: Y lo situabas en el País Vasco?

JORGE: Lo que pasa que... sí, para mí mi abuelo era vasco. No sé a quien de una vuelta de chico de haber escuchado decir que era vasco-francés, y me quedó que era vasco-francés, y para mí no era vasco-francés ¿o estoy equivocado?"

ematen diete beren bezeroei oinarrizko paketetan, hileroko 20 eta 30 euroren truke: tokian tokiko telebistak, nazionalak, tematikoak, beste herrialdeetakoak eta abar. Eskaintza anitz horren barruan, hainbatek Canal Vascoren seinala ere sartzen dute⁶².

Venezuelan ordea kable bidezko telebistak oso hedapen txikia du (% 10etik beherakoa). Horrekin batera, oso kableoperatzaile gutxik hedatzen du Canal Vascoren seinala. Hortaz, ETBren seinala ikusi nahi dutenek antena parabolikoa eta hargailua erabili beharra dute, satelitetik zuzenean jasotzeko. Horren kostua 800 euro ingurukoa izaten da.

Horren ondorioz, leku ezberdinetan ikusten dute Argentinako eta Venezuelako elkarrizketatuek Canal Vasco. Lehenengoan artean, gehienek etxean bertan jasotzen dute seinala, eta bertan ikusten. Badira batzuk etxean jaso ez eta beste nonbait ikusten dutenak: euskal etxean edota lagunen baten etxean; edota Internetez ere. Venezuelan ordea, erdiak etxean jasotzen du seinala, eta beste erdiak euskal etxean edo beste nonbait ikusten dutela esan digute⁶³.

Canal Vascoren seinala etxean jasotzea edo hura ikustera beste nonbaitera joan beharrak badu eraginik, jakina, ikusteko ohituretan. Ikusteko zenbat eta errazagoa, orduan eta kontsumo handiagoa egiten dute. Elkarrizketatuek beren kontsumoaz eman dizkiguten datuak ez dira, bestalde, zehatzak. Baina beren aitortzak gutxienez orientabidetzat hartzen baditugu, zera esan dezakegu: oro har, seinala etxean jasotzeko

⁶² Kable bidezko telebistaren eta, oro har, telebistaren hedapena oso goiztiarra izan zen Argentinan. Lehenengo telebista irekia 1951an sortu zen Buenos Airesen. Hurrengo hamarkadan, 60koen hasieran, lur gaineko seinala iristen ez zen toki batzuetan lehenengo kable sistemak ezarri ziren. Europan ez bezala, Argentinan enpresa pribatuek finantzatu zuten kabletarako azpiegitura, telebistaren hedapenak eta telebista aparailuen salmentak eragindako negozioak erakarrita. Irratiespazioan ez bezala kablean kanal kopuruetarako mugarik ez egonik, nahikoa izaten zen hasieran udalaren baimen soila sistema abian jartzeko. Honek azalduko luke, besteak beste, hainbeste kableoperatzaile izatea, nahiz eta azken urteetan kontzentrazioarako eta talde handietan elkartzeko joera nabarmena izan den (Albornoz eta Nastrini, 1998).

⁶³ Eusko Jaurilaritzak diasporako euskaldunekin dituen harremanen barruan, kanpaina bat burutu zuen euskal etxe guztiak antena parabolikoaz eta hargailuaz hornitzeko. Horri esker, programa horren barruan sartu ziren euskal etxe guztietan har daiteke, gaur egun, Canal Vascoren seinala.

aukera dutenek sarri ikusten dute Canal Vasco: gehienek egunero ikusten dute, hainbatek ordu bat baino gehiago ere. Baidira, beren adierazpenen arabera, Canal Vasco gehien ikusten duten telebista dela diotenak ere: etxera sartu eta telebista piztean euskal telebista da aukeratzen duten lehen kanala, eta beste zerbaiten bila hasi ezean beren *berezko* kanaltzat dute. Honenek guztiak zera erakusten digu: oro har, gure elkarrizketatuek Canal Vascoren kontsumo handia egiten dutela, kontuan hartuta gehienek beren telebista pantailetan kanal eskaintza oso handia dutela.

Beste batzuek ez dute, esan bezala, Canal Vasco etxean ikusteko aukerarik, telebista zerbitzua ematen dien konpainiak seinala sartzen ez duelako, eta zuzenean jaso ahal izateko instalazioaren kostua handiagoa delako. Hauen arteko hainbatek ahaleginak eta bi egiten ditu euskal telebista jaso ahal izateko: Interneten bitartez ikusi (pantaila txikian eta kalitate eskasean bada ere), kable konpainiari presioa egiteko kanpainak antolatu (geroxeago aipatuko dugun bezala), seinala hartzen duten lagunengana joan, antena parabolikoa eta hargailuaren kostua bere egin, eta abar. Hauetariko askok Canal Vasco premiazkotzat dute eta, Argentinakoen kasuan bereziki, gogorra egiten zaie seinala hor dagoela jakin eta ezin jasotzea. Gabrielaren hitzetan adierazteko:

“G: ¿Y qué has oído hablar de Canal Vasco? ¿Referencias?

Gabriela: Más que referencias avidez, claro es como que uno tiene envidia que el otro puede ver, más que gozar con lo que te están contando tiene cierto resquemor, ella puede verlo y yo no, pasa un poco eso, es decir uno quisiera tenerlo”.

Batzuek duten interes handia (Gabriela, lantokitik tabernara jais- ten denean, tabernako telebistako agintea eskuratzen saiatzen da, kafea hartzen igaroko dituen bi minutuetan Canal Vasco ikusi ahal izateko) oso urrun dago beste batzuek erakusten duten interes txikitik. Hauentzat, Canal Vasco ez dago beren lehenatasunen artean, arrazoiz ezberdinengatik. Batzuek ez dute etxean, eta euskal etxera joaten direnean beste gauza batzuk egitea nahiago dute: pilota partida ikusi,

“G: ¿De todo lo que veis en televisión, qué parte ocupa Canal Vasco?

Antonio: 50 %, por lo menos. En el caso nuestro por lo menos.

G: ¿Ves más Canal Vasco?

María: Sí, sí. Yo si prendo la televisión es para ver el Canal...

G: Ves Canal Vasco todos los días. ¿Y cuánto tiempo, de media?

Nuria: Si no me interrumpen, ja, ja, ja... tres horas... cuatro horas, a la noche”.

musean aritu, lagunekin egon eta abar. Gauza horiek aurrea hartzen diote Canal Vasco ikusteari. Halaber, badira Canal Vasco etxean jasota edota jasotzeko aukera edukita gutxi ikusten dutenak ere. Areago: etxean ETBren seinala eskaintzen zuen konpainia bat eduki ostean konpainia aldatu duenik ere bada, Canal Vasco ez zutelako bereziki gogoko.

Aipatu beharra dugu Canal Vascorekiko interes handia eta interes txikia Argentinan zein Venezuelan sumatu ditugula. Baina gure laginak orokortze enpirikoak egiteko aukerarik ematen ez digun arren, nabarmena da Argentinako elkarrizketatuek oro har, interes handiagoa erakutsi dutela Canal Vascorekiko Venezuelakoek baino. Izan ere azken hauen artean aurkitu ditugu ETBri buruzko balorazio kritikoenak.

Kritika horiek argudio ezberdinetan oinarritzen dira. Batzuk ez dira oso argudio zehatzak, eta programazioaren erakargarritasun lauso bat baino ez dute islatzen. Beste batzuek ordea oso argiro islatzen dute ikuslearen ikuspuntua: zenbaitetan albistegietan agertzen den ildo politikoarekiko jarrera kritikoa da (hedabide espainoletatik Euskal Herriaz ematen den irudiarekin kritikoa goa izatea eskatzen zaio Canal Vasori), eta beste zenbaitetan saioen kultur eredia da kritikatz dena, alde batera zein bestera. Kasu batzuetan, programazioa "tradicionalgegitzat" jotzen da: esaterako "*uno se ha cansado de ver los aizkolaris*" dio Nekane Canal Vasorekin zuen ilusio maila jaistearren arrazoen artean. Beste kasu batzuetan, kontrakoa ikusten da, Xabierrek laburbiltzen duen bezala:

"G: ¿Tienes intención de instalar el Canal Vasco en casa?

Xabier: Si la programación cambiaría sí, sí la instalaría. En estos momentos la programación que tiene no... Hay veces que no parece que seríamos nosotros... hay programas que parece que no son nuestros programas, son copias de otros programas, los que no hablan de la identidad nuestra".

Canal Vasok "geurea" gehiago islatu beharko lukeelako ideia kritiko hau oso loturik dago lehenago aipatu dugun zaintzaren jarrerari, alegia, lehenagotik oso definitutako euskal nortasunaren eta euskaltasunaren jagote eta eustearren jarrerari. Horregatik, jarrera horretan oinarritutako erabilerak aztertzen ditugunean itzuliko gara ideia honetara.

Saio lehenetsi eta errefusatuak

Oro har, gure elkarrizketatuek lehenesten dituzten saioak bi generotan biltzen dira nagusiki: informazioa eta kirola. Elkarrizketatu ge-

hienek aipatzen dute informazioa gehien ikusten duten generotzat, eta asko dira, era berean, Canal Vascon kirola ikusten dutela diotenak. Informazioaren barnean, eguneroko albistegiak (*Teleberri*) dira aipatuena, baina baita bestelakoak ere: elkarrizketa saioak (*El Punto, Forum...*), gai bati buruzko saioak (*Palabra de Ley*) edota Amerikako ikusleentzat propio eginiko saioak (*Noticias para América*). Era berean, informazioa aipatzean, politikari buruzkoak bezainbat agertzen dira, eginiko adierazpenetan, bestelako informazioak (ekonomia, gizarteko bizitza, kultura e.a.). Kirolen artean bestalde, era guztietako kirolak aipatzen dira: futbola, pilota, arraunketa, txirrindularitza edo herri kirolak.

Elkarrizketak osotasunean hartzen baditugu, horiek dira joera nagusiak. Baina gure lagina herrialdearen arabera banatzen badugu, berriro ere agertzen zaizkigu alde nabarmenak euskal argentinarren eta euskal venezuelarren artean: Venezuelarren lehenetsunak modu argian biltzen dira informazioan eta kirolan, bi hauek izanik lehenetsitako ia genero bakarrak; argentinarren gustuak aldiz, genero gehiagotara zabaltzen dira: horrela, gehien aipatutako generoa informazioa izanik, bigarren mailan parekaturik agertzen dira kirolak, euskarazko saioak, “jendea erakusten duten” saioak eta “paisaiak erakusten” dituztenak. Ikus ditzagun bada generoak banan bana.

Kirolari dagokienez, argentinarrek zein venezuelarrek lehenesten duten generoa da, baina azkenek gehiago (esana dugun bezala haien gustuak bi generotan nagusiki biltzen baitira) lehenengok baino. Aldi berean, kirol mota ezberdinak eskatzen dizkiote Canal Vasconi Venezuelatik eta Argentinatik: venezuelarrek bereziki “euskal kirolak” ikusten dituztela azpimarratzen dute (pilota, arraunketa eta herri kirolak oro har), argentinarrek hauen parean euskaldunen bereizgarri ez diren kirolak ere aipatzen dituzten bitartean (futbola eta txirrindularitza). Esanguratsua iruditu zaigu batzuen eta besteen artean aurkitu dugun alde hau; izan ere, euskal venezuelar ia guztiak, Canal Vascon kirola ikusten dutela diotenean, euskal kirolez ari baitira, argentinarren artean kirol batzuekiko eta besteekiko gustuak parez pare banatzen diren bitartean. Gure iritziz, joera ezberdin hauek lehenago aipatu dugun hipotesiarekin dute lotura, esan nahi baita, kasu batzuetan Canal Vasco jadanik definitutako euskal nortasuna indartzeko eta zaintzeko bidea dela, beste batzuetan definizio prozesuan dagoen nortasuna eraikitzeko erabiltzen delarik.

Euskarazko saioak, programazioaren azterketak erakutsi digun legez, oso urriak dira Canal Vascon: *Bertatik Bertara, Sorginen Laratza,*

Goenkale, Jaun eta Jabe eta *Meza Nagusia* bereziki. Azkena izan ezik, gainerakoak gaztelerazko azpтитuluekin ematen dira. Oro har, saio hauek estimatuago agertzen dira Argentinan Venezuelan baino, nahiz eta laginaren deskribapenean ikusi dugun moduan, Venezuelako elkar-rrizketatu gehienek (hemeretzitik hamabostek) euskaraz ondo edo zer-bait dakitela dioten, Argentinakoen artean kopuru hau txikia izanik (berrogeita zazpitik zortzi). Nola liteke Argentinan euskararen ezagutza txikiagoa izanik, euskarazko saioekiko atxikimendu handiagoa izatea? Gure iritziz, azken herrialde honetako euskaldunen artean Euskal Herriarekin eta oro har euskaltasunarekin dagoen jakin-minak esplikatu dezake euskararekiko interesa ere. Gizaldi zaharretako euskaldun hauek, Canal Vascoren eskutik, Euskal Herria deskubritzen ari dira, eta aurkikuntza horiek lehendik familiako transmisioetik edo bestelako bideetatik jasotako ezagutzari gehitzen zaizkio. Hortxe kokatu behar-ko genuke euskarazko saioekin erakutsitako interesa: euskara bazela bazekiten, eta sarritan hizkuntza hori beren arbasoen hizkuntza izan zen. Orain, Canal Vascon inoiz entzun gabea zuten mintzairaz belarria gozatzeko aukera ematen die, eta ikasten ari direnei praktikatzeko bidea. Honek bereiziko lituzke ikusle hauek euskara jadanik ikasia eta sarritan entzunda duten ikusleengandik.

Interes berberak esplikatu luke, halaber, euskal argentinarrak beste saio batzuekin erakusten duten zaletasuna: Euskal Herriko “jende xehea” eta “paisaiak” erakusten dituzten saioak, alegia. Lehenengoan artean, *Zombados*, *El Factor Humano*, *Esta es mi Gente*, herrietako jai eta ospakizunei buruzkoak eta beste batzuk daude. Saio hauetan Argentinako ikusleek jende xehea ikusteko aukera baloratzen dute, Euskal Herriko errealitatea ezagutzeko beste aukera bat izanik. Honela dio, esaterako, Evak:

“Ésta es mi Gente cada cuando lo veo, no por nada, sino para ver cómo se expresan, los problemas que tienen, de qué se hacen problemas... a mí me parece de “busco pareja y así”, y bueno, de qué se preocupan. Y es una forma de conocerlos, conocerlos así socialmente”.

Euskal Herriarekin kontaktu zuzenik apenas ez duen diasporako kideentzat “hango” euskaldun soilak nolakoak diren ikusteko aukera ematen diete saio hauek, geroago aztertuko dugun bezalaxe. Gauza berbera gertatzen da Euskal Herriko leku eta paisaiak erakusten dituzten saioekin: *Euskal Herria: La Mirada Mágica*, telesaioen artean ematen diren irudiak (paisaia ezberdinak erakutsiz, euskal musikak lagun-

duta) eta abarrek aukera ematen diete ikusleei, modu birtualean bada ere, Euskal Herrian barrena bidaiatzeko. Batzuetan, leku berriak ezagutuz, beste batzuetan lehendik bisitatutako lekua edo are arbasoen kontakizunetan ezagututako lekua (jaioterria esaterako) telebistaren birtualitatez "berriro" bisitatuz.

Bestalde, gutxi dira elkarrizketatuek gustukoak ez dituzten saio eta generoak, baina adostasun eta irimotasun handia agertzen da *Lo Que Faltaba* saioaren inguruan: oro har, errefusa handia agertzen dute elkarrizketatu gehienek saio honen inguruan. Izan ere, elkarrizketatu batek edo bik soilik esan digu saio hau ikusten duela; horren aldean, erdiak baino gehiagok erakutsi dute, horretaz ezer galdetu gabe ere, ez zutela saio hori gustuko.

Adostasun handia dago, era berean, saio hori errefusatzeko emandako arrazoietan: oro har, saioak Euskal Herriko errealitatea islatzen ez duelako ustea. Bertan esaten direnek eta agertzen diren pertsonaiek ez dute, gure ikusleen begien aurrean bederen, beraiek bilatzen dutena (Euskal Herria, oro har) erakusten, zuzenean zein zeharka. Bestalde, bertan agertzen diren pertsonaiaiek ere, sarritan, ez dituzte ezagutzen. Azkenik, genero hori gustukoa dutenek, tokian tokiko saioak nahiago izaten dituzte, ezagutzen dituzten gertaera eta pertsonak erakusten dituztelako⁶⁴.

Saio honek elkarrizketatuen artean duen errefusak talka egiten du 2001ean Canal Vascok egin zuen inkestak emandako emaitzekin. Inkesta haren arabera, saio hau litzateke ikusiena. Nola liteke, hartara,

"A mí lo que me gusta mucho ver es por ejemplo una entrevista en la calle, ver gente circulando... Un programa, cuando jugó el Alavés la final de la Copa Europea que fue una tipa a cubrir todo, y hacía entrevistas y la gente estaba borracha y decía cualquier cosa..." (Ramón).

* * * * *

"Otra cosa que me encanta es, de programa en programa, cuando saltan de un programa a otro, hay un corto que canta Lertxundi o Ruper o uno de estos, y ahí hay unas imágenes del País Vasco en general, eso me encanta porque uno va recordando las cosas que conoce, otras cosas que no conoce..." (Kepa).

⁶⁴ Interesgarria litzateke hemen prentsa larrosaren kontsumoaren azterketa bat planteatzea. Hots, genero honen kontsumitzaileek noraino erabiltzen duten kontsumitutakoa beste batzuekin solastu eta harremanetan egoteko. Hala balitz, Canal Vascok eskein diezaiekena baino interes handiagokoa litzateke tokian tokiko telebistek eskein diezaieketena, jende gehiagorengana iristen baitira. Gauza bera gertatuko litzateke telenobelekin; izan ere, hauek ere ez dituzte oso gustuko Canal Vascoko ikusleek.

inkesta hartan saio honek lehen postua izatea eta gure elkarrizketetan azkena? Gure iritziz bereziki arrazoi metodologikoak egon daitezke desadostasun hau esplikatzeko. Batetik ez 2001eko inkestak ez gure laginketak dute adierazgarritasun estatistikorik. Bigarrenik, unibertso ezberdinei dagozkie lagina biak: 2001eko inkestari erantzun ziotenen artean askok eta askok ez zuten euskal jatorririk, ikusi ditugun datuek erakusten duten legez, eta Amerika osoko biztanleak ziren. Gure laginketa euskal jatorriko argentinarrak eta venezuelarren komunitatera mugatu da. Azkenik, kontuan hartu behar da *Lo Que Falta* saioak Canal Vascoren parrillaren zati handi bat hartzen zuela (astean mila minutu baino gehiago, programazioaren % 10, alegia), eta horren eraginez inkesta arin bati erantzuteko garaian errazago gogoratzen dela saio honen izenburua beste askorena baino. Baina hori erantzun izanak ez du, hartara, saio hori ikusiena ez eta estimatuena denik adierazten.

Honengatik guztiarengatik, eta elkarrizketek ematen diguten informazioaren kalitatearen alde eginez, uste dugu 2001ean ETBk egindako inkestak ematen dituen datuek ez dutela diasporako euskaldunek Canal Vascoren aurrean jokatzeko moduari buruzko datu fidagarriak eskaintzen, eta onargarriagoa dirudi euskaldun hauek *Lo Que Falta* bezalako saioak oso gustukotzat ez dituztela pentsatzeak. Baietzapen hau indartzeko, hona beste datu bat: 2001eko inkestak Kolonbiatik jaso zituen erantzun gehien, nahiz eta Kolonbiako euskal diaspora oso txikia den: euskal etxerik ere ez dago herrialde horretan. Horrez gain, multzo honetan lortzen du atxikipen gehien, hain zuzen, *Lo Que Falta* saioak. Zilegi bekigu, beraz, saio honek inkestan lortutako puntuazioa programazioan duen pisuari eta euskal diasporako kide ez direnen erantzunei zor zaiela uste izatea, euskal diasporan lortzen duen arrakastari atxikitzea baino.

Canal Vascore buruzko balorazioa

Oro har, elkarrizketatuek oso balorazio positiboa egiten diote Canal Vascore. Kontsumoari buruz ikusi ditugun adierazpenek ere haxe erakusten dute. Horrela, Canal Vasco lehen aldiz ikusi zutenean zer sentitu zuten galdetuta, ia denek erantzun dute antzera: poztasun handia. Beharbada, Marcosen esaldi soil batek ondo laburbiltzen du sentimendu hau: "El día que ví en la televisión el pájaro, ¡qué bárbaro!".

Areago: diasporako zenbait kide eta erakunde Galeusca sortu baino lehenago-tik ere ari ziren euskal telebista bertaraino eramateko gestioak egiten, besteak beste orduko Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekin-tzarako Idazkaritzaren aurrean. Horrela, lehenengo seinala heldu zelarik, batzuek lehendik itxaroten zuten hura lortu zu-ten, eta oro har hark beren nahiak ase zituela aitortzen dute. Beste batzuek uste-kabea egin zuten topo Canal Vascoren seinalarekin, *zapping* egiten ari zirela, eta beste hainbatek lagun eta ezagunek esanda izan zuten kanalaren berri.

Canal Vascore buruzko balorazioa, zenbait kasutan, harreman afektiboekin lotuta agertzen da. Izan ere, elkarriketatu batzuek penaz adierazten dute beren arbasoek (bereziki Euskal Herritik etorritako gurasoak zirenean) euskal telebista ikustera iritsi ez izana. Honek, gure iritiz, dimentsio afektiboa ematen dio Canal Vascoren erabilerari, eta kanal honek familiaren bidez transmititutako euskaltasunaren erai-kuntzan duen garrantzia nabarmentzen du.

Canal Vasco, oro har, oso garrantzitsutzat jotzen da diasporako euskaldunen artean, eta horregatik ahaleginak eta bi egiten dira hura hartzeko edo inguruko euskaldunen artean haren beharraz ohartaraz-teko. Esana dugunez, kableoperatzaileek seinala garraiatzen ez duten tokietan (Venezuelan kasu) hainbatek diru kopuru garrantzitsua in-bertitzen du Canal Vasco ikusi ahal izateko. Argentinan bereziki, non kableoperatzaile batzuek seinala hedatzen baitute eta beste batzuek ez, kontratatuta zuten konpainiak Canal Vasco eskaintzearen zortea izan ez dutenek konpainia aldatu dute, ahal izan dutenean bederen, hura jaso ahal izateko. Beste batzuek ez dute horretarako biderik izan, eta konpainiaren aurrean presioa egitearen bidetik jo dute: banaka zein taldetan antolatuta, hainbat eta hainbat dira kableoperatzaileari kon-tratua bertan behera uzteko mehatxua egin diotena, baldin Canal Vasco eskaintzen ez bazuten. Presio hauek, batzuetan, arrakastatsu ger-tatu dira, eta beste batzuetan ez. Baina guztiok erakusten digute dias-porako euskaldunek (eta hemen berriro ere argentinarrak nabarmen-tzen dira gure laginetan) euskal kanalari ematen dioten garrantzia.

Canal Vasco garrantzitsutzat jotzen da, bereziki, euskaldunentzat. Baina euskaldunak ez direnei begira tresna erabilgarritzat dute hainbat

"(Vemos Canal Vasco) desde que en esta zona se puede ver, porque sabíamos de gente en Lomas y así que lo veían y nosotros estábamos desesperados, ¿cómo puede ser!, hasta que averiguamos y pusieron aquí, Telecentro, que es el canal... nos pasamos a Telecentro..."

(María Dolores).

"En Necochea, cuando apenas lo iban a... lo largaron el Canal Vasco acá en América y eso que mandaron a los centros vascos esas parabólicas y eso, en Necochea había un cable sólo que distribuía como Cablevisión. Y justo en esa época había salido el segundo. Y entonces lo que hizo el centro vasco fue juntar firmas y mandar, casi todos estábamos abonados a Cablevisión, que también es Cablevisión en Necochea. Se juntaron firmas que si no compraban esa señal, si no bajaban esa señal, nos íbamos a cambiar todos al otro cable. Y el otro cable ya lo iba a instalar, o sea, se sabía que lo iba a instalar. Y así que lo instalaron, y lo instalaron los dos. Enseguida, en Necochea fue uno de los primeros lugares que tuvo Canal Vasco, enseguida. Y fue por medio del centro vasco. Se juntaron firmas para que lo... para demandar al canal a que compre la señal."
(Andoni).

tzagai izaten dituzte euskal telebistan ikusitakoak: azken orduko informazioak, kirol ekitaldien emaitzak, leku jakin bati buruz emandako

inkestaturik: kanal honek Euskal Herria eta euskaldunak munduan ezagutarazteko bidea eman lezake, haien iritziz. Hain zuzen ere, geroago ikusiko dugunez, Canal Vascoren erabilera nagusietako bat besteen aurrean euskal nortasuna indartzean datza.

Horrelako zerbait pentsatu behar izan zuen Azul herriko euskal etxeko zuzendaritzak, gainerako euskal etxeei bezala Eusko Jaurlaritzak Canal Vasco hartu ahal izateko antena parabolikoa eta har-gailua doan eman zientean: aparailuak euskal etxean instalatu beharrean, herriko kableoperatzaileari eskaini zizkioten, seinala herri osora hedatzearen truke. Ekitimen haren asmoa ez zen herriko euskaldun guztiengana iritsi ahal izatea, herriko biztanle guztiei Canal Vasco eskaintzea baizik. Honi esker, gaur egun herri osoak jaso dezake, etxean, euskal kanala⁶⁵.

Diasporako euskaldunek Canal Vascoren ematen dioten garrantziaren beste erakusle bat kanal honek beren arteko harremanetan duen presentzia da. Oro har, elkarrizketatu ditugun ikusleek, inguruan beste euskaldunik badute, mintzagai

⁶⁵ Ekintza honek, nahita ez, gogora dakarkigu Panpako herrietan euskaldunek komunitatearen eraikuntzan izan zuten garrantziaz Irianik kontatzen duena. Duela mende bat, besteak beste, hotelak eta ostatuak izan baziren euskaldunen eta gainerako bizilagunen elkargunerako espazioak, Azulgo adibide honek bestelako ekarpen mota bat erakusten digu, euskaldunengandik komunitate osora doana. Oraingoan, berriro ere, euskal nortasuna ez da agertzen tokian tokiko nortasunari kontrajarri gisa; aitzitik, tokian tokiko komunitatekide izateko bidea, hain zuzen ere, euskaltasunetik pasatuko litzateke. Nolabait komunitatekide izateko modua da, horrela, euskaldun izatea.

irudi eta erreportajeak, eta abar. Euskal etxeko, etxeko edota lantokiko elkarrizketetan sarri agertzen omen da Canal Vasco beraz. Kasu batzuetan, solaskideek ikusi dutena komentatzeko, edo unean unean telebista eskaintzen ari denaren abisua telefonoz pasatzeko; beste batzuetan, ikusi dutenek ikusi ez dutenei kontatzeko. Zenbait kasutan, gainera aukera dutenek grabatu egiten dizkiete tele-saioak aukerarik ez dutenei, satelitetik datorren seinalarari beste banaketa zirkuitu bat zabalduz.

Euskal kanala diasporako euskaldunen arteko elkarrizketagaia izateak lagundu egiten du komunitatea trinkotzen, besteak beste euskaltasunak familia giroko esparrua gaingitu eta beste espazio zabalago batera eramaten duelako. Euskal Herriarekikoak, horrela, dimentsio sozialagoa hartzen du, garai bateko euskal etorkinek etxeko goxotasuna gaingitu eta beren espazio sozialak ireki zituztenean bezalatsu: hotelak, ostatuak eta euskal etxeak.

Diasporako euskal komunitatea trinkotzeaz gain, Euskal Herrian dagoen familiarekiko harremanak sendotzeko bidea ere izan daiteke Canal Vasco. Hainbat elkarrizketatuk aitortu duten bezala, bertan ikusten dituzten gauzak hemen bizi direnekin solaseko gai bihurtzen dira. Oso ondo islatzen dute erabilera hori ondoko hitzek: "Jorge habla por teléfono con nuestros primos [del País Vasco] y les dice "¿viste?, ¡ganó la Real!", y parece que fuera una charla de domingo acá, no?" (María Eva).

Orain artekoek erakusten digutenez diasporako euskaldunek estima handian

"Nosotros le pedimos siempre para que nos lo ponga nuestra cadena de... Nosotros tenemos un medio que es Multicanal, que es el que nos da... televisión... este... vemos canales de todo el mundo... Y bueno llegó un momento en que yo llamaba todos los días para dejar como sugerencia que por favor hicieran el contrato con Canal Vasco para que llegara a toda Argentina, o por lo menos a todo Buenos Aires, a toda la provincia de Buenos Aires... Y por qué vemos el Canal Gallego y no el Canal Vasco... En un momento me dijeron "mire su sugerencia la deja todos los días, no llame más"... Y no llamé más como que con vergüenza, pero como diciendo, "hagan el contrato o lo que tengan que hacer con la gente de Canal Vasco, porque es importante, hay un montón de gente vasca en Argentina, muchísima...". Y es como que hay gente que no... Algunos sí que están muy metidos, el que está metido está hasta mucho... Está todo el día tipo como yo... Pero hay gente vasca que por ahí, como que no saben bien, como que no conocen bien... No saben bien... Por ahí confunden vasco con gallego o como que es todo lo mismo."

(Esther).

dituzte Canal Vasco eta honek eskaini diezaiekeena, eta hurrengo ata-lean ikusiko dugun moduan erabilera ezberdinak egiten dituzte beren euskaltasuna trinkotu eta lantzeko. Bada ordea balorazio negatiborik ere kanal honi buruz. Joera nagusia Canal Vasco modu positiboan baloratzekoa bada ere, kritikak ere agertzen dira ikusle batzuen artean. Jadanik azaldu dugu saio batzuekin, bereziki magazinekin, agertzen den errefusa, oso orokortua *Lo Que Faltaba* saioaren kasuan. Honen inguruan jaurtitzen diren kritikak honela laburbildu litezke: horrelako saioek ez diete ezer berririk ekartzen Latinoamerikako euskaldunei, ugari baitituzte tokian tokiko telebistetan. Gainera, Euskal Herriaz (edo ikusleek gogoan duten Euskal Herriaren irudiaz) ez diete ezer eskaintzen, agertzen diren pertsonak eta gertaerak Euskal Herriatik kanpokoak direlako edo, batzuetan, Euskal Herriaz duten irudiarekin ondo ezkontzen ez direlako. Produktu gisa ere, estima txikiko saiotzat dituzte, kalitate eskasagatik. Eta entretenigarri gisa ere ez diete balio, bertan agertzen diren pertsonai eta gertaerak ez baitituzte beren erreferenteen artean. Honek guztiak genero eta saio hauen balorazio negatiboa dakar eta, kontuan harturik Canal Vascoren parrillan duen espazio zabala, balorazio hori, kasu batzuetan, kanalari hedatzen zaio, bere osotasunean harturik.

Beste kasu batzuetan informazioaren ildo politikoa da jarrera kritiko negatiboa eragiten duena. Izan ere, ikusle batzuek beren desadostasuna erakusten dute Canal Vascoko albistegiaren informazio politikoa-ekin. Zilegia da pentsatzea kritika hau, aldi berean, beste jarrera politiko batetik egiten dela, baina horrek ez dio, gure iritziz, garrantzirik kentzen. Areago: geroago ikusiko dugunez, hedabide espainiarrek eta sarritan tokian tokikoek ere Euskal Herriaz ematen duten informazio politikoa-ri aurre egiteko oso erabilia da Canal Vasco. Honen ondorioz, kanal honi, jarrera “epelegia” eta Espainiako Estatuaren diskurtsoari behar bezala ez erantzutea leporatzen zaio, aipatzen ari garen jarrera kritiko horietatik guztietatik. Ez dugu aurkitu, aitzitik, Canal Vascoren informazioari ildo “nazionalistegia” edo kutsu politikoaz “zama-tuegia” izatea leporatzen dion kritikarik.

Azkenik, oso neurri apalean bada ere, bestelako iritzi kritiko batzuk ere jartzen dituzte mahai gainean elkarrizkeratuek, gehienbat programazioaren beraren kalitateari loturik: gehiegizko errepikapenak, saio zaharrak eta, sarritan, denboran oso atzeratuak ematea. Adibide grafiko gisa, saio batean zozketa batean parte hartzeko deia egiten zen (horretarako telefono deia egin behar zelarik), kontuan hartuta saio

zabar eta errepikatua zela eta zozketa jadanik eginda zegoela. Beste kritika iturri bat umeentzat desegokitzat jotzen diren saioren ordutegiak dira. Bereziki azken kasuan, dena den, ezinezkoa zaigu bereiztea noiz den Canal Vasco egiten zaion kritikaren erantzule, eta noiz gertatzen diren horrelakoak kableoperatzaileak berak seinala bildu eta programazioa bere kasa berrantolatu duelako. Izan ere, horrelakoetan kableoperatzailea da ordutegia antolatzen duena.

4. CANAL VASCOREN ERABILERAK EUSKAL NORTASUNAREN PROZESUETAN

Aurreko atalean, Latinoamerikako euskaldunek Canal Vasco nola kontsumitzen duten ikusi dugu. Hasieratik eskuartearen darabilgun hipotesiaren arabera, satellite bidezko euskal telebistaren kontsumo ohiturak, moduak eta erabilerak euskal nortasuna berreraikitze burutzen diren praktika ugarien barruan ulertu beharra dago. Era berean, aztertu ditugun laginen herrialde ezberdinetako euskal komunitateen historia zein egituraketari erreparatu, eta kontsumoaren nolakotasuna ere kontuan hartuz, esana dugu Canal Vascoaren erabilera ezberdinak egiten dituztela euskal diasporako kideek. Kasu batzuetan, Canal Vasco ikustea alde aurretik oso modu irekian osatzen ari den euskal nortasuna eraikitze praktika gisa ulertu behar dugu. Beste kasu batzuetan, euskal nortasuna jadanik oso definituta dutenek nortasun horri eustea bilatzen dute euskal telebistaren kontsumoaren bitartez. Era berean, Canal Vascoaren erabileraren bidez ikusleek beraien integrazio politikoa edota euskararantz hurbiltzea bila dezakete, nolabait horren bitartez Euskal Herrian bizi diren euskaldunen komunitateko partaidetza areagotzeko. Beste erabilera batean, Euskal Herria erakusten duen telebista kanal bat ikusgarri izatea besteen aurrean agertzeko euskarri garrantzitsua da. Azkenik, Canal Vascoaren bitartez euskaltasuna bereziki familiaren eta aurrez aurreko harreman zuzenen bitartez bizi izandako kideetasuna izatetik komunitate abstraktuago bateko taldeetasuna izatera pasa daiteke, "irudimenezko komunitateen" teoriek (Anderson, 1983) azaltzen duten moduan.

Atal honetan, beraz, Latinoamerikako euskaldunek Canal Vasco kontsumitzean nola eta zertarako erabiltzen duten aztertzen saiatuko

gara, horretarako gure elkarrizketatuek emandako informazioez baliatuz, eta haiek kontatutakoak teoria eta esplikazio zenbaiten argitan irakurritz.

Nortasun etnikoen garrantzia gaur egungo munduan

Ezer baino lehenago, galdera bat egin beharrean gaude: zer dela eta aldarrikatzen du “bere euskaltasuna” aiton amona edo are herenaiton herenamona Euskal Herrian sortuak zituen argentinar batek? Zergatik atxikitzen dio norbaitek bere burua arbaso urrunen jaioterriko taldeari, hortik datorkion nortasuna bera jaiotzen eta hazten ikusi duen herrialdekoaren parean jarrita, edo are honen gainetik lehenetsita? Esana dugunez, honelakoak aurkitu baititugu Canal Vascoren ikusleen artean. Honetaz galdetzea, azken funtsean, talde nortasunen garrantziaz galdetzea da; zehazkiago gaur egungo munduan talde nortasunek eta nortasun etnikoek duten garrantziaz. Euskaldunak ez dira honetan bereziak, eta talde asko ari da, munduan zehar, bere nortasunari eutsi nahian, ez lurralde propioan bakarrik, diasporan baizik. Transnazionalismoari buruzko ikerketa gero eta ugariagoek (Vertovec, 1999) auzi horren gaurkotasuna erakusten digute: turkiar eta kurduak Alemanian, magrebiarrek Frantzia, txinarrak Australian, musulmanak mundu osoan, errealtate konplexu eta zabal baten adibideak baino ez dira. Diasporako taldeek beren jatorrizko nortasunari eusteko egiten duten saioan, bestalde, lehen mailako lekua hartzen dute gaur egungo komunikaziorako teknologia berriek, Karimek erakusten digun legez (Karim, 2002).

Globalizazioa eta talde nortasunak

Gaur egungo munduan talde nortasunekin gertatzen ari diren fenomenoak ulertzen hasteko eredu orokor bat eskaintzen digu Manuel Castellsek, sare gizartea aztertzen duenean (Castells, 1997). Bere aburuz, gaurko mundua hain da konplexua eta globalizatua, ezen ez baikara gai gertatzen diren zenbait prozesuri zentzua aurkitzeko. Estatu-nazioaren inguruan antolatutako gizarteetan, halako jarraikortasun edo *continuum* bat egon da banakoaren bizitzaren eta gu ukitzen gaituzten prozesu eta gertaerak erabakitzen dituzten botere egituren artean. Horrela, politikaren eta gizartearen antolamenduari dagokionez, erabaki nagusiak estatu nazionalak hartzen ditu, estatua eta banakoa-

ren arteko zubia gizarte zibila delarik. Ekonomian, langileak enpresa batean egiten du lan, gardena izanik enpresan nork hartzen dituen erabakiak, haren interesak, e.a.. Eta horrela beste zenbait arlotan. Globalizazio prozesuekin ordea, ekonomia mailako erabakiak enpresaren gainera jarri dira (klusterrak, transnazionalak, burtsa espekulatiboa, e.a.), eta norberaren lanpostua erabat baldintzatzen duten erabakiak (postua bertan behera uztearena barne) non hartzen diren ez da jadanik hain argiro ikusten. Berdin politikagintzan: estatu nazionala ez da jadanik gizarte batek dituen arazoak konpontzeko gai, ez eta lehengo negoziaketa lekua; banakoaren zenbait arazo konkritu bideratzeko unean erabat gaudituta dago. Txikiegia da gizartearen arazo handiak konpontzeko (ez baititu eragile guztiak kontrolatzeko gaitasunik), eta handiegia jendearen eguneroko arazoez arduratzeko.

Horren guztiaren aurrean, banakoaren eta botere gune nagusien arteko zubi lana egin ohi izan duen gizarte zibila dislokaturik agertzen da, eta zubi hori jausten ari da. Gero eta zailagoa da gertatzen zaizkigun gauzei zentzua eta ulergarritasuna ematen zizkien unitate baten (gizarte nazionalaren) partaide sentitzea, unitate horren adierazgarritasuna kolokan jartzen hasi delako.

Honen ondorioz, gure eguneroko bizitzan eragina duten prozesuen ulerkuntza zailduz, eta bizitza hori baldintzatzen duten botere guneen nolabaiteko kontrolak gero eta gehiago ihes egiten digularik, komunitarismorako joera indartzen da, Castellsen arabera. Alegia, bizitzari zentzua ematen dion talde batekiko atxikimendua bilatzen da, talde nortasun hurbilagoak indartuz. Nortasun horiek izaera ezberdinekoak izan daitezke (erreakziozkoak, legitimatzaileak eta proiektiozkoak), eta matrize ezberdinen (etnia, genero, herri mugimendu, erlijio eta abarren) inguruan antola daitezke. Baina oso ezberdinak izanagatik, hala bere ezaugarrietan nola gizarteko ondorioetan, puntu komuna dute: banakoari nolabaiteko ziurtasun eta babes ematen diote, bizitzaren zentzua eraikitzen laguntzen diotelako.

Castellsek, beraz, globalizazio garaian estatu-nazioaren errealitateari edo egitasmoari ezinbestean lotuta ez dauden bestelako talde nortasunen indartzea ulertzeko eskema teoriko bat ematen digu. Honen arabera, nortasun etnikoak desagertzera dozelako ideia baztertu egin beharko genuke. Nortasun hauek bizi bizirik daude, eta epe ertainera ezaugarri berriekin baina hor iraungo dutela sumatzeko motiboak baditugu. Honek esplikatu dezake, neurri batean, arestian aipatu dugun galdera: zer dela-eta nortasun diasporakoa?

Talde nortasunak informazioaren gizartean

Alberto Melucci soziologo italiarrak ere arazo handiak ikusten ditu gaurko gizartean zentzua eraikitzeko unean (Melucci, 2001). Bere aburuz, ziurgabetasuna da gurea bezalako konplexutasun handiko gizarteen ezaugarri handienetako bat. Bizimoduak eta gizartea bera oso arin eraldatzen ari dira, gero eta erritmo azkarragoan. Aldaketen erritmoak eta zabaltasunak, hartara, zaildu egiten dute gerta daitekeena aurreikustea; gero eta zailagoa da etorkizunean gerta daitekeena asmatzea. Gerta daitekeenarekiko zalantzak ziurgabetasuna dakarkio bana-koari. Sentipen hau, bestalde, maila ezberdinetan gertatzen da: norberaren bizitzan izango direnak aurreikusteko zailtasunari, gizateriaren bilakaeran gerta daitezkeenak igartzeko zailtasuna gehitzen zaizkio. Izan ere, gaur egungo teknologiak bizitza bera sortzeko bidea (kode genetikoen manipulazioaz) zein erabat desagertarazteko bidea (botere nukleararen indarrak) ematen dituelarik, muga ukitu ezinak ukitu baititu jadanik gizateriak: bizitzaren mugak. Ahalmen erraldoi hauetatik etorkizunean erator litezkeenak ziurgabetasun eta zalantza iturri izugarriak dira.

Ziurgabetasuna ez da mugatzen munduaren etorkizunarekiko aurreikuspenetara soilik, eta geure eguneroko bizitzaren ohiko ezaugarri saihestezin bihurtu da. Hurrengo paragrafoan oso era grafikoa adierazten du hori Meluccik (2001, 121):

“La experiencia habitual en un mundo complejo basado en la ciencia y en la tecnología es la de incertidumbre. Un grado de incertidumbre creciente y, en ocasiones, desbordante. ¿Qué debemos hacer en un contexto diferente? ¿Y qué debemos hacer ante un nuevo problema? Pero, sobre todo, ¿qué debemos hacer, habida cuenta del exceso de posibilidades? Hasta nuestras tareas cotidianas más corrientes se convierten en ejercicios de resolución de problemas: descifrar el manual de instrucciones del aparato de televisión con 99 canales disponibles, elegir nuestro próximo destino turístico entre los innumerables programas de las agencias de viajes, etc.”.

Ziurgabetasuna areagotzen den aldi berean, gizartearen konplexutasun hazkorrak hautsi edo gutxienez lausotu egiten ditu lehenago nortasun finkoak eraikitzen zireneko matrizeen mugak. Hemeretzigarren mendean, esaterako, gizarte mailak oso definituta zeuden kapitalismoan. Desjabetuak menekoak ziren, eta menekotasun horrek zenbait kultura esparrutatik baztertuak izatera eramaten zituen. Horrek

berorrek bultzatzen zituen, halabeharrez, beren kultura esparru propioak eraikitsera, klase nortasunaren eraikuntzarako berebiziko garrantzia izan zuten esparruak, alegia. Gaur egun mailen arteko mugak lausotuagoak dira, eta desjabetuen kulturaren hegemonikoaren presentzia are handiagoa da, beheko klaseek beren esparru propioa galdua dutelarik. Oinarri etnikoko kulturei begiratuz gero ere, antzeko zerbait gertatzen ari da: mundu mailako informazioaren jarioek eta garraioen zabalkundeak (migrazioak, turismoa...) etengabe kontaktuan jartzen dituzte hizkuntza eta kultura ezberdinak, beren arteko mugak lausotuz eta nahasketa bultzatuz. Joera bertsuak aurkitzen ditugu talde nortasunen oinarrian izan diren beste matrizeetan ere.

Horrela, gaur egungo gizakiak ez gara komunitate bakar bateko kide soilik. Aldi berean talde ezberdinetako partaideak gara: kontsumitzaileak, erabiltzaileak, alderdi politiko bateko kideak, hizkuntza bateko mintzakideak, era guztietako taldekideak, eta abar. Beste garai batean kokapen espazial edo sozialarekiko loturak ezartzen zuen identifikazioaren aldean, gaur egun leku batean bizitzeak ez dakar derrigorez nortasun jakin bat sentitzea:

“Ya no venimos definidos por un único criterio de identificación, tal como haber nacido en una familia dada o haber emprendido cierto oficio. Todo ello ha dado lugar a una proliferación de los modos en que los individuos se definen a sí mismos”(Melucci, 2001, 13).

Jakina, honek guztiak eragin handia du hala norberaren nortasunean nola talde nortasunean ere. Kontuan har dezagun nortasunak, funtsean, bi osagai dituela, Erik Erikson psikologoaren arabera (1985): norberaren osotasunaren pertzepzioa (“ni neu naiz, besteen ezberdina”) eta jarraikortasun historikoaren aitortzea (“ni lehengo nerau naiz, bai eta gerokoa ere”). Gizarte tradizionalagoetan, errazagoa da bi osagai horiek ikustea eta aitortzea. Denbora ziklikoak, egonkortasun geografikoak, talde atxikimenduen iraunkortasunak eta abarrek ahalbidetu egiten dute, gizarte horietan, norik bere burua ezagutzea etengabe, bai eta besteek ere ezagutzea (nortasunaren bigarren alderdia baita besteek ezagun edo aitortua izatea). Informazioaren gizarteetan ordea aldaketen sakonerak eta zabalerak zaildu egiten du osotasunaren eta jarraikortasunaren pertzepzioa:

“El ritmo del cambio, la pluralidad de pertenencias o la abundancia desbordante de posibilidades y mensajes sirven para debilitar los puntos de referencia sobre los que descansa nuestra identidad. La posibilidad

que cada uno/a de nosotros tenemos para afirmar con convicción y continuidad 'Soy x, y o z' se hace crecientemente incierta. Se hace más apremiante la necesidad de restablecer continuamente quién soy yo y qué es lo que asegura la continuidad de mi biografía" (Melucci, 2001, 125).

Ziurgabetasun eta konplexutasun testuinguru honetan, beraz, inoiz baino beharrezkoa dugu nortasunari eustea, eta nortasuna azpimarratzeko osagaiei eustea. Zeren gainean ordea? Gure nortasuna mugatzen eta definitzen duten kanpoko faktoreak garrantzia galtzen ari dira, norberak aukeratzen dituen faktoreen mesedetan. Gero eta zeresan handiagoa dugu guk geuk geure nortasuna definitzeko unean, eta gero eta pisu gutxiago dute kanpotik datozkigun osagaiak. Honetan ere aldaketa handiak datoz konplexutasun handiko gizarteetan:

"Cada uno experimenta muchas caras de sí y muchos modos de pertenencia a una identidad colectiva. Para conjuntar esta diversidad y establecer su continuidad en el tiempo no existen ya canales predispuestos por la cultura, sino que es necesaria una nueva inversión. La pregunta "¿quién soy yo", "¿quiénes somos nosotros?" no cesa de manifestar su fuerza, al contrario, se hace más agobiante e insistente. La respuesta ya no viene dada, sino que va construyéndose continuamente, como individuos y como miembros de la colectividad" (ibidem, 93).

Gizabanakoak, hartara, autonomia handiagoa du bere nortasuna eraikitzeko, beharra ere gero eta handiagoa duenari. Aldi berean, baldintza materialak indarra galtzen ari dira gure esperientzia eraikitzen dugun eremua mugatzeko unean, eta gero eta indartsuago agertzen dira, zeregin horretan, baldintza sinbolikoak eta zeinu sistemak. Honetaz ohartzeko pentsatu besterik ez dugu egin behar geure eguneroko esperientzietatik zenbat bizi ditugun modu pertsonal eta zuzenean, eta zenbat hedabideen edota "besteen" bitartez. Horren ondorioz, geure nortasuna ere gero eta gehiago eraikitzen dugu sinbolismoaren inguruan, faktore material determinatzaileen inguruan baino. Horretarako, gaurko gizarteko informazio jario izugarriak behar dugun baino askoz aukera gehiago ematen digu erreferenteak eskuratzeko. Era grafikoa azalduta, nortasuna eraikitzeko unean eroslea supermerkatuan bezalaxe aurkitzen du banakoak bere burua: aukera ugari eskura, eta horietatik hautatu beharra. Adibide berarekin jarraituz, Meluccic azpimarratzen duen beste ideia bat ere hartu beharra dago kontuan: supermerkatuan

zer eta zenbat aukeratu erosteko ahalmenaren arabera da; informazioaren gizartean, era berean, nortasunak eraikitzeke osagaiak eta erabakiak aukeratzeko ahalmena botere ekonomiko eta –bereziki– kulturaren mende dago.

Laburbilduz, ziurgabetasunaren aurrean gizabanakoak inoiz baino beharrezkoagoa du nortasuna sendotzea. Horretarako, kanpotik datozkion determinazio materialek (jatorria, kultura, gizarte maila...) gero eta euskarri ahulagoa ematen diote. Informazio jarioak, aitzitik, gero eta aukera gehiago eskaintzen dio nortasunaren alderdi sinbolikoa eraikitzeke. Eta aukera hauen artean, nortasun etnikoa eraikitzeke bideratutakoa garrantzi handikotzat du Meluccik. Nortasun etnikoa ez da gauza berria, jakina. Baina gaur egun aldarrikatzen diren nortasun etnikoak ezin dira ulertu, besterik gabe, estatu-nazioen sorkuntzaz geroztik konpondu gabe geratu diren hondar gisa. Sustrai zahar eta sakonak dituzten nortasun hauek, aitzitik, gaurko errealitateak planteatzen dituen galderei erantzuteke balibideak eman ditzakete. Zentzu horretan, mugimendu garaikidetzat hartu behar ditugu, ez desagertzera jotzen duen zerbait bezala:

“La identificación con una diferencia particular –en este caso “étnico” y lingüística– refuerza las demandas y necesidades típicas de la sociedad compleja, como si la identidad étnica proporcionase un espacio simbólico para la expresión de fuerzas conflictivas que van más allá de la condición específica del grupo étnico en cuestión. Este punto de vista viene apoyado por todos aquellos análisis que sostienen que la identidad étnica se está transformando progresivamente en una “identidad simbólica” en el seno de sistemas en los que las connotaciones “materiales” de la etnicidad se han diluido en el gran crisol de la sociedad de masas. Un proceso similar tiene lugar para la identidad nacional expuesta a una “informalización” progresiva” (Melucci, 2001, 102).

Melucciren analisiak argiren bat eman diezaguke arestian planteatu dugun galderari erantzuten joateke: alegia, zer da euskaltasuna, hiru edo lau gizaldiren ostean bere burua euskalduntzat duen argentinarraren ikuspegitik begiratuta? Zer aurkitzen du autodefinizio horretan? Noraino datorkio identifikazio hori familiak eta giro hurbilak emana, eta noraino bere erabaki propioek bultzatuta? Autore italiarra zuzen badago, nahiz eta euskaltasuna mugatu izan duten kanpoko baldintzak (hizkuntza, lurraldea, jatorria, komunitatean bizitzea e.a.) eduki ez edo oso modu urrun eta lausotuan eduki, banakoak aukera bat egiten du bere nortasuna eraikitzeke, eta erabaki horretan euskaltasunari

atxikitzea hautatzen du (gizarteko eta biografiako testuinguruak bulztatuta, jakina). Eta horretarako eskura dituen baliabide sinbolikoak eta praktikak baliatzen ditu.

Hain zuzen ere, hemen koka daiteke satellite bidez jasotzen duen euskal telebistaren garrantzia, beste zenbait baliabide sinboliko bezalaxe. Canal Vascok, bere edukietan, osagai ezberdinak eskaintzen dizkio: oroimen bat berpizteko eta berreraikitzeke osagaiak, kultura praktika batzuk eskuratzeko aukera, komunitate baten partaide sentitzeko eta hala jokatzeko bidea, eta abar. Hauetatik zeintzuk, nola eta zertarako erabiltzen dituen aztertzea da, beraz, gure helburua. Baina hori egin aurretik, ezagutu egin behar dugu Latinoamerikako euskal diasporak oro har nola bizi duen euskaltasuna.

Euskaltasunaren bizipena diasporaren baitan

Orain arte azaldu dugunaren arabera, konplexutasun handiko gizartean edo sare gizartean gertatzen den zentzu eta erreferentzia gale-raren ondorioz berebiziko garrantzia hartzen du talde nortasunaren aldarrikapenak, banakoari bere burua eremu gero eta konplexuago batean kokatzen, ziurgabetasuna gainditzen, eta finean bizitzaren *zentzua* eraikitzen laguntzen baitio nortasunak. Aldi berean, eskura dugun informazioaren ugaritasuna, eguneroko bizimoduaren eraldaketa arina, edota atxikimendu batetik bestera jauzi egiten ibiltzea direla medio, gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute, nortasunaren prozesuetan, faktore eraikiek, beti ere kanpotik (kulturatik, jatorritik e.a.) emanak datozen definizio eta mugaketen kaltetan. Eraikuntza horretan, era berean, nortasuna oinarritzeko eta birsortzeko banakoak eskura dituen osagai eta baliabideak ugariak dira. Testuinguru honetan ulertu behar dugu nortasun etnikoen gaurkotasuna ere. Oinarri etnikoko nortasunak iraganetik datozen arren, orainari eta etorkizunari aurre egiteko bidea ematen dute, garai honetan erantzuten hain zailak diren oinarritzeko galdera batzuei (esaterako “nor naiz ni?”) arropostu ematen laguntzen duten neurrian.

Noraino aplikatu ahal zaio eskema hau euskal diasporaz dugun ezagutzari? Gloria Toticagüena ikerlaria kezkatu da, euskal diasporaz dugun ezagutza gehiena ikuspegi historikotik eginda baitago, eta oso gutxi dira gaur egungo diaspora aztertzen duten lanak. Hain zuzen hutsune hori betetzera dator bere ikerketa, zeina hurrengo lerroetan erabiliko baitugu arestian agindu ditugun helburuetarako.

Totoricagüenak (2000) egungo euskal diasporak euskaltasuna nola definitzen duen eta nola eusten dion aztertu du, analisi konparatibo batean. Horretarako sei herrialdetako euskaldunengana jo du (Argentina, Uruguay, Peru, Amerikako Estatu Batuak, Belgika eta Australia), eta bertan 348 elkarrizketa eta 832 galdetegi idatzi burutu ditu. Horren emaitza, gaur egungo euskal diasporari buruz aurki daitekeen lan osoena dugu.

Totoricagüenak dioskunez, euskal diasporako euskaldunek maila ezberdinetan antolatzen dute beren nazio nortasuna. Beren burua euskalduntzat dute, baina aldi berean bizi diren (eta kasu askotan jaio diren) herrialdeko herritar ere sentitzen dira. Eta bikoiztasun hau luze mantentzen da gizaldiz gizaldi, laugarren eta bosgarren belaunaldiko euskaldunak ere errez aurkitzeraino. Bi nortasun horiek modu ez traumatikoan bizi dituzte diasporako euskaldunek, bakoitzak bere maila baitu. Bata etnikoa (euskal nortasuna), bestea zibila (tokian tokikoa: argentinarra, estatubatuarra, e.a.). Horrela, ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik. Autoreak dioenez, gehienak beren herrialde hartzailearekiko harro daude, eta ez dute imajinatu ere egiten handik alde egiterik, ez eta Euskal Herrira etortzeko ere. Baina, aldi berean, ezin dute beren burua irudikatu “euskaldun izan gabe”.

Bi nortasun maila hauekin batera, hirugarren bat ere agertzen da Totoricagüenaren lanean: nortasun diasporakoa. Alegia, *euskal diasporakide* ere sentitzen dira, hala zentzu zabal batean (munduko diasporan diren euskaldunen taldekide beraz) nola zentzu lokalago batean (tokian tokiko euskal diasporakide). Horrela, norbaitek euskal argentinarra dela dioskunean, hiru atxikimendu ezberdin ageri dira hor: Euskal Herriarekikoa, Argentinarekikoa, eta Argentinan euskaldun sentitzen direnekikoa⁶⁶.

Euskal nortasun etnikoari dagokionez, nazionalismo aurreko ezaugarriak hartzen dituela, dio Totoricagüenak. Hots, diasporako biz-

⁶⁶Antzeko ondorioetara iristen dira Alfonso Perez Agote eta bere lankideak Buenos Aires ondoko Carabelas ibaiaren inguruko euskaldunetz eginiko ikerkuntzan. Bertan diotenez, hiru atxikimendu mota bizi dituzte bertako euskaldunek: euskal etniarekikoa bata, Argentinako herriarekikoa bestea, eta Carabelaseko euskaldunekikoa hirugarrena, azken hau Argentinako euskaldunekikoaren barruan sartzen delarik. Hirukotasun hau, bestalde, Argentinako nazio nortasunaren inguruko hipotesi erakargarri bezain gehiago landu beharrekoago baten barruan kokatzen dute. Izan ere, Argentinako populazioaren jatorri etnikoa ikusirik, honakoa diote

tanleen erabilera eta definizioetan, jatorri, erlijio, kultura edo hizkuntza bezalako zutabeen inguruan definitzen da euskaltasuna, ez naziotasun politikoan. Euskalduna ez da, euskaltasunaren definizio diasporakoan, Euskal Herrian lan egin edo bizi dena, oro har sustraiak han dituenak baizik. Honek zuzen zuzenean garamatza, autoreak dioskunez, Sabino Aranak Euskal Herriaz egiten zuen definiziorantz:

“The Diaspora definitions of ‘Basqueness’ tend to cling to the traditional exclusive Sabino Arana identifiers utilizing ancestry, religion and language, although the homeland’s understanding (following Catalonia) has been modified to a more inclusive category of those who live and work in Euskal Herria and those who want to be Basque and work for the maintenance of the Basque culture” (Toticagüena, 2000, 208).

Toticagüenak euskal diasporari lotzen dion euskaltasunaren definizio aranarra, berak dioen legez, gaindituta dago gaur egungo Euskal Herrian. Gogora dezagun besteak beste ETÁren ezkerreko ikuspuntuaren ekarpenei esker, euskal herritartasuna jatorrian barik beste parametro bitan oinarritu izan dela nagusiki, hirurogeiko hamarkadatik aurrera: hizkuntza bata, eta bertan bizi eta lan egitea, bestea. Diasporan ordea, aldaketa hori ez da gauzatu. Bistan da, gainera, aldaketa ez litzatekeela erreza izango: izan ere, hizkuntzaren irizpidea lehen mailan jartzeak zailtasunak sortzen ditu, euskara galdua dutenen eta are euskararik gabeko euskal arbasoak dituztenen kasuan. Bestalde, Euskal Herrian bizi edo lan egitea lehen mailako irizpidetzat hartuz gero, diasporako kide guztiak euskaltasunaren definizioetatik at geratuko liriateke. Hortik aldaketaren eta Euskal Herrian bertan euskaltasunaz gaur egun egiten diren definizioetara hurbiltzeko zailtasunak.

Bestetik, euskal diasporaren bilakaeran eta nortasunaren garapen historikoan eragin handia izan duten euskal komunitateen izaera bera ere eraldatuta aurkitzen dugu gaur egun. Azterketa historikoak erakusten duenez, Amerikara joaten ziren euskaldunek komunitate harreman handiak mantentzen zituzten euren artean. Euskal etorkinak

autoreek: argentinarra izateak, ezinbestean, etorkin edo etorkinen ondorengo izaera dakar. Argentinartasuna etniartekotasunean oinarrituta egongo litzateke, eta horren ondorioz ez litzateke arazotsu gertatuko nortasun argentinarrarekin batera bestelako nortasun etniko bat izatea (normalean europarra) (Perez-Agote, Azcona, eta Gurrutxaga, 1997).

harreman sare oso batean murgiltzen ziren Amerikako lurraldeetan, azken mendeetan sare horrek zenbait onura eskuratzea ahalbidetzen zielarik: etorri berriei ostatua eta lanpostua, itzuli behar zutenei laguntza, erretiratuei zahar-etxeak, gazteei eskolak, eta abar. Horrela, era ezberdinetako harremanek bultzatuta, tokian tokiko euskaldunek benetako komunitateak osatzen zituzten, komunitate horietan euskaltasunak Euskal Herritik kanpo bizirik irauteko lur ondua zuelarik. Gaur egun ordea, aurreko garaietako emigrazio handia amaitu egin da, eta horrekin batera euskal etxeek eta euskal komunitateek diasporan diren euskaldunei eskaintzen dieten onura. Horrela deskribatzen du Totoricagüenak (2000, 144-145) euskal etxeetan izandako aldaketaren zentzua:

“The end of continuous Basque immigration has changed the necessary functions of today’s organizations to that of cultural identity defenders and preservers. Participation in these centres is voluntary and now for psychological, emotional, and social fulfilment rather than economic need. Communications tend to be less the daily member-to-member interaction, which has been replaced by monthly dinners and social gatherings, annual festival celebrations and institutional newsletters. The same organizations that taught host country language courses, and found accommodation and employment for recent Basque immigrants, are now disseminating genealogical information for Basques to research their heritage, teaching Basque rather than the host country language, collecting travel brochures of Euskal Herria and helping members organize tours to their homeland. Basque immigrants initially needed the services the organizations provided; later generations however, are optional consumers”

Euskal etxeek eta oro har euskal komunitateak diasporako kideei eskaintzen dien onuran aldaketa handiak gertatu izanak ez du esan nahi, alabaina, gune hauen gainbehera etorri denik. Beren zentzuaren aldaketa hori baino ez da: zentzuaren *aldaketa*, ez *desagertzea*. Hori oso ondo islatzen du Totoricagüenak berak ematen duen beste honako datu hau: 1985tik hona 39 euskal etxe sortu edo berpiztu dira Argentinan (gaur egun daudenen erdia inguru), 10 AEBetan (oraingoen laurdena), 6 Uruguayn (oraingoen erdia), 1 Belgikan (berpiztua) eta 1 Australian. Euskal etxeak, beraz, ez dira desagertzen ari diren fenomeno bat; aitzitik, zeregin berriekin baina berrindartzen ari diren zerbait dira.

Eraldatzen ari direnak ez dira euskal etxeak soilik. Nortasun diasporakoaren oinarriak dira eraldakuntza sakonean murgilduta daudenak. Batetik, nortasunaren definizio aranarrak lehenesten dituen irizpideetan

oinarritzea gero eta arazotsuago bihurtzen da: jatorria, gizaldiz gizaldi doa lausotzen, euskaldunen ondorengoak beste batzuekin nahasi ahala; erlijioa indarra galduz doa bizitzaren zentzu emaille gisa, eta gainera ez da, Latinoamerikako kasuan bederen, beste herrikideekiko bereizgarri (bereizgarritasuna funtsezko osagaia izaki edozein definizio-tan); hizkuntza ere oso galduta dago, erabilerari dagokionez behintzat. Bestetik, euskal komunitate diasporakoen barne harremanak eraldatu egin dira, kideen elkarren beharraren izaera eraldatu den neurrian. Gauzak honela, diasporako euskal nortasun etnikoaren oinarrian, gaur egun, zera ikusten du Totoricagüenak: esangura sinboliko handia duten praktika batzuekiko atxikimendua: nagusiki jatorriaren eta oroimenaren aldarrikapena, musika, dantza, kirola, sukaldaritza, erlijioa eta, neurri txikiagoan, hizkuntza. Horiek sortuz eta birsortuz, diasporako kideek euren euskaltasuna berrindartzen eta aldarrikatzen dute. Euskal Herrian nortasunaren eraikuntzan hain garrantzitsuak diren faktore politikoak, bestalde, oso gutxi agertzen dira diasporan, Totoricagüenaren arabera. Egitasmo politikoak ez dira nortasunaren oinarri talde diasporakoetan, oro har eta herrialde batetik bestera egon daitezkeen aldeak alde. Hortik letorke, hain zuzen ere, Amerikako euskaldunek euskal politikagintzarekin eta arlo horretako informazioarekin erakusten duten interes eza.

Diasporan definitutako euskaltasuna, beraz, bereziki praktika sinbolikoetan funtsatzen da. Halako oinarriak dituen nortasun etnikoa, bistan da, askeagoa da eguneroko bizitzak ezartzen dituen baldintzetatik. Eta zentzu horretan, libreagoa da, hots, banakoaren autonomiari eta erabakimenari datzekio. Neurri batean, eta kasu batzuetan, nortasun etnikoa banakoak egiten duen aukera bat da:

“Ethnicity is increasingly a personal choice of whether to be ethnical all. An ethnic identity is one that does not really affect much in these Basque’s daily lives” (Totoricagüena, 2000, 214).

Hau ez da kasu guztietan gertatzen, eta mailak daude. Areago kontuan hartuta diasporako kide batzuk Euskal Herrian jaioko diren bitartean, beste batzuk lau, bost eta are seigarren gizaldiko euskaldunak direla; edota batzuk euskal kultura etnikoaren zenbait osagai (hizkuntza, ohiturak, e.a.) eta Euskal Herriarekiko harremanak beren eguneroko bizitzan baliatzen dituzten bitartean, beste batzuk ez dituztela inondik inora erabiltzen. Kasuistika, beraz, oso zabala da. Baina joera bat azpimarratzen du Totoricagüenak (2000, 214):

“For the first generation, ethnicity is a ‘concrete, unreflective, lived experience, while for subsequent generations it becomes more abstract, idealized, reflective and ultimately optional’”⁶⁷.

Hemen, beraz, bat egiten dugu Melucciren tesiarekin: alegia, konplexutasun handiko gizarteetan nortasunaren eraikuntzan bana-koaren erabakimena eta aukeraketa autonomoa garrantzi handikoak direla, eta nortasun etnikoa bera garai hauetako arazoei aurre egiteko bideak eman ditzakeela.

Antzeko bidea ere hartzen du Totoricagüenak, diasporaren nortasun etnikoan gertatzen ari diren aldaketak aztertzean. Izan ere, modernitateak nazio estatu batekiko atxikimendua eskatzen duen bitartean, posmodernitateak aukerak zabaltzen ditu:

“While modernity demanded state and nation-state building, loyalty from citizens, conformity and obedience to a uniform state culture identity, post-modernity, or the age of globalisation, allows for multiple affiliations and associations, included diasporic allegiances” (Totoricagüena, 2000, 137-138).

Horrexegatik hain zuzen uste du Totoricagüenak komunitate diasporakoak hobeto prestatuta daudela globalizazioak nazio nortasunetara dakartzan egoera berrien aurrean. Nortasun etnikoaren berrindartzea, alabaina, ez da hartu behar globalizazioari emandako erantzun gisa. Aitzitik, lehendik datorren gertaera dugu. Baina garai honetan ezaugarri berriak hartzen ditu:

“A resurgence in ethnic identity salience is related to globalisation but is not a partner in a causal relationship, nor a defensive reaction to it. The tools of global communications are being embraced and utilized by the homeland and the Diaspora to educate and to intercommunicate. Global technology networks are perceived as positive mediums for Basque Diaspora ethnic identity creation of interest, maintenance, and enhancement, but are merely fortifying and simplifying transnationalism –an already existing phenomenon” (Totoricagüena, 2000, 18).

Informazio eta komunikazio teknologia berriek, beraz, aukera ezberdinak ematen dizkiete diasporako kideei beren euskaltasuna eten-

⁶⁷ Aipua Peter Kivistorengandik hartzen du Totoricagüenak: *The Ethnic Enigma: The Salience of Ethnicity for European Origin Groups*, Balch Institute Press, Philadelphia, 1989.

gabe berreraikitzeke. Zehazki, autoreak bi medio nagusi aipatzen ditu: Internet eta satellite bidezko telebista. Lehenak diasporaren eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa ahalbidetzen du, bai eta diasporako talde ezberdinen arteko elkarrekintza. Horrela, Eusko Jaurlaritzak diasporari zuzenduz hartutako lehenengo neurrietako bat euskal etxe bakoitza Interneterako baliabideez hornitzea izan zen. Telebistak, bestalde, diasporatik Euskal Herriaren ezagutza eguneratu eta erreialagoa izaten lagundu dezake, emigraziora jo zuten lehenengo arbasoengandik jaso eta gizaldiz gizaldi transmititutako irudi eta oroimenak –zeintzue-tan oinarritzen baita, neurri handi batean, diasporako euskal nortasuna– erkatu eta osatzeko aukera emanez.

Totoricagüenak hortxe ikusten du diasporan egiten den euskaltasunaren definizioaren aldaketarako bidea, egungo Euskal Herriari buruzko informazioaren eskuraketan, hain juxtu. Bide horretatik, haren iritziz, Sabino Aranaren garaiko definizio itxitik definizio irekiago batera pasa liteke diasporan euskaltasunaz egiten den mugaketa, Euskal Herrian bertan egiten den definiziorantz hurbilduz.

Hortxe ikusten dugu guk ere Canal Vascoren garrantzia ulertze-ko interesguneetako bat, eta horixe azaltzen saiatuko gara hurrengo ataletan.

Nortasunaren erabilera pragmatikoak: itzulerako emigrazioa

Oro har informazioaren gizarteetan nortasun prozesuen inguruan somatzen diren joera orokorrez gain, Latinoamerikako zenbait herrialderen egoera konkretuak ezaugarri bereziak gehitzen dizkie prozesu hauei. Zentzu honetan, Venezuelan edo Argentinan bizi diren euskaldunek eta haien ondorengoek euskal nortasunari eusteko burutzen dituzten praktikak ulertu nahi baditugu, ezin dugu albo batera utzi herrialde hauek azken urteetan bizi duten egoera sozioekonomiko eta politikoa. Nahiz eta lan honetan horri buruzko azterketa sakonik egiteko lekurik ez dugun, aipamen bat bederen egin behar zaio ukaezin bihurtu den errealitate bati: duela hamarkada gutxira arte europarrentzat etorkizun hobearen esperantza eskaintzen zuten herrialde hauetako biztanleek, gaur egun Europan ikusten dute, beste herrialde aberatsetan bezala, itxaropena. Askok eta askorentzat, herrialde aberatsago batera emigratzea amets bilakatu da, beren inguruan somatzen duten etorkizun ezatik ihes egin nahirik. Amets hori, bestalde, eskuragarriagoa izan daiteke herrialde aberatsetan nolabaiteko erroak dituztenentzat,

emigratzeko aukerak handiagoak baitira kasu horietan: desiratutako herrialdean ezagunak edo senideak edukitzea, hango nazionalitatea mantendu edo bederen hura eskuratzeko aukera izatea, gizarte hartzaile berriaren inguruko gutxieneko informazioaren jabe izatea eta beste osagai batzuk, beren arbasoek egin zuten alderantzizko bidaia egitea errazten duten osagaiak dira, zalantzarik gabe.

Har dezagun Argentinako kasua. Jadanik ikusi dugu Argentina-
ren eraikuntza, nazio gisa, indiarren eskusioan eta etorkin europarren integrazioan oinarritu zela. Etorkinen ondorengo izatearen kontzientzia, hartara, oso hedatuta dago herrialde horretan. Gaur egun, urte askotako krisi larriaren ondoren, handik alde egiteko gogoia da hedatzen ari dena. Diego Melamed argentinarrak, datuez eta migratzaileen testigantzez osatu du gaur egungo emigrazio argentinarrari buruzko lan interesgarria (Melamed, 2002). Bertan dioenez, azken urteetan egindako inkesten arabera argentinarren erdiak bertatik alde egin nahi du. Askok eta askok dira horretarako nazionalitate espainola berreskuratzeko tramiteetan ari direnak: 1998an hamar mila argentinarrak inguruk lortu zuen, eta bi urte geroago bikoiztu egin zen kopurua. Era berean, arbaso italiarrak dituztenentzat naziotasuna eskuratzeko legegia malguagoa duen Italiako enbaxaderek ere eskari ugari jasotzen dute: hogeita hamar mila argentinarrak lortu zuen horrela, 1999an, pasaporte italiarra, zeinak europarra izanik, Europako Batasuneko edozein tokitan lan egiteko eta bizitzeko eskubidea ematen baitie.

Bestalde, Melamedek jasotzen dituen testigantza eta aipu batzuen arabera, hain zuzen ere Argentinako nazio sentimenduaren desegituraketari leporatzen dio askok hain baliabide natural handiak dituen herrialde batek gaur egun hondoa jo izana. Esanguratsuak dira, esaterako, Fernando Enrique Cardoso Brasilgo presidente ohiaren hitzak, Argentinaren egoeraren arrazoien azpian nazio horren errotze eza aurkitzen duenean: "un pueblo que se siente arrancado de sus raíces europeas y confinado a un pedazo del fin del mundo" (Melamed, 2002, 55).

Norberaren herrialdea utzi eta beste batean zerotik abiatzea oso gutxi ematen duen urratsa den arren, gizartean oso hedatuta dago jende askok alde egin nahi duelako pertzepzioa, eta halaxe ikusten da Melameden lanean zein gure elkarriketetan bertan⁶⁸. Geure buruari,

⁶⁸ Gure elkarriketetan hainbat dira Euskal Herrira etortzeko aukeraz mintzatu direnak, gehienak aukera ezetzatzeko, baina batzuek bazituzten horretarako plan zehatzak.

beraz, zera galdetu behar diogu: nolako eragina dute pertzepzio honek eta Argentinatik zein Venezuelatik alde egiteko aukera teorikoek, diasporako euskaldunek euskal nortasuna eraikitzeke burutzen dituzten praktketan eta egiten dituzten aukeretan? Norainoko pisua du, euskal argentinarrak eta venezuelarrak artean, Euskal Herrira bizitzera etortzearen posibilitateak, urruna izanagatik, Canal Vascoz egiten den erabilean? Euskaltasunari eutsi eta birsortzeko saioretan, Meluccik edota Castellesk nortasun komunitario eta etnikoen berrindartzean aurkitzen dituzten arazoiez gain, ba ote dago euskaltasunaren erabilera pragmatikorik?

Beude galdera hauek airean, esan bezala gai honetan sakontzeko aukerarik ez badugu ere, gutxienez albo batera utzi ezineko gertaera bati buruzko ohar gisa.

Euskaltasunaren eraikuntza

Melucciren ekarpenetara itzuliz, informazioaren gizarteetan giza-banakoak dituen zenbait talde nortasun modu batera edo bestera “hautatua” dela esan dezakegu beraz. Horixe ote da aztertzen ari garenek kasua? Esan nahi baita, noraino da diasporako euskaldun askok duten nortasun etnikoa beren hautuen emaria, eta noraino beren inguruak ezarria? Zenbait datu baditugu auzi hau argitzen hasteko. Lehenik, diasporako euskaldun askoren “jatorria” ez da Euskal Herrikoa soilik, herri ezberdinetako arbasoak baitituzte. Bigarrenik, “besteek” norberaz egiten duten definizioak eragina du norberaren autodefinizioan ere; zentzu horretan, banakoak nolabaiteko aukera hartzen du bere leialtasunen hautuan, besteek bera ikusten duten moduari so egin eta horren ondorioz modu batera edo bestera jokatzeko baitu. Hirugarrenik, talde nortasuna ez da behin eman eta betirako gordetzen den zerbait; aitzitik, etengabe eraikitzen ari da, eta norberaren biografian aldaketak gertatzen dira talde batzuekiko eta besteekiko leialtasun eta identifikazioetan. Halaxe ere geratzen zaie diasporako euskaldunei beren euskaltasunaren sentipenean. Ikus ditzagun bada puntu hauek modu sakonagoan.

Euskaltasuna beste nortasun etnikoekin lehia

Diasporako euskaldun guztiek ez dute euskaltasuna modu berean bizitzen. Lehenago esan dugunez, batzuek oso finkoa dute euskal nor-

tasuna, beste batzuek oso lausoa duten bitartean. Hauentzat, Canal Vascoren erabilera nortasun hori lantzeko eta eraikitzeko praktiken barnean txertatzen da. Interpretazio honek ezinbestean garamatza Meluccik planteatzen duen hipotesira: alegia, informazioaren gizar-tean banakoek hartzen dituzten erabakiek lehen baino pisu handiagoa dutela beren talde nortasunaren eraikuntzan, kanpoko faktoreek (lekua, kultura, erlijioa, klasea e.a.) izan duten garrantziaren kaltetan. Totoricagüenak ere ildo horretatik jotzen duela dirudi. Gauza bera esan ote dezakegu gure elkarrizketatuek kontatu dizkiguten bizipenen argitan?

Laginak deskribatzean, Argentinako laginaren heterogenotasunaz mintzatu gara. Izan ere, beren burua euskalduntzat jotzen duten haiek oso jatorri ezberdineko etorkinen ondorengoak dira, eta euskal jatorria ez da beti nagusi gertatzen. Batez beste, gure elkarrizketatu argentinarren arbasoen % 60 da euskalduna eta gainerakoak beste jatorri batekoak. Modu grafiko batean erakusteko har dezagun Celsaren kasua: aitona bat kroaziarra, bestea katalana, amona bat italiarra, eta bestea euskaldunen alaba. Gurasoak eta bera Argentinan sortuak; bera, *Emakume Abertzale Batzako* militante aktiboa. Celsak ez ditu jatorri nortasun guztiak modu berean sentitzen, eta batzuk lehenetsi egiten ditu, beste batzuk alde batera geratzen zaizkion bitartean.

Kasu hau oso grafikoa da, eta honako galderak dakarzkigu mahai gainera:

- Jatorriaren erreferente ezberdinak dituzten pertsona hauek, modu berean bizi dituzte jatorri guztiak beren nortasuna eraikitzean, ala batzuk nagusitu egiten dira beste batzuen kaltetan?
- Bat (edo batzuk) nagusitzen direnean, noraino gertatzen da hori kanpoko faktoreek eraginda, eta noraino gertatzen da banakoaren erabakimena eta borondatearen ondorioz?
- Erabakimenik badago, zeren arabera eta nola burutzen da erabakia?

Erantzunak bilatzen hasteko, esan dezagun auzi hau modu ezberdinetan planteatzen dela diasporako euskaldun batzuen eta besteen artean. Venezuelako euskaldunek, oro har, ez dute hautaketaren beharra sentitzen. Gehienak lehenengo edo bigarren gizaldiko euskaldunak izanik, familia jatorri ia bakarra dute: Euskal Herria. Gainera, beren burua euskalduntzat dute zalantzarik gabe, eta nortasun hau ez zaio, kasua denean, naziotasun venezuelarrari kontrajartzen. Totoricagüenak dioen bezala, azken hau nortasun zibila da, aurrekoa etnikoa delarik,

"Es muy común que acá, por el apellido por ejemplo, según donde uno desarrollo sus actividades, a uno le dirían 'sí, ahí eres vasco, el vasco Fulano'; y si no, a los demás genéricamente les dicen gallegos"
(Ricardo).

"Habrás visto que acá los vascos que has tenido ocasión de tratar, no son demasiado diferentes a los de allá. Hablaremos un poco diferente, pero el alma es igualita. Acá el que es vasco es vasco, si vos tenés un apellido vasco, tenemos las mismas características, por lo menos los de acá"
(María).

"Y aparte los apellidos, los apellidos son altisonantes, y yo creo que por ahí tengo más sangre italiana que vasca pero aparte el apellido, para mí es una marca, una marca registrada. Así que yo me siento argentino, pero lo vasco me lleva.." (Marcos).

eta kontraesanik ez da sortzen bien artean. Gainera, Euskal Herrian sortuak izanik edo Euskal Herrian sortutako gurasoak edukirik, euskal nortasuna oso presente izan da beren bizitzan, haurtzaroko sozializazio prozesutik aurrera. Euskaltasuna ordutik emana datorkie.

Beste batzuek ordea bestelako egoera bizi dute, Argentinako gure elkarrizketatuek bezalaxe. Bigarren gizaldiko eta gehiagoko euskaldunak izanik, nortasun argentinarra barneratuagoa dute, herrialde horretan euskaldunen integrazioa handiagoa izan delako. Aldi berean, jatorri ezberdineko arbasoak edukirik, Totoricagüenak planteatzen duen "nortasun zibila / nortasun etnikoa" bikoiztasun orekatua korapilatu egiten da. Areago: gure elkarrizketatuen bizipenetan, euskaltasuna ez da beti modu berean eta intentsitate berez jaso, eta horren ondorioz ez dute denek berdín bizitzen euskaldun izatea. Horrela, oro har euskaltasunarekiko interesa eta euskal nortasuna familiaratik jaso dutela denek aitortzen badute ere, alde handiak daude egoera ezberdinen artean.

Batzuek oso modu trinkoan jaso zuten euskaldun izatearen sentipena, txiki-txikitatik. Guraso zein aiton amonek kontatuta, euskaldunen ondorengoak zirela bazekiten. Haiek, gainera, Euskal Herriko zenbait osagai kultural edota ezagutza transmititu ere egin zieten, hala nola euskarazko hitz batzuk, kantak, joko eta kirolak, zaletasunak, parajeen irudiak, kondairak eta abar; kasuren batean euskal izena ere eman zieten (nahiz eta laugarren gizaldikoa izan).

Era berean, esan dugun legez hainbatek harremana mantendu du Euskal Herriarekin, gehienbat bertan geratutako familiarekin, eta horrek ere lagundu die txikitatik jasotako euskal nortasuna elikatzen. Beste eragile bat diasporako euskal komunitatearekiko lotura izan da: euskal etxean inguruan bildutako euskaldunek errazago zaindu dute, jakina, beren euskal nortasuna.

Besteen berrezagutzea

Familiaren barneko transmisioa ez da beti modu berean gertatzen eta, bazuetan, oso gutxi transmititu da euskaltasunetik. Gizaldi zaharrak, euskal komunitatearekiko harremanikgabeak, Euskal Herriko familiarekiko lotura aspaldian galdurik, eta abar, hainbatek oso modu urrunean bizi izan du euskaltasuna. Erreferente bat edo beste, eta askoz gehiagorik ez. Kasu hauetan, berebiziko garrantzia hartzen du besteen berrezagutzeak, bereziki abizenaren bitartez egiten dena: euskal abizenak ezagunak dira Argentinan, eta gaztelerazko abizenetatik ondo bereiztuak. Horregatik, erreza da euskaldunen jatorri etnikoa abizenaren bitartez ateratzea, ez halako deitura dutentzat soilik, Argentinako biztanle askorentzat baizik. Hemen, kontuan hartu behar da norberaren nortasunean garrantzi handia duela besteek nola ikusten gaituzten jakiteak; izan ere, nortasuna geure buruaren aurrean agertzeko moduz gain besteen aurrean agertzeko modua ere baita. Honela, besteek gutaz egiten duten definizio horretan, abizenak marka nabarmen bat ezartzen du. Marka hori dimentsio ezberdinetan agertzen da: kanpora begira, besteek euskalduntzat hartzen dituzte euskal abizena dutenak, beste jatorri etniko batzuetako taldeetatik bereiztuz eta, aldi berean, norbera talde bati atxikirik. Adibide gisa, euskaldunen eta “galegoen” (hots, espainolen) artean egiten den bereizketa. Talde barrura begira, euskaldunen arteko hurbilketa bultzatzen du abizenaren bitartez egiten den talde atxikimenduak, taldekideen arteko berrezagutzea ahalbidetzen duelarik: euskaldunek, beren artean, abizenagatik berrezagutzen dute elkar, ezezagunen artean ere hurbilketarako eta konfiantzarako lehengo urratsak erraztuz. Azkenik, nork bere jatorriaren kontzientzia ere hartzen du abizenari esker, bere nortasunari izaera bat emanez: “delako abizen hau dudanez, euskalduna naiz”.

Abizenetik, beraz, etor daiteke lehenago planteatu ditugun galderetako baten erantzuna: zergatik nagusitzen da euskal jatorria nortasun

“A mí me tiró toda la vida porque por ejemplo, es cómico pero nunca no sabía el por qué, pero es algo tan especial en uno... Pero por ejemplo mis compañeras de escuela primaria, yo sabía siempre la lista de memoria, y yo siempre veía interiormente con agrado aquellos que eran vascos. Por qué, eso no lo sé, pero de los apellidos vascos nunca más me olvidé y sigo así actualmente, a pesar de los años pasados. Y cuando fui profesora, que tuve acceso a listas de cuarenta, cuarenta y pico alumnos, y de muchísimos cursos, entre mi decía ‘éste, éste...’ eran los vascos, siempre me tiró muchísimo lo vasco” (María).

etnikoaren eraikuntzan, beste batzuen aldean?⁶⁹. Noraino agertzen da hemen norberaren erabakimena, eta noraino dator kanpoko eragileek emanda? Elkarrizketatu gehienek euskal jatorrikoa dute lehen abizena. Beraz, pentsatzekoa da honek eragina izan duela jatorri horren alde jotzean (bereziki kontuan harturik Argentinan, beste toki askotan bezala, lehen abizena erabiltzen dela nagusiki, bigarrena itzalean geratuta). Honelako zerbait sumatzen da Jorgek ematen dizkigun honako erantzunetan:

G: ¿Y tú, Jorge, te sientes vasco?

Jorge: No, porque soy Ramírez. Pero sí que por dentro sí.

G: ¿Cómo es eso de 'por dentro sí'?

Jorge: No puedo decir, no puedo decir qué soy, pero... pero sí que tengo el carácter y... te digo, no sé, yo siento como que tengo más sangre por parte de madre que de padre. Quizás porque tuve más relación con ellos. Te digo que no me siento porque no... no tengo nada que... ni siquiera el apellido. Sí tengo todos los recuerdos, y eso es una pavada, al tener todos los recuerdos y que no me sienta vasco...

G: ¿Sientes más lo vasco que lo gallego?

Jorge: Sí, seguro, lo que pasa que a mí me dicen gallego, por el apellido. Pero..”.

Jorgek bigarren abizena du nafarra, eta pasarte honetan oso nabarmen uzten du abizenaren bitartez besteek atxikitzen diguten talde-tasunak norberaren nortasunean duen garrantzia. Era berean, argiro islatzen du euskaltasun lausoaz esan duguna. Jorge hirugarren gizaldiko euskalduna da; ez du harreman zuzenik Euskal Herriarekin eta ez du inoiz izan, familia harremanak aitona Argentinara joan ostean galdu baitziren. Ez da inoiz Euskal Herrira etorri, eta ez du parte hartzen

⁶⁹ Hemen zehaztapen garrantzitsu bat egin beharrean gaude. Gure lagina Canal Vasco ikusten duten pertsonak osatzen neurrian, aukera ezberdinen artean euskal nortasunaren alde jo duten pertsonak dira. Kanpoan geratu zaizkigu, beraz, antzeko egoeratan izanik beste jatorri bat lehenetsi eta haren inguruko nortasunerantz jo dutenak. Hartara, ezin esan dezakegu euskaltasuna, beste jatorri batzuekiko lehian dagoenean, beti irabazle ateratzen denik. Guk aztertutako kasuetan halaxe gertatzen da, baina kasu horiek hain zuzen ere sesgatuta daude. Edozein modutan, interesatzen zaiguna zera da: zergatik kasu hauetan nagusitu da euskal jatorria eta ez beste batzuk?

euskal komunitatearen egituretan. Emazteak ez du euskal jatorririk, eta Jorgek Euskal Herriaz dituen ezagutza zuzen apurren artean amak txikitari oparitu zion liburu bat dago, "oroitzapen guztiekin" batera. Bere euskal nortasuna bera zalantzan jartzen du, aipuan ikus dezakegun legez, besteek hala hartzen ez dutelakoan (*galegotzat*, hots, *espainoltzat* baitute, abizenagatik). Baina nolabait euskalduntzat du bere burua, "barrutik" bada ere. Zergatik? Elkarrizketatuek ez dute erantzun borobilik ematen gai honen inguruan galdetzen zaienean. Zergatik sentitzen dira euskaldun eta ez, esaterako, italiar, gurasoetako bat euskal jatorrikoa eta bestea Italiakoa dutenean? Zerk daramatza batera eta ez bestera? Elkarrizketen analisitik eratoritzen denez, kanpoko eragileen presentziarekin batera beste zerbait ere agertzen da hemen.

Kanpoko eragileen artean, abizenaren bitartez besteek burutzen duten berrezagutzearekin batera, norberaren biografiak ere garrantzia du gertaera honetan: etxean zein nortasun gailendu den transmisioan, familiaren zein adarrekin izan den harreman afektibo estuagoa, bateko zein besteko komunitatekiko harremana, eta beste batzuk bide dira neurri batean eragina duten faktoreak. Izan ere, elkarrizketatuek beraien erantzunak bilatzen hasita, hortik jotzen dute. Hala eta guztiz, honelako azalpenak ez dira modu egituratu eta sendoan agertzen, eta oro har gehiago dirudite gure elkarrizketatuek arrazionalki azaltzen ez dakiten sentimendua ulertzeko bide arrazionalak bilatzeko ahaleginak finkatutako ideiak baino. Gauza bera gertatzen da aukera ezberdinen artean euskaltasuna nagusitu izana ulertarazteko ematen diren bestelako arrazoibide batzuekin: euskal nortasuna "sendoagoa" dela beste batzuk baino, "sentimendu sakona" dela, beste nortasun arinago batzuen aldean, euskal arraza finkoagoa dela, eta abar.

Euskalduna, gizarteko onespina duen nortasuna

Gure iritziz bada beste arrazoi bat, aztertutako kasuetan, aukera ezberdinen artean euskal nortasuna nagusitu izana azaltzeko: euskalta-

"G: Me has dicho que te sientes vasco, ¿te sientes catalán?"

Ramón: No

G: ¿Por qué?

Ramón: No me preguntes por qué, porque no lo sé. Quizás, si hay que buscarle alguna razón, mamá es catalana, mi abuela, la madre de mi mama era catalana, pero los dos, los dos abuelos maternos. Quizás no se lo inculcaran tanto a ella y ella no nos lo pasó tanto a nosotros.."

sunak bere baitan biltzen dituen estereotipo positiboak. Estereotipo hauen eta Canal Vascoaren kontsumoarekin duten harremanaren azterketa sakonagoa geroago egingo badugu ere, esan dezagun, oro har, euskaldunak ondo ikusita daudela Argentinan. Estereotipoa ote da berau ere?⁷⁰ Ez dakigu, baina elkarrizketen analisiak argi erakusten duenez, ideia hau oso presente dago gure mintzakideengan. Beraien ustez, euskaldunek badute irudi ona besteen aurrean. Beraz, ideia hau errealitatearekin (hots, argentinarren iritzi enpirikoekin) bat datorren ala ez egiaztatu ezin badugu ere, elkarrizketatu ditugun euskaldunek hala ikusten dutela esan ahal dugu; eta horregatik, beren jokabideetan eraginkorra izan daitekeela. Hartara, euskal nortasunaren eraikuntzan kanpoko faktoreez gain norberaren erabakimena agertzen delako hipotesia planteatzen badugu, oso kontuan hartzeko errealitatea da hau. Jakina da talde batzuk gizartean estigmatizatuak direla, eta horren pertzepzioak eragina du talde horren nortasunean, kasu batzuetan taldekidetasuna ezkutatzerainoko eragina. Alderantziz, beste batzuek ospe soziala dute, eta horrek erakargarri bihurtzen ditu besteen aurrean; orduan errazagoa da talde horrekiko kidetasuna jendaurrean aldarrikatzea.

Gure ustez, Argentinako euskaldunen artean bederen nabarmena da hau. Euskaldunak besteen artean ondo ikusiak direlako pertzepzioak gutxienez erraztu egin behar du euskal nortasunaren aldeko joera, eta zenbait kasutan bultzatu eta suspertu ere.

Erabakimenaren garrantzia nortasunaren eraikuntzan

Euskaltasunaren gizarteko ospeak, nola edo hala, nortasun hau beste aukera batzuen artean nagusitzen laguntzen badu, orduan norberak egiten duen hautuaren auzia planteatzen zaigu hemen, eta horrekin batera nortasunaren eraikuntzan erabakimenak duen garrantziarena. Izan ere, talde bat gizartean ondo baloratua bada, taldekidetasun hori errazago transmitituko da gizaldi batetik bestera. Baina, aldi berean, errazago hartuko da gizaldi berriengan, eta errazagoa izango da ere talde horrekiko interesa, harremana eta identifikazioa jorratu eta

⁷⁰ Izan ere, ez baitugu modu enpirikorik argentinarek euskaldunak duten irudia aztertzeko, ezin dugu esan irudi hori noraino dagoen zabaldua. Euskaldunen irudi onaren ideia, beraz, "besteen estereotipoen estereotipoa" izan liteke, euskaldunen artean zabaldua.

lantzea. Eta hemen norberak, ohartuki edo oharkabe, egiten duen hautua dago. Banakoak, beraz, baleukake zeresana nortasun baten edo beste baten alde egitean, Meluccik dioskun legez.

Erabakimen hau ez da beti modu agerian planteatzen gure elkarrizketetan. Hala eta guztiz, kasu batzuetan argiro azaltzen da nortasun etnikoaren alde jo izana erabaki baten ondorio gisa. Patriciak, esaterako, modu landuan azaltzen du euskal nortasunarekiko atxikimendua- ren zergatia:

“Creo que la ascendencia, cómo te diría, la cosa de vasco es como el pertenecer a algo (...) Es porque acá tenemos tan poco para asirnos, está todo tan desastre, todo tan confuso, en este momento en el país, que eso es como que es una cosa que está, es una cosa de la que te podés agarrar, ¿no? Porque todo lo otro no está. Yo soy argentina, pero está todo ahí... Y esto no, esto es una cosa que permanece desde que soy chica, desde que soy más grande, y no ha cambiado. Siempre esa cosa de identidad (...) Creo que esa cosa de tanto tipo de qué es lo que me une, esta cosa de estos ancestros que están ahí desde la prehistoria y que no se mueven, y qué importante, no se mueven, ¡lo único que no se mueve! Es así. Lo único que no se está moviendo. Puedo volver ahí y eso sigue igual. Esto y lo otro cambia, cambia y cambia..” (Patricia).

Aipu honetan Patriciak Argentinako krisi egoera islatzen du, baina gure iritziz ondo deskribatzen du fenomeno orokorrago bat: hain zuzen ere, Castellsen hitzetan esateko, orain arte nortasun nazionalari zentzua eman dioten egituren krisia. Krisi hau globalizazioarekin batera gertatzen ari diren aldaketen ondorioz dator, eta funtsean subjektu kolektibo nazionalen (gizarte zibilen) eta nortasun nazionalen ziurgabetasuna dakar. Horren aurrean, Patriciak azaltzen duen legez,

"G: ¿Cómo te sientes tú, tú eres argentina?

Esther: Yo me siento vasca, porque nosotros no elegimos donde nacemos. Yo nací en Argentina, pero no me siento argentina.

G: Bien, ¿qué te sientes?

Esther: Vasca, y de Bilbao.

G: ¿Te has sentido siempre no argentina y sí vasca?

Esther: Me sentí siempre no argentina (...) Me sentí siempre no argentina, hasta que me empecé a sentir más argentina a los 14 años, una cosa así. Y ahora ya no me siento identificada con esto. Y creo que en el 98 [Euskal Herrira bidaiatu zuen urtean] también me pasó que encontré el lugar donde me sentía identificada. Entonces de ahí empecé a ser bien vasca, de pura cepa como se dice.

G: Pero cuando te he preguntado si eres vasca, me has dicho que un poco rara...

Esther: Porque digamos, nacer, no nací allá desgraciadamente..".

jatorriaren inguruan eratutako nortasuna finkoago agertzen da, bere oinarria –jatorria bera– aldaezina delako. Krisiak gorabehera, euskal jatorria hor dago, iragangaitz, eta pertsonak beharrezkoa duen ziurtasuna eraikitzen lagun dezake. Hortaz, erreza da pentsatzea ziurtasunaren beharrak gizabanakoa hautu jakin batzuk egitera bultzatzen duela, kasu honetan nortasunaren eraikuntzaren inguruan.

Euskal nortasunaren bilakaera

Idea berbera berrindartzeko, honako beste gertaera hau dugu: sarritan, euskaldun hauen nortasun atxikimenduen bilakaeran aldaketak izan dira. Esan nahi baita, euskal nortasuna ez dutela batzuek beti modu berean eta intentsitate berberaz bizi izan. Horrela, maiz agertzen zaizkigu, elkarrizketetan, euskaltasunarekiko interesa beren bizitzako uneren batean piztu edo indartu delako aitopena. Esan behar dugu guk aztertutako kasuetan aldaketa guztiak norabide berean gertatu direla: euskaltasunarekiko interesa eta euskal nortasuna indartze alde-
ra. Ez dugu aurkitu alderantziz gertatu den aldaketarik⁷¹.

Aldaketen eragileak: familia

Zerk eragin du, kasu hauetan, euskaltasunarekiko interesa eta atxikimendua piztu eta suspertzea? Jadanik esan dugunez, oro har familiatik edan dute, gure elkarrizketatuek, euskal nortasuna, baina ez beti intentsitate berberaz. Susperraldi hau nozitu dutenek arrazoi ezberdinen bitartez azaltzen dute gertatutako aldaketa. Kasu batzuetan Euskal Herriko familiarekin galdutako kontaktua berreskuratzea izan da faktore nagusia. Honen adibide adierazgarria Zubiaurre familia dugu.

Zubiaurretarren familia hiru gizaldi ezberdinetako senideek osatzen dute gaur egun. Euskal Herritik Argentinara XX. mendearen lehen hamarkadan joandako migratzaileen seme alabak dira gaur egun familiako zaharrenak. Hauek, Argentinan ezkondu (batzuk euskal jatorriko bikoteekin, beste batzuk ez), eta seme alabak izan dituzte, hirugarren gizaldiko euskaldunak sortuz. Hauetako batzuk ere ezkondu

⁷¹ Honek ez du esan nahi, ordea, horrelakorik ez dagoenik. Pentsa daiteke, ordea, euskaltasunarekiko interesa galdua duenak aukera gutxiago zuela, berez, gure laginetan sartzeko.

egin dira (berriro ere euskaldunekin eta ez euskaldunekin), eta jadanik laugarren gizaldiko Zubiaurretarrak ere badira. Zubiaurretarrek familiako bizitza handia egiten dute, eta igandero elkartu ohi dira bazkal-tzera nagusien etxean, hiru gizaldietako hogeita hamar inguru pertso-na bildurik, Buenos Aires probintziako herrixka batean, euskal txoko baten estetika duen gela handian: horman aitona eta amona zaharren argazkia, ikurrinaren alde bietan, eta bestelako euskal ikurrak zintzili-katurik. Beren artean harreman handia duten arren, ez dute parte har-tzen euskal komunitatearen egituretan (euskal etxeak e.a.). Euskal ja-torrikoak zirela betidanik jakin dute, baina galdua zuten Euskal He-rriko familiarekiko harremana, lehen migratzaileak Argentinara etorri zirenetik aurrera. Duela hogeita hamazazpi urte ordea bisita bat izan zuten. Euskal Herritik zetorren frailea zen bisitaria. Frailea Perura des-tinatua izan zen, eta destino berritik Argentinara etortzeko baimena eskatu zien nagusiei. Izan ere, amari hitz emana zion hirurogei urte le-henago joandako eta kontaktua galdutako nebaren berri arakatuko zue-la. Frailea Argentinara iritsi zenean abizenak bilatu zituen telefono gidan, eta horrela aurkitu zituen bere lehengusuak: Zubiaurretarrak. El-karrekin bildu, eta ordutik berreskuratu egin zen familiaren mutur bien arteko harremana, eta geroztik sarritan joan dira Euskal Herriko seni-deak Argentinara, eta Argentinakoak Euskal Herrira etorri. Gutun eta telefono deien bidez ere mantentzen dituzte harremanak gaur egun⁷².

Kasu honetan, familiarekiko harremana berreskuratzea izan da euskaldun hauei beren nortasuna sendotzeko eta lantzeko pizgarria, haiek aitortzen dutenez. Hain epopeikoak izan gabe, antzeko historiak errepikatu egiten dira, nahiz eta sarritan harremana berreskuratzeko lehen urratsa Argentinan daudenen aldetik abiatzen den. Zentzu ho-netan, baliabide izugarri ahalsua aurkitu dute euskal diasporako kide-ek informazioaren teknologia berrietan, eta bereziki Interneten: izan ere, hainbat elkarrizketatuk azaldu dizkigute Interneteko bilatzaileen

⁷² Familiaren berraurkikuntzari dimentsio epopeikoa ematen dioten beste osagai ba-tzuk ditu Zubiaurretarren historiak. Horrela, Argentinara etortzeko uanean urrezko txanpona eman zion seme migratzaileari amak. Semeak ez zuen inoiz txanpona erabili, eta ahal izan zuenean bueltan igorri zion amari. Gaur egun, txanpon hori Euskal Herriko oinetxean gordetzen dute, Argentinako Zubiaurretarrak bertara-tzen direnean ia kulturako objektu bihurturik.

bitartez beren abizen berbera duten pertsonak aurkitu asmoz eginda-ko ahaleginak, batzuetan arrakasta osoz burutuak gainera⁷³.

Aldaketen eragileak: bidaia

Familiarekiko harremana berreskuratzeaz gain, eta batzuetan haren ondorioz burutuak, Euskal Herrira eginiko bidaiak ere euskal nortasuna suspertzeko eta euskaltasunarekiko interesa areagotzeko faktore garrantzitsuak dira. Horretarako zoria izan duten guztiek lehen mailako eragiletzat dute bidaia. Honela diosku, adibidez, Estherrek: "*creo que en el 98 (bidaia egin zuen urtea) encontré el lugar donde me sentía identificada*", aurrean duen José Félix aitonak honakoa gehitzen duelarik: "*No se qué es lo que le pasó, pero cuando vino, vino completamente cambiada, parece que le dieron una inyección*". Isabelek, halaber, "*lo que más me afianzó con Euskal Herria fué ir*" azaltzen du.

Euskal Herrira egindako bidaia lehen mailako pizgarria da euskaltasunarekiko interesa sendotzeko, eta atxikimendua areagotzeko. Euskal Herria lehendik ezagutzen zutenentzat (bertan jaiok zirelako edo bidaia gehiago eginak dituztelako) eta sarri etortzen direnentzat, Euskal Herrira etortzeak indarberritzea esan nahi du, Venezuelako elkarrizketatu gehienek dioskuten bezala. Lehen aldiz etortzen direnentzat berriz, etxeko kontakizunen bitartez edo bestelako bide batzuetatik osatua zuten irudia erreal bihurtzea esan nahi du bidaiak, eta denek baloratzen dute oso era positiboan. Hauentzat, bidaia egitea luzaroan izandako ametsa betetzea izaten da, eta norberak nortasunaren inguruan izan ditzakeen diskurtso landuez honantzago, esangura afektiboaz beteta dago. Euskal Herrira etortzea, euskaltasuna gehienbat etxetik jaso dutenentzat, ezer baino lehenago gurasoen edo aiton amonen lurraldera *izultzea* da, haiek ibilitako lekuan ibiltzeko aukera, eta haiek aspaldian bizi izandakoa bizi izateko aukera ere. Bi-

⁷³ Teknologian berrien erabilera diasporatik familiarekiko harremanak berreskuratze-ko edota jatorria eta genealogia lantzeko ez da euskaldunen jarduera eksklusiboa. Aitzitik, oso praktika hedatua da munduko talde diasporakoen artean. Ikus Karim, 200).

Zalantzarik gabe, eta Totoricagüenak bere lanean mahaigaineratzen duenez, ikerketa arlo oso bat zabal liteke diasporako euskaldunek komunikazioaren teknologia berriez egiten duten erabileraz, beti ere komunitatearen eta euskal nortasunaren eraikuntzaren ikuspegitik.

daiarekin, Euskal Herria zerbait konkretu bihurtzen da, zeina kontakizunez eta transmititutako oroitzapenez honantzago dauden pertsona eta leku konkretutan gauzatzen baita. Horregatik, bidaiaria ia beti lotzen zaio Euskal Herriko familiarekiko kontaktuari. Kasu batzuetan, jadanik ikusi dugunez, gizaldiz gizaldi datorren harremanean beste urrats bat egitea ahalbidetzen du bidaiak: gutunez edo telefonoz ezagutzen zirenak aurrez aurre ezagutzeko bidea da. Beste kasu batzuetan, berreskuratutako harreman baten buru-pena da Euskal Herrira joatea: Isabelen kasuan bezalaxe, Interneten eta gutunen bitartez Euskal Herriko familiarekiko harremana berreskuratu osteko hurrengo urratsa izan zen bidaiaria. Hantxe ezagutu zituen, aurrez aurre, bere "kusiak". Badiara ere familiarekin inolako kontakturik izan gabe Euskal Herrira etorri eta galdu-tako senideen bila hasi direnak. Batzuek horretarako zoria izan dute; beste batzuek ez dute lortu, baina horren ordez lagunak egin dituzte, eta horrek asebate egin die Euskal Herria hezur eta haragiz gorpuzteko duten beharra. Beste batzuek, hain urrutira iritsi gabe, ez dute horrelako aingurarik bota arbasoen lurraldean, ez baitute bertako inorekin lotura finkorik ezarri; baina bidaiaria bizipen ahazteztzat dute.

Bidaiaren alderdi afektiboaren beste adierazle bat oinetxearen ezagutzak hartzen duen garrantzia da. Euskal Herrira bidaiatzea nolabaiteko erromes bidaitzat uler badaiteke, arbasoen herria eta bereziki familiaren oinetxea santutegitzat jo litezke. Familia ezagutzearekin batera, oinetxea bisitatzea (zutik dirauen kasuetan) saihestezineko eginkizun bihurtzen da. Hemen ere mamitu egiten da, lehen aldiz bidaiatu dute-entzat, ordura arte gogoan soilik existitzen zen leku baten existentzia.

Euskal Herria zuzenean ezagutzeko zoririk *oraindik* izan ez dute-entzat ametsa da bidaiaria, ahal bezain laster bete beharreko ametsa. Jadanik egon direnek bizi izan dutena bizitzeko gogoa. Hemen ere

"Yo normalmente desde hace unos cuantos años cumpla el cuarto mandamiento cada dos años. O sea, cada dos años voy a Altza. Este año no voy a ir por, incluso por razón familiar también para no cansarles" (Patxi).

"La verdad es que... siempre quise ir a quedarme (...) Yo siempre dije que me quise ir, pero por un tema de... amor a esa tierra. Y cuando estuve allá, no sé, directamente fue enamorarme, y no querer volverme. Pero por sentirme parte del lugar. Es difícil de entender, no sé, mis amigos, la mayoría no me lo entienden, es como que dicen 'no, si me decís por otra cosa yo te lo entiendo pero...' Pero no, es por... por una cuestión de sentir que uno pertenece a esa parte, que fue circunstancial que mi bisabuelo vino, pero que también se puede hacer el camino inverso, y que se puede volver" (Isabel).

"Yo todos los días leo el Deia, a través de Internet leo el Deia completo... leo las dos versiones, la de Bizkaia y la de Gipuzkoa, porque es asombroso, pero hay noticias diferentes.." (Xabier).

* * * * *

"Yo soy un lector empedernido, a mí si me llega un Deia aunque sea de hace 6 meses, yo me lo leo desde el principio hasta el fin. Para mí todo es noticia. Y si hay alguien que se va de aquí, lo primero que le digo es 'mira, te traes el Deia de ese día y el día anterior, por no cargarte más...' Y todas esas revistas que están ahí, llegan aquí y yo las tengo para... yo supongo que la mayoría de la gente son como yo, que quieren.." (Juan Angel).

* * * * *

"El 80% de mi correo electrónico tienen que ver con el País Vasco" (Marcos).

esangura afektiboz betetako ametsa dugu, eta biziki lotzen zaio arbaso migratzaileek burutzerik izan ez zuten *itzulera* beraiek, bisitaldi labur baterako bada ere, burutze-ko beharrari. Mariak, esaterako, zera aitortu zigun: Euskal Herrira etortzen den egunean egingo duen lehenengo gauza, Juan Pablo II Aita Santuak legez lurrean etzan eta arbasoen lurra musukatzea izango dela.

Euskaltasunarekiko interesaren areagotzea eta kontaktua lantzeko praktikak bestelako komunikabideen erabilera

Euskaltasunarekiko interesaren zein Euskal Herriarekiko loturaren beste isla bat komunikabide ezberdinen erabilera aurkituko dugu. Gaur egungo teknologia berriek ahalbidetzen duten kontaktua oso estimatua dute gure elkarrizketatuek, eta teknologia hauek oso erabiliak dira Euskal Herria ezagutzeko zein harremanak mantendu eta lantzeko. Oro har, oso erabilera trinkoa egiten dute gure elkarrizke-

tatuek; adineko jendeak Internet edo posta elektronikoa erabiltzen trebatua izateak halaxe erakusten digu. Era berean, teknologia hauen baliabide ezberdinak erabiltzen direla esan behar dugu: posta elektronikoa, txatak, webguneak, sare bidezko irratia eta telebista, eta abar.

Euskal Herriarekiko loturaren barruan, posta elektronikoa eta txatak, nagusiki, familiarekiko eta lagunerekiko harremana lantzeko erabiltzen dira oro har, nahiz eta batzuek lan kontuengatik ere erabiltzen duten. Jadanik aipatu ditugu Interneteko bilatzaileen erabilera familia aurkitzeko. Horrez gain, txatak ere erabiltzen dira, lagun berriak egiteko, euskaraz praktikatzeko edota munduan zehar sakabanaturik dauden euskaldunekin harremanetan jartzeko.

Bestalde, oso ohikoa da ere Interneten erabilera Euskal Herriko eguneroko informazioa jasotzeko. Askorentzat eguneroko praktika da egunkariren bat edo besteren edizio elektronikoa irakurtzea (Deia,

Gara, El Correo, Diario Vasco, Euskaldunon Egunkaria, Diario de Navarra...), politika edo kirolei buruzko berrien bila. Irratia ere entzun ohi dute batzuek Interneten (Radio Euskadi, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea), eta kasuren batean Canal Vasco ikustera ere sartzen dira sarera, seinala bestela hartzerik ez dutenean. Hemen ordea konexioaren abiadurarekin eta irudien kalitatearekin egiten dute topo.

Internet, bestalde, bestelako informazioa eskaintzen duten webguneak bisitatzeko erabiltzen da (erakunde ofizialak esaterako), eta kasuren batean kaleko jende xehea erakusten duen webkamarak ikusteko.

Teknologia berriez gain, ohiko komunikabideak ere erabiltzen dituzte elkarrizketatuek Euskal Herriaren berri izateko: erakunde ofizialen aldizkariak (Berripapera, Euskal Etxeak, e.a.), herrietako aldizkariak, aldizkari profesionalak, eta abar.

Canal Vasco euskaltasunaren aldeko hautuaren eragile eta eraikuntzaren sustatzaile

Gure iritziz, diasporako euskaldunek Canal Vascorekin egiten duten erabilera euskaltasuna lantzeko burutzen dituzten praktiken artean txertatu behar da. Praktika horiek dituzten helburu berberak ditu Canal Vascoren erabilerak: euskal nortasun sendoa dutenen kasuan, hori elikatu eta berrindartzea. Euskal nortasunaren eraikuntzaren prozesuan ari direnen kasuan, prozesu hori indartzea. Ez dugu uste, berez, jarrera berririk dakarrenik; baina zalantzarik ez dago telebista bidezko sateliteak, bere ahalmenen ondorioz, biderkatu egiten dituela urrutitik euskaltasuna pizteko eta elikatzeko aukerak. Hortxe bere balioa.

Batzuetan bada, euskal nortasuna oso errotuta dago norberaren bizitza eta sentimenduetan, eta sustrai sakon eta zabalak dituen zuhaitzaren antzera, luzaro jasan ditzake lehortea eta bestelako ezbeharrak. Beste batzuetan hazia baino ez da, bere baitan bildurik dagoen hazia, denboran zehar geldo, baldintza egokiak noiz elkartuko zai ernatzen

"Isabel: (...) Y cuando después, justo también por Internet, en un chat vasco, lo contacto a este chico, a Mattin.

G: ¿Y a ese lo encontraste en un chat, por casualidad?

Isabel: Sí, sí, sí, no me creía porque era un chat en euskera, y yo le hablaba en euskera, le escribía en euskera, y Mattin no me creía que era argentina, no había forma de hacerle entender. Y como él justo había estado acá, me hacía preguntas muy particulares, muy de la actualidad argentina de ese momento, y vamos, terminé por creerme.."

"Eva: en realidad, todo esto del euskera surgió un poco por ver por cable el Canal Vasco. Había un programa que lamentablemente lo sacaron del aire, que era sobre el euskera. Ahora no recuerdo bien, creo que se llamaba *Lenguas Vivas* o algo así (...) Y bueno, ahí empecé a interesarme, aparte me gustó el idioma en sí, aprendí un poco y bueno (...) Inclusive fui a averiguar al Centro Vasco.

G: Si te he entendido bien tu interés por el idioma empezó a raíz de Canal Vasco.

Eva: Sí

G: ¿Y tu interés por saber de dónde venía tu familia también empieza ahí?

Eva: No, eso venía de antes. Lo que pasa es que mis abuelos también murieron cuando yo era también bastante chica, y no ha sido una familia que se haya preocupado por las raíces, y de dónde provenían y todo eso. Así que bueno, no hace tanto tiempo que tengo la posibilidad de verlo. Y bueno, después, consultando, a otros familiares, quizás más lejanos o menos visitados, me fui enterando de esos detalles que hicieron que me interesara muchísimo más. Y sumado, ya venía de antes, antes de que tuviera el canal de cable y pudiera ver el Canal Vasco.

G: ¿Y tú has sabido desde chica que eras de origen vasco?

Eva: No, no, no. No

hasteko. Gure aburuz, elkarrizketatu bazuen euskaltasunak gehiago du hazi eta kimutik zuhaitz sendotik baino eta, neurri handi batean, eguzkiak eta urak hazi eta kimuentzat betetzen duten lekua betetzen du Canal Vascoak haien euskaltasunarentzat. Batzuentzat, lehendik sentimendu eta familiarik zetorren oroitzapen xume bat piztu, eta taldekidetasun bihurtzeko balio izan du. Horrek, era berean, beste praktika batzuk gauzatzea erakarri du: besteak beste diasporako euskal komunitatearen egituretar hurbiltzea, Euskal Herriko familia bilatzeari ekitea, bestelako informazio bideak erabiltzea, eta abar. Praktika hauen guztien arteko elkarrekin euskal nortasuna eraikitze prozesua abian jartzen da, horrela.

Bestelako kasuetan ere, Canal Vasco ikustea praktika garrantzitsua da euskaltasuna indartu eta elikatzeke. Nolabait, Canal Vascoren erabilera Euskal Herrira egindako bidaiarekin pareka daiteke. Biak burutzeko aukera izan duten euskaldunek beren nortasunean eragin handiena bidaiak izan duela baieztatzen duten arren, bataren zein bestearen inguruan azaltzen diren osagaiek antzekotasun handia dute. Horrela, bidaiarekin ikusi dugun bezalaxe, Canal Vasco funtsezkotzat jotzen da Euskal Herriko jendea ezagutzeko. Jende xehea, ohikoa, norberaren taldekide eta parekotzat jotzen dena. Euskal Herrira bidaiatzeak, familia ezagutzeaz gain, ordura arte kontakizunetan baino existitzen ez ziren pertsonak (euskaldunak) aurrez aurre ezagutzea ahalbidetzen du. Canal Vasco ikusteak ere horixe ahalbidetzen du, hurrengo atalean iku-

siko dugunez. Lekuek, era berean, bidaiaren bitartez espazio erreal bihurtzen diren bezalatsu, telebistako irudien bitartez nolabaiteko gorpuztura hartzen dute, familiaren bidezko transmisiotik datorren irudipena gaindituz eta, modu digitalean bada ere, erreal bihurtuz.

Horregatik guztiagatik, bidaiak duen bezalaxe, Canal Vasco ikusteak ere badu osagai afektibo handia. Askorentzat, Euskal Herrira bidaiatzea arbasoek burutu ez zuten itzulera egitea bezalakoxea bada, Canal Vasco ikusteak arbaso horiek ikusi ezin izan zutena ikustearen balioa dauka. Zentzu horretan, hainbat elkarrizketatuk aipatu digute, emozionatzeraino aipatu ere, Canal Vasco ikustean hartutako pena, beren aita edo ama hura ikustera iritsi ez zirelako.

Hurrengo atalean aztertuko ditugu sakonago Canal Vasco ikusteko modu hauek, bai eta euskal nortasuna eraikitzeko zertaz bailatzen diren.

Harreman zuzenetan oinarritutako komunitatea *versus* irudimenezkoa

Orain arte ikusitakoaren arabera, gure elkarrizketatuen euskaltasunak euskarri ezberdinak ditu. Kasu batzuetan familiaren barruan soilik landutako nortasuna da, senideen arteko harreman konkretuetan oinarritua, baina gainerako euskal komunitateekiko (diasporako zein Euskal Herriko euskaldunekiko) harremanik gabea, eta nortasun horri izaera orokortzailea eman diezaiokeen diskurtso abstrakturik gabea. Kasu hauetan Canal Vasco, ikusi dugunez, euskaltasunaren bizipen konkretu horretatik bizipen abstraktu batera igarotzeko bidea izan daiteke: euskaltasuna ez da bakarrik norberak zuzenean ezagutzen duena (familia), hedabideen bitartez ezagutzen dena ere bada.

Beste kasu batzuetan alderantzizkoa da euskaltasunaren oinarria: ideia abstraktu batek (esaterako beste euskaldunekin inolako

G: ¿Lo has ido descubriendo después?

Eva: Lo fui descubriendo después. Y aparte ya te digo, o sea, viendo la tele, y con ese programa sobre la lengua

G: ¿Ahora mismo tienes alguna relación con el País Vasco?

Eva: No, no, en sí no tengo relación. O sea, viajé el año pasado, también por ver... Me gustó mucho, me gustó mucho los lugares, siempre cuando pasan los documentales, de las distintas regiones, o de las provincias del País Vasco, me gustó (...). Y fue también por la tele que decidí. Dije "bueno, me voy al País Vasco".

"Yo pienso qué hubiera sido a lo mejor de mi papá escuchar de vuelta el vasco, ¿cierto? Y poder sentarte y... Yo, si algo lamento, siempre le digo a mi marido, 'qué pena que mi papá murió antes de que viniera el Canal Vasco' ¿cierto? Porque claro, lo que hubiera sido..." (María Jesús).

harremanik izan gabe abizenagatik "euskaldunak direla" deskubritzeak) Euskal Herriarekiko eta bertako biztanleekiko interesa trinkotu dezake, are eta norberaren familia konkretuarekiko lotura berregin arte. Euskaltasuna, konkretutik abstraktura eraiki beharrean, abstraktutik konkretura eraikitzen da honela. Canal Vasco, ikusiko dugunez, prozesu honetan ere erabiltzen da.

Batean zein bestean, euskaltasunaren eta oro har talde nortasunen maila bi agertzen zaizkigu hemen: harreman konkretuetan eraikitzen dena bata, eta bitartekotutako harremanetan oinarritzen dena bestea. Ikus ditzagun biak xehetasun handiagoz, horretarako Craig Calhoun (1991) soziologoaren lanaz baliatuz.

Aurretik aipatu ditugun Castellsek eta Meluccik bezalaxe, gaur egungo munduan gizabanakoak bere bizipenen zentzua osatzeak duen garrantzia azpimarratzen du Calhounek. Bere iritziz, gizartean gertatzen ari diren aldaketek hiru erronka nagusi ezartzen dizkiote eguneroko bizipenari: gizarteko antolaketa konplexuari zentzua eman, kontuan hartuta eguneroko bizitzak ez duela horretarako baliabide gehiegi eskaintzen; norberaren jatorri eta jarraikortasunaren zentzua osatu, denboran zeharreko loturak gehienbat inpertsonalak diren une batean; eta leku zein gizarteko testuinguru zentzua osatu, gure bizimodua mugatzen duten faktoreek lokaltasuna erabat gainditua dutela ikusten dugun toki batean.

Arazo handi hauen iturria haustura batean ikusten du Calhounek. Zehazki, *personarteko harreman zuzenen munduaren* eta *antolaketa kolektibo maila zabaleko munduaren* arteko hausturan, hain zuzen ere. Gure gizartean, gero eta garrantzi handiagoa dute bitartekotutako harremanek, pertsonarteko harreman zuzenen kaltetan. Bitartekotutako harreman horiek eragile ezberdinen bitartez burutzen dira: informazioaren teknologia eta komunikabideak, erakunde burokratikoak, merkaturak, eta abar. Bitartekotutako harremanen mundua eta harreman zuzenen mundua bereizteko, Habermasen *lifeworld* eta *system* kontzeptuak eskuratzen ditu Calhounek, banakoaren bizipenak gertatzen diren mailak zehazteko. Lehenengoan, *lifeworld* edo bizitzaren munduan alegia, gizakiek beraiek beren borondatez sortuak bezala bizi dituzte pertsonarteko harremanak. Ezagutzen diren pertsonekin gau-

zatutako eta ezagutzen den historia batean garatutako harremanak diren neurrian, gizakiak harreman horien jabe ikusten du bere burua. Adibidez, lagunarteko, familiako edota auzuneko harremanak lirateke era honetakoak.

Sisteman ordea, harremanak kanpotik edo norberaren borondate-tik at ezarritako arauen bitartez gauzatzen dira. Gizabanakoa harreman horietara etorri aurretik baino lehenago ezarriak direlakoan edota norbera desagertu ostean ere jarraituko dutelakoan, subjektuak ez du bere burua ikusten arau horien egile gisa, praktikara daramatzen aktore edo performatzaile gisa baizik. Merkatu harremanetan, administrazioareki-koetan eta abarretan, adibidez, banakoak ez du bere burua harremanen eta arauen jabe gisa ikusten: ez dira berak sortuak, eta ez dago bere esku haiek aldatzea.

Bereizketa hau eginin, estatu aurreko gizarteetan gizarteko orde-nua neurri handi batean harreman zuzenetan oinarritzen zela, dio Calhounek. Egitura burokratikoak baziren izan, baina hauek mugatu-tako bizitzaren arloak gutxiago ziren, gaur egun baino. Gaurko gizar-tean, harreman mota hauek gure bizitzaren gero eta arlo gehiago arau-tzen dute. Horren ondorioz, merkatu eta politikako harremanak gero eta autonomoagoak dira gizakien borondate-tik, gero eta sistemazkoa-goak, alegia. Harreman zuzenak ez dira desagertu jakina, baina bizitza publikoaren gero eta eremu gutxiago antolatzen da haien bitartez.

Harreman zuzenen orde-z bitartekotutako harremanak nagusi-tzeak ez du esan nahi, ordea, nortasun kolektiboak desagertzen dire-nik, beste modu batera antolatzen direla baizik. Izan ere, badira, bate-tik, harreman zuzenetan oinarritutako *taldeak*, eta bestetik bitarteko-tutako harremanetan oinarritutako *kategoriak*. Harreman zuzenetan oinarritutako taldeek beren taldetasuna eta nortasuna garatzen dituzte harreman horien bitartez. Bitartekotutako harremanetan oinarritzen diren kategoriek ere kidetasuna eta nortasuna garatzen dituzte, baina *beste zerbaiten* bitartez; hain zuzen zerbait hori baita harremanak bitar-tekotzen dituen. Hau azaltzeko, berriro Habermasengana jotzen du Calhounek. Autore alemanak eremu publikoaz egiten duen analisisan, gaur egun eremu publikoa harreman zuzenetarako gunea baino gehia-go errepresentazio eta atxikimendurako gunea dela dio. Honela azal-tzen du Calhounek Habermasen “eremu publikoa”:

“The public sphere does not exist as a set of discursive relationships but rather is created (or at least simulated) by political actors who put

forth images they hope will garner the identification of large numbers of people who may have no discursive relationships with each other or with the political actors” (Calhoun, 1991, 108).

Bitartekotutako harremanetan oinarritutako identitateen kasuan, beraz, identifikazioa ez da zuzenean gertatzen beste kideekin, beronen *errepresentazioarekin* baizik. Bere taldekidetzat dituenak ordezkatzeko dituzten ikurrekin identifikatzen da gizabanakoa. Ikurrak, beraz, bitartekari bihurtzen dira era horretako harremanetan. Adibidez, Calhouni jarraiki, AEBetako Erriflean Elkarte Nazionalak bere kideak interes elkarte gisa *identifikatzera* deitzen ditu. Beren arteko lotura sendoena, ustez mehatxatutako eskubide batekiko (armak eramateko eskubidearekiko) atxikimendua da, beren arteko bestelako harremanik gabe. Kasu honetan, elkarte eta ustezko eskubidea bihurtzen dira taldearen ikur, eta haiekiko identifikazioaren bitartez identifikatzen du bere burua, armazaleak, ezagunak ez dituen beste armazaleekin.

Jakina, zuzenean ezagutzen diren kideekin sor daitekeen identifikazioa eta ezagutzen ez den giza multzo bat ordezkatzeko duen ikur batekin sor daitekeena, oso ezberdinak dira:

“A key condition for this (identification) is that people do not enter the public sphere with well-formed identities, prepared to engage in argument; but rather in some need of identity and seeking not just rational discourse, co-operative social arrangements, or even instrumental ends but in one large part affirmation of their personal identity” (Calhoun, 1991, 108).

Banakoak, Calhounen arabera, bere nortasuna sendotuko duten osagaien bila jotzen du eremu publikora. Eremu publikoaren bitartez osatzen den identifikazio honetatik sortuko lirarteke, beraz, “irudimenezko komunitateak”, hots, zuzenean ezagutzen ez diren pertsonetikiko identifikazioan oinarritutako taldetasunak:

“People without direct interpersonal relations with each other are led by the mediation of the world of political symbols to imagine themselves as members of communities defined by common ascriptive characteristics, personal tastes, habits or concerns” (Calhoun, 1991, 108).

Komunitate hauek *irudimenak* sortuak dira, “beste kideak” halaxe sortuak diren neurrian (ez ditugu zuzenean ezagutzen, gure irudimenezko ondorio dira). Zentzu horretan, Benedict Andersonek (1983) hedatu duen esangura bere egiten du Calhounek: nazioa, esaterako,

komunitate irudimenezkoa da, ez baita naziokideen ezagutza zuzenean oinarritzen, hura ordezkatzeko duen ikurrekiko identifikazioan baizik. Baina irudimenezkoak izan arren, identifikazio horretatik sortutako multzoak *komunitateak* dira, sortzen duten atxikimendu, interes komun eta nortasun handiagatik. Areago: Calhounen esanetan, kideen arteko harremanak bitartekotuak izateak ez du esan nahi gizarteko harremanik ez dagoenik:

“Imagined communities are essentially categorical identities. But although these imagined communities do not reflect dense or multiplex networks of direct interpersonal relationships, they still do reflect social relations. Imagined communities of even large scale are not simply arbitrary creatures of the imagination but depend upon indirect social relationships both to link their members and to define the fields of power within which their identities are relevant” (Calhoun, 1991, 108).

Honaino iritsita, zera esan dezakegu: bitartekotutako harremanen ugaltzeak bestelako komunitateen eraikuntza ekarri du. Komunitate hauek ez dira harreman zuzenen gainean eraikitako komunitateen berdinak, auzunea eta nazioa berdinak ez diren bezalaxe; lehena harreman zuzenetan oinarritua, bestea bitartekotutako harremanetan. Baina bitartekotuak izan arren, irudimenezko komunitateek garatzen duten nortasuna sozialki oso garrantzitsua izan daiteke, eta bat etor liteke harreman zuzenetan garatzen den nortasunarekin (nahiz eta modu ezberdinetan bizitzen diren). Euskal nortasuna, kasu, bi dimentsioetan gara daiteke aldi berean: a) harreman zuzenetan, erreferentzia taldeko kide batzuk zuzenean ezagutzen ditugulako, eta haiekin aurrez aurreko elkarrekintzan aritzen garelako (gure lagunak, gure senideak, e.a., taldekideak dira, hots, euskaldunen taldekoak); b) bitartekotutako harremanetan, gainerako kideak zuzenean ez ezagutu arren, komunitatea ordezkatzeko duen ikurrekiko identifikazioa ere martxan jartzen delako.

Irudimenezko komunitateen nortasunaren eraikuntzan egungo informazio eta komunikazio bideek garrantzi handia dute Calhounen iritziz. Alde batetik, bitartekotutako harremanen koordinaziorako tresna indartsuak dira, hala hedabideak nola ordenagailu bidezko komunikabideak. Bestetik, hedabide batzuek, eta telebistak bereziki, harreman zuzenen simulazioa egiten dute, harremanak hurbilago bihurtuz eta, neurri batean, pertsonalizatuz.

"Bueno, había un programa acá que se llama *Sorpresa y Media* que es copia de un programa español. Y un día llevaron un señor a Navarra, y yo como... no sé, me emocioné tanto que frente al televisor me puse a llorar de ver imágenes de Navarra" (Jorge).

Calhounen ekarpenetik, beraz, zera iruditzen zaigu azpimarragarrien gure lanerako: nola hedabideen bitartez egituratzen den *eremu publikoa* –zeina eztabaidarako gune zein errepresentazio gune izan baitaiteke (Habermas 1989)–, aldi berean irudimenezko komunitateen nortasunaren eraikuntzarako euskarria den.

Kasu batean, eremu publiko horretan garatzen diren harremanen bitartez osatuko da komunitate zentzua. Bestean, errepresentatutako ikurren atxikimenduaren bitartez osatuko da. Batera zein bestera beraz, hedabideek bitartekoturiko harremanek ere komunitate zentzua eman diezaiekete harreman horietan parte hartzen dutenei, nahiz eta, telebista bezalako hedabideen kasuan, harreman horiek oso desorekatuak izan (igorle gutxi eta hartzaile ugari). Hau horrela izanik, zera pentsa dezakegu: Euskal Herrian bizi denarentzat euskal komunitatearekiko atxikimendua harreman zuzenetan zein harreman bitartekotuetan funtsatzen delarik, diasporan bestelako egoerak aurkitzen ditugu: beste euskaldunekiko harreman zuzenak dituztenak (Euskal Herriko zein diasporako senide eta lagunekin), harreman zuzenik izan gabe Euskal Herria ordezkatzan duten ikurrekiko identifikazioa baino ez duten kideak (ikur horiek abizena, jatorriaren kontzientzia eta abarrak izan daitezkeelarik), eta batzuk zein besteak dituztenak.

Ikus dezagun, beraz, nola erabiltzen duten gure elkarrizketatuek Canal Vasco, egoera ezberdin hauetan, beren euskaltasunaren erai-kuntzan.

Harreman zuzenen eraikuntza Canal Vascoren eskutik: esperientzia digitala

Calhounen analisiak komunitate zentzua eta talde nortasuna erai- kitzen direneko eremu biak bereizteko balio digu: harreman zuzenen mundua bata, eta bitartekotutako harremanen mundua bestea. Hona iritsita, beraz, zera galde genezake: zeren inguruan eraikitzen dute diasporako euskaldunek beren euskal nortasuna eta, bereziki, zein leku betetzen du Canal Vasco maila batean eta bestean?

Gure elkarrizketatuak, oro har, harreman zuzenetan zein komuni- tate irudimenezkoa ordezkatzan duten instantzietan oinarritzen dira

beren nortasuna eraikitzean. Euskaltasunak, haientzat, osagai konkretuak ditu definizio abstraktuekin batera. Lehenak, beren bizipen zuzenetan agertzen dira: beste hitz batzuekin esateko, "euskaltasunaz" pentsatzen dutenean gertaera, pertsona edo leku konkretuak dituzte gogoan. Zentzu honetan, argigarria da José Manuelek ematen digun azalpena. José Manuel Argentinan jaioa da, eta arbaso nafarrak ditu. Argentinako bere familiak harremanak mantentzen ditu Nafarroako senideekin. Euskal Herriaz eta Nafarroaz mintzatzean, "Espainia" aipatzen du sarri, bereizketa argiegirik egin gabe. Bere burua euskalduntzat ote duen galdetuta, zalantzarik gabe erantzuten du baietz. Espainoltzat ote duen galdetuta berriz, honela erantzun du, zalantza une baten ostean: "Son cosas diferentes; el País Vasco es la familia, España es otra cosa". Gure iritziz, euskaldun izatea eta espainol izatea gauza ezberdinak direla esatean, zera adierazi nahi du José Manuelek: maila ezberdineko nortasunak direla. Bata, euskal nortasuna, familiari dagokio, hots, harreman konkretuetan garatu den nortasunari. Hauxe izango litzateke Calhounek aipatzen duen lehenengo talde motari dagokion nortasuna. Bigarrena, espainoltasuna, maila abstraktuago bati dagokio ("eso de la madre patria", gehitu du Juana bere arrebak, Latinoamerikan Espainiarekin dauden sentimenduetako bat bere eginez); hots, bitartekotutako harremanen eremuan sartuko litzatekeen komunitateari dagokion nortasuna.

Euskaltasunarekiko antzeko jarrerak aurkitzen ditugu, oro har, Euskal Herrian familia harremanik ez duten eta bertan sekula izan ez diren elkarriketatu batzuegan: "Yo escucho vasco y a mí me suena a mi abuelo", diosku Jorgek, esaterako.

Baina esan dugun legez, euskaltasuna ez da, diasporan, harreman eta bizipen konkretuetan soilik eraikitzen, eta "komunitate irudimenezkoa" ere agertzen da haren eraikuntzan. Norberaren eta irudikatzen den komunitatearen arteko bitartekaritza egiten duten instantziak euskal komunitatea (Euskal Herria) ordezkatzeko duten ikurrak dira. Ikur hauek tankera ezberdinekoak dira, eta hainbat diskurtso orokortzaileen barruan lan egiten dute. Horrela, diskurtso politikoaren barnean, zenbait instantziak ordezkatzeko dute komunitatea: ikurrina, instituzio eta erakundeak, pertsonai enblematikoak, eta oro har taldearen ikurtzat har daitezkeen edozer. Berdin gertatzen da diskurtso kulturalarekin (non euskara edota folklorea taldearen ikur izan daitezkeen), diskurtso geografikoarekin (non Euskal Herria lurralde jakin batekin identifikatzen baita), diskurtso historikoarekin eta abar. Hauek guztiak dis-

"A mí me produce tremen-
damente impresión... tenéis
que saber que hicieron un
recorrido por toda la costa
vasca. El día que lo vimos
aquí a mí me hizo una
impresión tremenda. Claro,
muchos sitios de Gulpúz-
coa y tal no conozco tanto,
ni tampoco de la parte de
Iparralde, pero lo que era la
parte de Vizcaya... se te sa-
len las lágrimas cuando ves
cosas de esas. Eso es lo
que nosotros echamos en
falta del Canal Vasco" (Juan
Angel).

"Yo veo la misa a la maña-
na los domingos, más bien
por reconocer curas que
hace 40 años no has visto y
dices ¡coño pero si está en
no sé dónde!" (Patxi).

oinetxeari ematen zaion garrantziak nolabait norberaren jatorria leku konkretu batean kokatzeko beharrak eragingo luke. Oinetxearen kokapenak kontakizuna (irudimenezkoa) eta lekua (konkretu erreala) batu egiten baititu.

Hain zuzen ere, gure elkarrizketetatik eratoritzen denez, Canal Vascoren erabilera zabalduenetako bat da Euskal Herriaren existentzia nola edo hala jende eta leku konkretuetan gauzaten duena. Canal Vasco, modu ezberdinetan, Euskal Herri konkretuaren bizipena bidera baitezake. Kasu batzuetan, euskal espazio fisikoa zein Euskal Herriko jendea jadanik ezagutzen dituztenek, ezaguna berrezagutzeko bidea aurkitzen dute Canal Vascon. Euskal telebistan ikusten dituzten irudien bitartez, jadanik ezagunak dituzten txokoak, gertaerak edota pertsonak berrezagutzen dituzte, eta hau oso era positiboan baloratzen dute. Canal Vasco, horrela, lehendik datorren harremana (lekuekin, gertaerekin zein pertsonekin) birsortzeko modua ematen die. Hala gertatzen da, esaterako, telebistan nork bere jaioterriko irudiak ikusten dituenen, edo donostiarrek sateliteari esker San Sebastian gaueko danborrada ikusteko aukera dutenean, euskal etxean bildurik. Gauza bera gertatzen da Euskal Herrira bidaiatu ostean bisitaturiko lekuak

kurtso orokortzaileak izaki, euskal komu-
nitate bat definitzen dute, eta nork bere
burua komunitate horrekin identifikatze-
ko aukerak ematen dituzte.

Geroago ikusiko dugu diasporako
euskaldunek Canal Vasco noraino erabil-
tzen duten diskurtso orokortzaile horiek
berenganatzeko eta, ondorioz, haiek es-
kaintzen dizkieten ikurrekiko identifika-
zioaren bitartez euskal nortasuna eraiki-
tzeko. Oraingoz, azter dezagun nola era-
biltzen den satellite bidezko euskal telebis-
ta Euskal Herriarekiko harreman konkre-
tuak garatzeko.

Harreman konkretuen beharra naba-
ria da diasporako euskaldunengan. Hala
ikusiko dugu, esaterako, urruntasunean bizi
diren euskaldunek Euskal Herriko fami-
liarekiko harremana berreskuratzeko
saioak aipatu ditugunean. Era berean,

edota ezagututako pertsonak Canal Vascon ikusten dituztenekin: telebistaz bada ere, nolabaiteko kontaktua berrezartzen da lehenago eza-guna denarekin.

Badirudi zuzenean eta aurrez aurre egin ezin dutena (pertsona eta leku ezagunekin harremanetan jartzea) nola edo hala telebistaren bitartez burutzea ahalbidetzen duela Canal Vascon: *“cuando pasan esos documentales, Cestona, Ondarroa, Lekeitio, Zarauz o San Sebastián... y todo eso, como conoces de antes te llama la atención”* diosku Jesusak, txikitari ezagututako lekuei buruz. Estherrek berriz honela dio: “la gente que tenemos familia por ahí, nos gustaría que nos pasaran cosas de los pueblos, cuando son las fiestas del Carmen...”. Humbertok ere, arreta handiz begiratzen omen zion Donostiako Haur Danborradari, ilobak noiz agertuko: “Estás viendo el Canal y es difícil que esa cámara enfoque justo cuando los chicos pasan, pero por lo menos tenés la ilusión de saber que están ahí”.

Azken aipuan nabarmena denez, telebistako zuzeneko emanaldiak ahalbidetzen die ezagun eta senideekin denbora eta “leku” berean bat egitea, edo horren irudipena egitea bederen. Calhounen hitzetan esateko, telebistak harreman zuzenen simulazioa ahalbidetzen du, aurrez aurreko elkarrekintzaren lekua hartuz. Ideia berbera planteatu zuen Joshua Meyrowitzek “lekutu gabeko kulturak” (*placeless cultures*) kontzeptua jorratu zuenean (Meyrowitz 1985). Meyrowitzzen arabera, komunikabide elektronikoen askatu egin dute informazioaren transmisioak espazio fisikoarekin zuen ezinbesteko lotura, gaur egun posiblea izanik, medio hauei esker, leku ezberdinetan dauden pertsonak aldi berean kontaktuan egotea. Honek, komunitatearen zentzua bera eralda dezake. Gure elkarrizketatuen kasuan, Euskal Herrian eta bertako biztanleekiko harremanetan egotearen sentipena ahalbidetzen du Canal Vascon; bereziki zuzeneko emanaldien bitartez, berauetan norbera ikusten ari dena milaka kilometrotara beste batzuek ere ikusten dutelako pertzepzioak areagotu egiten baitu beste haiekin egotearen ilusioa. Honen adibide, María Evak kontatzen diguna. Berak eta senarrak familia dute Euskal Herrian, eta honela deskribatzen du Canal Vascoren erabileretako bat, besteekin egotearen ilusioa pizten duena: “Jorge habla por teléfono con nuestros primos [de allá] y les dice ‘¿viste? ¡Ganó la Real!’ , y parece que fuera una charla de domingo acá, no?” Horrela, satelite bidez Euskal Herrian daudenen ikusten duten gauza bera Argentinan edo Venezuelan ikusten ari direla jakiteak, haiekin zerbait konpartitzea esan nahi du. Zentzu horretan, Canal Vasco

“JORGE: Bueno, yo comentaba, no sé si al principio te comenté de un programa de unos señores, uno que andaba una gorra así...

G: Ah, ¿Labordeta, el que aparecía con una bolsa?

MARISOL: Sí!

JORGE: Me fascinó ese programa. Cuando estábamos por llegar a Navarra...

MARISOL: Nosotros pasábamos, porque iba, en cada pueblo, iba...

JORGE:...y buscábamos, el día que veíamos, 'pon el video'...

MARISOL: Pero aguantábamos hasta unas horas terribles para verlo, porque la programación no coincide. Entonces, capaz, eran las dos de la mañana y estábamos mirando... Cuando hizo el Camino de Santiago, por ejemplo...

JORGE: Es más, cuando él iba contando los pueblos yo venía acá, y miraba el camino que estaba haciendo, en el mapa: 'próxima semana toca Navarra', yo decía, '¡tiene que andar por ahí!' Y la próxima semana... ¡no lo dieron!

MARISOL: Nos queríamos morir...

JORGE: ¡Me dio una bronca...!

MARISOL: Escribimos, llamamos... ¡fatal!

JORGE: No lo vimos más”.

ikusteak hangoen eta hemengoan arteko harremana sendotzen du.

Euskal Herrian sekula izan ez diren euskaldunentzat gertaera ezberdina da; izan ere, beraiek ez baitute zuzenean lekurik edota -kasu batzuetan- jenderik ezagutzen. Baina leku eta jende konkretuarekiko interesa ez da haatik ximeltzen. Euskal Herriko txoko eta parajeak erakusten dituzten saioekiko atxikimendua interes horren isla argia da. Hurrengo partean, esaterako:

“María Jesús: Ah, veo carreras de bicicletas, vos te vas a refr.

G: ¿Por qué me voy a refr?

María Jesús: Veo las carreras de bicicletas, pero no porque me interese el deporte, viste, porque no es que me interesa, y menos de bicicletas. Pero porque pasan por los lugares, ¿viste? Y entonces yo lo que quiero es eso. Hay otras personas que a lo mejor han tenido la suerte de poder ir; yo como no he podido ir, entonces sueño con eso. Entonces veo la carrera, y me siento y a veces estoy el tiempo que está toda la carrera y miro y miro... Voy mirando todo, cómo va la cámara, cuando llegan a algún lugar... Eso me encanta”.

María Jesusek islatu baino ez du egi-ten, oso modu grafikoan, zenbait elkarrizketatuk adierazi dutena: Euskal Herriko lekuak ikusteari ematen dioten garrantzia. Batzuetan, leku jakinak bilatzen dira: norberaren arbasoen herria, esaterako. Beste batzuetan ez da leku jakinik bilatzen, “Euskal Herria” baizik. Baina Euskal Herri “errealá”, alegia, bera ordezkatzan duten ikurren bitartekaritzarik gabea.

Horregatik ematen diote hain garrantzi handia leku xehe eta soilak ikusteari.

Neurri batean, Canal Vascoren bitartez leku eta parajeak ikusteko joera honek zerikusia du, bereziki Euskal Herrian inoiz izan ez direnen kasuan, beren iruditerian gordeta egon den toki haren ezagutza beharrarekin. Arbasoen kontakizunen oroitzapenean edota irakurritako tes-tuen deskribapenetan baino existitzen ez zen espazioa presente egiten da begien aurrean, telebistaren bidez. Baina bai Euskal Herrian izan direnentzat bai eta fisikoki egon ez direnentzat, euskal lurraldera telebistaz egiten den bisita ez da turistak egiten duen bisita. Lekuekin batera, historiak ere bisitatzen dira, familiaren historiak gehienbat. Espazio bat bisitatzeko da, baina denboran zeharreko bidaia da aldi berean. Familiar gor-detako oroitzapenerako bidaia da, espaziora eginiko bidaia baino arae-go. Honela, esan dezakegu diasporako euskalduna, Benjaminen *flâneur* edo kale ibiltariaren antzera, Canal Vasco irudien bitartez Euskal Herrian barrena ikusle gisa abiatzen denean, ez dela espazioan soilik mugitzen; denboran barrena ere murgiltzen da. Ez ditu, beste barik, tokiak ikusten; aitzitik, bere haurtzaroko kontakizunetan entzundako tokiak dira begien aurrean agertzen zaizkionak, edota bere arbasoak hazten ikusi zituztenak. “Sabés que les mandé una carta diciéndoles que, por favor, yo lo que quería es que me mandasen una foto con el lugar exacto-exacto donde nació mi papá, que me dijeran ‘bueno, acá hay una piedra’ o algo donde nació mi papá”, diosku María Jesúsek, ideia bera adieraziz. Zentzu horretan, lehenago esana dugun legez, Canal Vascoren bitartez nolabait Euskal Herrira *itzultzen* dira, nahiz eta fisikoki sekula egon ez diren. Zentzu horretan, hemen ere nolabaiteko “berrezagutzeaz” mintza gaitezkeela uste dugu, tokia bizipen zuzenez ezagutzen ez den kasuetan ere.

Lekuekiko interesarekin batera, Canal Vasco ikusten duten diasporako euskaldunek interes nabarmena dute jendea telebistaz ikusteko. Ez diskurtso ezberdinen arabera euskaldunen ordezkariak izan dai-

"Estimulu epidermikoak, exotikoak, pintoreskoak, atzerritarra bakarrik erakartzen du. Hiria bertakoaren ikuspuntutik errepresentatzerako daraman inspirazioa oso bestelakoa da, sakonagoa. Espazioan mugitu beharrean denboran mugitzen denaren inspirazioa da"

Walter Benjamin: 'El retorno del flâneur'⁷⁴

⁷⁴ Cfr. Jaraueta, 1992, 22. Benjaminen (1929) testua, Franz Hesselen liburu baten epilogo gisa, gartzelerazko bertsiotan irakur daiteke.

"El Teatro Arriaga, hicieron la fiesta por la conmemoración de los 700 años (...). Ese programa lo vi todo, todo, y acá lo daban a la madrugada en ese entonces. Era la época en que daban a la madrugada, pero ése lo vi, porque no podía creer. Incluso miraba y miraba la gente sentada en las plateas, y decía 'una de ellas a lo mejor es mi familiar, alguno de ellos es un familiar mío' pensaba, ¿viste? O cuando veo gente por la calle me pasa lo mismo. A veces, por ejemplo, están haciendo una filmación en Bilbao de algo, y entonces yo quiero que... están, claro, hablando con una persona en la calle, por algo, claro, están ahí por algo, pero yo quiero que amplíen, yo quiero que muestren algo más. Porque yo lo quiero es ver, ¿viste? Ver Bilbao, ver... qué sé yo, ver algo de la calle, de.." (María Jesús).

Guggenheim en ese momento", diosku Estherrek, horren adibide. Era berean, kalean egiten diren grabaketetan ikusminaz begiratzen dira, galdekatuak begiratzen diren interes berberarekin, haien atzetik pasatzen ari diren ibiltariak. Horrek esplikatzeko du, lehenago ikusi dugun bezala, jende arruntaren bizimodu eta esperientziak erakusten dituzten saioek ikusle batzuegan duten arrakasta (*Esta es mi Gente*, esaterako).

Hemen ere, zuzenean ezagutzen ez diren baina nola edo hala taldekidetzat jotzen diren euskaldunak nolakoak diren jakiteko grina nabarmentzen da. Telebistaren pantailan agertzen diren pertsonak ezeguzagun eta urrunekoak dira, baina nolabaiteko hurbiltasuna sumatzen da haiekin. Izan ere, María Jesúsek dioen legez, telebistan agertzen diren haiek norberaren senideak izan litezke.

Diasporako euskaldunak ez du, sarritan, kontaktu zuzenik Euskal Herriarekin. Edo oso kontaktu meheak ditu. Euskal Herriarekiko

tezkeenak (agintariak, intelektualak, xelebreak, prototipoak, ospetsuak e.a.); aitzitik, jende xehea, arrunta, "kalekoa", edonoren modukoa izan daitekeena. Lehendakariak, kirolari ospetsuak, artistak, denak begiratzen dira, ezagutzeko asmoz. Haiek, bitartekotutako harremanetan oinarritzen diren komunitatean, Euskal Herria ordezkatzeko duten ikurrak baitira. Baina hori ez da nahikoa, eta pertsonaiekin batera pertsonak bilatzen dira, harreman zuzenen lilura birsor dezaketeko pertsonak. Jende arrunta, ezezaguna, norberaren urkoa edo senidea izan litekeena. Bistan da, lehenago txoko eta parajeei buruz aipatu dugun bezalaxe, pertsona arrunt hauek ere ikur bilakatzen direla; baina ez Euskal Herriaren ikur, Euskal Herriko jende xehe eta konkretuaren ikur baizik. Zentzu honetan, harreman zuzenen errepresentazioa ahalbidetzen du telebistaren bidezko *esperientzia digital* honek.

"En Internet a veces me conecto también con la página de Viapolis para ver la gente que está pasando por el museo

identifikazioa, ikur eta bestelako instantzia bitartekarien bidez, eskura ditu, modu ezberdinetan. Baina bizipen zuzenik apenas duen. Tes-tuinguru honetan, leku zein pertsona konkretuen bizipena eta aurrez-ko aurreko harreman zuzenen bizipena ahalbidentzen die Canal Vascok, Euskal Herriaren nolabaiteko esperientzia digitalean (hots, telebistaren bidez gauzatutako esperientzian).

Irudimenezko komunitatearen eraikuntza: ikurrekiko identifikazioa eta eremu publikoan parte hartzea

Euskal Herriarekiko harreman zuzen edota hauen ordezkio gisa erabiltzen diren esperientzia digitalaz gain, bitartekotutako harremanetan ere oinarritzen dute beren taldekidetasuna diasporako euskaldunek. Komunitatearekiko bitartekotzan, komunikabideek berebiziko garrantzia dute, gutxienez bi arrazoiengatik. Alde batetik, identifikaziorako ikurrak zabaltzen dituzte. Ikur hauek taldea errepresentatzen dute, eta haiekin identifikatuz komunitatearekin ere identifikatzen da banakoa, Calhounek dioen legez. Beste aldetik, komunikabideek eraikitzen duten eremu publikoan parte har dezake banakoak: informazioa jaso eta informazio hori bere helburu pragmatikoetarako zein besteekiko solasaldietarako baliatuz, esaterako. Horrela eremu horri dagokion taldearen partaidetza sendotuz eta areagotuz doa.

Canal Vasco bi modutara erabiltzen dute gure elkarrizketatuek: identifikaziorako ikurrak bertatik hartuz eta eremu publikoko partaidetzara beren burua irekiz. Ikurren hedatzeari dagokionez, esan dezagun oro har ikur horiek Euskal Herria komunitate definitu gisa erre-presentatzen duten ikurrak direla eta, zentzu horretan, osagai bereizgarriek leku handia hartzen dutela. Euskal Herria munduko gainerako herrien aldean bereizten duten osagaiak dira horiek. Gure elkarrizketetan maiz agertzen da osagai bereizgarri hauekiko atxikimendua, Canal Vascok hedatzen dituen edukiei buruzko balorazioa egitean. “Euskal kultura”, tradizioa, folklorea (berezi dantza), herri kirolak, “euskal musika”, gastronomia, bertsolaritza, euskal historia, geografia, edota ohiturak, oro har, gure ikusle askok gustura jasotzen dituzten edukiak dira (lehenago esan dugun bezala batzuen eta besteen artean joera ezberdinak badaude ere). Areago: eduki hauen bitartez beren euskaltasuna sendotu eta areagotu egiten dela diote.

Canal Vascoren erabilera honek bat egiten du diasporako euskaldunek beren euskaltasuna mantentzeko ikurrez egiten duten erabilera-

"Lo que quizás echo de menos o he oído, no sé si hay opinión generalizada, es el asunto del baile, que falta que toquen un poquito más. Porque aquí, por ejemplo, se dificulta mucho el formar grupos de baile, porque allá en cualquier sitio hay mucha gente que sabe las raíces de los bailes y dónde enseñar y tal, pero aquí el sacar los bailes y esto creo que está un poquito difícil. Y eso, si tuvieran más pedagogía, la televisión fuera en ese aspecto... que enseñara más... Yo creo que sería interesante. Mi nieta por ejemplo tiene 5 años, y le gusta que le vistan el día de Aberri Eguna, el día de Reyes y tal, y siempre pregunta que a ver cuándo va a bailar. Y entonces, cuando hay algo de bailes en el Canal Vasco le pongo allá, para que vea... ¡se entusiasma! Y quizás eso para la misma gente que tiene aquí que enseñar a los grupos de baile, pues sería interesante que hubiera algún tipo de programación mayor en cuanto a orígenes de los bailes, y cómo se baila, y quizás enseñar un poquito más ¿no?" (Kepa)

mailatan gertatzen da: beren buruen aurrean, euskaldun sentitzen dira. Baina dantza besteen aurrean burutzen den jarduera izanik, besteen aurrean ere sentitzen dira euskaldun⁷⁵. Zentzu honetan, euskal norta-

rekin, zeina Totoricagiñak aipatzen baitu. Ikerlari honen aburuz, esangura sinboliko handiko praktikekiko atxikimendua dago gaur egungo diasporaren euskaltasunaren oinarrian. Canal Vasco, honela, gehienbat euskal etxeen eta euskal komunitatearen egitura instituzionalizatuen inguruan burutzen diren praktika sinbolikoak berrindartzera letorke. Horren adibideak dantza eta euskal pilotaren praktika lirateke.

Dantza, pilotarekin batera, gaur egungo euskal etxeetan arrakasta handienetakoa duten praktika da. Norberaren eguneroko bizitzan presentzia txikia badu ere, esangura sinboliko handia du. Lisa M. Corcosteguik Nevadako euskal dantza taldeen inguruan egina duen azterketaren arabera, dantzak ahalbidetu egiten die, diasporako euskaldunei, euskalduntasunarekiko pertzepzioa aldatzea. Funtsean, dantzan ari direlarik, dantzariak euskaldun sentitzen dira. Berak aztertutako testuinguruan, askok euskaldunen ondorengotzat jotzen dute beren burua, baina ez dute ikusten, beren baitan, euskaldunetik ezer, jatorria baino. Dantza egitean, ordea, beraien dira euskal dantza burutzen ari direnak, eta honek euskaldun sentitzea ahalbidetzen die. Pertzepzio hau, bestalde, bi

⁷⁵ "I found that first dance experiences often serve as a moment of epiphany for Basque-Americans in terms of ethnic identity. Both teenagers and adults have expressed that it was through dance that they first 'felt' Basque. These Basque-Americans reported that prior to their dance experience they were cognitively aware

sunaren *performance* gisa uler genezake dantza. Horrela, gure lanera itzulita, Canal Vascok euskal dantzak eskaintzen dituenean, diasporako euskaldunen identifikaziorako ikur baliotsuak eskaintzen dituela esan dezakegu.

Nahiz eta pilotari buruzko pareko lanik aurkitu ez dugun, honekin ere antzeko mekanismoa ager daitekeela uste dugu. Izan ere, pilota esangura sinbolikoz betetako praktika da, besteen aurrean jokatzeko dena era berean, eta dantzak bezala erabilera adierazleaz gain erabilera pragmatikoa ere ahalbidetzen duena (lehenaren kasuan gorputzaren mugimenduen arlo estetikoarekin esperimentatuz; bigarrenaren kasuan arlo fisikoa landuz). Horregatik, euskal nortasunaren eraikuntzan garrantzi handiko praktikatzat har daitekeela uste dugu. Hala ikusiko dute ere diasporako gure elkarriketatuek, esana dugunez kirol honetako emanaldiak oso estimatuak baitira haien artean.

Canal Vasco, beraz, nortasuna birsortzeko burutzen dituzten praktika sinbolikoak elikatzeko erabiltzen dute diasporako euskaldunek, horretarako aukera ezberdinak eskaintzen zaizkielarik. Baina horrekin batera, euskal telebistan nola edo hala euskaldunen “eremu publikoan” parte hartzeko bideak ere bilatzen dituzte: euskara ikasiz, euskaradunen komunitatearen partaide sentitu ahal izateko; politikari buruzko informazioa jasoz, iritziak osatu eta Euskal Herriko gorabehera politikoetan partaide izateko; edota oro har gaur egungo Euskal Herriko eguneroko bizitzaren berri hartuz, beren burua “eguneratuta” ikusteko.

Hizkuntzaren bidezko integrazioa

Canal Vasco oso tresna garrantzitsutzat dute diasporako kideek euskara ikasteko. Jadanik aipatu dugunez, hainbat jende ari da, modu arautu edo ez arautuan, diasporan euskara ikasten, Argentina izanik, hain zuzen, euskara ikasle gehien biltzen dituen herrialdea. “Zergatik ikasten du euskara argentinar batek?” galdetu ahal dugu, Patriciarekin batera. Gure elkarriketetan honi buruzko galdera zehatzik planteatu ez badugu ere, hizkuntza eskuratzearen bidez euskal komunitatean

of their family's Basque heritage primarily through food and historical connection to sheep industry. It is through dance, however, that they experienced a personal feeling of Basque identity and belonging” (Corcostegui, 1999, 254-255).

"Patricia: ¿Por qué aprendemos el euskera?"

G: Dimelo tú

Patricia: Yo digo que es un problema sentimental. Es el haber escuchado la lengua, es el saber que poseer la lengua es algo importante para uno. Porque, ¿por qué se aprende este idioma, cuál es la razón? En un momento uno puede decir que es un snobismo, pero es bastante difícil, como snobismo es muy difícil. Pero, ¿y por qué sin embargo uno sigue, y sigue consecuentemente? Entonces indudablemente hay algo que está dentro de uno, que es el interés por el lenguaje ¿no es cierto? Yo creo que pensamiento y lenguaje tienen muy estrecha relación. Por alguna razón los vascos son como son, quizás por el lenguaje, ¿no? Las cosas tan pragmáticas, o lo que sea. Pero creo que es una cosa muy de sentimiento, porque uno ve los chicos de 14, 15, que están aprendiendo euskera en lugar de estar jugando al fútbol y dice '¿cuál es la razón?' Tiene que haber una razón que no es solamente el sentimiento, sino el interés por conocer algo. Pienso que para mí la lengua es más real"

nola edo hala integratu nahia dagoela esan dezakegu. Integrazio horrek, ordea, modu eta bide ezberdinak ditu. Alde batetik, bestelako praktika sinbolikoen antzera (lehenago aipatu ditugun dantza eta pilota esaterako), hizkuntza ere praktika sinbolikoa da, eta hura hizketaren bitartez burutzea euskaldun izatearen pertzepzioa areagotzen du, dantzatzeak euskal nortasunaren pertzepzioa areagotzen duen bezalaxe. Euskaraz mintzatzea, euskaltasunaren performantzia baita. Horrelako zerbait erator daiteke, esaterako, Patricia ik ematen dizkigun azalpenetatik. Euskara jakiteak, apur bat bada ere, euskaltasunez janzen du norbera. Berriro ere euskaldunen ikur nagusiarekiko identifikazioa agertzen da hemen. Zentzu honetan asko idatzi da hizkuntza eta nortasunaren arteko loturaz.

Kontuan hartu behar da hemen euskara ikastearen arrazoiak eta helburuak oso anitzak izan daitezkeela diasporako euskaldunen artean. Kasu batzuetan, hizkuntza menperatzeko asmo garbia dago, egoeraren batean erabilgarria izango dutelakoan. Hauxe izan liteke, esaterako, jaio-terrian euskara irakasle izan nahi dutenen kasua, edota inoiz Euskal Herrian bizitza beren egitasmoen artean dutenen kasua. Beste kasu askotan, ordea, ikasten ari denak bilatzen duena ez da hainbeste halako atalase maila goren bat lortzea, nolabaite-

ko hurbilpena egitea baizik. Euskara zer den eta nolakoa den ezagutu, eta gutxieneko hitz edo funtzio batzuk ikastea bilatzen dute lehenik.

Nahikoa gaitasun lortzea helburu dutenentzat, bestalde, ikurra izateaz gain komunikaziorako tresna ere bada hizkuntza, eta horrek beste bide bat irekitzen dio nortasunaren eraikuntzari: hizkuntza jakiteak hizkuntza horren eremuetara sartzea ahalbidetzen du, azken finean

komunitate batera. Hizkuntza ikasteak, hartara, komunitate horrekiko lotura aragotzea dakar. Horrela, gure elkarrizketatuetako batzuek euskara ikasi dute, edo horretan ari dira, euskaradunen komunitatean parte hartu ahal izateko. Ez identifikazio sinbolikoaren bitartez soilik, haiekiko komunikazioaren bidez baizik. Maríak, esaterako, honela diosku euskara ikastera daramaten arrazoiez ari delarik: "No quiero ir a Euskal Herria si no soy vasca, y me falta bastante; entonces es como que estoy abocada al conocimiento del idioma más que nada".

Zalantzarik gabe, euskara ikasten ari direnek, gehienbat Argentinan, edo txikitatik dakitenek, Venezuelan, estima handian dute Canal Vasco hizkuntza mantendu eta lantzeko. Euskaraz egiteko eta entzuteko aukerak urriak izanik, Canal Vascok zabaltzen dien atea berebizikoa da haientzat. Aukera berri hau gehitu egiten zaie lehenagotik zeuden bideei (euskal etxeko kideekiko solasaldiak, euskara eskolak, e.a.). Baina telebistak abantaila berriak eskaintzen ditu: eguneroko praktika, etxeko goxotasunean burutu daitekeena, neke handirik gabe jasotzea ahalbidetzen duena, hizkuntza fresko eta bizia ematen duena, eta abar. Canal Vasco bezala, bestalde, euskarazko irratiak erabiltzen dira euskara lantzeko, bai satelite bidez harturik bai Internetez (azken honetan irratia eskuragarriagoa baita telebistaren kasuan baino).

Euskara ikasten ari ez direnentzat ere, horretarako motibatzailea izan daiteke Canal Vasco. Gure elkarrizketa batzuetan ikusi dugunez, Canal Vascoren bitartez euskaltasunera hurbildu edota euskal nortasuna sendotu dutenek, zenbait kasutan, euskara ikastera jo dute horren ondoren, prozesu beraren hurrengo urrats gisa.

Oro har, beraz, oso garrantzitsutzat dute elkarrizketatuek Canal Vascok euskara erabiltzea, batzuentzat izanik euskal telebista kontsumitzeko aitortzen duten lehen arrazoia. Hala ere, kontuan harturik Canal Vascoren euskarazko programazioa oso urria dela, balorazio ezberdinak egiten dituzte telebista honek daraman hizkuntza politikaz. Gehienek faltan hartzen dute euskara, eta gehiago entzun nahiko luketela diote. Baina hori bezain argi dute, era berean, Canal Vascok,

"Yo ahora identifico mucho lo que es la gente en Euskadi, o el común de la gente en Euskadi a las características de la gente que habla en euskera. Yo relaciono enseguida con eso. Entonces cuando ves *Bertatik Bertara* o *Sorginen Laratza* es la gente que vos acostumbrabas a ver o tratar allá. Y eso sí me parece, por ahí se hacen otros programas que sean en castellano que por ahí se alejan un poco más. Pero sí, *Bertatik Bertara* y *Sorginen Laratza* son muy... la gente que hemos tratado y que estamos acostumbrados a ver". (Andoni).

euskara hedatzearekin batera, bestelako helburuak ere izan behar dituela; batzuk, euskararik ez dakiten diasporako kideei zuzenduak; beste batzuk, euskaldunak ez direnei zuzenduak. Baina beti ere euskara zabalduz. Horregatik, hainbatek planteatzen dute agian azpitu-tuluen erabilera edo bestelako bideak bilatu beharko liriatekeela helburu ezberdinak ezkondu ahal izateko⁷⁶.

Integrazio politikoa

Politikaren eremua garrantzi handikoa da komunitate irudimenezkoaren eraikuntzan, arrazoi ezberdinetatik. Alde batetik, politikagintza, neurri handi batean, ez da harreman zuzenetan oinarritzen, eta erakunde bitartekarien bidez (estatu egiturak, alderdi politikoak, bestelako erakundeak e.a.) gauzatzen da. Erakunde horiek lehiari aritzen dira, eremu publikoan, jendearen atxikimendu bila, Habermasek dioen legez. Eremu horretan lehiatzen diren diskurtso politikoek, gainera, komunitatearen definizioa egiten dute, dimentsio ezberdinetan. Nazio diskurtsoaren kasuan, esaterako, diskurtso politikoak taldearen *tempus*-a definitzen du: genesia, bilakaera, oraina eta etorkizuna. *Locus*-a ere ezartzen du diskurtso politikoak: komunitatearen eremu geografikoaren definizioa. Halaber, komunitatea osatzen duten banakoak eta kanpoan uzten direnak ere definitzen ditu diskurtso politikoak⁷⁷.

Zein da gure elkarrizketatuek euskal politikagintzaren aurrean duten jarrera, eta nola erabiltzen dute Canal Vasco jarrera horretatik? Ikusi dugunez, gure laginetarako hartu ditugun herrialdeetan jatorri ezberdineko euskal komunitateak daude. Venezuelako komunitatean, 1936ko gudako erbesteratuen eskutik sortua izanik, euskal nazionalismoaren diskurtso politikoa oso presente dago. Gaur egungo euskal politikagintzarekiko interesa, hartara, handia da. Argentinan ordea egoera ezberdina aurkitzen dugu. Oraingo euskal argentinarr askoren arbasoak euskal nazionalismoaren sorrera bera baino lehenago joan

⁷⁶ Gogora dezagun telebista saioak aldi berean hizkuntza ezberdinetan ematea ahalbidetzen duela gaur egungo teknologiak, ikuslearen esku utzirik bata ala bestea aukatzeko ahalmena. Hain zuzen ere, aukera hau baliatzen dute satelite bidezko telebistan, gure inguruko hizkuntza gutxituetakoak aipatzearen, Galeseko S4C eta Kataluniako Canal Barça kanalek

⁷⁷ Nazioaren diskurtso politikoak komunitate irudimenezkoaren eraikuntzan duen lekuaz jabetzeko, ezinbestekotzat jotzen dugu Benedict Andersonen (1983) lana.

ziren Amerikara. Geroago joan zirenetatik asko ez ziren joan arrazoi politikoek bultzatuta, eta beren jarrera politikoak oso heterogeneoak izango zirela pentsatu behar dugu. Are gehiago kontuan hartzen badugu beren jatorria: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoak bezala Nafarroako zein Iparraldeko euskaldunak izaki, gora-behera politiko oso ezberdinak bizi zituzten herrialdeetatik zetozen. Horrela, euskal argentinarren artean euskal nazionalismoaren diskurtso politikoa hedatuta badago ere, ez du Venezuelan duen hegemonia lortzen.

Oro har, Venezuelako zein Argentinako kasuan, euskal politikagintzari buruzko informazioarekiko interesa agertzen da gure elkarrizketetan. Interes hori, ikusiko dugunez, jarrera ezberdinetan islatzen da, eta alderdi ezberdinak ditu. Interes horren azterketak halaber, politikagintzak komunitate irudimenezkoaren eraikuntzarako duen pisua ikustarazi digu. Lehenago esan dugun legez, oro har euskaltasuna etxeko eta familiako soziaziaziotik dator. Euskal Herriaren erreferentziak, lehen maila batean, konkretuak dira, leku eta pertsona jakinenak. Hartara, euskal komunitatearekiko atxikimendua Calhounek aipatzen dituen aurrez aurreko harremanetan soilik oinarrituko balitz, lekurik ez lukete izango, euskaldun hauen kasuan, Euskal Herriari buruzko diskurtso orokortzaileak. Bestela esanda, euskaltasuna leku eta pertsona konkretuen erreferentzietan funtsatuko litzateke. Baina hau ez da horrela gertatzen, eta oro har diasporako euskaldunek Euskal Herri izeneko komunitatearen

"G: ¿Te interesan las noticias de allá?

Nuria: Quitando deporte. Sí, la economía un poco también la relaciono con lo de acá, es decir, este... lo mal que estamos (...) sí, la parte política también, me intriga mucho el tema, por ejemplo de ETA. Por ejemplo, es algo que me ... porque a mí la violencia me pone mal, pero creo que la autonomía... yo la propondría acá en Argentina, por ejemplo. Creo que las autonomías se manejan mejor. Los gobiernos, es decir, se manejan mejor así, en grupos pequeños, controlados por el pueblo".

"G: ¿Con Canal Vasco, se mantiene el interés por la política vasca?

Carmina: Sí, se mantiene. Sí, sí. Porque hay cosas que me molestan mucho como me molestan algunas cosas de la política de acá. Pero ahí también. Lo que yo veo, hay cosas que me molestan, sobre todo cuando veo ese programa los domingos, en que se debaten las leyes, y que sé yo, de la Comunidad Autónoma. Y cuando veo cómo se desarrollan las sesiones en el Parlamento, hay ciertas cosas que me dan bronca. La actitud de algunos parlamentarios. Esas cosas me dan bronca y por ahí lo cambio, porque no me gusta, me enoja. Lo cambio, porque no me gusta. Entonces lo cambio".

"G: Cuando tenfais instalado el Canal Vasco en casa, ¿la visión, la conexión a Canal Vasco era familiar? ¿Os sentabais la familia a ver o era una visión más a nivel individual?"

Iñaki: Sí, Vamos a ver. Yo el Canal Vasco lo compro o me suscribo a él, porque la política de Euskadi me interesa de una manera particular, y me interesa que la conozcan mis hijos. Poco es lo que saben nuestros hijos verdaderamente de la situación política de Euskadi, entonces el interés de la compra es hacerlo en plan familiar, es para discutir una serie de cosas porque no sé que opinión tenéis vosotros, pero los jóvenes que se quieren ir no tienen verdaderamente un concepto de lo que sucede en Euskadi, salvo la transmisión que nosotros le damos Pero no la pueden fundamentar en argumentos porque no están informados. Y tenemos un grave problema, que es que las televisiones españolas, pues enfocan las cosas políticas de nuestro pueblo de una manera muy diferente a como verdaderamente nosotros creemos que son. Eso hace que yo dirija un poco hacia mis hijos el tema de la televisión vasca".

kiko arreta erakusten dute. Arreta horrek ordea forma ezberdinak hartzen ditu, eta bi jarrera nagusi bereiz genitzake haren barruan: batzuek *jakin-min* orokorra erakusten dute, hots, Euskal Herriko politikagintza zertan den ezagutzeko nahia. Beste batzuk haratago doaz, eta nolabaiteko *ardura*, agertzen dute, Euskal Herrian gertatzen denak norbera

ideiarekiko atxikimendua erakusten dute. Adibide bat Iparraldeko arbasoak dituzten euskaldunen kasua dugu. Hauek ere, gainerakoek legez, euskal politikarekiko interesa agertzen dute. Baina "euskal politika" aipatzen dutenean, Canal Vasco con ikusten duten moduan, sarritan Euskal Autonomi Erkidegoko politika izaten da aipatua. Haiek "beren" politikatzat dute hori, nahiz eta zuzenean EAEko politikagintza eta Iparraldeko politikagintza, nolabait loturik badaude ere, gauza ezberdinak izan. Nabarmenagoa da hau EAEko lehendakaria "beren" lehendakaritzat jotzen dutenean. Kasu hauetan, bistan da, martxan jartzen den mekanismoa honakoa da: Euskal Herriaren irudi orokortzaile bat osatzen da (non zazpi lurralde historikoak agertzen baitira), eta horixe bihurtzen da erreferente nagusi. "Irudimenezko komunitatea" litzateke hori. Eta erreferente horren ordezeko edo ikurtzat, egitez zati soil bat ordezkatzan duen erakunde bat hartzen da: Eusko Jaurlaritzza. Hemen, gure iritziz, nabarmena da nola diskurtso politikoa agertzen den komunitatearen irudipenean eta, ondorioz, nortasunaren erakuntzan.

Jadanik esan dugu elkarrizketatuek, oro har, Canal Vascoko albistegiak ikusten dituztela, hauek izanik baloraziorik altuena lortzen duten saioak. Albistegien barruan, bestalde, informazio politikoare-

nola edo hala ukitzen duelako sentipena, alegia. Biak bereiztea ez da gauza erreza, baina agian hurrengo aipuak argiren bat eman diezaguke. Euskal Herriko politikagintzarekiko interesik ba ote duen galdetuta, honela erantzuten du elkarrizketatu batek: “me interesa la situación política allá, y me preocupa la situación política acá” (Patricia, Argentina). Hots, bata arretaz jarraitzen da, ezagutu egin nahi delako. Bestea, norberaren bizitza bera ukitzen duenez, kezka iturri da.

Aztertu ditugun elkarrizketen artean gutxi dira jakin-min hau erakutsi ez dutenak. Neurri handi batean komunikabide berriei esker, jakingai berria zabaldu zaie diasporako euskaldunei, eta itxura denez ez diote muzin egin. Jakin-min honek, kasu batzuetan, ez du inplikazio handirik adierazten. Euskaltasunaren eraikuntza prozesuaren barruan ezagutu beharreko beste osagai bat litzateke Euskal Herriko errealitate politikoa. Jakin-mina trinkotasun ezberdinekoa da, eta interesgune ezberdinak fokatzen ditu. Horrela, kasu batzuetan, euskal politikagintzarekiko jakin-minak helburu pragmatikoak ditu: zenbait alderditan, euskal politika ikasgaitzat hartzen da, beste toki batzuetan (tartean norberaren herrialdean) kontuan hartu beharko litzatekeen eredutzat hain zuzen. Zehazki, Estatu Espainolaren lurralde antolaketari dagokionean ikusten da interes hau. Estatuaren deszentralizazioa, hartara, eredutzat hartzen dute zenbait elkarrizketatuk, eta beraien herrialdeetan ere aplikagarria litzatekeela uste dute. Era berean, politikagintza sozialki oso desprestigiatuta dagoen herrialde batzuetatik etorritan (bai Venezuelan eta bai Argentinan nabarmena baita politikarien prestigio galtzea eta sistema politikoaren beraren krisia), gauzak “beste modu batean” egin daitezkeelako ideia hartzen da euskal politikagintzatik. Berritri ere, eredugarritzat hartzen da gure politikagintza, beraiek bizi dutenaren aldean.

Era berean, interes nabarmena dago, Argentinako euskaldunen artean bereziki, borroka armatuaren eta ETaren ingurukoak ulertzeko. Zalantzarik gabe gai hau izanik euskal politikagintzan presentzia handiena duena, euskaltasuna eta Euskal Herria bera nola edo hala berreraikitzen ari direnek fenomeno hau ulertzeko saioa egiten dute, eta horrek jakin-mina areagotzen du. Gai hau, bestalde, euskal komunikabideetatik kanpo ere Euskal Herriari buruzko albisteetan gehien agertzen dena da. Honen ondorioz, euskal diasporako kideek interes handiz jarraitzen dituzte Canal Vascok gai honi buruz ematen dizkien informazioak, eta ahal duten neurrian egunean bizi dute euskal politikagintza.

"El hecho de esa información que nosotros recibimos de Canal Vasco nos hace estar al día de lo que pasa allá. Entonces, nos dan el argumento, el conocimiento para ir volcando a toda esa gente que nos tiene como punto de referencia: 'pues mirá, esto es así, así, ayer pasó esto, hace media hora pasó esto...' porque yo lo que no veo es... te veo a ti, todas esas cosas, lo que lucha Anasagasti en el Congreso.." (Jon).

Inplikazio handirik gabeko jakinmina Argentinan soilik aurkitu dugu. Venezuelan, eta Argentinako beste euskaldun batzuen kasuan, euskal politikarekiko nolabaiteko inplikazio edo ardura sakonagoa erakusten dituzten jarrerak aurkitu ditugu ordea. Kasu hauetan, euskal politika ez da informazio gai soila, eta nork bere burua inplikaturik ikusten duen eremu bihurtzen da horrela. Zenbait elkarrizketatuk, kasu, halako eta halako albisteak jasotzean sentitzen duten ezinegona aipatzen dute (esaterako Madrilgo agintariek Euskal Herriaz dihardutenean),

nolabait beraiek ere erasota sentitzen baitira. Beste batzuk euskal politikako parte-hartzaile sentitzen dira, hauteskunderetan bozka ematen dutelako. Beste batzuek, zuzenean parte hartzen ez badute ere, beren burua behartuta ikusten dute, egungo gatazka politikoaren aurrean jarrera bat edo beste hartzeko.

Esan gabe doa, Canal Vasco lehen mailako informazio iturria dela, Latinoamerikako euskaldunentzat, euskal politikagintzaren berri izateko. Eguneroko albistegiaren arrakastak horixe erakusten du. Zentzu horretan, nabarmena da euskal telebistak, mota honetako informazioa ematean, diasporako euskaldunek beren erreferentziatzako komunitatearekin izan dezaketean atxikimendua sendotzeko bide garrantzitsua zabaltzen duela. Kasu batzuetan euskal politikarekiko interesa lehenagotik datorren euskal nortasun sendo batean sustraituta dago; hauxe litzateke, oro har, Venezuelako euskaldunen kasua. Beste zenbait kasutan ordea, Canal Vasco bera izan da interesa piztuarazi duena. Bereziki nabarmena da hau Euskal Herriarekin eta euskal komunitatearekin harreman gutxien dutenen kasuetan.

Azken hau bat letorke Totoricagüenak euskal diasporaren baitan gertatzen ari diren aldaketek egiten duen analiarekin. Haren aburuz, diasporako euskal nortasuna oinarri etnikoen gainean eraikitzen da oinarri politikoaren gainean baino gehiago. Era berean, euskaltasunaz egiten den definizioak zerikusi gehiago du Sabino Aranaren garaian nagusitu ziren irizpideekin (jatorri, erlijio, kultura eta hizkuntzarekin) gaur egungo Euskal Herriaren hedatuago dagoen naziotasun politikoarekin baino. Baina hau aldatzen ari da, euskal ikerlari amerikararen

iritziz, hain zuzen ere egungo komunika-
bideen presentziari esker. Eta aldaketa
horretan, gaurko euskal gizartean dauden
planteamenduak errazago helden dira
diasporaraino. Guk geuk aurkitu ditugu
aldaketa honen zantzuak, orain arte eus-
kal politikarekin inolako interesik ez zuen
jendeak gaur egun, eta Canal Vascoren
presentziaren eraginez, halako interesa
duen jendearekin topo egin dugunean.
Interes hori, gainera, ardura eta inplikazio
bihurtzen da zenbait kasutan: aurrerago
ikusiko dugunez, diasporako kideek hiru-
garrenen aurrean beren burua euskaltasun-
naren enbaxadore sentitu eta haren de-
fentsa politikoa egitera behartuta ikusten
dute, Canal Vascodek jasotzen dituzten
informazioek eta analisiak horretarako
laguntza estimagaitza ematen dietelarik.

Eguneroko bizitzako berrien bitarteko integrazioa

Politikari buruzko berriekin bezala-
tsu, gainerako informazioen jarraipena egin ahal izatea euskal nortasun-
naren sustatzaile bihurtzen da diasporako kideentzat. Zentzu honetan,
gure elkarrizketatuek nolabaiteko liluraz azpimarratzen duten ezauga-
rri bat da honako hau: Canal Vascodek, satellite bidezko emanaldien
bitartez, ahalbidetzen duen aldiberekotasuna. Euskal Herrian direnak
eta Latinoamerikan direnak, milaka kilometrotara egonik ere,aldi
berean gauza bera ikusten ari direla jakiteak, komunitatearen zentzua
berrindartzen du. "Guk" (Euskal Herriko euskaldunak) jasotzen du-
guna "haiek" (diasporako euskaldunak) jasotzen duten berbera delako
pertzepzioak berdindu egiten gaitu batzuk eta besteak. Fernandok,
esaterako, honela justifikatzen du Canal Vasco instalatu izana: "me
siento muy vasco, y esa es la manera de tener las noticias en directo y
calentitas, sin intervención de nadie, sin filtrar". Canal Vascodek, beraz,
hurbildu egiten ditu Euskal Herrirantz diasporako euskaldunak, bai
aldeaz aurretik ezagutza txikia zutenak, bai hemen sortuak direnak.

"G: ¿Y aparte de eso, qué
cambiarías o qué añadirías
al Canal Vasco?"

Juan Angel: Te lo estoy di-
ciendo todo el tiempo... Un
día a mí me molestó suma-
mente, estaba viendo el
Parlamento Vasco, el Par-
tido Socialista, el PP, Iz-
quierda Unida... me tiré
como 2 horas o 2 horas y
pico viéndolo. Viene el del
Partido Nacionalista, Egi-
bar, ¡y lo cortan... coño, por
favor! ¡Si aquí no queremos
oirle ni al PP, ni al Partido
Socialista vaya! Pero al PP,
lo dan completito todo lo
que corresponde al PP; y
cuando llega el del PNV ¡lo
cortan! Lo dieron 5 minutos
o 10 minutos, y los otros
tres cuartos de hora o una
hora... Y nosotros hemos
hablado aquí mucho, ¿no?
Dan algo de España, y te
dan larguísimo, te dan una
cosa de Euskadi, y te la cor-
tan... ¡Coño, córtelo lo de
España, vale, si no, no!"

"G: Y tú crees que Canal Vasco ha cambiado en algo tu percepción de Euskal Herria, tu sentimiento hacia Euskal Herria, o no ha cambiado nada?"

Isabel: No sé si conmigo, porque a mí lo que más me afianzó con Euskal Herria fue ir. Pero creo que con la gente que no fue, sí. Te hace sentir un poquito más cerca, un poquito más en contacto, como que no está todo tan lejos, y que se puede estar en el día a día siguiendo la actualidad de los que están en el otro lado".

egiten dira Euskal Herriko egunerokotasunaz. Honen ondorioz, diasporako kideak euskal eremu publikoan integratzen dira, eremu publiko hori, nagusiki, komunikabideetan oinarrituta baitago. Canal Vascon Euskal Herriaren berri ematean, hein batean kanal hau ikusten dutenen *agenda* edo jende aurreko gai ordena ezartzen du. Izan ere, Canal Vascon agertzen diren gai eta informazioak mintzagai izaten dira diasporako euskaldunen artean, beraien arteko harremanak dituztenean bederen, telebista kanal honen kontsumoa aztertzean ikusi dugun legez. Andoniren hitzetan esateko, "en cualquier centro vasco, vas a una mesa a la noche cuando vienen a tomar algo y qué se yo, siempre van a estar hablando algo que vieron en Canal Vasco. Siempre están... eso, la información, el estar el día a día". Euskal etxeetako iluntzeko solasaldi horietan, bestalde, mahaigaineratzen diren gaiak, neurri batean Euskal Herriko mahaietan agertzen diren berberak dira, telebistako saio beretik hartuak izan daitezkeen heinean hain zuzen. Horrek hurbildu egiten ditu, orain artean sekula ez bezala, diasporako euskaldunek Euskal Herriaren inguruan beren solasaldietan duten *agenda* eta Euskal Herriko biztanleek dutena.

Azken hauen artean, oso hedatuta dago, beste atal batean ikusi dugun legez, Canal Vasco ikustean "etxean" sentitzen direneko pertzepzioa. Horrela, esan ahal dugu aldibereko emanaldiak urruntasuna apurtzen duela, eta espazio berriak sortzen dituela; geografiak mugatutako espazioaren ordez, komunikazio egiturek mugatutako espazioa garatzen da⁷⁸.

Emanaldien aldiberekotasunarekin batera, Euskal Herriari buruzko informazio orokorrak ere berrindartu egiten du diasporako kideek erreferentziatzko taldearekin duten lotura. Informazio saioen bitartez, Latinoamerikan direnak jabetu

⁷⁸ Gertaera hau Euskal Herrian bertan ere jazotzen da. Izan ere, geu mugitzen gareneko espazio fisikoa (geure auzunea, geure herria...) eta telebistak birsortzen diguna (Euskal Herria) ez datoz bat. Diasporan, alabaina, gertaera hau ikusterrezagoa da; baina, funtsean, oso antzekoa.

Euskal Herriaren eguneroko berrialdi berean jaso ahal izateak aldaketa bat suposatzen du euskaltasunaren transmisioan. Berriro ere har ditzagun Andoniren hitzak. Andoni laugarren gizaldiko euskalduna da, Argentinan. Gaztea izanik, nortasuna finkatzen den garaian (nerabe aroan) aukera zuen jadanik Canal Vasco ikusteko, eta horrek markatu egin duela dirudi. Bere sozializazioa eta bere gurasoena konparatzen dituenean, hone-lar diosku:

"Mis padres siempre dicen que es increíble cómo te acerca Canal Vasco a todo. Porque antes estaban, sí, por lo que sea, no sé, por cartas o... pero la información o el día a día con Euskadi era mucho más lejano. Ahora ponés el televisor y tenés, como estamos diciendo, en directo. Lo mismo que están viendo ustedes allá en directo a las nueve de la noche lo estamos viendo nosotros acá. Y en eso sí, es impresionante" (Andoni)

"Andoni: Sí. Esa, la que te decía recién, que lo valoro en eso, como que te pone al día ahí, encendés el televisor y estás allá un rato, estás en un rato, y estás informado al momento y te mantiene muchísimo. Porque hay mucha gente, también chiquitos que por ahí antes en los centros vascos se mantiene más que nada la cultura yendo, no sé, a las clases de euskera, a enseñarles cómo es el mapa, las capitales, cómo es la bandera, que el himno, que esto... Y en cambio ahora es como que eso los motiva mucho más. Muchos chicos, montonazos que le van también por cualquier programa que vean y que los motiva mucho más".

Paragrafo honetan, diasporan euskaltasuna birsortzeko mekanismo ezberdin bi agertzen zaizkigu. Lehenean, euskaldunentzat esangura sinboliko handia duten ikur batzuekiko identifikazioa agertzen da. Hauen artean edozein nazioaren ikur garrantzitsuenak: ereserkia, ikurrina, eta mapa. Hauekin batera erabilera praktikoa (Argentinan txikia) eta esangura sinboliko handia bateratzen dituen hizkuntza dugu. Andoniren esanetan, euskal etxeetan, lehen, ikur haien inguruan eraikitzen zen euskaltasuna ("*se mantiene la cultura*" dio berak zehazki). Gaur egun ordea beste mekanismo bat agertzen da: eguneroko informazioa eskuratu ahal izatea, satellite bidezko telebistaren bitartez. Informazio hori eskuratzuz, Euskal Herriko bizitza publikoan parte hartzen dute, beren arteko solasaldien bitartez. Euskal Herriko azken gertaerak, arazoak, konponbideak, adierazpenak, eta abar mintzagai bilakatzen direlarik, diasporako euskaldunak gainerako (hots, Euskal Herriko) euskaldunen arteko eztabaidetan parte hartzen ari dira. Zentzu horretan, euskal eremu publikoko partaide dira.

"G: ¿En el momento en que usted conecta con el Canal Vasco, qué siente respecto al País Vasco?"

EDUARDO: Mira, gran emoción. Y uno se siente en su casa, porque definitivamente uno se siente de allá. O sea, que emociona bastante verlo. Es emocionante verlo porque, que estés en América y que estés viendo allá, que sé yo, que van a comer en Gaztelupe o Gaztelubide, el menú de Gaztelubide antes de la tamborrada... lo que sea... hay cosas bien simpáticas que te ubican".

Satelite bidezko telebistak, hartara, aldaketa garrantzitsu bat eragin dezake diasporak euskaltasunaz egiten duen diskurtsoan. Erreferentziazko taldearen eguneroko berririk gabe, diasporan direnentzat Euskal Herria, gehienbat, iragana da. Lehen gizaldiko euskaldunentzat, oroitzen den iragana (hautzaroa, gaztaroa...). Bigarren eta gehiagoko gizaldietako euskaldunentzat, guraso eta arbasoek transmititutako iragana. Horrekin batera, praktika sinbolikoetan nolabait fosildutako errealitatea da.

Baina bide ezberdinetatik eguneroko informazioa heltzen den neurrian, eta are gehiago informazio hori taldean ibiltzen bada, beste dimentsio bat hartzen du

Euskal Herriak, nortasunaren birsorkuntzarako beste bidea zabalduz. Diasporako euskaldunak Euskal Herriaz pentsatzen eta solasean ari direnean, jada ez dira mugatzen iragana pentsatu eta solas egitera. Aitzitik, gaurkoaz gogoetetzen eta mintzatzen dira. Horrela, Euskal Herriaz etengabe itxuratzen doazen diskurtso eta iruditerian, gaurkoak lekua irabazten du, iraganaren orde. Ikusi dugunez Euskal Herria, gure elkarrizketatuentzat, zama afektibo handia duen iragana da. Baina oraina ere bada, gero eta gehiago; eta zenbait kasutan (Euskal Herrira bizitzera etortzea pentsatzen ari diren gazteentzat kasu), etorkizuna ere bada.

Era berean, Euskal Herriaren denboraren aldaketak –iraganetik orainerako aldaketak, alegia– subjektuaren kokapenaren aldaketa ere badakar. Izan ere, iraganaren aurrean begiralearen lekua baino ez zaio geratzen norberari; egin dezakeen bakarra, iragana birsortzea baino ez da, joana ezin baita aldatu. Euskal Herria orainaldiko eta etorkizuneko errealitatea den neurrian, ordea, oso ezberdina da jarrera: begirale hutsa izan beharrean, parte har daiteke errealitate horretan, norbera subjektu bihurtuz.

Horrela, egungo komunikabideei esker (bereziki, satelite bidezko telebistari eta, seguru asko, Interneti esker ere) diasporako euskal nortasunak beste dimentsio bat hartzen du.

Euskaltasunaren jagotea

Orain arte euskal nortasunaren eraikuntzan diasporako kideek Canal Vasco nola erabiltzen duten ikusi dugu, arreta berezia jarriz euskaltasuna eraikitzen ari direnen kasuetan. Esan dugun legez, euskaltasunarekiko atxikimendua ez da berbera Euskal Herritik kanpo beren burua “euskalduntzat” duten guztientzat. Gauza bera gertatzen da Euskal Herriarekiko kontaktuarekin. Horrela, zenbait kasutan euskaltasuna beste nortasun batzuekin lehian ari dela ikusi dugu, bereziki euskal komunitatea, zaharragoa izanik, tokian tokiko gizartean integratuta eta txertatua dagoen tokietan (gure laginei dagokienez, Argentinan). Kasu hauetan, banakoek eta taldeek nortasunaren eraikuntzari ekiten diote, eta prozesu horretan Canal Vasco baliabide garrantzitsutzat gertatzen da.

Baina era berean ikusi dugu, diasporako komunitate ezberdinen izaerak aztertzean, zenbait kasutan euskal nortasuna ondo finkatutako nortasuna dela, norberaren biografiaren eta tokian tokiko euskal komunitatearen historia eta ezaugarriengatik. Oro har, gure lanean Venezuelako mintzakideak leudeke kasu honetan. Lehen eta bigarren gizaldiko euskaldunak izaki, eta erbesteratze politikoaren ondorioz sortutako komunitate baten inguruan egituraturik, sendo definitutako euskaltasunarekin identifikatzen dute beren burua. Horrek, ikusiko dugunez, Canal Vascoren bestelako erabilera batzuk eragingo ditu.

Aldez aurretik ondo definitutako euskaltasuna jagotearen jarrera, beraz, lehenengo gizaldietako euskaldunen artean agertzen dela esan dezakegu: nabarmenagoa Euskal Herrian jaiotzean (lehen gizaldikoak beraz) eta, neurri apalagoan, bigarren gizaldikoengan. Hortik aurrera ez dugu aurkitu inor jarrera honen barruan koka litekeenik. Jarrera hau argitu nahirik, esan dezagun gure iritziz lehenengo gizaldi hauetako euskaldun batzuek nolabaiteko zatiketa pairatzen dutela: gorputza herrialde batean dute, eta arima (edo arimaren zati bat) beste batean: Euskal Herrian. Euskal Herrian arimaren zati bat izate horrek, jakina, sentipenetik gehiago du eguneroko elkarrekintza eta kokapen fisikoe-tatik baino. Horrexegatik, etengabe elikatu beharra dago. Euskal Herrian egon nahi eta ezinik, horren ilusioa eta sentipena dira elikatu beharrekoak, eta horretarako zentzu handia hartzen dute zenbait praktikak: euskal etxera joan, Euskal Herriko senide eta lagunetik harremanak zaindu, jaioterrira (edo gurasoen jaioterrira) bidaiatu, eta abar. Langintza honetan garrantzi handia hartzen dute praktika sinbolikoek,

"Los que vivimos hace muchos años, siempre idealizamos mucho Euskadi, idealizamos... Y cuando uno se encuentra allá la realidad no es como uno la idealiza... Uno la idealiza todavía con los baserris, con los arrantzales... en fin la idealiza... Palabra de vasco vale más que una firma, y cuando uno se encuentra en Euskadi... pues no sé como los llaman, estos muchachos que visten con cadenas y el pelo de color... A mí me pasó el año pasado en la plaza donde está el Museo Vasco de Bilbao, el del Metro, que hay una estación de Metro al lado... bueno que me viene uno, 'mira dame cien pesetas..' No le hice caso, y les dice a los otros: 'mira, este está sordo..' Iba con un primo mío, y le digo: 'si se mete conmigo le caigo a palos..' Y me dice mi primo, '¡ni los toques!' Y los vi luego en Algorta, en las fiestas del Puerto de Algorta. Bueno pues, eso uno no lo esperaba antes" (Fernando).

"Yo siempre estoy aquí (*euskal etxean*)... Yo estoy trabajando toda la semana y sábado y domingo estoy aquí. O sea, yo vivo de lo nuestro, a mí me quitas esto y yo me moriría... estar en casa... si yo no podría venir aquí al Centro Vasco y ver lo que es la cosa nuestra, y estar en comidas y estar... yo no consigo vivir si no estaría pensando en eso" (Juan Angel).

berauen bitartez Euskal Herria eta euskaltasuna birsortu egiten direlako, jadanik azaldu dugun bezala. Eskema hone-tan, jakina, Canal Vascok ahalbidetzen dizkien esperientzia sinbolikoak ere txer-tatzen dira.

Euskal Herria eta euskaltasuna era sinbolikoan birsortzean, beren "Euskal Herria" eta beren "euskaltasuna" birsor-tzen dituzte; esan nahi baita, jadanik na-hiko finkatuta eta definituta dituzten iru-di batzuk dira birsortzen direnak, alde batera utzirik definizio eta irudi horiek egungo Euskal Herriko errealitatearekin bat datozen ala ez. Gure kasuan, eta elka-rrizketen analisitik eratoritzen denez, eus-kaltasunaz egiten den definizioak lehen mailako lekuan jartzen ditu euskaldunen osagai kultural eta sinboliko bereizga-riak. Horrela, banaketa oso nabarmena egiten da "euskal" izaera duenaren eta ez duenaren artean: ikurrak eta kultur prak-tikak zorro batera edo bestera sartzen dira, "geurearen" eta "gurea ez denaren" oso definizio borobil eta zehatzak eginez. Oro har, definizio hauek euskal naziona-lismo tradizionalak hogeigarren mendean zehar egin dituen definizioekin bat datoz, eta osagai kulturalak, politikoak zein mor-alak dauzkate beren baitan.

Horrela, Canal Vascok eskaintzen dituen edukiak ere bi kategoría hauetan banatzen dira. "Geurea" kategoriaren ar-teko osagaitzat honakoak aipatzen dituz-te gure elkarrizketatuek: folklorea (euskal dantzak, musika...); jaiak; Euskal Herriko parajeen irudiak; oro har ETB1eko pro-gramazioa (saio batzuk kenduta); Euskal Herriari buruzko albisteak (eguraldia

barne); “gure bizimodua”; eta kirola, bereziki euskal kirolak: aizkolarriak, harri jasotzea, traineruak eta pilota. Kirolen artean bigarren mailan gelditzen da, esaterako, futbola, lehen ikusi dugunez. Aitzitik, “gurea ez denaren” kategoriaren barruan, espresuki aipatzen dira Canal Vascoren honako edukiak: “Espainiako ikuskizunen munduko jendeari” buruzko txutxu-mutxuak, *talk-show* erako saioak, lehiaketak, telenobelak eta, zenbait kasutan ere, jatorriz Euskal Herrikoak ez diren kirolak (futbola eta saski baloia).

Osagai hauek, jakina, ez dira denak batera eta kasu guztietan agertzen, baina orokorrean diasporako hainbat kidek konpartitzen duten ikuspuntu bat irudikatzen laguntzen dute: “geurea” gisa definitzen dena euskaldunak munduko gainerako herrietatik bereizten gaituena da, hots, euskaldunek ez beste inork ez dituzten praktika eta ikurrak.

Euskaltasunaren irudi hau Venezuelan aurkitzen dugu bereziki, oso ahula izanik Argentinako euskaldunen artean. Honek zerikusia du, lehenago esan dugun legez, herrialde hartako euskal komunitatearen historia eta eraketarekin: kontzientzia politiko handiko talde baten inguruan antolatua, Venezuelako euskal komunitateak diskurtso nazionalistak Euskal Herriaz egiten zuen irudia birsortu du hamarkadetan zehar. Ordutik hona Euskal Herriak maila guztietan izan duen bilakaera eta diskurtso horren bilakaera ez dira, seguruenik, batera gertatu, eta neurri batean euskaltasunaren irudi estatikoa nagusitu da Venezuelako euskal etxeetan birsortutako praktiketean.

Irudi estatikoa eta egungo errealitatek urruna gerta dakioke bat baino gehiagori. Diasporako euskaldunek beraiek, zenbait kasutan, hala onartzen dute, baina horrek ez du esan nahi beren irudia aldatu beharra sentitzen dutenik. Neurri batean, irudi hori landu eta aldarrikatu ere egiten dute, euskaldunek izan beharko luketenaren eredu gisa duen balioa azpimarratuz. Azken batean, nola edo hala euskaltasunaren irudi hori beraiek Venezuelan osatzen duten taldearen ikur ere bilakatu da. Honela diosku, esaterako, Xabierrek, bere herriko euskal etxeaz ari delarik:

“Esta casa somos como una isla, hay mucha gente que es muy cerrada aquí, muy cerrada...Ha ido a Euskadi y ha vuelto diciendo que aquello no es Euskadi, que han cambiado a Euskadi. Yo no sé, parece que la imagen que debemos dar a nivel mundial no es ésa (Canal Vasoko lehiaketa eta magazinei buruz ari da), sino de lo nuestro, decir lo que somos nosotros... es decir... cómo es el pueblo vasco, qué es lo que hace el pueblo vasco”.

"G: ¿Y te parece adecuada la imagen que da el Canal Vasco sobre el País Vasco y sobre los vascos?

Xabier: Hay veces que no parece que seríamos nosotros... Hay programas que parece que no son nuestros programas, son copias de otros programas, los que no hablan de la identidad nuestra. Programas de concurso, hay unos programas... Por lo menos a mí no me gustan. Incluso los sábados y los domingos, que son entrevistas y programas medio cómicos, medio... y entonces, a uno no le gusta, son como una burla. No los considero... pero lo menos... lo que yo conozco de nuestra gente... Yo a lo mejor soy chapado a la vieja, tengo aquellas ideas (...) No estoy diciendo que el pueblo vasco sea diferente a los demás. En lo poco que a nosotros nos veis bailar, beber... pero enseñar... Como una vez que estaba viendo algo como una novela, y entonces digo 'pero qué una novela, ¡cómo va a transmitir una novela el Canal Vasco!' Televisión Española las da todas las que quieras, eso es su problema, además eso no tiene costo, esa es gratuita. Pero, yo en el Canal Vasco novelas, a no ser que sean novelas de autores vascos, como decimos aquí tipo culebrones, tipo culebrón, pues, por lo que oigo comentar, que dan programas... Yo creo que eso es lo que quitaría, de lunes a viernes a las 9:00, creo que es esto lo que hay que quitar. Antes que eso, cualquier otra cosa".

Aipu honetan eta beste elkarrizketa batzuetan ikusten dugunez, badago euskaltasunari buruzko irudi propioa estatika delako oharkuntza, eta sumatu egiten da irudi hori eta errealitatearen arteko talka. Baina horrek ez dakar, berez, irudia alde batera uztea.

Talka hori, batzuetan, Euskal Herri-
ra egindako bidaietan sumatzen da, eta beste zenbait kasutan Canal Vasco ikusiz agertzen da. Ikuspegi honetatik, euskal telebistan ikusten dutena, ez dator bat, sarritan, haiek euskaltasunaz duten irudiarekin. Horrek nolabaiteko errefusa eragiten du, elkarrizketatuen kontsumo ohiturak aztertzean ikusi dugun moduan. Javierrek dioen legez, "no nos interesan programas de talk-show, de cotilleo; más mostrar lo que somos, lo que es el País Vasco y lo que somos, dejar a un lado lo de que tú usas dos piercing y tienes pelo largo...".

Ikuspegi honetatik, hartara, Canal Vascoari eskatzen zaiona zera da: "geurea" erakustea, lehenago definitu den irizpideen arabera. Ikusle hauek horixe bilatzen dute Canal Vascon, beren euskal nortasunari eusteko.

Aldez aurretik definitutako euskaltasunaren jagotearen jarrerak, bestalde, dimentsio bi ditu: barrura begira bata, eta kanpora begira bestea. Barrura begira, Canal Vascoren bitartez norberak euskaltasunaz egiten duen definizioa sendotze-
ra eta berrestera datozen osagaiak eskuratzea era positiboan baloratzen da. Kanal honek euskaltasunaz jadanik duten iruditeria eta diskurtsoa elikatu beharko luke haien aburuz. Iruditeria eta diskurtso

horretan gakoak diren ikurrak eman, alegia, kideen identifikazioa berrindartzeko. Interpretazio psikologistetan sartzeko asmorik gabe, elkarriketatu batzuk beren definizioaren araberrako euskaltasuna erakusten duten irudi eta edukiak ikusteak ematen dien gratifikazioaz mintzo dira. Hauek espero dutena eta aurkitzen dutena bat datozenean, berrindartuta ikusten dute beren euskaltasuna. Baina hau ez da beti horrela gertatzen, eta orduan zalantza eta errefusa datoz. Izan ere, Batzuetan satelite bidezko euskal telebistaren programazioan, berek ikusi espero dituzten edukiak eman beharrean irudi estatiko horri kontrajartzen zaizkion beste irudi batzuk ikusteak, Canal Vascoren aurkako ikuspegi kritikora daramatza.

Kanpora begira, bestalde, euskaldunak nolakoak diren mundu osoari erakusteko tresna garrantzitsutzat jotzen da Canal Vasco, baina horretarako euskal telebistak euskaldunen "benetako" irudia eman beharko luke. Jakina, benetako irudi hori beren irudiarekin bat datorrena litzateke. Hori egin ezean, eta "besteak bezalako" herri bat garela erakustera dedikatuko balitz, Canal Vasco zentzua galduko luke, jarrera honetatik begiratuta.

Gure ustez, jarrera hauxe da Totoricagüenak azaltzen duena, diasporako euskaltasuna, gaur gaurkoz, gehienbat esangura sinboliko handiko ikurretan eta praktika sinbolikoekiko atxikimenduan oinarritzen dela esatean. Horregatik hain zuzen, praktika horien testuinguruan txertatu behar da Canal Vascoren erabile-ra zainzaile hau ere.

"La verdad es que aquí al vasco se le considera mucho, siempre se le ha considerado mucho, es un hombre considerado de mucha honradez, de mucho trabajo, un hombre recto dentro de todo. Y la verdad es que a uno le halaga que le consideren bien así. Yo en cualquier parte digo que soy vasco y me respetan bien, y entonces me alegró eso de que tengamos esas raíces y esas buenas costumbres y esas virtudes, vamos a decir así.. que nos han criado, bueno, como todo el País Vasco que se ha criado allá, en ese aspecto de rectitud, de ser gente de palabra, no ser tramposos, trabajadores por supuesto... Y eso en este país se ha agradecido, y entiendo que en otros países habrá pasado lo mismo, que si México, Argentina o lo que sea. Y en este país muy bien, la verdad es que muy bien. Yo con los venezolanos ando muy bien, porque ellos, ya te digo, al vasco le consideran por encima de otras muchas regionalidades, ¿no? Aquí en muchos sitios decir que es vasco, pues saben lo que quiere decir ser un vasco, y por qué lo tratan a uno bien. Esas son las virtudes que tenemos y cómo las dejamos. No nos contagiemos de lo malo de aquí, sino más bien queremos dar lo que tenemos de bueno, ¿no? Entonces, me siento bien, contento de que el país nos trate muy bien, la verdad es que sí, eso me alegra" (Kepa).

Honaino iritsita, Canal Vascoen eta, oro har, komunikaziorako teknologia berrien erabileraren ondorioz euskaltasunarekiko jarrera jagole hau aldatuko ote den galdetu beharrean gaude. Totoricagüenak berak aurreratzen du bere iritzia: komunikabide berrien eraginez, diasporako euskal nortasuna eraldatu egingo da. Euskal Herriari buruzko informazio berri eta gaurkotuek, orain arte transmititu eta landutako irudiak ordezkari ditzaketen irudi berrien oinarriak jar ditzakete. Izan ere medio hauen bitartez mintzagai berriak, errealitate berriak edo informazio berriak hedatzen diren neurrian, diasporan etengabe birsortzen den euskaltasunaren definizioan bestelako osagaiak agertuz doaz. Logikoa da pentsatzea, beraz, honek eraldaketa garrantzitsua eragingo duela lehenetik dauden eta komunitatearen ikur bilakatu diren definizioetan⁷⁹.

Estereotipoak eta besteen aurreko agerpena

Zalantzarik ez dago estereotipoek eragin handia dutela nortasunaren eraikuntzan. Era positiboan baloratzen den zerbaitekin identifikatzea errazagoa da era negatiboan baloratzen den zerbaitekin baino. Besteen aurrean agertzeko unean ere, garrantzia du gure nortasuna besteek nola ikusten duten jakiteak. Horrela, Euskal Herriaz eta euskaltasunaz irudi positiboak hedatzean eta estereotipo negatiboak uxatzean, diasporako kideek beren nortasuna indartzeko bi modutan erabil dezaketen baliabidea da Canal Vasco: lehena, norberaren buruaren aurrean autobaiespena sendotuz; bigarrena, besteen aurrean, sozialki ondo baloraturako talde bateko kide gisa agertuz.

Euskaldunei eta Euskal Herriari buruzko estereotipo positiboak

Euskaldunen artean, euskaldunek Latinoamerikan irudi ona dutelako ideia oso hedatuta dagoenik ezin uka daiteke. Lehenago esan

⁷⁹ Mariska Milikowskik (2000) honakoa aurkitu du Holandan diren etorkin turkiarren kasuan: satellite bidezko telebista turkiarra ikustean, Turkiak azken denboran izan duen aldaketa ezagutzeko aukera dute. Honek lagundu egiten die diasporaren isolamenduan Turkiari buruz garatu duten irudi etniko nostalgikoa eraldatzen. Izan ere, telebista komertzialek bereziki Turkiaren irudi berriagoa ematen baitute. Fenomeno hau batez ere etorkinen seme-alaben artean nabarmentzen da, eta zentzu horretan satellite bidezko telebistak, diasporako turkiarren talde nortasunari zama etnikoa kendu eta bestelako izaera bat emango lioke. Honi *de-Ethnicization* deitzen dio egileak, hots, izaera etnikoa galtzea.

dugun legez, baieztapen honek ez du esan nahi "besteek" benetan guk irudikatzen dugun bezala ikusten gaituztenik; are gutxiago halakoxeak garenik. Baieztapen hori bera, hartara, estereotipatua izan liteke. Baina errealak da ordea halakoa irudikatzen dutela, Latinoamerikako euskaldun askok, besteek euskaldunei buruz duten irudia. Eta zentzu horretan, besteen pertzepzioari buruzko juzkuak eragina du norberak bere buruz duen pertzepzioan. Gure elkarrizketatuen artean oso hedatuta dago bederen ideia hau. Askok aipatu digute, hala Argentinan nola Venezuelan, euskaldunek duten gizarteko ospea⁸⁰. Ospe hau estereotipo ezberdinetan oinarritzen da. Oro har, beti ere euskaldunek beraiek egiten duten juzkuaren arabera, zintzo, langile, saiatu, ekimen handiko, independente, prestu, zuhur, isil, jator, tradiziozale eta talde nortasun handikotzat jotzen da euskalduna. Zerbaitek definituko balu euskalduna, gizasemeen txapelarekin batera, emandako hitzari zor zaion errespetua litzateke. Gure elkarrizketuek erakutsitako iruditerian, emandako hitza sakratutzat agertzen da; toki askotan galdutako ohitura, euskaldunen artean bizirik, eta kontserbatu beharrekoa dena.

Estereotipo positibo hauek ez zaizkie euskaldunei soilik aplikatzen, eta beren lurraldeak ere jasotzen ditu halako loreak: mendia eta itsasoa batzen ditu, paraje berde zoragarriak, historiaren lekuko izan diren baserri ederrez josiak, klima ezin hobea, eta abar. Hauei guztiei, Euskal Herriari berari atxikitzen zaizkien gainerako estereotipo eta mitoak gehitzen zaizkie: Europako herri eta hizkuntza zaharrena, jatorri misteriotsukoa, kontinente zaharra inbaditu duten herri ezberdinei gailendu zaiena, eta abar.

Euskaldunek beren buruz dituzten estereotipo hauek familiaren bitartezko transmisioetik datozenak dira. Gizaldiz gizaldi igaro den iruditeriaren barruan kokatzen dira. Horrekin batera, ezaugarri horiek besteek ere atxikiak direlako pertzepzioa garatu dute diasporako eus-

"Aquí a nivel de Latinoamérica creo que la imagen que el venezolano tiene del vasco, que lo diferencia muy bien del español se da, gizon jatorra, gente de honor, un poco la palabra que existe aquí a nivel de venezolanos es, su palabra es un documento. O sea, no hace falta que escribamos nada porque su palabra es un documento. Es un poco lo que se dice de los vascos" (Patxi).

⁸⁰ Lehenago ikusi dugunez, irudipen hau ez da berria, eta aztertu ditugun bi herrialdeetako euskal komunitatearen historian agertzen da gizarteko ospea, euskaldunak beste talde etnikoengandiko bereizketarekin batera.

kaldunek beren sozializazioaren garaian. Halakoxeak ikusten omen gaituzte, horren arabera. Honez gain, diskurtso nazionalistak ere berindartu egin ditu zenbait estereotipo, eta –diskurtso nazionalista orok egiten duen bezalaxe– iruditeria mitologikoa eraiki.

Testuinguru honetan, euskal nortasuna gizarteko ospe handia duen talde bati lotzen zaio Latinoamerikan. Honek, zalantzarik gabe, erraztu eta bultzatu egiten du talde horrekiko identifikazioa. Izan ere, beste talde batzuek estigmatizazioa agertzen dira besteen aurrean (Latinoamerikan, kasu, bertako indiarrek), eta estigma horiek oztopatu eta zaildu egiten dute taldearekiko identifikazioa; hala besteen aurrean agertzeko unean nola nor bere buruaren aurrean definitzeko unean. Gizarteko ospea duen taldetasuna, hartara, erakargarri bihurtzen da, estigma duena berriz errefusagarri bilakatzen delarik⁸¹.

Euskaldunei eta Euskal Herriari buruzko estereotipo negatiboak

Orain arte aipatu ditugun estereotipo positiboekin batera, nabarmen agertzen da, gure elkarrizketetan, euskaldunen inguruan azken urteetan eraikitzen ari diren estereotipo negatibo batzuekiko kezka. Aurrekoek baino tradizio txikiagoa dute, eta beste iturri batzuetatik elikatzen dira gure mintzakideen ustez euskaldunei atxikitzen zaizkien irudi negatibo hauek. Funtsean, azken hamarkadetan Euskal Herrian indarrean dagoen gatazka politikotik eratorriak dira, eta ETAk gaur egun burutzen duen praktika armatuaren balorazioan oinarritzen dira. Modu ezberdinetan formulatutakoak laburbilduz, esan dezakegu euskaldunak bortizkeriarekin lotuak izateko beldurra agertzen dela gure elkarrizketatu askoren azalpenetan. Euskaldunak “terrorista” edo –Argentinako esanetan– *metebombas* gisa ikusiak ote diren planteatzen da azalpen horietan. Estereotipo negatibo honek azken mende t’erdian euskaldunen inguruan eraiki den irudi positiboa itzaltzea arriskutzat jotzen da, bereziki Euskal Herriari buruz Latinoamerikara iristen diren albiste ge-

⁸¹ Ezin da alde batera utzi batzuetan estigma bera bihurtzen dela nortasunaren ikur eta, horregatik, aldarrikatzen den zerbait. Horren adibidea izan daiteke homosexualen zenbait mugimendu, gizarte hegemonikoak baztertzen dituen zenbait osagai (estetikoak, jarrerazkoak eta abar) nortasunaren ikur gisa erabiltzen direnean, taldearen autonomia irabazi ahal izateko. Transgresioa, hartara, norberaren nortasun emale gisa erabiltzen da. Ikus, esaterako, honi buruz Castellsek (1997) egiten dituen aipamenak.

hienak gatazka armatuarekin zerikusia dutela kontuan hartzen bada, gainerako gai eta gertakizunak itzalean geratzen direlarik.

Hemen zehaztu beharra dago gure mintzakideek ez dutela identifikazio hori zuzentzat jotzen. Estereotipo positiboekin ez bezala, estereotipo negatibo hauek ez dituzte konpartitzen elkarrizketatuek. Esan nahi baita, estereotipo positiboen kasuan esan dugun legez, besteek nola ikusten gaituzten epaitzeak eragina du guk geure buruz dugun irudia osatzean. Besteek langile eta hitzekotzat hartzen gaituztela pentsatzeak, izan halakoxeak garella pentsatzea eragin dezake. Estereotipo negatiboen kasuan ordea, alde handiagoa dago besteek ikusten gaituzten modutik guk geure burua ikusten dugun modura. Beste hitz batzuetan esateko, diasporako kideek besteek euskaldunak "terroristatzat" hartzen dituztela pentsatzeak ez du esan nahi beraiek ere euskaldunak (ez diasporakoak ez eta Euskal Herrikoak) hala hartzen dituztenik. Baina nabarmena da besteen pertzepzioei buruzko juzku hauek elkarrizketatuengan sortzen duten kezka.

Mota honetako estereotipo negatiboak, esan bezala, euskaldunei buruzko irudi tradizionalak baino berriagoak dira, eta neurri handi batean hedabideek Euskal Herriari buruz ematen duten informazioan dute iturri nagusia. Batetik, Latinoamerikara iristen diren Espainiako hedabideak: bereziki satellite bidezko telebistak: TVE, Antena 3, Tele 5 eta abar. Bestetik tokian tokiko hedabideak: prentsa, irrataria eta telebista. Kasu batzuetan irizpide politikoengatik, beste batzuetan hedabideek beraiek erabiltzen dituzten informazio iturriengatik, edota albis-tegintzan indarrean dagoen ideologia profesionalarengatik (zeinaren arabera bonba baten leherketa lehenesten da museo baten inaugurazioaren aldean), Euskal Herriari buruz hedatzen diren informazio gehienek egoera gatazkatsua erakusten dute. Gatazka horretan bere ikuspuntuak zabaltzeko indar handia duenaren bertsioa nagusitzen da, jakina, ahulenaren kaltetan. Euskal Herrian dagoen gatazka politikoan, Espainiako Estatuaren ikuspuntua da nagusia Latinoamerikara iristen

"Toda la gente conoce al País Vasco por los atentados y por la ETA, y nadie te puede hablar del Guggenheim, nadie te puede hablar de miles de cosas que tiene. Lo de Guggenheim que esté en Nueva York y que está en Bilbao (...) En la Televisión Española y en el Canal Gallego, nosotros no vemos nunca del País Vasco (...) El otro día, estaba haciendo zapping con el control remoto y vi que iban a pasar algo sobre el País Vasco. Cuando empecé a ver eran todo víctimas del terrorismo... está bien que se le trate, obviamente, no lo discuto. Pero no es sólo eso... Y solamente era el programa sobre el terrorismo" (Esther)

"Patricia: Probablemente uno dice 'ah, yo voy a ver el Canal Vasco y creo que voy a ver danzas, pelota y esas cosas'. Y ves otra cosa, cosas más dirigidas... como te digo lo de la moda, o lo de la cocina por ejemplo. Lo que me sirvió es para ver que hay algo más que lo que yo pensaba ver, que era lo tradicional.

G: ¿Tú antes de ver Canal Vasco pensabas que ibas a encontrar lo tradicional?

Patricia: ¡Sí!. Que iba a ver otro tipo de cosas. Y como los chicos, que dijeron películas de blanco y negro y mudas, bueno, un poco que iba a ser un canal más... como más rudimentario te diría. Por eso te digo que me sorprendió el logo [de Canal Vasco], cuando no tendría que sorprenderme. Pero sin embargo me sorprendió el logo, me pareció interesante, como que hay cosas que... es decir, de alguna manera uno también se encasquilla, ¿no? Aunque no crea".

zuetan, talka egiten du diasporako euskaldunek dituzten irudiekin. Irudi hauek, nekazarien gizarteak eskaintzen zituen aukera urritasunak bultzaturik Euskal Herria utzi zutenen oroitzapenetan oinarrituak, edota 1936ko guda garaiko nazionalismoaren iruditeriaren inguruan eraikiak, ez datoz beti bat XXI mendean satelite bidezko euskal telebistak ematen dituen ereduekin⁸². Batzuentzat, arbasoek utzitako

diren informazioetan, bestelako eragileena (praktika armatuarekin zerikusia izan ala ez) estalita geratzen delarik.

Euskal Herriari eta euskaldunei buruzko estereotipoen joko honetan, Canal Vascok bi eremutan jokatzeko materiala eskuratzen die diasporako euskaldunei: estereotipo positiboak indartuz eta irudi positibo berriak eraikiz, batetik; eta estereotipo negatiboak uxatuz, bestetik. Halaber, Canal Vascotik jasotzen den material hau bi dimentsiotan erabiltzen dute diasporako ikusleek: barrura begira, norberaren autobaiaspina sendotzeko eta zailtzak alboratzeko; kanpora begira, besteen aurrean aldarrikatzen den euskaltasunaren balioa baieستeko eta atxiki dakiokkeen irudi negatiboari aurre egiteko. Ikus dezagun bada nola erabiltzen duten Canal Vascogure elkarrizketatuek zeregin hauetan.

Estereotipo positiboaren sendotzea eta irudi positibo berrien sorrera

Jadanik ikusi dugunez, Canal Vascok Euskal Herriaz ematen duen irudiak, bat-

⁸² Hemen kontua ez da, jakina, Canal Vascok eta, oro har, Euskal Telebistak euskal gizarteaz ematen dituen irudiak errealitatearekin bat datozen ala ez epaitzea. Izan ere, hainbat kritika egin baitakizkioke ETBri zentzu honetan. Baina eztabaida hori alde batera utzirik, diasporako euskaldunen begietan irudi horiek eta beren irudi propioak bat ote datozen ala ez agitzea da, bai eta horrek zer eragiten duen.

gizarte hura gizarte tradizionala zen, ekonomikoki atzeratua, osaketa etnikoari dagokionez orain baino homogeneoagoa, eta abar. Edota gizarte industrialaren, ontziolak eta siderurgia astuna jarduera ekonomikoaren ikur nagusiak zituena. Beste batzuentzat nazio nortasun handiko herria zen, zeina naziotasun sentimendua hain handia zuen ezen nortasuna armaz defendatzeko punturaino iritsia baitzen. Edo sinesmen katoliko handikoa. Eta abar. Irudi hauek gizaldi batetik bestera igorriak izan dira, eta Euskal Herritik zetozen informazio berriez berreraikiak. Irudi erabat fosilduak direnik ezin esan daiteke, Euskal Herriko biztanleekiko kontaktua, jaioterrira edo arbasoen sorterrira eginiko bidaiak eta informazio bideek irudi horiek berrizatzeko materiala ematen izan baitute.

Baina zalantzarik ez dago egungo komunikazioaren teknologiek ahalbidetzen duten informazio jarioak beste dimentsio batean jartzen gaituela. Internetek eta satellite bidezko telebistak eskaintzen dituzten informazioen ugaritasuna eta informazioak heltzeko arintasuna egundo ezagutu gabeak dira. Bestalde, komunikazioen jarioetan izan diren aldaketa hauek oso denbora laburrean gertatu dira: Interneten hedapena oso arina izan baita, eta satellite bidezko euskal telebista goizetik gauera agertu da diasporako euskaldun askoren etxeetan. Informazioaren jarioan izan den hazkunde esponontzial honen ondorioz, aspalditik zetozen eta denboran zehar finkatu eta bilakatu diren irudien, eta bat-batean agertu diren irudien arteko talka suertatzen dela esan dezakegu.

Talka honek nolabaiteko errefusera eraman ditzake ikusle batzuk. Jadanik ikusi dugu joera hau, Canal Vascoren aurrean alde zuzenetik ondo definitutako euskaltasuna jagoteko jarrera aztertu dugunean. Kasu hauetan Canal Vasco errefusatu egiten da, ematen dituen irudiak bat ez datozelako norberak dituenekin. Edo, muturrera eramanda, Euskal Herriaren errealitate gaurkotua bera izan liteke errefusatu.

Baina bestelako erreakzioak ere eragin ditzake talka honek: Euskal Herriari buruzko irudien modernizazioa, azken termino honek kon-

"Pues poner un poco al día de los avances (...) Hay programas tecnológicos, de información tecnológica, he visto, por lo menos pósters, vamos a hablar de esto, vamos a hablar de lo otro... Yo me enteré aquí de un programa especial que dieron de las cooperativas de Mondragón, que eso produce más dinero que una gran compañía de aquí. No sé, eso sabréis vosotros, pero lo gigantesca que es a nivel mundial... Mondragón produce más dinero que esta cooperativa. Eso a nosotros nos llamó la atención, y dijimos '¡no puede ser posible!' A uno le gusta oír eso, para estar más al día de lo que es la situación de Euskadi, actual, económica" (Xabier).

notazio positiboak hartzen dituelarik. Horrela, gure elkarrizketetan ikusi dugunez, ikusle batzuek ustekabe positibotzat hartzen dituzte Euskal Herriaz Canal Vascon ematen dizkien irudi berriak. Kasu hone-tan, estereotipo positibo berriak sortzen hasten dira euskal gizarteari buruz. Gure mintzakideek emandako azalpenetatik errepikatuenak atereaz, esan dezagun oro har gehien txunditu dituen irudia Euskal Herri moderno eta aberatsarena izan dela. Beren arbasoek utzitako eta nekazaritzaren inguruan antolatutako gizartearen orde, zerbitzuak nagusitu diren gizartea ikusten dute orain Canal Vascon. Telebista hon-nen irudietan, tximiniek eta garabiek urratutako Nerbioi ibaiaren er-tzen irudiak bide eman die Guggenheim Museoko titanioak islatzen dituen eguzki izpiei; lehenengo elektragailuak ezagutzeko Euskal He-rritik Latinoamerikara joan behar izan zuten migratzaileek eta beren ondorengoek, orain Europako herrialde aberatsenen pare jarri nahi duen herria ikusten dute telebistaz, beren herrialdea esperantzaren lurraldea izateetik esperantzagabeen lurralde izatera igaro den bitartean; hiltzera kondenaturik zegoen mintzaira kamuts eta zahartzat zuten euskara, orain unibertsitateko hizkuntza instrumentala da. Francok suntsitutako giza lurralde hartan orain erakunde autonomiko sendoak altxatzen dira. Eta abar luzea⁸³.

Canal Vasconetik jasotako materialez eraikitzen den irudi positibo honek bi norabidetara jotzen du diasporako ikusleen artean. Barrura begira, norberaren autobaiespenerako mekanismo gisa, eta kanpora begira, besteen aurrean nor agertzeko modu gisa.

Barrura begira, irudi positibo hauek zera dakarkie diasporako eus-kaldunei: beren nortasunaren erreferentea (Euskal Herria) baiestea; eta horren ondorioz, norberaren nortasunaren autobaiespena. Euskal gizartea gizarte erakargarri eta desiragarritzat jotzen da, bertako kide izateak nolabaiteko asebetetzea emateko modukoa. Elkarrizketatu ditugun ikusleak krisi larrian bizi diren bi herrialdetakoak dira: Argentina eta Venezuela. Krisia ekonomikoa ez eze, politikoa eta so-

⁸³ Argitu dezagun ez gabiltzala Euskal Herriaren errealitatearen irudia egiten, Canal Vascon euskal gizarteaz ikus daitezkeen irudia deskribatzen baizik. Izan ere Euskal Herrian oraindik ere emigrazio handia dago (Iparraldeko barrualdean kasu), toki batzuetan euskara gizaldi gutxitan galtzeko arrisku oso handia dago, gatazka poli-tikoa oso nabarmena da, eta abar. Canal Vasconen ikusleek ez dituzte, haatik, beren irudiak errealitatearekin alderatzen, telebista horretatik jasotzen dituzten irudiekin baizik.

ziala ere bada, eta ondorio dramatikoak ditu. Egonkortasun ezari ziurgabetasuna gehitzen zaio, bai eta, zenbaitetan, beldurra: lanpostua galtzeko beldurra, kalean erasota izatearena, edota gatazka politiko latza pairatzearena. Krisi honek isla argia du bertako hedabideetan, hala prentsa idatzian nola irrati eta telebistan: eztanda ekonomikoak, kaleko matxinadak, pertsonen eta ondasunen aurkako eraso eta delituak, politikarien ustelkeria eta joko zikinari buruzko berriak, gosetea bera ez denean, eguneroko kontuak dira Venezuelako zein Argentinako albistegietan. Egoera sozial latzari, telebistagintzan oro har nagusitu diren joera morbozale eta sentsazionalistak gaineratu behar zaizkio. Horregatik bertoko telealbistegiei ikustalditxo bat ematea nahikoa da pantailatik etxeko goxotasunera egunero isurtzen diren angustia eta izua-
ren errealitateaz jabetzeko.

Krisi egoera hau ikuspuntu guztietatik islatzen duten telealbistegi eta telesaioen ondoan ordea, botoi bat sakatuta soilik ikus dezaketen beste kanal batek (Canal Vasco, alegia) oso mundu ezberdina agertzen die. Utz diezaiegun beraiei ikusten dutena azaltzen, guk ez baikenuke hobeto egingo:

“Veo que el tenor de los problemas que se tratan es diferente que acá. Porque, por ejemplo, hace mucho se discutía [en Canal Vasco] o estaban preocupándose los ciegos en no sé que pueblo de Euskadi que tuvieran un sensor para saber cuando el semáforo estaba en rojo o en verde. Y acá lo que se discute es, por ejemplo, que sé yo, que se robó poco, que se robe menos; o que los aportes que depositó una patronal, al final, que teóricamente figuraban en un recibo, no estaban. O sea, es otro tipo. Acá todavía se sigue discutiendo que no roben, y allá eso ya se pasó. Es como que es otro mundo” (Marcos).

“Jorge: Honestamente nos causan gracia las cosas por las que se preocupan ...

“El problema es que la gran mayoría de la gente aquí no tiene instalado el Canal Vasco en la casa. Hay un montón de cosas, como te digo los programas estos de Rutas de Solidaridad, que tú dices, 'oye, ¡cómo un país tan pequeño, que ha adelantado en muchas cosas todavía tiene una parte como para ayudar a los países tan pobres y tan necesitados como pueden ser Latinoamérica o África!. Eso para mí es un adelanto que hace Euskadi. Que otros países lo tendrán, pero a nosotros lo que nos interesa es que Euskadi lo saque y lo muestre a la gente. A mí lo que me interesaría es eso, pues, buscar la manera de buscar la facilidad para que la gente lo pueda instalar en casa” (Miren).

Marisol: Es que acá uno tiene tantos problemas, tantos problemas, que es que lo urgente tapa lo importante. Acá, de escuchar música pasamos a escuchar noticias, porque querés saber cómo cerró hoy el dólar, que es una fijación que tenemos, pero no es porque seamos chiflados, es porque cuando vas a comprar cartón, chocolate, todo lo que tenga insumo importado, automáticamente te hacen el cambio al dólar. Entonces vivís apretado por el dólar. No es que seamos unos descerebrados. No, no, no, ves eso, y ves [en Canal Vasco] la imagen de gente normal que vive, que trabaja, pero, qué sé yo... Yo particularmente me hubiera ido allá, los veo que viven tan tranquilos, con todos los problemas que tienen, aún vos fijáte que en el País Vasco, que tienen todos los problemas de terrorismo y todo, pero la gente vive tranquila, lleva una vida normal. Eso sí ves, y ves el reflejo de una sociedad tranquila.

Jorge: Quizás la mejor manera de describirlo es que disfrutan de la vida.

Marisol: Disfrutan de la vida, eso sí lo ves. (...) En el Canal Vasco yo miraba Esta Es Mi Gente, porque me encantaba ver la idiosincrasia de la gente, es tan alegre, tan... toman los problemas con una desinhi... no desinhibición, o sea, tampoco eran problemas tan trágicos. Vos te vas acá y ves todo, que se murió de hambre, que lo asaltaron, porque todo lo que ves es así acá, porque...

Jorge: parece una película de terror las noticias de acá (...) La vez pasada en los noticieros estaban preocupados porque iban a tirar...

Marisol: ...un edificio. O sea, no veás un problema de 'se murió dentro de un pozo, mataron a un policia'. Yo creo que eso es lo que... no es envidia, es decir: 'yo prefiero vivir así, qué lindo vivir así', vivir normalmente, o sea, yo anhelaía vivir normalmente en un país, y vos tal vez si ves las televisiones, ves lo que vos querías vivir, entre un poco reflejo de tu historia, o de lo que vos crees tu historia, y de lo que quisieras vivir".

Azalpenen argitasunak aipuaeren luzera justifikatzen duela uste dugu. Gure mintzakideen arabera, Canal Vasco eskura jartzen dien Euskal Herriaren irudia beraiek bizi dutenarekiko kontraste handian dago. Gurea, haien irutziz, "gizarte normala" da; beraiena ordea, erre-fusagarria. Haiek ikusten duten gizarte erakargarri hori, gainera, ez da

beste barik beraiena baino desiragarriagoa den gizarte bat; halako hainbat gizarte agertuko zaizkie kanpoko telebista seinalen eskaintzaren bidez. Canal Vascon ikusten duten hori aldiz *euskal* gizartea da, hots, neurri batean *beren* gizartea, harkiko identifikazioak horretara eramaten baititu. Marisolen hitzetan, norberaren historia da (zehazkiago esateko, norberak bere historiaz osatzen duen istorioa), bizi nahiko litzatekeena izateaz gain. Bistan da, beraz, Canal Vascok ematen duen irudien bitartez euskal nortasunak ospea irabazten duela norberaren aurrean, estimatzen den taldearekiko identifikazioa suposatzen baitu. Zentzu horretan, euskal nortasunaren sustatzaile garrantzitsua da.

Kanpora begira ere mekanismo berbera agertzen zaigu. Canal Vascok laguntza paregabea eskaintzen die diasporako euskaldunei besteen aurrean nor agertzeko eta beraien talde nortasuna baiesteko. Euskal Herria herri aurreratua da, gure mintzakideek Canal Vasco ikusiz eraikitako iruditerian bederen. Aurreratua ez eze, zenbait alderditan eredu garri ere: solidarioa (*Rutas de la Solidaridad* saioak erakusten duen moduan), produkzio harremanen modu berriak sortutakoa (kooperatibak), sistema politiko berriztatzailea garatutakoa (autonomia), eta abar luzea. Horregatik guztiagatik munduari zer erakutsia ere badu. Eta horretan, eginkizun oso garrantzitsua esleitzen diote gure mintzakideek Canal Vascori. Satelite bidezko telebista izanik eta milioika etxetara iristeko aukera izanik, beraien urtetan bete duten egitekoa (euskaltasunaren defentsa, ospea eta hedapena) modu askoz zabalago eta eraginkorragoan egin lezake. Izan ere, jadanik esana dugunez, diasporako euskaldunen artean oso indarrean egon baita euskaltasuna besteen aurrean aldarrikatu eta agertzearekiko kezka.

"Creo que el Gobierno Vasco no puede, o está amarrado o falta más publicidad a nivel externo de lo que es la realidad del pueblo vasco. El pueblo vasco es el país que recoge más basura para reciclar, es el que más órganos en el mundo –tengo entendido– da. El Estado Español no dice eso (...) Euskadi, en lo que es Internet y computadoras supera lo que es, digamos, cualquier estado autónomo del Estado Español, pero eso no aparece. Aparece muy tímidamente en el periódico local vasco, creo que eso es algo que falta en la televisión vasca, eso creo que es un punto que falta. Hay que sacar los valores, porque las cosas malas ya habrá quién lo diga, las cosas malas hay suficiente prensa y televisión. Porque uno ve la Televisión Española y si le preguntan a un futbolista, a Raúl, y el gol que metiste sí, pero qué pasa con la ETA. ¡Qué tendrá que ver el fútbol con la ETA! Entonces que ahí el Gobierno Vasco, utilizando la televisión vasca, tiene que sacar en ese aspecto toda esa serie de valores... Me da la impresión de que hay timidez, o quizás está coartado..." (José Angel).

"Lo de la política, ¿por qué interesa? Porque la información política que baja el canal español es absolutamente tendenciosa. Uno lo decodifica porque uno tiene referencias de otro lado, porque uno sabe de otras cosas. Pero si vos miras un noticiario español referido a lo vasco, te quieres cortar las venas, es bronca, o romper el televisor, porque es realmente terrible cómo manipulan la información (...) Después, toda la información que da, todos los vascos son etarras y el que no sabe, se la cree, cómo no. Además está presentado tan prolijamente, claro, que tienen razón"
(Gabriela).

Eginkizun hau, bestalde, maila insituzionalean betetzearekin batera (euskal etxeen bidez, FEVAko lehendakariak elkarte honen helburuak definitzen dituen bezala), erantzukizun pertsonaltzat ere hartzen da. Horrela, diasporako euskaldunek oso babestuta sentitzen dute beren burua besteen aurrean agertzen direnean, atzean Canal Vasco dutelarik. Honek nortasunaren harrotasunera daramatza.

Diasporako euskaldunek euskal telebistari ematen dioten erabilera honen inguruan sortzen dira, hain zuzen ere, gure elkarrizketetan maiz agertzen den eskakizuna: Canal Vasco, munduko euskaldunei ez eze, gainerako herritarrei ere zuzendu beharko litzazkieke, Euskal Herriaren berri emanez, bere garapen ekonomiko, teknologiko, politiko zein soziala agertuz, eta

eredu gisa eskaini lezakeena eskainiz. Gure aburuz, eskakizun honen atzean besteen aurrean euskaldun gisa modu sendoagoan agertzeko laguntza eskea dago. Berriro ere, Canal Vasco euskaltasunarekiko atxikimenduan nola erabiltzen den agertzen zaigu hemen.

Estereotipo negatiboaren errefusa: euskaltasunaren estigmak gainditzen

Taldeari buruzko estereotipo positiboek nortasunarekiko atxikimendua eta autobaiespena bultzatzen badituzte, estereotipo negatiboek alderantzizkoa bultzatzen dezakete. Gure kasuan ikusi dugu aipatutako herrialdeetara hedabide ezberdinen bitartez Euskal Herriaz iristen diren albisteek, sarritan, alderdi negatiboak azpimarratzen dituztela, bereziki gatazka politikoaren ondorioz euskal gizartean gertatzen diren tentsio une eta ekintza armatuak. Irudi positiboekin ez bezala, elkarrizketatu ditugun ikusleek ez dute haatik irudi hauetatik euskaldunei buruzko estereotipo negatiborik eraikitzen. Baina era honetako albisteek eta haiei lotutako irudiek sortzen duten kezka nabaria da. Kasu batzuetan jakinmina eta nolabaiteko zalantza eragiten dituzte. Beste batzuetan, "besteek" euskaldunei buruz osa ditzaketen estereotipoekiko ardura. Biak agertzen dira Canal Vascoren erabilera ezberdinei lotuta.

Esana dugu lehenago euskal politikarekiko interesa erakusten dutela elkarriketatuek Canal Vasco ikustean. Hain zuzen ere, gai honen inguruan dute jakin-min handienetakoa, bereziki gatazka nazionalaren ondorioz sortutako gertaeren inguruan (Espainiako Estatuaren jarrerak, ETArein jarduera armatua, alderdi abertzaleen arteko harremanak, eta abar). Haien pertzepzioen arabera, oro har Espainiako hedabideek eta tokian tokiko hedabideek ere Euskal Herriari buruzko irudi negatiboa hedatzen dute, alderdi positiboak erakusten dituzten berri eta ikuspuntuak eskaini beharrean alderdi negatiboak eta bereziki indarkeriari lotutakoak erakusten dituztelako.

Patriciak, esaterako, honako anekdota kontatzen digu: Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak Argentinara bidaiara egin zuen batean, euskal komunitateko kideak bertako hedabide batzuetako arduradunekin jarri ziren kontaktuan, bisitaren berri eman zezaten. Haien honela erantzun omen zieten ordea: "no, si no es una noticia de ETA no la sacamos". Euskal Herriari buruzko informazio negatibo honen presentziaren aurrean, hartara, diasporako euskaldunek Canal Vascoara jotzen dute bestelako informazio bila. Euskal telebistan bestelako informazioa aurkitzen dutelakoan, iturri haietatik datozenak kontrastatzeko aukera aurkitzen dute bertan, horrela informazio negatiboei sortutako jakin-mina nola edo hala asez eta zalantzak baretuz. Azpimarratu beharra dago, bestalde, irudi positiboak sortarazten dituzten edukiekin batera, irudi negatiboak uxatzeko erabil daitezkeenak ere ez direla bakardadean soilik kontsumitzen. Aitzitik, beste euskaldun batzuekiko harremanak dituztenek (euskal etxeetan parte hartzen dutenen kasuan bezalaxe) Canal Vascotik jasotzen dituzten edukiak beren arteko solasaldietan txertatzen dituzte, horrela bateko zein besteko irudiak elkarren artean sortuz eta haien arteko harremana ere trinkotuz.

Canal Vascok, bestalde, hirugarrenen aurrean Euskal Herriari buruz hedatzen diren informazioak ezeztatze edo, gutxienez, osatzeko eduki eta materialak eskuratzen dizkie diasporako euskaldunei. Lehenago aipatu dugun legez, "besteek", hedabide espainiarrek eta beste

"Somos un poco punto de referencia en todo el medio en que nos conoce a nosotros, local, donde nos conocen solamente porque ETA puso la bomba. Entonces, nos preguntan, y nos da la comunicación y la actualización que nos da el Canal Vasco, nos permite a la gente, con mucha autoridad, mucho conocimiento, firmeza para decir, ta, ta, ta. Eso es elemental que se logra con tiempo. Que los que vemos que queremos aquello y vemos esto podemos juntar al minuto la información. Eso es importantísimo" (Jon).

hedabide batzuek elikatuta, Euskal Herriaz osa lezaketen irudi ezkorrekiko kezka handia dago diasporako euskaldunen artean. Izan ere, euskaldunak txarto baloratzen badira, haiekin identifikatzen direnak (diasporako euskaldunak kasu) ere txarto baloratuak izan litezke. Zentzu honetan, diasporako euskaldunek, zenbait kasutan, euskaltasunaren enbaxadore gisa ikusten dute beren burua: besteei Euskal Herria zer den eta nolakoa den erakutsi behar dietenak, alderdi positiboak azpimarratuz eta negatiboak ondo azalduz. Hemen, jakina, zentzu eta erabilgarritasun handiak hartzen ditu Canal Vascok. Beste hedabideek hedatzen ez dituzten ikuspuntu eta informazioak emanez, munduan zehar sakabanatuta dauden “euskal enbaxadorei” berebiziko lehengaia eskuratzen baitie: lehen mailako informazioa eta analisisa, alegia.

Azpimarratzekoa da azken jokaera honek zenbaitetan eta zenbaitengan sortzen duen inplikazioa. Tokia tokiko gizarteetan onetsitako Euskal Herriaren eta euskaldunen ezaugarriak defendatzen baino kementsuago agertzen dira ezaugarri horiei itzala egin diezaieketen irudi negatiboetara aurre egiten. Nolabait esateko, ez zuzentzat edota alderdikoitzat jotzen diren informazio eta ikuspuntuek besteengan izan lezaketen eraginak kezkatu, Euskal Herriaren eta euskaldunen izen ona defendatzera behartuta ikusten dute beren burua. Kasu batzuetan, gainera, inplikazio emozional handiz burutzen dute defentsa hori. Honen ondorioz, bistan da, defendatzaileak areago identifikatzen dira defendatuarekin, talde nortasunaren eraikuntzan beste adreilu bat jarritz. Berrito ere eman diezaiegun hitza:

“Y esta señora me comentó, me dice que hay cosas que le llaman la atención, que por qué cuando pasan alguna noticia determinada sobre la situación política, no la pasan de inmediato para nosotros (...). Y eso le llamó la atención. Y yo le dije que no se si es verdad o no, pero trato de defenderlo, porque defenderlos a ustedes es defendernos a nosotros...” (María).

Mariak, aipu honetako azken esaldian, Argentinako hainbat euskaldunen artean hedatuta dagoen bereizketa bat egiten du: Argentinako euskaldunak, batetik, eta Euskal Herriko euskaldunak bestetik. Talde ezberdinak dira, izenorde ezberdinak erabiltzeak erakusten duen bezala. Baina azkenak defendatzeak lehenak defendatzea ere badakar. Zentzu horretan, Argentinako euskaldunek Euskal Herrikoekin duten identifikazioa sendotu egiten da, hedabideek ematen dituzten informazioen inguruko solasaldietan “beste” euskaldunak defendatzeko ardua hartzen dutenean.

Azkenik, esan dezagun irudi eta estereotipo positiboekin gertatzen den bezalaxe, Canal Vasco euskaldunak ez direnei ere zuzendu beharko lukeelako ustea ere agertzen dela elkarriketatuen artean, beti ere Euskal Herriari buruz Espainiako zein tokian tokiko hedabideek ematen dituzten irudi negatiboei aurre egin ahal izateko. Esan beharrekoa da, honi loturik, planteamendu honen balioa ez datorrela izan lezakeen aplikazio praktikoagatik: Canal Vasco besterik gabe euskaldunen ez direnen etxetara sartu ahal izateak ez du, inondik inora, ikusia izango denik ziurtatzen (kontuan harturik harekin batera dozenaka kanal gehiago ere sartzen direla). Ikustekotan ere, nekez ikusiko dira albisteak, zalantzarik gabe bestelako eduki batzuk erakargarriagoak izango baitira euskaldunak ez direnentzat (kontsumoaren lehenetasunak aztertzean ikusi dugun legez). Azkenik, albisteak jasotzeak, berez, ez du ziurtatzen honelako edo halako irakurketa, tartean beste norbaiten (adibidez, diasporako euskaldunen) parte hartzerik ez badago.

Eskakizun honen balioa, hartara, iradokitzen duen jarreran datza. Izan ere, haren atzean nabarmen agertzen dena zera da: diasporako euskaldunek besteen aurrean euskaldun gisa agertzeko unean Canal Vascon aurkitzen dituzten baliagarritasuna eta euskarria, autobaiespena lantzeko irudi positiboak elikatzen baititu eta irudi negatiboei aurre egiteko materialak eskaintzen baitizkie. Zalantzarik ez dugu gaur gaurkoz hauxe dela Canal Vascoren erabilera argienetako bat, beti ere diasporako euskaldunek beren euskal nortasuna eraikitzeke praktika anitzten testuinguruan. Munduan zehar Euskal Herriaren enbaxadoreen rola bereganatuz, diasporako euskaltasuna suspertu eta hedatzearekin batera, beraiek ere euskaldunago bihurtzen baitira.

5. ONDORIOAK

1. Bizi ditugun globalizaziorako joeren testuinguruan gero eta gehiago hedatzen ari diren komunikabide berriek kultura eta nortasun prozesuei planteatzen dizkieten eraldaketak sakonki aztertu beharra dagoela argi geratu da, gure iritziz, aurreko orrialdeetan. Horren garrantzia ikusteko, har dezagun XIX eta XX. mendeetan kultura eta nortasun prozesuetan berebiziko eragina izan duen estatu-nazioaren kasua. Bereziki estatutik nazioa eraikitzeari ekin zaionean, hezkuntza sistema “nazionala” eta komunikazio sistema “nazionala” izan dira langintza horren zutabe nagusiak. Bigarrenari dagokionez, prentsa idatzia izan zen, estatu modernoaren jaiotzatik bertatik, nazioa sozialki zedarritzen lagundu zuen eremu publikoaren euskarri nagusia. Geroago, jadanik hogeigarren mendean, irratiak eta telebistak gizarte osora hedatu zuten eremu publiko hori, komunikazio esparru estatu-nazionala trinkotuz eta, horrekin batera, nazio nortasuna osatuz eta finkatuz. Honela, hainbat teorikok nazionalismoaren garapenean prentsak izan duen garrantzia azpimarratzen duen bezalaxe ukaezina da hedabideek, oro har, komunikazio eremu estatu-nazionalaren eraikuntzaren bitartez, nortasun prozesuetan izan duten eragina.

Gauzak honela, galdera berez dator emana: zer gerta daiteke aurrerantzean talde nortasunen arloan, komunikabideak “estatu-nazionalak” ez diren bestelako eremuak eraikitzen hasiak diren honetan? Horixe baita, hain zuzen ere, egungo globalizazio ekonomiko, politiko eta kulturalerako joerek zein teknikaren aurrerakuntzak dakarten errealitatea, Interneten edo satelite bidezko telebistaren hedapenak erakusten duen legez.

Gai honen interes orokorrarekin batera, bestalde, bat egiten dugu Gloria Totoricagüenarekin, euskal diasporaren egungo errealitateari buruzko ikerkuntza zabaldu eta sakondu beharra dagoela dioenean. Alde batetik, ikerkuntza horrek ahalbidetu egingo digulako arlo historikoaz gain egungo eraldaketez eta etorkizunerako joera posibleez go-goeta egitea, diasporari buruz dugun ezagutza aberastuz. Baina aldi berean, euskal diasporarekin gertatzen ari direnak aztertzeak, Euskal Herrian bertan gero eta presentego ditugun inmigratio fenomenoe-kin gerta daitezkeenak hobeto ulertzen lagun diezaguke. Izan ere, hasi berria dugun mendean eraldaketa handiak ezagutuko ditu euskal gizarteak, eta horietako bat beste kultura eta jatorrietako gizon emakumeen presentzia gero eta handiagoa izango da. Hau, berez, ez da berria gure herrian: industrializazioaren hastapenetik aurrera ezagutu du Euskal Herriak inmigrazioa. Baina oraingoak ezaugarri berriak izango ditu, besteak beste heltzen ari direnak ere oso kultura eta jatorri ezberdinekoak direlako, eta gaur egun kanpotarra bertako gizarte eta kulturaren integrazteko baldintzak aldatu egin direlako: hirietako bizimodu anonimoa, jatorriko herriarekiko harremani eusteko aukera handi-agoak, mundu osoan sakabanatutako etorkinek elkarlotutako diasporako taldeak osatzeko aukera, eta abar. Zentzu honetan, eredu horretatik oso urrun bagaude ere, Londres litzateke diogunaren adibide grafikoa⁸⁴.

Honengatik guztiagatik, gure iritziz, diasporako euskaldunek beren nortasuna nola bizi duten ulertzeak, Euskal Herrian ditugun eta aurrerantzean izango ditugun beste diasporak euren nola bizi duten ulertzen lagunduko digu.

Hori guztia gutxi bailitzan, diasporaren nortasun prozesuak ulertuz, geure nortasun prozesuak ulertzeari ere bideak irekitzen dizkiogu. Talde nortasuna pertsonaren sentimenduetan oso erro handiak dituen

⁸⁴ Hiri kosmopolita da Londres, izan ere. Hezkuntza sistema publikoan eginiko errol-
da batek erakutsi duenez, bertako eskola umeen % 68ak soilik du ingelesa ama hiz-
kuntza; gainerakoak beste 300 hizkuntzaren artean banatzen dira. Portzentai
hauek, bestalde, asko aldatzen dira barruti batetik bestera, eta zenbait auzunetan
(*City*-n eta *Tower Hamlets*-en kasu) bizi diren umeen erdia baino gehiago dira inge-
lesa ez den beste hizkuntza batean etxean egiten duten umeak. Aipatutako 300 hiz-
kuntza horietatik, bestalde, 40 dira Londresen mila hitzun baino gehiago dituzte-
nak, eta hauen erdiak hamar mila hitzun baino gehiago dituzte. Inon muturreko
kulturaniztasunaren eredurik bada, beraz, Londresen aurki daiteke, agian Britainia
Handiko beste hiri batzuekin eta New Yorkekin batera (Baker eta Eversley, 2000).

gertaera izanik, sarritan zaila gertatzen da haren inguruko gogoeta analitiko eta pasiorik gabea egitea. Bestalde, gure lanean erakutsi dugun moduan, Euskal Herriarekin oso harreman ezberdinak dituzten pertsonak izanik, laborategi antzeko gisa hartu ahal dugu diaspora euskaltasunaren eraikuntzan eta, oro har, talde nortasunen eraikuntzan gertatzen direnak aztertu ahal izateko. Zentzu horretan, euskal diasporako euskaldunak hobeto ezagutzea, Euskal Herriko euskaldunak hobeto ezagutzeko modua ere bada.

2. Latinoamerikako euskal diasporak Canal Vasco nola erabiltzen duen aztertzean, zera ikusi dugu: erabilera hori oro har euskal nortasuna birsortzeko burutzen diren bestelako praktiken testuinguruan kokatu behar dugu. Diasporaren azterketa historikoak erakutsi digunez, urruntasunetik euskaltasunari eusteko saioak ez dira berriak, eta tokian tokiko eta uanean uneko tankerak hartu dituzte. Zentzu horretan, Canal Vascoren erabilerak, gertaera berri bati hasiera eman baino gehiago, lehendik zetorren gertaerari ezaugarri eta bide berriak irekitzen dizkiola uste dugu.

Era berean, "euskal diaspora" deitzen dugun multzo heterogeneo horretan, euskal nortasuna birsortzeko praktikak euskaltasuna bera bizitzeko erak bezain anitzak dira. Ikusi dugunez, diasporako kide batzuek oso harreman estua dute Euskal Herriarekin, egonaldiak egiten dituzte, euskal diasporako erakundeetan parte hartzen dute, eta abar. Beste batzuek ordea apenas duten harremanik hemengo jendearekin, ez dira sekula euskal etxe batera joan, ez dute beste euskaldunik eza gutzen, eta familia bidezko transmisioa bera ia etenda dago; baina hauek ere euskalduntzat hartzen dute beren burua. Begi-bistan dago batzuen eta besteen euskaldun izateko moduak oso ezberdinak direla, identifikazio horren aurrean oso jarrera ezberdinak dituztela eta oso praktika ezberdinak burutzen dituztela. Canal Vasco erabiltzean, beraz, ezberdintasun hauek ere agertzen dira.

Aurkitu ditugun jarrera nagusi biak azpimarratuz, esana dugu batzuek euskaltasunaren irudi oso trinko eta definitua dutela, beste batzuek irudi hori eskura dituzten materialez osatzen ari diren bitartean. Lehenengoek Canal Vascoren aurrean duten jarrerari jagotea deitu diogu, bigarrenek dutenari eraikitzea deitu diogularik. Jagotearen jarreratik, zera eskatzen zaio, beste ezeren gainerik, Canal Vascori: "geurea" erakustea. Hots, aldez aurretik definitutako euskaltasuna konfirmatu eta berrindartzeko erabiltzen dute euskal telebista. Horregatik,

Euskal Herriaz eta euskaltasunaz duten ideiarekin bat ez datozen edukien aurrean, jarrera kritikoa garatzen dute. Euskaltasuna eraikitzen ari direnen egoeratik, aitzitik, ez da hain erreza kanalaren bitartez jasotzen dituzten edukiek aldez aurretiko ideiekin talka egitea, eta hortik jarrera irekiagoa garatzen da Canal Vascoren aurrean: euskaltasunarekiko aurreiritziak malguagoak izanik, egungo euskal gizartearen ispilutzat hartzen dute Canal Vasco, eta bertatik jasotako materialez eraikitzen dute euskaltasunaren puzzlea.

Jarrera biak modu ezberdinetan banatuta aurkitu ditugu geure azterketan erabilitako laginaren herrialde bietan: Venezuelan eta Argentinan. Petrolioaren herrialdeko laginaren baitan nabarmenagoa izan da jagotearen jarrera; zilarraren herrialdekoarenean berriz jarrera eraikitzailea nagusitu da argiro. Laginak nola osatu diren kontuan hartuta (Venezuelan, gehienbat, euskal etxeen inguruan biltzen den jendearen artetik osatu da; Argentinan Canal Vascoren ikusleak izan dira oro har, batzuk euskal komunitateari lotuak eta beste batzuk batere harremanik gabeak), gehiegizko ausardia litzateke besterik gabe herrialde bakoitzeko diasporari jarrera bat edo bestea atxikitzea, nahiz eta bakoitzaren historiagatik ezaugarri ezberdinak garatu diren. Dakiguna da, lehen aipatutako ildoari jarraiki, euskaltasuna bizitzeko moduak anitzak direla, eta horren ondorioz anitzak dira ere Canal Vascoren erabilerak.

3. Beren euskaltasuna eraikitzen ari direnen artean, batzuek oso modu lausoan bizi izan dute beren arbasoen jatorriarekiko identifikazioa. Ikusi dugunez, norberak euskaltasunetik duena, zenbait kasutan, abizena edo etxean entzundako istorioa baino ez da, maiz beste jatorri batzuetako arbasoek utzitako abizen eta istorioekiko lehian gainera. Kasu hauetan, Canal Vascoren aurkikuntzak zerbait piztu du pertsona hauen jarreraren: interesa, erakargarritasuna, txikitatik gordetako oroimena, edota errealitate baten ezagutza. Aurrerago erabili dugun metafora berriro erabiliz, euskaltasuna hazi hutsa zen kasu hauetan eta, Canal Vascoren hezetasuna eta argitasuna jarri dituelarik, ernatzen hasi da. Jakina da ernatzen hasitako hazi guztiak ez direla landare sendo bihurtzen, eta hasierako eguzki izpi eta euri tantak ez direla nahikoak izaten kimu berriak elikatzeke; gero eta elikagai gehiago beharko ditu landareak biziko bada. Gure ikerketan behatu ahal izan dugunez, Canal Vascoren bitartez ernatutako hazi hauek hasiak dira bestelako interesguneak garatzen eta bestelako praktikak burutzen, euskaltasun

lauso hori eraikitze eta berrindartze aldera. Denbora eta kasuen azterketa diakronikoa beharko litzateke prozesu horren gorabeherak aztertzeko, jakina. Baina lehen urrats hori hor dagoela esan dezakegu, eta medio berri honen garrantzia zein aurrera begirako bilakaera posible batzuk erakusten dizkigu.

Era berean, Euskal Herriaren bestelako bizipen zuzenik ez dutenek, Canal Vascoren bitartez nolabaiteko esperientzia digitala burutzen dutela esan dugu. Komunitateekiko identifikazioak ez baitira taldea ordezkatzan dituen ikurrekiko identifikazio soilaren bitartez burutzen, euskaldunekiko identifikazioa ere ez da ikurrekiko atxikimenduren bidez soilik gauzaten. Diasporakoa izanik, Euskal Herriko euskaldunen artean izen enblematikoak (hots, ikurrak)baino ezagutzen ez dituenak, hezur eta haragizko pertsonak ezagutu beharra dauka, bere erreferentzia taldearen irudia modu egokiagoan osatu ahal izateko. Berdin gertatzen zaio leku fisikoaren bizipenari: Euskal Herria horman ezarritako mapa bat baino gehiago izan dadin, leku fisikoak ezagutu eta esperimentatu beharra dago, esanguratsu bihurtuko bada. Bidaia egiteko aukera duenak edota familia batekiko harremana duenak, baditu bideak Euskal Herri errearen bizipena burutzeko. Baina horretarako aukerarik ez duenak, Canal Vascon aurkitzen du, modu birtualean bada ere, esperientzia hori.

Esperientzia digital hau, ikusi dugunez, garrantzi handikoa da diasporako zenbait kiderentzat, eta zera erakusten digu: geure nortasunaren eraikuntzan, zein leku hartzen duten diskurtso abstraktu eta orokortzaileek, eta zein bizipen errealek. Euskal Herrian bizi garen euskaldunok aldi berean esperimentatzen ditugu komunitate erreala (harreman zuzenen bidez ezagutzen duguna) eta komunitate irudimenezkoa (bitartekarien bidez ezagutzen duguna), biek osatzen dutelarik gure euskal komunitatearen erreferentzia. Diasporan dauden egoera ezberdinek, ordea, esperientzia modu biak bananduta ikustea ahalbidetzen digute. Horrela, batzuentzat Euskal Herria bizipen konkretua da, pertsona jakin batzuekin aurrez aurre izandako harremanen gainean eraikia (normalean arbaso eta senideak izaki), diskurtso orokortzaileen eta bestelako bitartekarien presentziarik gabea. Horixe da, esaterako, arbaso euskaldunak izanik baina diskurtso nazionalistarik jaso gabe eta euskal komunitatearekin batera harremanik gabe bizi diren hainbaten kasua ("el País Vasco es la familia, España es otra cosa", zioen Jose Manuelek, honen adierazgarri). Beste batzuentzat aitzitik, komunitate irudimenezkoa da, aurrez aurreko harreman zuzenetan

oinarritu gabea. Zazpi herrialde dituen herri horrekin eta haren ikur-
rekin identifikatzen dira, baina ez dute herri horretako inoren eta
inongo lekuren bizipen zuzenik. Canal Vascoren erabilerak bi motatako
esperientzian izan dezake eragina. Lehenari, Euskal Herriaren inguru-
ko diskurtso orokortzaile eta sinbolikoa osatzea ahalbidetzen dio, eus-
kal komunitatea ordezkatzen duten ikurrak eta komunitate abstraktu
gisa irudikatzen duten diskurtsoak hedatzen dituen neurrian. Bi-
garrenari, aurrez aurreko harremanetan oinarritutako komunitatearen
lilura eskain diezaiotke, aipatu dugun esperientzia digitalaren bitartez.

4. Canal Vascoren erabileratik erator daitekeen beste aldaketa bat,
diasporan euskaltasuna berreraikitze materialen eskuragarritasunari
dagokio. Euskal diasporaren eta bestelako diaspora batzuen azterketa
historikoez erakusten dutenez, atzerriko komunitateak etengabe elika-
tu izan dira, migrazioek iraun duten bitartean, jatorriko herrialdetik
zetozen ideia, gertaera, berrikuntza eta aldaketek. Adibide gisa, guk
aztertu dugun komunitate zaharrena, argentinarra, halaxe joan da bila-
katzen etorkin berrien etorrerarekin batera. Horren ondorioz Euskal
Herrian gertatzen ziren eraldaketak eta jazoerak islatu egiten ziren
diasporan ere, euskal etxeen sorrerak edota diasporako euskal naziona-
lismoaren garapenak erakutsi diguten bezalaxe. Baina migrazioak eten-
da geratu zirenean, diasporako euskal komunitateen elikagaia ere mu-
rritzitu egin zen. Euskal etxeek beraiek zentzua aldatu zuten, bertan
praktika sinbolikoak nagusituz, eta diasporako kideak Euskal Herriaz
mintzatzen eta solasetan ari zirenean, iragana lekua irabazten zihoan,
ezinbestean, mintzagaien artean. Gaur egun, ordea, orokorrean globa-
lizazioak eta teknologiak eragindako aldaketen ondorioz eta zehazki
Canal Vascoren erabileraren bidez, diasporako euskaldunek Euskal
Herriaren oraina izan dezakete, eta euskal telebista ikusteko zoria du-
tenek badute beren solasaldietarako mintzagaia. Horrela, Euskal Herriaz
behin eta berriz itxuratzen duten iruditeria eta diskurtsoan, gaurkoak
lekua irabazten dio, berriz ere, iraganari. Jadanik euskaltasuna eraiki-
tzeko erabiltzen diren lehengaiak ez dira familian kontatutakoa, iku-
rra, edota “handik etorri dena” soilik; hauekin batera gero eta gehiago
agertzen dira, diasporako kezka eta elkarrizketetan, Euskal Herrian
bizi garenon kezka eta elkarrizketetan agertzen diren auzi eta gai ber-
berak, hangoek zein hemengoek, aldi berean, Teleberri berbera ikusi
dugulako. Diasporako kideentzat, hartara, Euskal Herria iragana da,
bai; baina oraina ere bada; eta batzuen kasuan (etortzea pentsatzen ari
direnen kasuan, esaterako), baita etorkizuna ere.

5. Egungo koiuntura politikoen ondorioz Espainiako zein tokian tokiko zenbait hedabidek Euskal Herriaz azpimarratzen dituzten irudi negatiboek zein diskurtsoek, kezka handia sortzen dute diasporako euskaldunen artean. Nolabait, beren nortasuna defendatzearen, irudi eta diskurtso negatiboek sor litzaketen estereotipoen aurrean euskaldunak defendatu beharra ikusten dute. Honetarako, berebiziko tresna aurkitzen dute Canal Vascon, irudi eta diskurtso horiei aurre egin ahal izateko materialak (informazioak eta argudioak) eskura jartzen dizkie-lako. Horrela, baliza diplomatikoa bezain baliagarri dute Canal Vasco, beren burua Euskal Herriaren enbaxadoretzat duten diasporako ki-deek. Zer esanik ez, honek biziki berrindartzen duela beren euskaltasuna. Hemen agertzen da lehenago aipatu dugun subjektuaren kokapenaren desplazamendua: Euskal Herria orainaldiari lotutako errealityatea den neurrian –eta eguneroko informazioa jarraitu ahal izateak horixe ahalbidetzen du– subjektua ere orainaldian kokatzen da, eta errealityate horretan parte hartzeko aukera ikusten du, iraganaren aurrean duen kokapenean ez bezala.

Estereotipo positiboak hedatzeko eta besteen aurrean euskaldun agertzeko ere euskarri garrantzitsua aurkitzen dute diasporako euskaldunek euskal telebistan. Aztertutako herrialdeetan, euskalduna ondo ikusitako pertsona izan da, euskaldunen iruditeriaren arabera bederen. Canal Vascok orain Euskal Herriaz ematen duen irudiak, hartara, estereotipo positibo berriak eraikitzen eta hedatzen laguntzen du. Euskal Herri “europarra”, aberatsa, bizimodu lasaia duena, solidarioa eta abar. Horiek dira diasporako euskaldun askok kanal honetan ikusten duten euskal gizartearen ezaugarriak, eta horrek lagundu egiten die, estereotipo positibo klasikoek bezalaxe, besteen aurrean euskaldun agertzen. Izan ere, gizarteko ospea duen nortasunaren jabe izatea garrantzi handikoa baita norberaren nortasunaren eraikuntzan.

Zentzu honetan, euskaldunen komunitate handiak jaso zituzten zenbait herrialdetan ostatu eta hotelek betetzen zituzten antzeko eginkizunak betetzen ditu, gaur egun, Canal Vascok. Ostatu eta hotelak, alde batetik, euskaldunen topaguneak ziren. Bertan elkartzen ziren tokian tokiko euskaldunak zein etorri berriak, eta hauei lehen babes afektibo zein, sarritan, materiala emateaz gain, hauen ekarpenen bidez diasporako euskal komunitatea Euskal Herriarekin egunean jartzeko eta “hangoaz” elikatzeko espazioak ere baziren. Kanpora begira, ostatu eta hotelak euskaldunak eta gainerako herritarrak elkartzeko guneak ere baziren. Leku irekiak izanik, besteek euskaldunen berri bazuten,

beren hizkuntza entzuteko aukera zuten, beren ohiturak ezagutzekoa, beren kirolak ikustekoa eta, jakina, beren gastronomia dastatzekoa.

Gaur egun, antzeko zenbait praktika ere burutzen ditu Canal Vascok. Esan dugun legez, diasporako euskaldunek euskal gizartearen berri gaurkotua izateko erabiltzen dute euskal telebista, bertan jasotakoak beren arteko solasaldietako lehengaiak direlarik. Kanal honetako esatariek, hartara, lehengo etorri berrien lekua hartu dute, etorkin berririk aspalditik jasotzen ez duten komunitateetan. Bestalde, kable edo satellite bidezko emanaldi irekien bitartez euskaldunen esku ez ezik gainerako herritarren esku izanik, herrialde horietan euskaldunen jendaurreko agerraldi garrantzitsua egiten du Canal Vascok. Bere izenaren aldaketa bera (hasieran ETBSat zena geroago Canal Vasco bihurtuz), lehenagoko ostatu eta hotelen euskal izenen eginkizunera (hots, euskaldunekiko identifikazio errazenera) jotzeko saio gisa ulertu behar dugu.

Ostatu eta hotelek burutzen zuten asistentzia lana, aldiz, bestela ulertu behar dugu gaur egun: hemendik harako jarioak iraultzen diren neurrian, handik honako jario bilakatuz, Canal Vasco Euskal Herrira etortzea pentsatzen ari direnentzako lagungarri izan daiteke: alderdi pragmatikotik begiratuta, Euskal Herriaren ezagutza eguneratua eta zenbait informazio praktikoko eskaintzen ditu (euskararen praktikatik egoera ekonomikoaren berriraino); nortasunaren alderditik begiratuta berriz, itsasoz gaineko jauzia egin ahal izateko lagungarria izango den euskal nortasuna trinkotzen laguntzen du. Gure lanean ikusi dugunez, erabilera hauek ere garrantzitsuak izan daitezke migrazio jario berri horiek sendotzen badira.

ITURRIAK

- ALBORNOZ, L. A. eta NASTRINI, G. (1998), "La expansión del cable en la televisión argentina", *Voces y cultura*, 14, 109-119.
- ALDAY, A. (1999), "Vasco-navarros en el Nuevo Mundo: Una identidad dual", in W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.): *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, Basque Studies Program, University of Nevada, Reno, 150-173.
- AMEZAGA, J. (1996), *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*, UPV/EHU, Leioa.
- (2001), "Biladi. Usos de la televisión por satélite entre los y las inmigrantes magrebíes en Bilbao", *ZER*, 10, 81-105. Helbide elektronikoa: <http://www.ehu.es/zer/>.
- ANDERSON, Benedict R. O. G. (1983), *Imagined communities : reflections on the origin and spread of nationalism*. London: Verso.
- ARAMBURU, Enrique, eta EZKERRO, Mikel (2003), *El euskera en la Argentina* Juan de Garay Fundación Vasco Argentina, 2003. Helbide elektronikoa: http://www.juandegaray.org.ar/fvajg/docs/El_euskera_en_la_Argentina.
- ASKOY, Asu, eta ROBINS, Kevin (2000), "Thinking across spaces: Transnational television from Turkey". *European Journal of Cultural Studies* 3 (3): 343-365.
- AUZA, Gonzalo (2002), "125 años del Centro Vasco Laurak Bat de Buenos Aires". *Euskonews & Media* (191). Helbide elektronikoa: <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0191zbk/kosmo19101es.html>.

- (2003), "El euskera en Argentina". *Euskonews & Media* (195).
Helbide elektronikoa:
<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0195zbnk/kosmo19501es.html>.
- AZCONA, Jose Manuel (1990), "Cultura vasca contemporánea en los Países del Cono Sur". In *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.). Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, Reno: 25-44.
- AZKUE, Jokin (1999), *La enseñanza del euskera en las Euskal Etxeak: descripción y retos de futuro*. Aurkezpena: Congreso Mundial de Colectividades Vascas.
- BAKER, Philip, eta EVERSLEY, John (arg.) (2000), *Multilingual capital: The languages of London's schoolchildren and their relevance to economic, social and educational policies*. London: Battlebridge Publications.
- BENJAMIN, Walter (1997), "El retorno del flâneur". In *Paseos por Berlin*, F. Hessel (arg.). Madrid: Tecnos: 215-219. Lehen argitarapena: 1929.
- BUSTAMANTE, Enrique (arg.) (2003), *Hacia un nuevo sistema mundial de comunicación. Las industrias culturales en la era digital*. Madrid: Gedisa.
- CALHOUN, Craig (1991), "Indirect Relationships and Imagined Communities: Large Scale Integration and the Transformation of Every Day Life". In *Social Theory for a Changing Society*, P. Bourdieu eta J. Coleman (arg.). Boulder, Colorado: Westview Press: 95-121.
- CASTELLS, Manuel (1997), *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2: El poder de la identidad*. Madrid: Alianza.
- CORCOSTEGUI, Lisa M. (1999), "Moving emblems: Basque dance and symbolic ethnicity". In *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.). Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, Reno: 249-273.
- DAVILA, Luis Ricard, (2002), *Fronteras confusas: impactos sociales de la migración*, Istmo, 2002.
Helbide elektronikoa:
<http://www.denison.edu/istmo/articulos/fronteras.html>.
- DEVOTO, Fernando J. (1996). "Poblar y civilizar: la inmigración europea en el pensamiento argentino". *Revista de Occidente* (186): 57-70.
- DOUGLASS, William, eta BILBAO, Jon (1986) *Amerikanuak. Los vascos en el Nuevo Mundo*. Lehen argitarapena 1975. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ERIKSON, Erik H. (1985), *Identidad. Juventud y crisis*. Lehen argitarapena 1968. Madrid: Taurus.
- EUROMOSAIC. EUROMOSAIC [web].
Helbide elektronikoa: <http://www.uoc.edu/euromosaic/index.html>.

- EUSKO JAURLARITZA (2002), *Euskara-eskolak munduan: euskararen irakaskuntza Europa eta Amerikan* [html]. Eusko Jaurlaritza, 2002.
Helbide elektronikoa:
http://www1.euskadi.net/kultura/noticias/index_e_44.htm.
- EZKERRO, Mikel (2000), *Centros Vascos en Argentina* Euskonews & Media, 2000.
Helbide elektronikoa:
<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0072zbk/gaia7208es.html>.
- FERNANDEZ, Idoia, Uribe-Etxebarria, Arantza, ZABALETA, Iñaki eta DAVILA, Paulf (1999), "El exilio vasco y la educación: el caso de Venezuela". In *El exilio pedagógico*, C. LOZANO (arg.). Barcelona: PPU: 159-186.
- GRIMES, Barbara F., (arg.) (1992), *Ethnologue: Languages of the World, 12th edition*. Dallas, Texas: Summer Institute of Linguistics.
- HABERMAS, Jürgen. (1989). *The structural transformation of the public sphere: an inquiry into a category of bourgeois society, Studies in contemporary German social thought*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- HARGREAVES, Alec G. eta MAHDJOUR, Dalia (1997), "Satellite Television Viewing among Ethnic Minorities in France". *European Journal of Communication* 12 (4): 459-477.
- HARGREAVES, Alec G. (1999), *Transnational broadcasting audiences: New diasporas for old?* Aurkezpena: Media in Multilingual and Multicultural Settings, Klagenfurt.
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICAS Y CENSOS DE ARGENTINA. *Censos de Población*.
Helbide elektronikoa: <http://www.indec.mecon.ar/>.
- IRAZUZTA, Ignacio (2001), *Argentina: una construcción ritual. Nación, identidad y clasificación simbólica en las sociedades contemporáneas*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- IRIANI, Marcelo. (1999), "El futuro de la "cultura vasca" en Argentina". In *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.). Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, Reno: 44-60.
- (2000), *"Hacer América". Los vascos en la pampa húmeda, Argentina (1840-1920)*. Leioa: Argitalpen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- IRIGOYEN, Alberto. (1999), "Los centros vascos del Uruguay". In *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.). Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, Reno: 78-93.

- IZTUETA, Paulo (2001) *Erbesteko euskal pentsamendua*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- JARAUTA, Francisco, (arg.) (1992), *Walter Benjamin: Denbora, Mintzaira, Metropolia*. Donostia: Arteleku.
- Kanpo Ekintzarako Idazkaritza, Eusko Jaurlaritza. *Euskaldunak munduan*. Helbide elektronikoa: http://www.euskadi.net/euskaldunak/indice_e.htm.
- KARIM, Karim H. (1998), *From Ethnic Media to Global Media: Transnational Communication Networks Among Diasporic Communities* Economic and Social Research Council, Oxford University, 1998. Helbide elektronikoa: <http://www.transcomm.ox.ac.uk>.
- (2002), *Diasporas and Their Communication Networks: Exploring the Broader Context of Transnational Narrowcasting* [html]. The Nautilus Insitute: Virtual diasporas and global problem solving project papers, 2002. Helbide elektronikoa: <http://www.nautilus.org/virtual-diasporas/paper/Karim.html>.
- LABRADOR, Virgil S., eta GALACE, Peter I. *Brief History of the Satellite Communications Industry* [html]. Sat News Online. Helbide elektronikoa: <http://www.satnews.com/satbook/chap1-genesis.html>.
- LAXALT, Robert. (2002), *Dulce tierra prometida. Un pastor vasco en el oeste americano*. Itzultzailea: David Río. Lehen argitarapena 1957 . Donostia: Tarttalo estudios.
- LETAMENDIA, Francisco. (1997), *Juego de espejos. Conflictos nacionales centro-periferia*. Madrid: Trotta.
- LINGUASPHERE OBSERVATORY. (1999), *Linguasphere Table of the World's Major Spoken languages 1999-2000* [webgunea]. 1999. Helbide elektronikoa: <http://www.linguasphere.org/>.
- LOPEZ ALONSO, Gerardo, eta REY LENNON, Federico (2001), "La comunicación en América Latina". *Chasqui. Revista Latinoamericana de Comunicación* (75). Helbide elektronikoa: <http://www.comunica.org/chasqui/alonsa75.htm>.
- LYNGSAT (2003), *Lyngsat* [webgunea]. 2003. Helbide elektronikoa: <http://www.lyngsat.com/>.
- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (1999), *Descripción de algunos datos de la base de "Centros Vascos - Euskal Etxeak"*. Aurkezpena: Congreso Mundial de Colectividades Vascas.
- MELAMED, Diego (2002), *Irse. Cómo y por qué los argentinos se están yendo del país*. Buenos Aires: Editorial Sudamericana.
- MELUCCI, Alberto. (1989), *Nomads of the present. Social movements and individual needs in contemporary society*. London: Hutchinson Radius.

- (2001), *Vivencia y convivencia: teoría social para una era de la información*. Itzultzailea: Jesus Casquette. Madrid: Trotta.
- MERCATOR MEDIA. *Information network of minority languages of the European Union* [web].
Helbide elektronikoa: <http://www.aber.ac.uk/~merwww/>.
- MEYROWITZ, Joshua (1985), *No sense of place. The impact of electronic media on social behavior*. New York: Oxford University Press.
- MILIKOWSKI, Marisca (2000), "Exploring a model of de-Ethnicization". *European Journal of Communication* 15 (4): 443-468.
- MUGUERZA, Felipe. (1999), "¿Qué es la Federación de Entidades Vasco Argentinas?". In *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.). Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, Reno: 61-77.
- MURU, Fernando. (1999), "Las colectividades vascas de Sudamérica: pasado, presente y futuro". In *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.). Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, Reno: 94-107.
- PEREZ-AGOTE, Alfonso, AZCONA, Jesus, eta Gurrutxaga, Ander (1997), *Mantener la identidad. Los vascos del Río Carabelas*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- QUIJADA, Monica (1992), "De Perón a Alberdi: Selectividad étnica y construcción nacional en la política migratoria argentina". *Revista de Indias* LII (195/196): 867-888.
- SAN SEBASTIAN, Koldo, eta AJURIA, Peru (1992), *El exilio vasco en Venezuela*. Gasteiz: Eusko jaurlaritzia.
- SATCO (2002), *SatcoDX Satellite Control Center* [website]. 2002. Helbide elektronikoa: <http://www.satcodx.com>.
- SCHLESINGER, Philip (1991), *Media, State and Nation*. London: SAGE.
- SCHMUCLER, Héctor, eta TERRERO, Patricia (1996), "Innovaciones tecnológicas y transformación de la televisión en Argentina". *Voces y culturas* (9): 53-76.
- SINCLAIR, John, JACKA, Elizabeth, eta CUNNINGHAM, Stuart (arg.) (1996), *New patterns in global television : peripheral vision*, Oxford University Press.
- TOTORICAGÜENA, Gloria. (1999), "Shrinking World, Expandig Diaspora: Globalization and Basque Diasporic Identity". In *The Basque Diaspora. Diáspora Vasca*, W. Douglass, C. Urza, L. White eta J. Zulaika (arg.). Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, Reno: 284-301.

- (2000), *Comparing the Basque Diaspora: Ethnonationalism, transnationalism and identity maintenance in Argentina, Australia, Belgium, Peru, the United States of America and Uruguay*, The London School of Economics and Political Science, London.
- UGALDE, Martin (1985), "Herriaren eta erbestearen arteko elkarriketa (1936-1984)". In *Euskal Herria, errealitate eta egitasmo*, J. Intxausti (arg.). Donostia: JAKIN: 449-463.
- VERTOVEC, Steven. (1999), "Conceiving and researching transnationalism". *Ethnic and Racial Studies* 22 (2): 447-462.
- ZAPIRAIN, Eriz. (1999), "ETB Ameriketara hedatuz". *Argia On Line*, 1999-1-10. Helbide elektronikoa: <http://www.argia.com>.

ERANSKINAK

Elkarrizketatuen soslaia

Herraldea	Elkarrizketa	Ezizena	Adina	Euskara	Gizaldia
Argentina	1	Nuria	53	ez	2
	2	Andoni	23	bai	4
	3	Patricia	66	zerbait	3
	4	Lucía	66	ez	2
	5	Gabriela	55	zerbait	3
	6T1	Carlos	75	ez	1
	6T2	Justina	35	ez	4
	6T3	Carla	16	ez	
	6T4	Celsa	71	ez	2
	6T5	Edelmiro	74	ez	2
	6T6	Humberto	40	ez	
	6T7	Lucas	62	ez	3
	6T8	Martina	83	ez	2
	6T9	Roberto	21	ez	
	6T10	Emilia	73	ez	2
	6T11	Inés	67	ez	2
	6T12	María Eva	41	ez	3
	6T13	Estrella	77	ez	2
	6T14	Gloria	12	ez	4
	6T15	Carmen	14	ez	
	7	Celsa	50	ez	3
	8	Marcos	39	ez	5
	9	Eva	37	ez	3
	10	María Jesús	59	ez	2
	11T1	Antonio	57	ez	3
	11T2	Carmina	52	ez	4
	11T3	Ricardo	57	ez	3

Herrialdea	Elkarrizketa	Ezizena	Adina	Euskara	Gizaldia
	12T1	Martin	71	ez	1
	12T2	M. Dolores	65	ez	1
	13T1	Marisol	35	ez	2
	13T2	Jorge	36	ez	3
	14T1	Jose Félix	77	ez	1
	14T2	Esther	24	bai	3
	15T1	Jon	56	ez	1
	15T2	Jesusa	88	bai	1
	16	Isabel	24	bai	4
	17	María	58	zerbait	4
	18T1	Silvia	76	ez	2
	18T2	Juliana	40	ez	4
	18T3	María	58	zerbait	4
	18T4	Ronaldo	71	ez	2
	18T5	Bertha	13	ez	4
	18T6	Ana	44	ez	2
	19T1	Ramón	38	ez	3
	19T2	Agueda	36	ez	
	X1	Juana		ez	
	X2	José Manuel		ez	
Venezuela	21	Patxi	67	bai	1
	22	Arturo	60	ez	1
	23	Nekane	42	zerbait	2
	24	Juan Angel	76	ez	1
	25T1	Jose Ramón	74	zerbait	1
	25T2	Alberto	76	bai	1
	26	Fernando	68	zerbait	1
	27T1	Miren	34	zerbait	2
	27T2	Asier	24	bai	1
	28	Jose Angel	66	zerbait	1
	29	Javier	31	zerbait	2

Herrialdea	Elkarrizketa	Ezizena	Adina	Euskara	Gizaldia
	30	Xabier	52	ez	1
	31	Jose Luis	33	zerbait	2
	32	Kepa	63	bai	1
	33	Iñaki	53	zerbait	2
	34	Txomin	72	bai	1
	35T1	Esti	50	bai	1
	35T2	Fermin	50	bai	1
	36	Agustin	56	ez	1

Oharrak:

- Elkarrizketen kodeketarako, kodearen lehenengo zenbakiak elkarrizketa adierazten du; T letrak, elkarrizketa bikote edo taldeari egin zaiola; bigarren zenbakia, bikote edo talde horretako kidea.
- Ezizenak eta lanean zehar agertzen diren abizenak asmatuak dira, benetako izenak isilean mantentzearren.
- Gizaldiei dagokienez, 1. gizalditzat Euskal Herrian jaiok hartu ditugu.
- Euskararen ezagutzari buruzko datuak erabat gutxi gorabeherakoak dira, eta inkestatuek beraiek emandako erantzunetan oinarritzen dira.

Canal Vascoren programazio parrilla

ASTEAN
12

ASTEAREN 18	ASTURAKA 19	ASTERATZUNA 20	OSTEGUNA 21	OSTIRAKA 22	LARUNBATA 23	IGANDIA 24
----------------	----------------	-------------------	----------------	----------------	-----------------	---------------

		2022ko MARTXOA Martxoak 18tik 24rako astea					
08:00	08:15	08:30	08:45	09:00	09:15	09:30	09:45
09:00	09:15	09:30	09:45	10:00	10:15	10:30	10:45
10:00	10:15	10:30	10:45	11:00	11:15	11:30	11:45
11:00	11:15	11:30	11:45	12:00	12:15	12:30	12:45
12:00	12:15	12:30	12:45	13:00	13:15	13:30	13:45
13:00	13:15	13:30	13:45	14:00	14:15	14:30	14:45
14:00	14:15	14:30	14:45	15:00	15:15	15:30	15:45
15:00	15:15	15:30	15:45	16:00	16:15	16:30	16:45
16:00	16:15	16:30	16:45	17:00	17:15	17:30	17:45
17:00	17:15	17:30	17:45	18:00	18:15	18:30	18:45
18:00	18:15	18:30	18:45	19:00	19:15	19:30	19:45
19:00	19:15	19:30	19:45	20:00	20:15	20:30	20:45
20:00	20:15	20:30	20:45	21:00	21:15	21:30	21:45
21:00	21:15	21:30	21:45	22:00	22:15	22:30	22:45
22:00	22:15	22:30	22:45	23:00	23:15	23:30	23:45
23:00	23:15	23:30	23:45	24:00	24:15	24:30	24:45
24:00	24:15	24:30	24:45	25:00	25:15	25:30	25:45
25:00	25:15	25:30	25:45	26:00	26:15	26:30	26:45
26:00	26:15	26:30	26:45	27:00	27:15	27:30	27:45
27:00	27:15	27:30	27:45	28:00	28:15	28:30	28:45
28:00	28:15	28:30	28:45	29:00	29:15	29:30	29:45
29:00	29:15	29:30	29:45	30:00	30:15	30:30	30:45
30:00	30:15	30:30	30:45	31:00	31:15	31:30	31:45
31:00	31:15	31:30	31:45	32:00	32:15	32:30	32:45
32:00	32:15	32:30	32:45	33:00	33:15	33:30	33:45
33:00	33:15	33:30	33:45	34:00	34:15	34:30	34:45
34:00	34:15	34:30	34:45	35:00	35:15	35:30	35:45
35:00	35:15	35:30	35:45	36:00	36:15	36:30	36:45
36:00	36:15	36:30	36:45	37:00	37:15	37:30	37:45
37:00	37:15	37:30	37:45	38:00	38:15	38:30	38:45
38:00	38:15	38:30	38:45	39:00	39:15	39:30	39:45
39:00	39:15	39:30	39:45	40:00	40:15	40:30	40:45
40:00	40:15	40:30	40:45	41:00	41:15	41:30	41:45
41:00	41:15	41:30	41:45	42:00	42:15	42:30	42:45
42:00	42:15	42:30	42:45	43:00	43:15	43:30	43:45
43:00	43:15	43:30	43:45	44:00	44:15	44:30	44:45
44:00	44:15	44:30	44:45	45:00	45:15	45:30	45:45
45:00	45:15	45:30	45:45	46:00	46:15	46:30	46:45
46:00	46:15	46:30	46:45	47:00	47:15	47:30	47:45
47:00	47:15	47:30	47:45	48:00	48:15	48:30	48:45
48:00	48:15	48:30	48:45	49:00	49:15	49:30	49:45
49:00	49:15	49:30	49:45	50:00	50:15	50:30	50:45
50:00	50:15	50:30	50:45	51:00	51:15	51:30	51:45
51:00	51:15	51:30	51:45	52:00	52:15	52:30	52:45
52:00	52:15	52:30	52:45	53:00	53:15	53:30	53:45
53:00	53:15	53:30	53:45	54:00	54:15	54:30	54:45
54:00	54:15	54:30	54:45	55:00	55:15	55:30	55:45
55:00	55:15	55:30	55:45	56:00	56:15	56:30	56:45
56:00	56:15	56:30	56:45	57:00	57:15	57:30	57:45
57:00	57:15	57:30	57:45	58:00	58:15	58:30	58:45
58:00	58:15	58:30	58:45	59:00	59:15	59:30	59:45
59:00	59:15	59:30	59:45	60:00	60:15	60:30	60:45
60:00	60:15	60:30	60:45	61:00	61:15	61:30	61:45
61:00	61:15	61:30	61:45	62:00	62:15	62:30	62:45
62:00	62:15	62:30	62:45	63:00	63:15	63:30	63:45
63:00	63:15	63:30	63:45	64:00	64:15	64:30	64:45
64:00	64:15	64:30	64:45	65:00	65:15	65:30	65:45
65:00	65:15	65:30	65:45	66:00	66:15	66:30	66:45
66:00	66:15	66:30	66:45	67:00	67:15	67:30	67:45
67:00	67:15	67:30	67:45	68:00	68:15	68:30	68:45
68:00	68:15	68:30	68:45	69:00	69:15	69:30	69:45
69:00	69:15	69:30	69:45	70:00	70:15	70:30	70:45
70:00	70:15	70:30	70:45	71:00	71:15	71:30	71:45
71:00	71:15	71:30	71:45	72:00	72:15	72:30	72:45
72:00	72:15	72:30	72:45	73:00	73:15	73:30	73:45
73:00	73:15	73:30	73:45	74:00	74:15	74:30	74:45
74:00	74:15	74:30	74:45	75:00	75:15	75:30	75:45
75:00	75:15	75:30	75:45	76:00	76:15	76:30	76:45
76:00	76:15	76:30	76:45	77:00	77:15	77:30	77:45
77:00	77:15	77:30	77:45	78:00	78:15	78:30	78:45
78:00	78:15	78:30	78:45	79:00	79:15	79:30	79:45
79:00	79:15	79:30	79:45	80:00	80:15	80:30	80:45
80:00	80:15	80:30	80:45	81:00	81:15	81:30	81:45
81:00	81:15	81:30	81:45	82:00	82:15	82:30	82:45
82:00	82:15	82:30	82:45	83:00	83:15	83:30	83:45
83:00	83:15	83:30	83:45	84:00	84:15	84:30	84:45
84:00	84:15	84:30	84:45	85:00	85:15	85:30	85:45
85:00	85:15	85:30	85:45	86:00	86:15	86:30	86:45
86:00	86:15	86:30	86:45	87:00	87:15	87:30	87:45
87:00	87:15	87:30	87:45	88:00	88:15	88:30	88:45
88:00	88:15	88:30	88:45	89:00	89:15	89:30	89:45
89:00	89:15	89:30	89:45	90:00	90:15	90:30	90:45
90:00	90:15	90:30	90:45	91:00	91:15	91:30	91:45
91:00	91:15	91:30	91:45	92:00	92:15	92:30	92:45
92:00	92:15	92:30	92:45	93:00	93:15	93:30	93:45
93:00	93:15	93:30	93:45	94:00	94:15	94:30	94:45
94:00	94:15	94:30	94:45	95:00	95:15	95:30	95:45
95:00	95:15	95:30	95:45	96:00	96:15	96:30	96:45
96:00	96:15	96:30	96:45	97:00	97:15	97:30	97:45
97:00	97:15	97:30	97:45	98:00	98:15	98:30	98:45
98:00	98:15	98:30	98:45	99:00	99:15	99:30	99:45
99:00	99:15	99:30	99:45	100:00	100:15	100:30	100:45

BILA

BILDUMA

1. Paulo Iztueta: *Euskal irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, 2000
2. Paulo Iztueta: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, 2000
3. Paulo Iztueta: *Erbesteko euskal pentsamendua*, 2001
4. Ander Iturriotz: *Boterea gizarte homerikoan*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Orixe saiogilea*, 2003
6. Paulo Iztueta: *Orixe auzitan*, 2003
7. Paulo Iztueta: *Orixe gaitzesia*, 2003
8. Txomin Peillen (koord.): *Euskaldun etorkinak Ameriketan*, 2003
9. Begoña Bilbao: *Curriculumua eta kultura Euskal Herrian*, 2003
10. Karmele Perez: *Curriculumua eta testuliburua Euskal Herrian*, 2004
11. Josu Amezaga: *Satelite bidezko nortasunak*, 2004